

**GIZA EZAGUTZARI
BURUZKO IKERKETA**

DAVID HUME

Giza ezagutzari
buruzko ikerketa



Jatorrizko izenburua:
An Enquiry concerning Human Understanding

Euskaratzailea: Xabier Amuriza
Berrikuslea: Alberto Gabikagogeaskoa
Hitzaurregia: Joxe Azurmendi

Lehen argitalpena: 1993ko ekainean

© Itzulpenarena: Xabier Amuriza
© Klasikoak, S.A. 1993
San Vicente, 8 • Albia, 1, Dpto. 9 • 48001 Bilbo
Tel.: 94 • 424 09 97 / Fax: 94 • 424 04 79

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Obra honen itzultzaileak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik laguntza bat jaso du eta argitalpen hau aipatu sailaren baimenaz egiten da.

ISBN: 84-88303-58-0
Lege-gordailua: BI. 1312-93

Fotokonposaketa: Ipar B. K. M.
Zurbarango Partikularra, 2-4 • 48007 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Ahaztua ezezik, baztertua egon da Hume urte askoan. Birreskurapena, ezin loriosagoa izan da gure mendean: B. Russellek Autobiografian «Hume gehi logika modernoa» bezala definitu du laburki bere filosofia propioa. Einsteinek bere inspiratzaile filosofiko nagusia Hume deklaratu du.

Harrigarriro David Hume filosofo eskoziarrak, 1711-1776, hogeita eta hiruzpalau edo urte ingururekin idatzi omen zuen bere obra filosofiko gailena *A Treatise of Human Nature* (Giza Naturaz Traktatua), 1739an anonimoki argitara emana, autoreak hogeita bederatzi urte zuela. Traktatua hiru liburuk osatzen duen saio konplexu eta luzea da: I.- Adimenaz, II.- Pasionen (Sentimentuez), III.- Moralaz. Argitalpenak izandako oihartzun sozial eskasarekin desengainatuta, frakasua bere inespientzia literarioagatik izango zuelakoan, Humek idazlana goitik behera dena birregin zuen esplikazio tolesgabeagotan erraztu asmoz, 1740an, anonimoki berriro, *An Abstract of Treatise of Human Nature* argitaratuz (Giza Naturaz Traktatuaren Abstract bat), hots, laburpen eta gida-testu lagungarri bat irakurketarako; eta are Traktatuaren Lehen Liburuko testua (Ezagutzaren Teoria) osoki birmoldatuz eta planteamendua ere funtsezko nukleora soilduz, berriro 1748an, «Philosophical

Essays concerning the Human Understanding», hamar urte geroago forma eta titulu definitiboak aurkituko zituen, oraingoak alegia, *An Enquiry concerning Human Understanding* (Giza Ezagutzari buruzko Ikerketa), irakurleak eskuartearen duen haxe. Dena alferrik. Hume bere bizialdian arrakasta askoz handiagoa izango zuen bere idazkintzako beste barruti batzuetan, Ingalaterrako Historiaren egile gisa adibidez, edo bere saio oraindik egun ere txit gustagarriekin erlijioaz, moralaz eta politikaz. Halere Humeren filosofia guztia haren ezagutzaren teoriarabakitzaren da - eskuetan duzun eztabaida honetantxe hain zuzen - eta hari bakarrik begiratuko dio hitzaurre honek. Sinestuta benetan pentsamenduaren eta zientziaren ikusmolde arras berri original bat bazuela («*a new scene of thought*»), tema bizienaz tematu da garaikideei bere kontzeptua ezagutzera ematen eta hura filosofiako arlo desberdinetan garatzen.

Humeren obra oso kritikoa da, ulertzen bada, ia batera kritikoa izan beharrik gabe forman. Eta egia da, ia berrehun urtean ez dela ulertu, edo gaizki ulertu izan dela, salbu gutxitxo batzuk. Baina erakunde ofizialek aurreneko egunetik igarri diote haren pentsamenduak ezkutatzaren zuen arriskuari. Eliza zibil eta erlijiosoetan ohizkoaren arras bestelako pentsamendua da, beste gabe. Hume, ikusiko du irakurleak, ez da agresi-boa. Tenperamentu mazala, adiskidetsua, etsaitasuna sentitze-ko ezgauza, aitortu du berak bere burua eta halaxe deskribatu dute bere lagunek ere *le bon David*. Dagoenaren beti egoten den fanatikoak, ordea, ordenuaren zaintzaileak, pentsamenduaren ertzainak batez ere, derrefente usnaten du nondik datorren mehatxua, eta Humeren historia literaria horrela eskandaloz josita egon da. Lehenengo argitalpenetik hasita, bizitza osoan jazarri dute panfleto anonimoek eta iraintzaileek. Bere menpegabezia politikoak alderdi guztietan piztu dizkio etsaiak. Baita lagunak eta miresleak ere. Guztiz ere Ilustratu frantsesen mi-respena (Montesquieuk deskubritu zien Hume frantsesei) eta

eskoziarren adiskidetasun leiala bezala, Eliza santu guztien ezinikusi amorratuena, filosofiak irabazi dio. Bi kandidaturatan Unibertsitateak ez du irakasle hartu nahi izan, batean berak eta bestean lagunek aurkeztua. 1756an Eskoziako Elizaren eskomuniotik salbatu ahal izan da, Asanbladak bozketan gehien-gez bere burua ezgai aitortu zuelako haren idazkiak epaitzeko. Handik bost urtera Eliza Katolikoak zalantza gutxiago izan du, liburu debekatuen Indexean sartzeko haren obra guztiak. Okerrena izan da, konbertitu eta Elizako laguntasunak hartu nahi gabe patxadan gozo-gozo hil denean, sinesgabe batek zilegi ez duen bezala hiltzea, bere lagunek zortzi gau eta egunetan haren hilobia jagon behar izan baitute, haren gorpua eliztar asaldatuek ez profanatzeko.

David Hume Edinburghen jaio zen eta hamaika urterekin logika, erretorika eta matematikako ikasketak hasi zituen *College* batean bertoko Unibertsitatean, lanbidez Legeetara dedikatzeko xedearekin, familia aldetik tradizioa zuen eran. Baina, geroago berak aitortu duenez, estudiantea urte horietan egiaz interesatu duena «filosofia naturala» izan da, orduantxe argitutako Newtonen sistema berri-berriaren arabera irakatsia (Cambridgen ondoren, Newtonek bertan irakatsi baitu, Edinburgh izan zen irakaskuntz programan haren sistema onartu zuen aurreneko Unibertsitatea). Legeek ere asper-aspertu egiten bide zuten mutikoa eta, harengandik jurista gotor bat itxaroten zen artean, bera pasionatuki Zizeron eta Virgilio estudiantzen ari zen ezkutuka. Ikasle txarra esan ohi den tipiko bat, beraz. Irakurzale amorratua, Moderniaren lehen zikloko filosofo handi gehienak irentsi egin ei zituen: Bacon, Descartes, Malebranche, Locke; Bayle eta eszeptizismoaren maisu klasikoa orobat; eta literatura ingeles berriena, Milton, Pope, Shaftesbury eta Swift. Halako intentsitateak depresio baten amilbururaino estutu zuen ordea. Eskola utzi egin behar izan zuen.

Humeren kokapena tradizio filosofikoan

Denboralditxo bat egin ondoren Bristolen komertzio batean enplegatuta, biziera aldatzearen osasunagatik, barruak ez zion bakerik ematen, eta atzera bere gogoetetara erretiratzea deliberatu zuen. Badirudi bere filosofiaren ideia edo inspirazioa hamazortzigarren urte aldera bazuela jada funtsean eta harrez geroan, harik eta borobildu zuen arte, ezin zuela sosegurik aurkitu. Utzi bertan lana eta Ingalaterra, eta inguruz arras aldatzeko, Frantziarako untziratu zen, aurrenik Reimsen eta gero La Flèche egoiliartzeko urtetxo batzuk (1734-1737).

La Flèche, Descartesen ikastetxea da hori: apropos halaxe nahitakoa balitz bezala, filosofia razionalista modernoak sorrera izan duen tokian bertan idatz zedila haren akabera deklarazioa. Egiaz Humek filosofia modernoaren ziklo kartesianoa itxi eta, Kanten bidez alde batetik, Rousseauarekin bestetik, bigarren ziklo handia ireki du, hori ere guk apurtuta heredatu duguna oraingo Moderniaren krisi orokorrean. Hain zuzen krisi honexek bizkortu du interesa gure egunotan atzera Humerengana itzultzeko iturriko ur berri bila.

Humeren pentsamendua filosofiaren historian hiru erro bortitzetatik esan daiteke hazi dela, nolabait horregatixe ikus bait daiteke hura Ernazimentuaz gerozko tradizio modernoaren sintesi bezala eta uko bezala une berean:

— Aurrenik XVII. mendeko razionalismo metafisiko handia legoke: Hobbes, Descartes, Spinoza, Leibniz, Malebranche. Guztiok, egia oinarrizko eta oinarrigile batetik abiatu («Cogito ergo sum»), edo axioma batetik, definizio batetik (Sustantziaren kontzeptua: Spinoza), eta deduktiboki dihardute beren metodoan, ezagutza ziurrezko sistema batean, gizonari jakin ahal izatea eman zaion oro, bilbatzeko. Autoreon arabera mundu fisikoaren ezagutza bezalaxe mundu moralarena ere

matematikoki finkatu ahal usteko da (errealitate fisikoaren matematizazioa, zero-lurrentzat zientzia bakarrean, Galileiren proiektua izan da; Estatuarena eta Zuzenbidearena adibidez, Hobbesen kasua da; baina unibertso fisiko zein moral osoaren matematizagarritasunaren prototipo miresgarriena Spinoza da seguruenik) eta, denek ez bada gehienek, Eukliden antzeko ihardupide batekin ziurtasun osoz demostra litekeela, irakatsiko dute, Jainkoaren existentzia eta natura, arimaren existentzia eta natura, eta metodo berdinarekin argi litekeela orobat (inolak beste metodorekin ezingo omen litzatekeena) zein den unibertso enpirikoaren natura esentziala ere, profotfisika baten gisako oinarripen metafisikoa razionalki huts-hutsik hedatuz (Metafisikak oinarritzen ditu planteamendu honetan, ez epistemikoki soil, baina errealki, naturaren zientziak). Ezagunak dira adibide populartu batzuk: Efektuan dagoen adina errealitate egon beharra dago kausan; Izaki guztiz beteginaren nire ideiarene kausak, betegintasuna eduki beharra dauka; badago beraz izaki guztiz betegin bat, Jainkoa (Descartes: Jainkoaren existentzia probatzeko bidea). Edo alderantziz, Jainkoagandik mundura: Jainkoa ahalguztiduna da, guztiz ona da, hortaz mundu hau pentsa litekeen eta izan litekeen hoberena da; beraz, mundu honen mekanika matematikoki posible den egokiena da, etab.(Leibniz). Metodo honen eredutzat Descartes jotzen da. Funtsean, metodo (deduktibo) honekin jakiteko dena ziurtasun osoz jakin litekeela eta metodo honekin izan ezik dakigun ezertan ziurtasunik ez dugula, suposatzen du razionalismo deduktibo honek. Hau da Humek suntsitu nahiko duena.

— Humeri xede (antimetafisiko) honetarako bultzada eta inspirazioa eman diona, bigarren erroa, razionalismo enpirista britaniarraren tradizioa izan da: Humeren pentsamendua jatorri historiko arrunt aipatuena berau da noski, ohiturazkoa ere bilakatua baitago gure auletan, errazkeriaz edo umorez, bekoz beko razionalismo kontinentala versus enpiris-

mo ingelesa klasifikatuz (ur gazi piska baten tarteak berezten omen dituen bi filosofia horiek), «Irletako Hirutasunaz» mintzatzea, Locke, Berkeley eta Hume, azken hau eskola baten gailurra eta koroa bezala kokatuz zentzu honetan eta beste haien bizkarretan sostengatuta egonez hortaz. Ez du ematen guztiz injustifikatua, Humek berak aitortu duenez gero bere burua horien jarraikoa eta, influentzien espektroa gehiago zabalduz halere, baita Shaftesbury, Hutcheson (neuk biona gus-tora azpimarratuko nukeela), Mandeville eta Joseph Butlerrena ere, hots, razionalismoaren tradizio britaniar desigualarena orohar. Injustifikatuagoa testuinguru honetan, enpirismoa eta razionalismoa kontra-jartzeko ohitura txarrak ematen du, biak oso razionalistak izanda (eta biak, moderno guztiak bezala, esperimentuaren beharraz konbentzituak halaber zientzian, beste topiko batek errepikatzen digunaren aurka), gero, hori bai, beren ihardueran bat metodo enpirikoaz eta bestea deduktiboaz baliatu arren.

Tradizio britaniarrean jarraituz, Humeren razionalismoa eta haren, nolabait esan, razionalismoaren likidazioa ulertzeko, Sir Isaac Newtonen influentzia gogoratu behar da azkenik, hau da, norma metodiko gisa ezagutzaren hastapena beti esperientzian eta behaketan eduki beharra eta azkenburua orobat esperientziazkoaren barrura mugatua. Esperientziaz haraindiko hipotesiak, haizekeriak eta kimerak dira: «esperientzia baino haratago ezin gara iritsi», idatzi du Humek Traktatuaren Sarre-ran, «fenomenismoa» programa legez onartuz beraz. Esentziak eta, esperientziaz gaindiko errealitate posibleak (Jainkoa, etab.), ez dira zientzian sartzen. «Aristotelikoek - abisatzen zuen 31. *Query*-an Newtonek - kualitate ezkutuak deritze gorputzen barnean gordeta daudela eta ageriko fenomenoaren kausa ezezagunak direla suposatzen dituzten batzuei. Halakoak izango lirake grabitatearen, erakarpen magnetiko eta elektrikoan, eta hartziduren kausak, baldin behintzat irudikatzen badugu

indarrok eta egintzok, ezin atzeman eta erakutsi ahal ditugun kualitate guretzat ezezagun batzuek sortarazten dituztela (...). Baina gauzetarik espezie bakoitza bere kualitate espezifikoko ezkutuez hornitua dagoela eta horien bitartez iharduten duela eta eragiten dituela bere efektu determinatuak, horrelakorik defendatzea alegia eta ezertxo ere ez esatea, berdin-berdin da. Aldiz naturako fenomenoetatik ilki mugimenduaren bizpahiru printzipio orokor, eta gero azaldu printzipio nabari hauetatik gauza gorputzun guztien kualitateak eta ekintzak oro nola eratortzen diren, hori bai, sekulako aurrerakada izango litzateke filosofian [zientzian], nahiz oraindik ez izan guk ezagunak printzipioon kausak». Grabitateak ez duela propioki fenomenoaren kausa adierazten, ezpada fenomenoaren deskribapena soil beren arauzkotasunaren adieran, hau da, ezagutza zientifikokoaren interesa fenomeno enpiriko hutsetara mugatu izana (egia esan, Newtonen obran zalantzagarrizko dagoena), hori da Humek fisiko handiari gehien eskertzen diona. Erabakiorra Humerentzat, «*plus newtonien que Newton*» beharbada jasa honetan (Y. Michaud).

Bi korranteon zerikusia lotzeko: bi-bion funtsezko razionalismoaren barruan, «razionalismoa» eta enpirismoa alegia eta Hume bion konfluentzian, non dago bien artean halere diferentzia? Filosofo guztiontzat ezagutzaren, eta beren gogoe-ta filosofikoaren, hasieran, ez dago sano-sano gauzak, hor aurrean munduan objektuak beren egia propioekin edo esentziekin adimenak ispilatzeke (grekoak usteko zuena), baizik haien ideiak ispiluan, hau da, subjektuaren edo ezagutzailearen barnean. Guk gauzetaz, gure buruan dauden moduan baino ez dugu hitzegiten eta eztabaidatzen. Analisatzen hasi eta guk ikusten duguna, analisa dezakeguna, munduaren gure ideia da, ez mundua. Gure natura ispilu bat da, esango du Leibnizek, eta guk ispilua bakarrik ikusten dugu. Abiapuntua, bada, ez da hartuko jada naiboki objektu/gauzetatik, baina subjektu kues-

tionatu batetik, konstrukzioaren elementu eta baldintzetatik, ideien kondizioetatik. Ideien kontsiderazio modua, ordea, franko diferentea da eredu deduktibistan eta enpiristan. Labur esateko: kartesianismoan ideien balioa beren ezaugarri formal edo nota logikoen arabera juzkatzen da (matematikoak figura geometriko bat ikusten dizun bezalaxe), ideia bakun eta *per se* ebidenteak eraikuntza (dedukzio) teorikoaren oinarri eta jatorrizko elementu sendotzat hartuz; enpirismoak, alderantziz, formaz eta ziurtasunaz baino agian kezkatuago edukinaz, ideiarene kontsiderazioan bertan, abiapuntu puntuan, engoitik esperientzia pribilegiatzen du, ideiarene balioa hari dagokion «inpresioan», genesian bilatzen du eta. Ideia edo ezagutza ororen iturria «inpresio»etan badago, zentzuetan dago, orduan esperientzian dago. Humeren borroka «razionalismo»ari eta metafisikari tradizioaren logika osoan dago.

Guzti honek merezi du ohartxo bat gehiago, berriro gogoko hari bati helduz. Ezagutzaren posibilitateen ikerketa, filosofia modernoan, subjektuaren posibilitateen ikerketa da, esan bezala. Mundua ezagutzea gauza bat da, sagarrak nola erortzen diren eta. Nola ezagutzen ditugu ongia eta gaizkia, edo ederra eta itsusia bezalako gaiak? Tradizio kartesianoan itaun zailak dira horiek, etika bat *more geometrico* asmatzeak problema asko jo du (Descartesek berak erosoago ikusi du moral probisional ez oso geometriko batekin kontentatzea), estetikak ia ez du garapenik izan, eta historiak ia imposible dirudi. Galdera horiek, tradizio locketarrean, hasteko, nola ezagutu litezketik nola hauteman litezkera, etortzen dira, justifikatu nahi direnean, hots, kontzeptutik pertzepziora. Gero pertzepziotik ideia nola loratzen den, etab., ikusiko da. Ikerketa honetan beraz, filosofia ingelesean (moralean eta estetikan bereziki) garapen polit bat egon da, batzuetan «sentimentala» deritzona, arrazoimenaren ondoan sentimentua ere hartu duelako ezagupen iturri zilegizkotzat hein batean, gutxienez «animalia arra-

zoidun» definitu ohi denaren gizatasuneko osagarri baitezpadakotzat ezagupidean ere. (Barneko eta kanpoko zentzuak, pertzepzioak, berezten zituen Lockek). Humeek, Kemp Smithek seinatu duen legez, sentimentua esparru etiko eta estetikora mugatu gabe, errealtate enpiriko ororen gure ezagutzara hedatu du, bereziki lotura kausalaren oinarripenera. Sentimentu honek bistan da bere eskubideak altxa ditzakeela (gizatasunaren izenean) arrazoimenaren aurka. Eta orduan bide bat bion oposizioa gogortzea izan litekeen eran, arrazoimenaren kontzeptu matematiko zurrunezi hori biguntzea eta zabaltzea izango da bestea. Edonola ere arrazoimenaren kontzeptua jokoan dago, dena auzitan jarri behar omen zuena nolabait bera auzipean. Honekin Humeren filosofiaren hirugarren erroa aipa genezake.

- Eskeptizismoa da hori eta ez du behar orain hartan luzatzea: irakurleak liburutxo honetan bertan gogoeta deliziosoak aurkituko ditu. Baina Humeren aro-inguru horretan balio diferenteak izan ditu eskeptizismoak. Erdi Aroaren itzaltzeak eta Aristoteleren krisiak eskeptizismo bidezko bat eragin badu, erlijio gerrek ez dute gutxiago eragin: bakarrik, konfesioen arteko kontrobersietan, eta deisten eta teisten artekoetan gero, humanisten eskeptizismoa, R. H. Popkinek hala ohartarazi digu, erraz bilakatu izan da dogmatismoaren aliatua, arrazoimenaren ahultasunak errebelazioaren edo eliz autoritatearen laguntza eskatzen omen duelako. Alderantziz, Descartesengandik hasita, teologoek maite adina izango dute filosofo razionalistek herra eszeptizismoa. Descartesengan badago eszeptizismo puntu famatu bat, metodikoa, nolabait tragikoa, derrigor gainditu beharrezkoa arrazoimena salbatzeko. Descartesek ez du ezer ziurtasuna baino gehiago antsiatzen. Bestela ez da sentitzen gizakia. Konfesio eta zalantza guztien gainetik ziurtasun absolutua behar du bakea edukitzeko. Horrela bihurtzen da, itzulbiran, filosofo razionalista superkritikoa teologo zaharren aliatua. Badago beste tradizio bat ere, batez ere Fran-

tzian, Ernazimentuak birreskuraturiko Sexto Enpirikoren tes-
tuak irakurketa arretatsua merezi izan diona, kontrobersia kon-
fesionaletatik adina anbizio kartesianoetatik urrun (baina mo-
derno, eta razionalista beraz, beste razionalismo batekin)
eskeptizismoaren linea autonomo samar bat marraztuz joan
dena Montaignegandik Baylegana, azken hauxe izan baita Hu-
meren autore kuttunenetako bat. Hume «zientzia eszeptiko»
bat proposatzen du. Haren eszeptizismoa, «Akademitarra»
(Akademia Platoniko Erditarraren tankerakoa esanahi da), ez
da angustiazkoa, tragikoa. Irribarrezko alaia da, gizakian kon-
fidantzaz betea eta positiboki gaintezinezkoa, hain zuzen giza-
tasuna salbatzeko, zientzia bera humanoa izan dadin beti: «*Be
a philosopher; but, amidst all your philosophy, be still a
man*», hau da, izan hadi filosofo, baina izan hadi gizona beti.
Eskeptizismo honek bestelako ezten bat erakutsiko du, ezpai
gabe, Hume erlijioari buruz gogoeta zorrotzean diharduenean
(«Erljioaren Historia Naturala», 1757; aldiz «Erljio Natura-
laz Dialogoak» hilondoko argitara ziren): baina gaur hemen
haren ezagutzaren teoria da interesatzen zaiguna.

«Traktatua»ren eta «Ikerketa»ren sorrera

Descartes *Metodoaren Diskurtsoa* 1637koa da; Hume-
ren *Traktatua* 1739koa. Ehun urte bien artean.

Descartes lantuak filosofiaren kinka negargarriaz kla-
sikoak bilakatu dira: filosofiaren historian kasko argienek ez-
tabaidatu ez duten, baina eztabaidatuz jarraitzen ez duten, be-
raz behin eta beti zalantzarria ez den, arazorik ez dagoela
bakar bat, etab. (DM, I). Filosofia kaos handiaren erresuma da.
Eta filosofoakitsu baten antzekoak, kobazulo arras ilun batera
sarrarazten bide duena ikustuna, harekin borroka kondizio ber-
dinetan egiteko: berakitsuak, filosofoak, eta ikustunen itsua-
razleak beren arrazoi molde aldrebesekin. Filosofoen borroka-

zulo honetan Descartese bere metodoarekin leiho bat ireki
nahi omen du eta egun-argi piska bat piztu (Ib., VI). Finean,
metodo berriaren lehenengo eskakizuna da, utzi filosofoak eta
filosofiak, eta behin deliberatuki deliberatu beharra daukadala
nire biziarte «*de me défaire de toutes les opinions que
j'avais reçues jusques alors en ma créance, et commencer tout
de nouveau dès les fondements*» (MM, I). Fundamentu erradi-
kal hori, ez liburuak, arrazoimena izango da, «*sa propre rai-
son*» (RV) alegia edozeinentzat eta guztientzat. Dena hasiera-
tik hasi beharra dago berriro: arrazoimenetik. Gainerakoa
(«*cogito*», etab.) ezaguna da.

Ehun urte geroago, bitartean kartesianismoak bide han-
dia egin du, sekulako garapenak garatu izan ditu, sistema me-
tafisiko razionalista orohartzaile izugarriak bata bestearen on-
doan edo ondoren eraiki ditu harro, eta ugaritasun horrexen
zamaren azpian zapartarazita bezala, filosofian dena apurtuta
dago berriro eta ostera dena eztabaidan: «*There is nothing
which is not the subject of debate, and in which men of learn-
ing are not of contrary opinions*», honelaxe adiak hasi da
idazten Traktatua filosofo eskoziar gaztea La Flêcheko erreti-
roan. «*The most trivial question escapes not our controversy,
and in the most momentous we are not able to give any certain
decision. Disputes are multiplied, as if every thing was uncer-
tain...*»

Funtsean txit sinplea da, baina txit gogoan hartu gabe
horregatik ez da utzi behar, Descartes Ernazimentua ezagua-
razten duen tradizio eta klasikozaletasunaren frakasu batetik
eta haren aurka hasi bada, Hume bere aldetik hasi dela, hain
zuzen, XVII. mendeko razionalismoaren frakasuaren kon-
tzientziatik eta, neurri batean, frakasu hori definitiboki berak
eragiteko. Hasteko, razionalismoak ez du lortu denak ez dezala
jarrai zalantzan eta eztabaidan. Are okerrago, gainera, orain
gera horiek irabazten dituztenak, danborreroak eta tronpeteroak

omen dira, ez lantzadunak eta ezpatadunak; hau da, arrazoime-
na asko aipatu bai, egiten da, baina «*amidst all this bustle 'tis
not reason, which carries the prize, but eloquence*» (Intr.). Eta
bigarren, kamuflaturik, baina «razionalismoa» fanatismoaren
gotorleku bihurtuta ikusten zuen Humek. *Status quo* moral, er-
lijioso eta intelektual ezarri alferraren eta botere bere buruaz
putzaren tresna, Newtonen autoritateaz baliatuz askotan. Izan
ere, J. Noxonek ederki erakutsi du, Newtonen arrakastaz gero
laster autore mordoa ahalegindu da «zientzia newtonianoa
hustiratzen Jainkoaren ohorerako eta gizadiaren eraikuntza
moralerako», hau da, erlijio naturalaren eta moralaren sistema
zientifiko eta razionalista matematikoak apailatzen (R. Ben-
tley, S. Clarke, etab.). Axioma batzuetatik hasi eta, zer den on-
gia, gaizkia, eta zer behar duzun sinestu, dena matematikoki
probatzen zizuten. Humek razionalismoz jantzitako dogmatis-
moa eta intolerantzia erlijiosoa somatzen zuen hor kukubilko
moxorro. Humeren planteamendu filosofiko guztiaren helburu
nabarmen bat, ordea, agnostizismo positiboari euskarri bat pa-
ratzea izan da eta superstizio erlijiosoa eta fanatismoa razio-
nalki betiko birrintzea (A. Flew). Dogmatismo eta fanatismoaren
borrokaren atal bat, metodologikoa, egitarau deduktibistaren
arbuioa da. Beste horien jokabide apriorizko razionalista (No-
xonek ohartarazi bezala, Newtonen *Principia*-n orientatuagoa
eta zinez Descartesen erakoagoa, obra nagusiki sintetikoa bait
da hura, ezen ez analisi induktibozko *Opticks*-ean) Humek al-
derantz egin nahi izan du eta Newton bere fronte enpiristara
ekarri. Eztabaida etikoetan dakusgu hori garbi, berak adieraz-
ten bait du halaxe adibidez in *Enquiry concerning the Princi-
ples of Morals* (Humek berak *Autobiografia*-n «konparazio
gabe nire idazki hoberena» epaitua): hauek, esaten du, ez dira
matematikako arazoak, zientzia abstraktukoak, baizik «*a ques-
tion of fact*» eta, beraz, «*we can only expect success, by folow-
ing the experimental method, and deducing general maxims
from a comparison of particular instances*». Bestea, printzipio

abstraktu orokor bat goian ezarri eta handik behera jaulkitzea
xuxen-xuxen ondorioak eta inferentziak, izan liteke berez eta
teorian metodo hobea, haatik ez du giza eskasia naturalaren
aski kontu egiten, de facto ez da irteten baliozkoa, «*and is a
common source of illusion and mistake in this as well as in other
subjects*». Filosofia naturalean honez gero sendatuak omen
dira gizonak (Newtonekin alegia) «hipotesietarako pasio»
behialakotik: «*It is full time, lehiatzen zaigu hemen, they should
attempt a like reformation in all moral disquisitions; and re-
ject every system of ethics, however subtle or ingenious, which
is not founded on fact and observation*». Alabaina «izatezko
zerak» —*questions* edo *matters of fact*— munduan ez dira eti-
koak bakarrik (moralak, sozialak, Zuzenbidezkoak, politikoak):
esistentziaren eremuko zernahiren arazoa izango da hori, mo-
rala izan zein fisikoa, hau da, errealtate ez ideal hutseko edo-
zerena, haren ezagutza oinarritu edo justifikatu nahi duzun or-
duko.

Momentu diferentea da, beraz, pentsamenduan, Descar-
tesengandik. Arrazoimena inbokatuz edo proklamatzu berriro
hasterik ez dago. Alegia, arrazoimenaren kontzeptu klasikoa-
rekin ez dago mundua oinarritzen berriro hasterik: horrek fra-
kasatu du, arrazoimen oinarritatzailearen zikloa hertsu da.

Zer egin orain? (Hau izango da Traktatuko eta Ikerketa-
ko gaia). Humeren arabera bi tipotako egiak (ezagutzak) dau-
de, bi tipotako zientziak hortaz eta tipo bakoitzean hainbat di-
ziplina ezberdin gero: baina zientzietako tipo eta adar guztiok,
egiaren edozein mota diferentek, badu kasu guztietan zerbait
edonoizko eta edozeinekiko berdina, eta da bere gizakiarekiko
lotura, menpetasuna. Zientzien adar askotako arbolaren sustrai
bakarra.

Egia (zientzia) gizakiaren eraikuntza bat da, gizakiak
egiten du: zein kondiziotan? Zein materialekin?... Honelako

galdera zerrendaren buruan hauxe joko bait dugu: Zer da giza-ki hori eta nola dihardu ezagupidean? «Ebidentea da, irakurtzen da Traktatuko Sarreran, zientziak, gehiago ala gutxiago, denak harremantzen direla giza naturarekin, eta batzuk haren-gandik oso urrun garatzen direla ematen badu ere, bide batetik ala bestetik azkenean harengana itzultzen direla. Matematikak berak, Filosofia Naturala [Fisika] eta erlijio naturala, nondiere-bait GIZATASUNAREN ZIENTZIATIK daude menpe, giza-kion ulermoldearen azpian daudenez gero eta horien ahalmenen eta fakultateen arabera ebatziak direnez gero. Aurrean ezinez-koa da zer aldakuntza eta aurrerapen egin ahal izango genituz-keen zientzietan, giza adimenaren ahalmenak eta helmenak osoki ezagutu ahal izango bagenu, eta erabili ohi ditugun ideien natura, argudiatzerakoan egiten ditugun operazioena be-zala, esplikatu ahal izango bagenu» (*Intr.*, XIX). Hau izango da fundamentu edo oinarri berria, *philosophia prima* berria: Giza-tasunaren Zientzia. «Hemen dago, bada, gure ikerketa filosofi-koetan atarramenik izango dugula fidatu ahal izateko espedien-te bakarra, orain arte ibili dugun bide aspergarri mantsoa utzita. Noizean behin mugaldean gaztelu bat edo herriska bat konkis-tatzen ibili ordez, goazen zuzenean zientzion hiriburura edo er-digunera: giza naturara bertara; behin honetaz jabetuz gero, beste nonahi garaipen erraza itxaron dezakegu eta. Postu hone-tatik gure konkistak, gizakiaren bizierari hurbilagotik doazkion zientzia guztietara hedatu ahal izango ditugu, eta gero, astiroa-go, osokiago beste guzti haiek ikertzera pasa, jakinmin hutsa-ren kontua direnak. Muntako arazo bat ez dago, soluzioa giza-kiaren zientzian [*«the science of man»*] ez daukana barneratuta; eta ziurtasunez deus erabakitzerik ez dago, zientzia honetan trebatu samar ez garen artean. Horregatik natura gizatiarraren printzipioak azaltzen ahaleginez, de fakto zientzien sistema oso bat proposatzen dut [*«a compleat system of the sciences»*], oi-narri kasi zeharo berri baten eta zientziak han ziurtasunez altxa daitezkeen bakarraren gainean eraikia» (*Ib.*, XX).

Pasarte hau sonatua egin da, zientzien sistema konpleto baten bere eskaintzarekin. XVII eta XVIII. mendeetako filosofo handi guztien modura, Humek ere «giza jakintza»ren erabat, zientzia guztien eta zientziok oinarritzeko metodoaren beraren, erreforma erradikala burutu nahi zuen. Fundamentu berri baten gainean jarri nahi zuen osoa gizakiaren pentsamendua eta ja-kintza. Ez dakit jendetasunez edo halaxe sentituz, aitortzen ditu aitzindariak, «oraintsuko filosofo batzuk Ingalaterran, gi-zakiaren zientzia oinarri berri baten gainean ezartzen hasiak direnak eta publikoaren arreta erakarri eta haren jakinmina piztu dutenak». Harrotu ere harrotzen da, garaiko izpirituan to-katzen zen eran, filosofo horiek «gure aberriaren ohorea» omen direlako, «hain bait da egia, beste nazio batzuek poesian gurekin norgehiagokatu ahal badute eta are gaintu ahal ba-gaituzte ere beste arte atsegingarri batzuetan, tolerantziaren eta askatasunaren lurraldeari bakarrik ahal zaizkiola zor izan arrazoimeneko eta filosofiako aurrerapenak». Dena den, berri-kitako zientzia hau berau erreformatu egin beharko da, edo fi-losofia berriaren arabera ongi definitu eta mugatu gutxienez: ezin bihurtuko dugu beste metafisika bat ohizko maneran. Hau da, azken oinarritarako bilatzen dugun giza naturaren ezagu-tza, ez da azken errealitate edo esentzia ezkutu batena, baizik ageri-ageriko funtzionaketa batzuen ikerketa: jendearen arian-ariko funtzionaketa morala, politikoa, etab., eta orain intere-satzenago zaigun zientzietakoa. «Azkenekoaren» ezagutzarik ez dago gizakiarentzat. Ezin dugu esperientziaz bestaldera jau-zi egin: «*we cannot go beyond experience; and any hypothe-sis, that pretends to discover the ultimate original qualities of human nature, ought at first to be rejected as presumptuous and chimerical*» (*Ib.*). Ezin dugu, baina beharrik ere ez dugu. Honekin garbi dago Humeren «zientzia eskeptikoa»ren esa-nahia: «Ikusten dugunean giza arrazoimenaren azkeneko ma-rrara heldu garela, gogobeterik esertzen gara atsegitera, nahiz oso egon akordatuta geure ezjakintasunaz eta ohartuta ezin du-

gunaz gure printzipio orokorrenen eta birfinduenen arrazoia eman, haien errealitatearen esperientzia soilaz gaindi». Dena airean, bada. Azken oinarririk ez dago. Zientzietako adarrak oinarritzen dituen Lehen Zientzia bera «fenomeno»en mailakoa da (honek iratzarriko du Kant lozorro dogmatikotik), «azken funts»en bilaketari uko egin zaio betiko. Buka dezakegu: «Eta nola gizakiaren zientzia den beste guztien oinarritapen sendo bakarra, zientzia honi beroni eman diezaiokegun oinarritapen sendo bakarrak esperientzian eta behaketan beharko du funtsatu [«on experience and observation»].»

Ohartxo bat: epistemikoki jada dagoneko arrazoimena egia-aren eta jakitearen, eta gutxiago gizatasunaren azken funtsa eta errealitatea ez den moduan, zientzia ere honez gero ez da giza bizitzan azken balio bat, *per se* bilatzen dena, baizik arrazoiko praktikoengatik.

Programa hau gauzatu nahi izan zuen Traktatuak. Baina obrak ez publikoaren, ez kritikaren oneritzia irabazi zuen eta Humek berak, «inprentara goizegi» eraman zuela eta, gutxietsi egin du *Autobiografia*-n («*Never literary attempt was more unfortunate than my Treatise of HN. It fell dead-born from the press*»), are espreski zapuztu Elliot of Mintori gutunean «gazaroko berokeria eta irudimenaren» ekoizpen gisa: «Hain enpresa handi bat, hogeita bat urte bete aurretik bururatua eta hogeitabost aurretik obratua, nahitaez izan behar akatsez bete». Haren lekuan, esan bezala, irakurle horrek eskuetan duzun beste liburuskak haxe idatzi zuen. Traktatua ez irakurtzeko, gomendatu dio Ellioti, eta bai hau, «arazoak laburbilduz eta sinpletuz, zinez osoagoak bihurtu bait ditut. *Addo, dum minuo*. Printzipio filosofikoak obra bietan berdina dira». Azken urteetan, bere idazki filosofiko guztien birrargitalpenerako bilduma bat berak prestatu du, espreski abisatuz «hemendik aurrera autoreak hurrengo piezok har daitezela, nahi luke, haren sentimentu eta printzipio filosofikoak jasotzen dituzten bakar-

tzat» (*Advertisement*), eta Traktatua propio bildumatik kanpoan utzi du.

Benetan Traktatua nahiko nahasia eta bihurria atera zaio Humeri. Baina interesgarria izan liteke guretzat jakitea zergatik (aparte gaztetasunaren aitzakia), *Metodoaren Diskurtsoa* ere, esaterako, diskurtso bezala nahasia eta azalpen bezala nahiko txarra bait da, eta ez autorearen adinagatik, hemen ere gauza gehiegi batera esan nahi izan delako baizik eta une berean gauzak garbiegi esaten ausartu gabe.

Labur-labur Traktatuaren Liburu I honela banatzen da bost Partetan: I.- Ideiak inpresioetatik eratortzen direla, ebidentziaren proba. II.- Espazio, denbora, zenbaki eta esistentziaren gure ideien jatorri eta erabilgarritasun enpirikoaren ebidentziaren proba. III.- (a) razionalki a priori ebatz daitezkeen arazoak, natura kontzeptual hutsekoak direla, ebidentziaren proba; (b) de fakto edo gertarizko arazoak aldiz, natura enpirikokoak direla denak, ebidentziaren proba, eta arazo horien soluzioan kausa-efektu erlazioak duen ikustekoa. IV.- Sistema metafisiko ezberdinen problemak. Planak berez txukuna dirudi.

Seinalatu da goian, filosofia modernoak («razionalistak» nahiz enpiristak) ideien analitiko abiartzen direla. Eta historia piska bat errepatatuz berehala ikusten da, ideia multzo txiki batek sekulako papera jokatzen duela metafisikagintza moderno guztian, sistema handi guztiak nolabait haien inguruan astalkatuta daudela ageri baita. Munduaren sorrera eta esistentziaren inguruan (Jainkoaren Metafisika edo Teodizea): denbora/eternitatea, kontingentzia/ezinbestekoa, etab. kontzeptuak. Munduan dena joanetorri doa, ezerk ez dirau, nondik dator eta doa mundua bera? Hau da: munduaren existentziak bere kausa bat behar omen du, haren azkeneko kausarena nahitaezko existentzia izango da; munduaren existentziak hasiera bat behar omen

du, beraz hasieraren aurrekoa (hasiera gabekoa), etab. Kantek baino lehen, arrazoiketa modu guztiok Humek iraitzi ditu erro-tik. Apriorizko argudiaketaren aurkako Kanten arrazoa orobat, existentzia ez dela predikatu bat (beraz, Jainkoaren kontzeptutik haren existentzia ez dela eratorrora, proba ontologi-ko famatuak nahi lukeen moldean), existentziaren ideia-aren Hu-meren analisiak Traktatua aitzinatua dago nabariki, etab., etab. Munduaren naturaren inguruan: hedadura edo espazioa (eta, beraz, materia) azkengabeki zatigarria da, ezin ditu izan orduan zati esentzial bat edo batzuk bere propioak: zati gabe ordea osorik ez dago, beraz sustantziak ezin izan litezke mate-rialak, mundua esentzialki arima edo izpirituzko *monadaz* dago osatua (Leibniz Descartesen aurka); hortaz, espazioaren errealitatea erlaziozkoa izango da, ez objektibo edo absolutua (Leibniz Newtonen aurka), etab. Humek Jainkoaren zein mun-duaren (eta arimaren) metafisika guztiok batera eztabaidatu nahi izan ditu eta une berean gainera, bere filosofia alternati-boa finkatzeko, «gure fakultate arrazoitzailearen printzipioak eta ihardunak, eta gure ideien natura» argitzea zizun Trakta-tuaren asmoa (hau funtsean berdin geratu da Ikerketan). Uler-tzekoa da, dena lardastu bazaio esku artean. Baina irakurtzeko tenorean, guretzat interesgarria izango da beti ere pentsatzea, Ikerketa honetan ideien jatorriaz eta haien naturaz itxuraz ha-gitz axolakabekiago disertatzen ari zaigunean, diskurtsu meta-fisikoaren posibilitatea dabilela jokoan.

Ikerketa, alde honetatik, testu askoz aratzagoa da, Trak-tatuko eztabaida eta kontzeptu abstrusuenetatik soildua (Ni atomizatu edo iraunkorraren problema korapilotsu guztia, adi-bidez: baina arima hilezkorraren arazoa zegoen tartean, ez subjektu ezagutzailaren identitatea bakarrik!), laburragoa, ho-beto idatzia eta, batez ere, Humeren ekarpen propioan zentra-tuagoa, besteekin eztabaidak gehienbat utzita. Hemen ere di-gresio polit franko bada, zalantza gabe, baina ardatz nagusia

erraz ikusten da: kausalitatearen eztabaida, horretara edo ho-rretatik zuzenduta dagoela beste guztia. M. Malherbek (1976, 276) idazkiaren eskematxo hau ematen digu: «*L'Enquête s'or-ganise autour de la théorie de la causalité en tant qu'elle fournit une science complète de l'entendement, qui comporte l'étude des raisonnements expérimentaux (sections IV à VII), une méthodologie, appliquée successivement à la morale (sec-tion VIII), à la raison des animaux (section IX), au témoigna-ge historique (section X), à la religion naturelle (section XI), le tout étant encadré par une justification de la philosophie spéculative (section I) et par la définition d'une science scep-tique (section XII)*».

Pentsamenduko aro biren artean

Ezagutzea arrazoitzea da. Arrazoitzea erlazioak aurki-tzea edo ezartzea da. Erlaziook izan litezke, ala ideien artekoak ala gertakarien artekoak.

(a) Ideien arteko harremanetan proba edo demostrazio logikoa kabitzen da: predikazioan edo inferentzian ideia lotuen arteko lotura logikoki ezinbestekoa ageri bada, eta kontrarioa kontraesankorra bere baitan edo absurdua: bi eta bi lau dela, osoa handiagoa dela bere zatia baino, etab., holako baitespe-nen egia, elkarlotutako ideien naturatik edo esanahitik dago soil menpean; hau da, erabilitako ideien beren analitik egizta edo gezurta daiteke, ideien beren barruan dago kontrolbidea. Ideiek adierazitako errealitatea ideietan beretan dago.

Gertarizko erlazio loturetan demostraziorik ez dago adiera horretan (proba hertsiki logiko hutsarenean): *Zesar Fo-roan asasinatu zuten*, edo *Zesar Kapitolioan asasinatu zuten*, edo *Zesar ez zuten batere asasinatu*, logikoki eta esaldian era-bilitako terminoen («ideien») aldetik denak berdin artezak

dira; historikoki zuzena horietako zein den jakiteko, esalditik («ideietatik») kanpoan bilatu beharko da egiztabidea. Gertarizko egia bat eta haren kontrarioa beti dira logikoki berdin posibleak, eta haren inposibilitatea —baldin badago— beste non-dibait etorriko da: *bihar eguzkia aterako da, bihar ez da aterako eguzkia*, balio logikoa berdina da biona. Humekek ederkiki: «*Whatever is may not be. No negation of a fact can involve a contradiction*». Honelako baitespenen egiaren edo gezurra-
ren kontrolbidea esperientzian datza. Baina orain aplikatu ie-
zaiozu hori Jainkoaren esistentziari esate baterako: *Jainkoa badago* bezain zuzena bada logikoki *Jainkorik ez dago*, zein bide geratzen zaigu, edo non aurkitu esperientzia, bion artean erabakitzeke? Eta arimaren hilezkortasunaz, zeruaz, infernuaz...? Arazo horiek horrela Humekek ez ditu planteatuko liburu honetan, noizpait oso iraga-iragaitzean edo izkina batean ez bada behintzat eta inportantzia gabe. Irakurleak lerroetan eta lerroen artean irakurtzen asmatu beharko du. Ideien arteko erlaziozko ziurtasunaren edo demostrazioaren eremu bakarra zientzietan Humerentzat matematikoa zen: irakurleak, irakurgai honen buruenean, teologia eta metafisikako liburu askoren oso Inkisizio beltza aurkituko du, ustegabetsuan lanera deituta... Hain zuzen metafisika edo teologia razionalarekiko interes polemikoa, guztiz lehentiarra Humeren obran, nabariago geratzen zen Traktatuan. Erljio on batekin baino, hobe filosofia txar (eskeptiko) batekin bizi, dirudi Humeren mezuak. Filosofia pobretxo batekin bada ere, superstizio erlijioso gaiztoak borrokatu egin beharra dago. Izan ere, Liburu I bukaeran idatzi duenez: «errakuntzak, erlijio kontukoak, arriskutsuak izaten dira; filosofiakoak, ridikuluak bakarrik».

(b) Gertakari arteko harremanetan, demostraziorik ez badago ere (matematikako erlazioetan dagoen bezala), posible da batetik bestera inferentziazko erlazio «probableak» ezartzea (ik. kontzeptuon azalpena VI. Atalean, 1.oin-oharra): «a ema-

nez gero, eman beharra dago b». Praxian erabiltzen dugun zientzia, molde honetako izaten da, zubi bat egiteko nahiz afaria prantatzeko. Zer oinarri molderekin dugu posible aurrikustea edo baitestea beharkizun hori a ezagun batetik b ezezagun batera? Zerk legitimatzen gaitu pentsatzera, sua pizten badugu, barazkiak egosiko direla? Gertakari artean «beharrezkotasunez» ondoratzea ahal duena, kausa-efektu erlazioa da: «sua emanez gero, eman beharra dago beroa». Ikusten ez dugun zerbaiten existentzia ondoratzeke bide bakarra hori daukagu Humeren eritzian.

Hume oso erradikala izan da puntu honetan: guk kausa-efektu lotura jartzen dugun tokian, berez (edo giza razionalki bakarrik) ez omen dago inolako loturarik; razionalki soil behatuta edozein gauzak edozer gauza ahal izango omen luke kausatu, edo-ta edozer gauza suertatu ahal izango litzateke kausa batere gabe munduan, azare hutsez; agitze orok bere kausa, esperientziak bakarrik irakatsi digu, ez arrazoimenak, eta esperientziak bakarrik irakasten digu naturan ordenuren bat ikusten; a priori ez naturak bere ordenurik dauka, eta ez arrazoimenak hura ordenatzeko erlazio modurik ezartzen daki bere baitatik; gertakarien mundua ordenatu ahal izatea esperientziaren menpean legoke arras eta zeharo. Ezagunki erradikaltasun honek Kanten, ez bakarrik izu batean esnatzea ametsetatik, baizik erreakzio teorikoa probokatu zuen, ezagutza enpirikoaren baldintza transzendentalez gogoetara behartuz, zientzia justifikatuko bada (eta fedea salbatu). Ez da liburu honetako gaia, baina, labur-labur, Kanten erantzuna Humeri honelatsu bideratu dela esan genezake: zeri zer kausa enpirikoki aitortu, egia da, esperientziak bakarrik irakasten digu; baina munduan gauzak gauza bezala pentsatzeak berak, «zerak» objektu bezala edo gertakari bezala kontsideratzeak, formalki gauzok kausa-efektu eskema baten baldintzetan begiesten direla, inplikatzeko du. Bestela esan: gertakari bat inoiz ez da gertakari bat, kausa-

-efektu (etab.) erlazio sistema kategorial batean koadratuta ez bada. Edo bestelago oraindik: kausa gabeko gertakari bat baitestea, esperientzia posible gabeko zerbaiten esistentzia baitestea da (Humeren aurrekariekin kontraesan ebidentezkoa hain zuzen, edo zentzu txarrean «metafisikoa»); era kantiarrean mintzatzeko, unibertsoari kausa-efektu ordenua suposatzea, esperientziaren posibilitate baldintzen beharkizun logikoa izango da (apriorizkoa hortaz). Munduak ez du edozer gauza izatea posible duela hasterik, gero ulertua izan behar badu: ulergarria izan ahalaren baldintzen peko dago alde zurririk haren zer ahal izana pentsatu beharra. Dena den, hemen ez dio gehiegi axola, zirriborro gutxi hauekin guzti honen argitasuna iluntxo geratzen bada: Humek planteamendu transzendentala eta filosofiaren historian hurrengo zikloaren (idealismoaren) abiadura probokatu duela, Humeren eragintza historiko bortitza hori, gogoratzeko bakarrik izan da.

Jarraituz: nola irakasten digu esperientziak a zerbaitek nahitaez b dakarrela? Irakurleak hau dena irakurgai izango du. Labur-labur beraz, berriro: ohituraren poderioak irakasten digu, ez bestek (ez bestelako gure arrazoipide logikok: ik. IV. Atala, II. Parte eta V. Atala). Ohituta gaude, a ikusi dugun orotan b ikusi izan dugula jarraiki etortzen, eta ohitura honek a ikusi orduko b itxarotera jartzen du gure burua. Jarraitu beharra ez da gauzetakoa, gure burukoa baizik: ordea gure buruan ere ez arrazoipide edo demostrazioen baten ondokoa, baina ohitura hutsezkoa, ideien asoziaziozkoa. Arrazoi logikorik egon ez dago (logikoki ez dago ezintasunik, mundua bapatean orain arte ibili denaren alderantziz ibiltzen hasteko), baina, nolahi ere, ezin dugu ez itxaron, a etorri orduko badatorrela b. Ezin ez itxarote hori gure giza naturan dago sustraituta, ez arrazoimenean edo harremandu ditugun gertari-ideien naturan eta loturaren moldean. Beraz, kausatasunaren oinarri «razional» guztia (kasu: zientzia enpiriko guztiena) ohitura soila da

eta haren berme «razional» guztia gure sinestea (ik. V. Atala, II. Parte).

Franko bitxia dirudi apika guzti honek, «Ilustratu» erradikala kontsideratu nahi izaten den batentzat. Problema seguru asko ez dago Humerengan, halere, gure artean antza Ilustrazioaz maiz dauden ideia topiko batzuetan baino. Hume Ilustratu atipiko bat da (Ilustratu denak bezalaxe). Haren berezitasun bat, agian, Ilustrazio kritikoarekin oso kritikoa bera izatean ikus genezake, eta Ilustrazioari Ilustrazioa aplikatu izate horretantxe egongo da haren jarraitun askoren ezaugarri bat (Rousseau, Hamann, Herder, etab.). Alde honetatik, «razionalisten» eta enpiristen arrazoimen kontzeptua ezberdina zen beren artean zalantza gabe, baina bietan aski abila zen ziurtasun teoriko eta praktikoa azkenbetikoak tinkotzeko (arrazoimenean berean): enpirista razionalista eskoziar honena guztiz bestelakoa izango da arrazoimenean kontzeptua. «Arrazoimena grin esklabua da eta hori bakarrik behar du izan, formulatu du erradikalki («gaztetako berokeria» batzuk benetan egiazkoak izan dira), eta haiei zerbitzatu eta obeditu beste ofiziorik ezin preteni lezake» (*Traktatua*, II, 3). Beti ere haren filosofia zuzena hauxe geratu da ordea: «Ohitura da giza bizitzaren gidari nagusia» (*Ikerketa*, V). Ohitura giza naturaren ahalmen eta printzipio funtsezko bat da. Esperientzia eta ohituragatik ez balitz, «inoiz ez genuke jakingo helbideak helburuetara egokitzen edo gure ahalmen naturalak zeinnahi efektuaren sorraztean erabiltzen. Berehalaxe amaituko litzateke ekintza oro, baita espekulaziorik gehiena ere». Beraz, gizakiak bere gidariak ditu, horien artean arrazoimena bat izango da, ez baina bakarra, engoitik ezta nagusia ere. Gidaria funtsean giza natura bera da (bere «gidarien» gidari ere). Arrazoimena, ezar ditzake nahi dituen printzipioak, egin ditzake nahi dituen erai-kuntza teorikoak eta eman ditzake nahi dituen agindu praktikoa, «naturak beti eutsiko die bere eskubideei, eta azke-

nean edozein arrazoiketa abstrakturi nagusituko zaio». Finean: «*Nature is always too strong for principle*».

Descartes-en arrazoimenak geometrikoa izan nahi zuen; Humerenak Newton suposatzen du eta esperientzian dauka bere oinarritzapena.

Bietarik jazo da arrazoimenarekin, estatutua aldatzean: batetik gutxitu bezala egin da, nahi bada, lehengo bere aginte bakarra eta absolutua orain erlatibatu eta partekatu egin behar bait du (esperientziarekin, sinestearekin, etab.); bestetik, aitzitik, arrazoimenaren esparrua itzel zabaldu da, lehen arrazoizkotik (geometrikotik) baztertuta zegoen hainbat giza mundu natural begira (ohiturak, Foruak, tradizioak, historia; morala, politika, estetika: «irrazional» deklaraturiko unibertso gizatar hedatsua), orain posible bihurtzen zaigulako guzti horren funtsezko arrazoizkotasuna bindikatzea. Arrazoimenaren ondoan, gure zentzuek, pertzepzioek, eta gure sentimentuek, legitimazio osoa aurkitzen dute: eta beren azken legitimazioa giza naturan dute denek.

Agian, hemen, berez ageri da sobera eta gogoratzea apenas izango da beharrezkoa, giza naturaren gai humetarrari jarraipen eta garapen handia, Rousseauk eman diola. Esanahitsuak dirudite halere «razionalismo»aren kritiko bion arteko harremanek. 1763an Hume Versaillesera bidaztu zen Lord Hertforden idazkari pribatu legez, kolonia Ipar Amerikarren jabetzagatiko Zazpi Urteko Gerrako Bake Tratueta, gero Enbasada ingelesean Parisen *chargé d'affaires* gisa geratzeko. *Philosophes* eta literato frantsesek, intelligentsia nazionaleko krema eta floreak, ongietorri entusiastikoa egin zion. Orduan *philosophes* eta literato lausengari horietxek madarikaturiko bat Rousseau zen (*Emile* argitara berritan) eta, Mme de Verdelinen eskaerari jarraiki, Humek bere babespean hartu zuen, baita hainbat laguntza eman ere, bidea irekiz Ingalaterrara joa-

teko eta arrakasta dirdaitsurako Londonen tertulia literarietan, Derbyshiren bizilekua lortuz orobat patxada landatar bake-tsuan lan egin ahal zezan. Baina 1767an Rousseauk, beti errezeloz beterik, lagunaren aldetik zerbait gaitziritzia sentituz edo, bere eskapu famatuetako beste bat eskenaratu zuen eta desagertu egin zen egun batean, atzean eskandaloa utziz. Eta nolabait sintomatikoa da: Humeren eragina zabala izan da hurrengo filosofian, baina beti «jarraitasun kraskatu» bat da.

1769an Edinburghera itzuli zen, sorlekuan, jendeak maitekiro «Saint David» bezala beneratua, azken urteak estimazioz bete bizitzeko eta «lasaiki» hiltzeko. Kolega filosofikoentzat, haatik, Humeren pentsamendua inkomodoegia zen, Ingalaterran adina Eskozian. Humeren lana, egia esan, oso eskoziar baten lana izan da. Baina, askotan gertatzen da, Eskola Eskoziarreko autore inportanteenak, Humeren ondoren, haren kritikoak izan dira, Th. Reid etab. (Adam Smith geratzen da salbu, hau espreski Humezalea agertu baita). Humeren uler-tzaile, eta jarraitzaile, hoberena, Immanuel Kant izango da: eta, ez dakit zergatik, Kant honek arbaso eskoziarrak zeuzkala uste zuen. Agi denez Humek berak, atzerritarra Ingalaterran, problematiko bezala bizitu du bere eskoziartasuna: «Berrogeitamar ingelesetatik ez dut uste bat bakarra dagoenik, bihar lepahezurra apurtuko dudala entzungo balu, poztu egingo ez litzatekeena. Gorrotatu egiten naute, batzuk *tory* ez naizelako, bestetuk *whig* ez naizelako; enparaduek, kristaua ez naizelako; eta den-denek, eskoziarra naizelako», adierazten zuen Sir Elliot of Mintori gutun batean 1761ean. Gertatu egiten dira nonbait, mundu handian ere holakoxe komeria txikiak.

Joxe AZURMENDI

Bibliografia

a) Humeren obra

The Philosophical Works of David Hume, ed. by Th. Hill Green and Th. Hodge Grose, 2 lbki., New York/Bombay 1874 [Repr.: Aalen, 1964]

The Letters of David Hume, ed. by J. Y. T. Greig, 2 lbki., Oxford 1932, 2. arg. 1969)

New Letters of David Hume, ed. by R. Klibansky and E. C. Mossner, Oxford 1954

David Hume: Some Unpublished Letters, ed. by G. Hunter, in: *Texas Studies in Literature and Language* 2 (1960) 127-150

New Letters to Lord Elbank 1748-1776, ed. by E. C. Mossner, in: *Texas Studies in Literature and Language*, 3 (1962) 431-460

«Early Memoranda 1729-1740», ed. by E. C. Mossner, in: *Journal of the History of Ideas* 9 (1948) 492-518

b) Humeren bizitzaz

«My Own Life» (1776), Autobiografia, in: *Phil. Works*, ed. Green/Grose, I, 1-8

Braham, E. G., *The Life of David Hume*, London 1931

Greig, J. Y. T., *David Hume*, London 1931

Mossner, C. E., *The Life of David Hume*, Austin 1954 (2. arg., London 1980)

c) Inguru kultural eta filosofikoaz

Ginsberg, R., «David Hume versus the Enlightenment», in: *Studies on Voltaire and the 18th Century* 88 (1972) 599-650

Grave, S. A., *The Scottish Philosophy of Common Sense*, Oxford 1960

Kuypers, M. S., *Studies in the Eighteenth Century Background of Hume's Empiricism*, New York 1966

Manuel, F., *The Eighteenth Century confronts the Gods*, Cambridge Mass. 1959

Morice, G. (ed.), *David Hume, Bicentenary Papers*, Edinburgh 1977

Morris, C. R., *Locke, Berkeley, Hume*, London 1931

Robinson, D. S., *The Story of Scottish Philosophy*, New York 1961

Todd, W. B.(ed.), *Hume and the Enlightenment*, Edinburgh 1974

d) **Humeren filosofiaren azalpen orokorrak**

Ayer, A. J., *David Hume*, Oxford 1980

Craig, E., *David Hume. Eine Einführung in seine Philosophie*, Frankfurt 1979

Chappell, V. C.(ed.), *Hume. A Collection of Critical Essays*, New York 1966

Dal Pra, M., *Hume e la scienza della natura umana*, Roma-Bari 1973

Deleuze, G., *Empirisme et subjectivité. Essai sur la nature humaine selon Hume*, Paris 1953

García Roca, J., *Positivismo e Ilustración. La filosofía de D. Hume*, Universidad de Valencia 1981

Hendel, C. W., *Studies in the Philosophy of David Hume*, Princeton 1925 (2. arg. Indianapolis/New York 1963)

Kemp Smith, N., *The Philosophy of D. Hume: A Critical Study of its Origins and Central Doctrines*, London 1941 (2. arg. New York 1966)

Laird, J., *Hume's Philosophy of Human Nature*, London 1932 (2. arg. Hamdem 1967)

Malherbe, M., *La Philosophie empiriste de D. Hume*, Paris 1976

Michaud, Y., *Hume et la fin de la philosophie*, Paris 1983

Noxon, J., *Hume's Philosophical Development. A Study of his Method*, Oxford 1973

Passmore, J. A., *Hume's Intentions*, Cambridge 1952 (2. arg. London 1968)

Price, J. V., *The Ironic Hume*, Austin 1965

Rabade Romeo, S., *Hume y el fenomenismo moderno*, Madrid 1975

Santucci, A., *Sistema e ricerca in David Hume*, Bari 1969

Santucci, A., *Introduzione a Hume*, Roma-Bari 1981

Topitsch, E-E. Streminger, G., *Hume*, Darmstadt 1981

e) **«Ikerketa»z eta Ezagutzaren Teoriaz**

Church, R. W., *Hume's Theory of the Understanding*, London 1935 (2. arg. Hamdem 1968)

Flew, A., *Hume's Philosophy of Belief. A Study of His First «Inquiry»*, London/New York 1961 (3. arg. 1969)

Haymond, W. D., «Hume's Phenomenalism», in: *The Modern Scholarman* 41 (1964) 209-226

Maund, C., *Hume's Theory of Knowledge. A Critical Examination*, London 1937 (2. arg. New York 1972)

Salas Ortueta, J. de, «Teoría del conocimiento y acción en la *Enquiry concerning the Human Understanding* de Hume», in: *Anales del Seminario de Metafísica* 8 (1973) 37-51

Stern, G., *A Faculty Theory of Knowledge. The Aim and Scope of Hume's First «Enquiry»*, Lewisburg 1971

Williams, R., «David Hume: Reasoning and Experience», in: *The English Mind* 7 (1964) 123-145

Zabech, F., «Hume on Metaphysics and the Limits of Human Knowledge», in: *Theoria* 27 (1961) 12-25

f) **Bibliografien bibliografia**

Essop, T. E., *A Bibliography of David Hume and of Scottish Philosophy from Francis Hutcheson to Lord Balfour*, London/Hull 1938 (2. arg. New York 1966)

Hall, R., *A Hume Bibliography from 1930*, York 1971

Hall, R., *Fifty years of Hume Scholarship. A Bibliographical Guide*, Edinburgh 1977

1975etik aurrera Humeri buruzko informazio bibliografiko sistematikoa periodikoki ematen da in: *Hume Studies*, University of Western Ontario

I ATALA

FILOSOFI MOTA EZBERDINEZ

1. Filosofia morala, edo giza izaeraren zientzia, bi era ezberdinez trata daiteke. Bietariko bakoitzak bere meritu berezia dauka, eta gizadiaren entretenigarri, ikaspide eta berritzaile izan daiteke. Batak gizakumea batez ere ekintzarako sortutzat jotzen du. Eta bere egintzetan dastamen eta sentimenaren eraginpean dagoen aldetik; objektu baten atzetik eta beste bati iheska, objektu horiek izan bide duten balioaren arabera, eta euren aurkezteko moduaren arabera. Eta bertutea objektu guttietatik baliotsuena omen denez, filosofo-mota honek kolorerik atseginez pintatu ohi du hura, poesia eta elokuentzia bide dira, euren gaia era xume eta argian azalduz, irudimenari lakete izateko eta gure sentimenduei eragiteko erarik egokienean hain zuzen. Eguneroko bizitzako kasurik eta behaketarik nabariak hautematen dituzte; kontrako alderdiak dotore kontrastatzen dituzte; eta aintzaren eta zorionaren ikuspegiz bertutearen bideetara erakartzen gaituztelarik, gure urratsak bide horietatik zuzentzen dituzte, prezepturik bidezkoenez eta adibiderik ospetsuenez. Bizioaren eta bertutearen arteko aldea *sentiarazten* digute; gure sentimenduak kinatzen eta arautzen dituzte; eta horrela ez daukate gure bihotzei prestutasunaren eta benetako ohorearen maitasunera eragitea besterik, euren ahalegin guztien xedea ustez atzeman dutelakoan.

2. Beste filosofo motak, ordea, gizakumea izaki aktibotzat baino gehiago arrazoimenduntzat jotzen du, eta haren jokatzea lantzen baino gehiago haren adimena hezten saiatzen da.

Giza izaera espekulagaitzat hartzen dute eta arakapen zorrotzez aztertzen dute, gure adimena arautu, gure sentimenduak kinatu eta gu zeinnahi objektu, ekintza edo portaera onestera edo gaitzestera garamatzaten printzipioak topatzeko. Literatura guztiaren lotsagarri iruditzen zaie filosofia oraindik moralaren, arrazoiaren eta kritikaren oinarririk argi erabaki ez izana; eta oster, egi gezurrez, bizio-bertuteez, eder-itsusiez etengabe mintzatzea, bereizketa horien iturria bereizteko gauza izan gabe. Lan-sail horretan ari bitartean, ez diote ezein oztoporri amore ematen; aitzitik ordea, kasu konkretuetatik printzipio orokorretara igonik, euren ikerketei ekiten diete, are printzipio orokorragoen bila, eta ez dute atsedunik giza jakinminak, zeinnahi zientzian, mugarazle behar dituen jatorrizko printzipioak jo arte. Euren espekulazioek abstraktuak eta baita irakurle arruntarentzat ulergaitzak ere iruditu arren, ikasien eta jakintsuen onespina atxeki nahi dute; eta euren bizi guztiko ahaleginari aski ordain zaiola uste dute, baldin geroaren argibide izan litezkeen egia ezkuturen batzuk aurkitzen badituzte.

3. Egia da filosofia erraz eta argia gizadirik gehienari askoz maitagarriago egingo zaiola filosofia landua eta lantsua baino; eta askok gomendatuko du hura, ez bestea baino gogoagotzat bakarrik, baizik ongariagotzat ere. Bizimodu arruntean sarbide gehiago dauka; bihotza eta sentimendua taxutzen ditu; eta gizakumeei eragiten dien printzipioak atzematean, hauen jokabidea berritzen du, eta azaltzen ari den perfekziora hurbiltzen ditu. Filosofia lantsua, ordea, negozio-rako eta ekintzarako balio ez duen gogo-jokuan oinarria duelarik, ezereztu egiten da filosofoa ilunpetik egun-argira irteten denean, eta beraz, haren printzipioek ezin dute gure jokabide eta portaeran eraginik izan. Gure bihotzeko sentimenduek, gure grinen berotasunak, gure hunkipenen indarrak haren ondorioak makaltzen dituzte eta filosofo sakona plebeiu soilera ekartzen dute.

4. Hau ere aitortu beharko da gainera: osperik luzeena, baita mereziena ere, filosofia errazari egokitu zaio eta arrazoi-lari abstraktuek, berriz, uneko izena bakarrik irabazi dute oraingoz, euren garaiko apeta eta ezjakintzari esker, baina ez dira izan euren itzalari etorkizun zuzenagoan eusteko gai. Filosofo sakon batek aise izan lezake errakuntza bat bere arrazoi-keta xotiletan, eta errakuntza batek nahitaez beste errakuntza bat dakar filosofoa ondorioak garatzen ari denean, eta ez dio ondorio hori onartzeari uzten, nahiz eta itxura bitxikoa edo zentzuz bestekoa izan. Kolorerik ederren eta xarmagarrienez gizadiaren zentzua aurkeztekotan diharduen filosofoa, ordea, istripuz erratzen baldin badu, ez da aurrerago joaten, bai ordea, zentzura eta gogoaren berezko sentipenetara jotzea berrituz, bide zuzenera itzultzen eta bide arriskutsuetatik libre gelditzen. Zizeronen ospeak gaur ere badirau, baina Aristotelena guztiz gainbehera dago. La Bruyerek itsasoak haratzen ditu eta hala ere bere ospea mantentzen du. Baina Malebrancheren aintza haren nazioari eta aldiari bakarrik dagokie. Eta Adisson agian gozamenez irakurriko da, Locke guztiz ahazturik dagoenean.

Filosofo hutsa normalean munduan onarpen eskasa duen gizakera mota da, gizartearen aurreramendu eta laketerako inolako ekarpenik egiten ez duela jotzen denez, gizateriarekiko komunikaziotik urrun bizi baita, eta haren ulergaitasunetik urruntasun berean dauden nozioetan buru-belarri murgilduta. Bestalde, ezjakin hutsa are mesprezatuago dago, eta ezer ere ez da gizakera estuaren seinale hobetzat hartua zientziak loratzen ari diren garai eta nazio batean, entretenigarri noble haue-tara inolako zaletasunik ez edukitzea baino. Gizakera perfektuena ertz bi hauen artean dagoena dela uste da eskuarki: liburueterako, lagunarterako eta negozioetarako gaitasun eta zaletasun berdina duena, jendarteko harremanetan Letra Ederretatik harako bereizmena eta fintasuna agertzen duena, eta negozioetan filosofia egoki baten emaitza diren prestutasuna eta zehaztasuna erakusten dituen. Gizakera hain lortua landu

eta zabaltzeko, ezer ere ez aproposagorik estilo eta garapen errazeko saiakerak baino, bizitzatik lar apartatzen ez direnak, ulertzeko dedikazio edo barnebilkuntza sakonegirik behar ez dutenak, eta ikastuna bizitzako zeinnahi beharretara aplikatzeko moduko sentimendu noblez eta prezeptu zuhurrez jantzita bidaltzen dutenak berriro gizartera. Saiakera hauek bide, bertutea maitagarri, zientzia atsegin, lagunartea ikasbide eta bakardadea entretenimendu bihurtzen dira.

Gizakumea izaki arrazoizkoa da eta halako gisan zientziatik hartzen ditu beharreko jana eta elikua. Baina giza gogoaren irismena hain da murrizta, ezen nekez espero daiteke arlo honetan ase handirik bere lorpenen hedaduratik edo segurtasunetik. Gizakumea izaki gizartekoia da, eta ez izaki arrazoizko baino gutxiago. Baina ez dauka beti lagun atsegin eta dibertigarririk ondoan edukitzerik, edo haren nahi adinako xerari eusterik. Gizakumea izaki ekinkorra ere bada, eta joera hau bide, baita bizitzako premia ezberdinak bide, negozioaren eta zereginaren mende dago. Baina gogoak patxada zerbait ere behar du, ez baitauka beti ardurapean eta arazopean ibiltzeko joerari eusterik. Badirudi, beraz, naturak bizitza bikoitza ezarri duela giza endarentzako egokientzat, eta gizakumeei isilki agindu diela ez uzteko ezein aurrejoerari gehiegi *hartaritzen*, beste ardura eta entretenigarri batzuetarako ezgai izateraino. Eman zeure zientzi grinari —dio naturak—, baina egizu zure zientzia gizazkoa izan dadin eta gizartera erreferentzia zuzena ukan dezan. Debekatu egiten ditut pentsamen abstraktua eta ikerketa sakonak, eta zorrozki zigortuak izango dira: sorrarazten duten malenkonkia pentsakorra, norbera hartan murgilarazten duten zalantza amaigabeak eta zure usteko aurkikunde horiek jakinarazten dituzunean jasoko duten abegi hotza izango dute zigortzat. Izan filosofoa, baina zeure filosofia guztiaren erdian, segi gizakume izaten.

5. Gizadirik gehienak filosofia erraza abstraktua eta sakona baino nahiago izatea aski balu, beroni arbuiorik eta gai-

tzezpenik jaurti gabe, agian ez litzateke bidegabea iritzi orokor honekin konformatzea eta gizakume bakoitzari bere gustu eta sentimenak berez, oztopo gabe, gozatzen uztea. Baina maiz auzia urrunago eraman ohi denez gero, arrazoiketa sakon oro edo ohiki *metafisika* deritzona baztertzeraino, oraintxe goaz haren alde arrazoiz zer alega litekeen azaltzera.

Hasteko, hauteman dezakegu filosofia zorrotz eta abstraktuaren alde on handi bat filosofia erraz eta gizakorrerako daukan balioa dela, honek hura gabe ezin duelarik bere sentipen, prezeptu eta arrazoietan behar adinako zehaztasun-mailarik atzeman. Letra Ederrak ez dira giza bizitzaren erretratua besterik, jarrera eta egoera ezberdinetan. Gorespen edo gutxiespenezko, mirespen edo barregarriko sentipen ezberdinak iradokitzen dizkigute, aurkezten diguten objektuaren kualitateen arabera. Artista, ahalegin honetan nagusitzeko prestatuago dago, baldin, gustu finaz eta ulermen azkarraz gainera, adimenaren barne-ehundura eta eragiketak, bizio-bertuteak bereizten dituzten grinaren eta sentipen-mota ezberdinen arikuntza, zehatz ezagutzen baditu. Bilaketa edo barne-ikerketa honek nekagarri eman badezake ere, hein batez nahitaezko bihurtzen zaie bizitzaren eta ohituren itxura kanpoko eta bapatekoak ganoraz deskribatu nahi dituztenei. Anatomilariak objekturik ezatseginenak eta izugarrienak erakusten ditu, baina haren zientzia onuragarri zaio pintoreari, Venus bat edo Helena bat marrazten duenean ere. Honek bere artearen kolorerik aberatsenak erabili eta bere irudiei jite bitxia eta xarmagarria ezarri arren, orduantxe ere giza gorputzaren barne-egiturari, muskuluen kokaguneari, hezurren ehundurari eta atal eta organo guztien zertarakoari eta eiteari begiratu behar die. Zehaztasuna beti zaio ongari edertasunari, eta arrazoiketa zorrotza sentimen finari. Alferrik egingo diogu eder batari, besteari muzin eginez.

Gainera, zeinnahi arte eta lanbidetan, baita bizitzari eta ekintzari gehien dagozkienetan ere, hauteman dezakegu zehaz-

tasun gogoak, hala nahiz hola norberagandu delarik ere, haien perfekziora hurbiltzen eta gizartearen interesetarako ongarriago egiten dituela. Eta filosofo bat negozioetatik aparte bizi badaiteke ere, filosofiaren izpirituek, zenbaitek arretaz landua izanez gero, gizarte osoan gradualki hedatua izan behar du eta gisako zehaztasuna erantsi, arte eta lanbide orori. Politikak prebisio eta argitasunerako gaitasun gehiago lortuko du agintearen banaketan eta orekan. Abokatuak metodo hobek eta printzipio gardenagoak bere arrazoiketetan. Jeneralak erregulartasun handiagoa disziplinan eta kontu gehiago bere plan eta operazioetan. Lehengo gobernuen aldean, egungo gobernuen egonkortasuna eta egungo filosofiaren zehaztasuna hobetu egin dira, eta eiki neurri berdintsuan hobetzen jarraituko dute.

6. Ikasketa hauetatik jakinmin xaloaren gozamina besterik atera ezin balitz ere, halaxe ere ez lirateke arbuiatu behar, giza endari eman zaizkion plazer ziur eta kaltegabe bakanetarikoa batera helbide baitira. Bizitzako zidorrik gozoen eta kaltegabeenak zientziaren eta jakintzaren etorbideetan zehar darama. Eta bide horretan oztoporen bat kendu edo ikuspegiaren bat ireki dezakeena gizartearen ongiletzat jo behar da. Eta ikerketa hauek zailak eta nekagarriak iruditu arren, adimen batzuei zenbait gorputzi bezalakoa gertatzen zaie, alegia, osasun sendo eta indartsukoak izanik, ariketa gogorra behar dutela, gizadirik gehienarentzat lantsua eta astuna litzatekeen zerean gozamina aurkitzen dutela. Iluna neketsua da izan ere adimenarentzat, begiarentzat bezalaxe, baina ilunetik argia ateratzea, horretarako behar den ahalegina bide, atsegingarri eta pozgarri izan behar derrigor.

Baina filosofia sakon eta abstraktuaren iluntasun hori neketsua eta gogaikarria izateagatik ezezik, errore eta zalantzaren iturria izateagatik ere kritikatzeko da. Izan ere, hementxe dago metafiskaren zati handi bati jartzeko eragozpenik zuzen

eta fidagarriena: ez dela izatez zientzia alegia, baizik sortzen dela bai adimenari arras eskuragaitz zaizkion gaietan sartu nahi duen giza banitatearen alferreko ekinetik, bai herri-sineskerien maltzurtasunetik; sineskeriok, izan ere, zelai normalean leialki defendatzeko gauza ez direnez, sastraka nahaspilatsu hauek jartzen dituzte tartean, euren ahultasuna estaltzeko eta babesteko. Zelai ageritik uxaturik, ohoin hauek oihanean ezkutetzen dira eta bertan enboskaturik, zain daude gogoaren ibilpide babesgabe guztietan noiz oldartuko eta hura nola beldur eta aurriritzi erlijiosoez menderatuko. Antagonistarik indartsuena ere, une batez arretari uzten badio, azpiratu egingo du. Eta askok koldarkeriaz edo ergelkeriaz, atek euren etsaiei irekitzen dizkiete eta gurtasunez eta mentasunez pozik hartzen dituzte euren legezko nagusitzat.

7. Baina aski arrazoi ote da hau, filosofoek euren ikerketak lagatzeko eta sineskeriari bere gordeguaren jabe izaten segitzen uzteko? Ez ote da bidezko aurkako konklusiora jotzea eta guda-etsaiaren gordelekurik ezkutuenetaraino eraman beharra onartzea? Alferrik itxaroten dugu gizakumeek, euren dezepzio maizkorrei esker, hain airezko zientziak azkenik laga eta giza arrazoimenari dagokion gunea aurki dezaten. Zeren, anitz pertsonak topiko hauek azkenik gabe behin eta berriro ekartzeko ardua nabariegia izanaz gain, honez gain, diot, etsipen itsuaren motiboak inoiz ez dezake arrazoiz bederen zientzian tokirik izan, zeren, arteko ekina denik eta agorren gertaturik ere, oraindik itxaron baitaiteke geroko belaunaldien ekinak, zorte onak edo argitasun gehitzeak aurreragoko aroetan ezagutzen ez zen aurkikunderik agian lortzea. Jeinu abenturazale orok sari zailaren bila joko du eta hozturik baino arago, bere aurrekoen porrotek kinaturik aurkituko da, hain abentura zaila burutzearen ospea berari bakarrik dagokiola itxaroten baitu. Jakintza auzi nahaspilatsu hauetatik berehala askatzeko era bakarra da giza adimenaren izaera serioan ikertzea eta, bere ahalmenen eta gaitasunaren azterketa zehatzaren bi-

tartez, ez dagoela inola ere hain gai urrun eta abstraktuetarako presturik erakustea. Neke hau jasan beharra da, handik aurrera patxadan bizi ahal izateko. Benetako metafisika ere landu behar dugu kontuz-kontuz, metafisika gezurrezkoa eta adulteratua deusezteko. Zenbait pertsonarengan filosofia iruzurti horren aurkako babestoki den nagikeria beste zenbaitengan jakinminak gainditzen du. Eta batzuetan nagusitzen den etsipenak espektatiba eta ilusio ustetsuak izan ditzake atzetik. Arrazoibide zorrotza eta zehatza da pertsona eta jarrera guztientzat balio duen erremedio nonnahiko bakarra, eta bera bakarrik da gauza filosofia bihurri eta mordoilo metafisiko hori amiltzeko, zeina, herri-sineskeriaz nahasita egonik, ezaxolki arrazonatzen duenarentzat nolabait ere sargaitz bihurtzen den eta zientziaren eta jakintzaren itxura hartzen duen.

8. Alde on honetaz gain, hots, ikerketa xehearen ondoren jakintzaren adarrik ezbaikor eta ezatseginena baztertuz gain, bada anitz alde on garrantzitsu giza izaeraren indarraren eta ahalmenaren azterketa zehatzetik datorrena. Adimenaren eragiketei buruz, nabaria da, nahiz eta guri barneki dagozkionak izan, hala ere, gogoetagai bihurtzen direnean, ilunpean murgilduak diruditelat, eta begiak ezin izaten dituela aise topatu eragiketa horiek bereizten eta ezberdintzen dituzten marrak eta mugak. Objektuak xotilegiak dira luzaro itxura edo egoera berean irauteko, eta berbertan atxeki behar dira, naturatik harako eta gogoetak biribilduriko gai penetrazioz. Honela, zientziaren zati ez baztergarri bat bilakatzen da gogoaren eragiketa ezberdinak ezagutzea soilki, bata bestearengandik bereiztea, beharreko ataletan sailkatzea, eta gogoeta eta ikergai egiten ditugunean aurkitzen diren itxurazko anabasa hori zuzentzea. Ordenatze- eta bereizte-lan hori, gure zentzuen gai diren kanpo-gorputzekin egitean meriturik ez duen hori, baliotsuago bihurtzen da gure gogoaren eragiketei buruz osatzen denean, hartarako topatzen dugun zailtasun eta ahaleginaren arabera. Eta gogo-geografia edo gogoaren zati eta ahalmen ezberdinen

mugapen horretaz harago bagoaz ere, gutxienez gozamina da hain urrun heldu izana. Eta zenbat eta nabariagoa iruditu zientzia hau (inola ere ez da nabaria baina), hainbat eta arbuia garriagotzat jo behar da bere ezjakintza, jakintza eta filosofia xede dituzten guztien aldetik.

Ez daiteke gainera inolako susmorik gelditu zientzia hau ez-ziura eta kimerikoa dela ere, espekulazioaren eta baita ekintzaren aurkako eszeptizismoari heltzen ez badiogu. Ez dago zalantzan jartzerik gogo zenbait ahalmenez eta gaitasunez horniturik dagoela, ahalmen hauek elkarren artean bereiztekoak direla, bapateko hautemateari benetan ezberdin zaiona gogoetak bereiztua izan litekeela eta, beraz, giza adimenaren eskueratik harago ez dauden egia eta gezurra hain zuzen. Bada mota honetako beste bereizketa nabaririk ere, hala nola adimenaren eta nahimenarena, irudimen eta grinena, zeinnahi gizakiren ulermenaren barruan jausten direnak. Eta bereizketarik zorrotzen eta filosofikoenak ez dira gutxiago errealak eta ziurrak, ulergaitzagoak izan arren. Ikerketa hauetako zenbait garaipen-kasuk, oraintsukoak batez ere, jakintza adar honen ziurtasun eta sendotasunaren nozio zuzenagoa eman diezagukete. Filosofoaren ahaleginarentzat ontzat jo behar al dugu egiazko planeta-sistema batez jabetu eta gorputz urrun haien kokaguna eta ordenua zehaztea, bitartean guri, hain bertatik dagozki-gun gogoaren parteak hain garaipen handiz zedarritzen dituztenak mesprezatzen ditugularik?

9. Baina ez al dezakegu itxaron filosofiak, kontuz landua eta publikoaren arretak bultzatua baldin bada, ikerketa hauek urrunago eramane dituzten eta, zati batean behintzat, giza gogo bere eragiketetan mugiarazten duten iturri isil eta printzipioak aurki dituzten? Denbora luzez astronomoei aski izan zitzaie, fenomenoetatik abiatu, zeru gorputzen egiazko mugimenduak, ordenua eta magnitudea erakustea, noizbait filosofo bat agertu zen arte, arrazoiketarik dohatsuenek, plane-

ten jira-birak gobernatzen eta gidatzen dituzten legeak eta indarrak ere erabaki bide dituena. Naturaren beste arlo batzuetan ere gauza bera gertatu da. Eta gogo ahalmenei eta euron egiturei buruzko ikerketetan ere garaipen berdina lortzeko itxaropenik galdu beharrik ez dago, antzeko goitasun eta zuhurtzia berdinez garatzen badira. Daitekeena da gogoaren eragiketa eta printzipio bat beste baten mende egotea, zeina, halaber, beste orokorrigo eta unibertsalago batean ebatzia izan daitekeen. Eta ikerketa hauek noraino hel daitezkeen ez dago erraz erabakitzerik saialdi arretatsu baten aurretik, ezta ondoren ere. Baina egia da mota honetako saialdiak egin ohi direla, baita oso zabarki filosofatzen duten filosofoen aldetik ere, eta ez daiteke ezer beharrezkoagorik izan eginkizunari arreta eta aditasun zorrotzez heltzea baino, giza adimenaren eskueran balego gonoraz burutua izan dadin, eta bestela, gutxienez halako konfidantza eta ziurtasunez baztertua izan dadin. Azken ondorio hau ez da noski desiratzekoa, ez da azkarregi onartzekoa ere. Zeren suposizio horren arabera, zenbat gutxitu beharko genituzke filosofia honen edertasuna eta balioa? Orain arte, moralistak, gure onspen-gaitzespenak kintzen dituzten ekintzen aniztasun eta ezberdintasun mugagabea gogoematean, ohituak izan dira sentimendu barietate hau bere mende izan lezakeen printzipio komun bat bilatzen. Eta tarteko printzipio orokor horren grinan urrunegi joan badira ere, onartu beharra dago, hala ere, barkatzekoa zaiela bizio-bertute guztiak egoki ebatz litezkeen printzipio orokor batzuk topatzeko itxaropena. Gisa-gogo izan dute kritikariek, logikariek eta baita politikariek ere. Gainera ez dira hain ahalegin alferrekoak ere izan, nahiz eta agian denbora luzeagoak, zehaztasun handiagoak eta ekin beroagoak zientzia hauek oraindik perfekziotik hurbilago eramantzen dituzketen. Gisa honetako asmoak bertan behera uztea arrazoiz jo daiteke burugabe, arrapatatsu eta dogmatikoagotzat, bere erabaki eta printzipio gordinak gizarteari inoiz ezartzen saiatu ez den filosofiarik ausarten eta baizaleena baino.

10. Eta zer axola dio giza izaerari buruzko arrazoiketok abstraktuak eta ulertzailak badirudite ere? Hortik ez dago haien faltsutasuna inola ere uste izaterik. Aitzitik, ordea, ezinezkoa dirudi orain arte hainbeste jakintsu eta filosofo sakoni ihes egin diona hain bistakoa eta ulerterreza izatea. Eta ikerketa hauek kostatzen zaizkiguna kostatzen, geure burua nahiko saritutzat jo dezakegu, onurari ezezik gozamenari buruz ere, baldin bide hauetatik gure ezagutzei hain garrantzi handiko auzietan zerbait gehitu ahal badiegu.

Baina, izanak izan, pentsaketa hauen izaera abstraktua ez baita noski eurentzat gomendio bat, alde txar bat baizik, eta eragozpen hau agian arretaz eta trebetasunez eta alferreko xehetasunak baztertuz gaintzekoa denez gero, datorren ikerketan argitasun zerbait botatzen saiatu gara jakintsuei ez-ziurtasunak eta ezjakinei iluntasunak urrundu dizkien gai hauetara. Pozik geundeke filosofia ezberdinen mugak biltzeko gauza baina, ikasketa sakona argitasunarekin eta egia berritasunarekin bat eginik! Eta are pozago baldin, era erraz honetan arrazontuz, orain arte sineskeriaren abarotzat eta absurduaren eta errorearen estalkitza bakarrik balio izan bide duen filosofia nahaspilatsuen oinarriak azpijan ahal baditugu.

II ATALA

IDEIEN JATORRIAZ

11. Nornahik aise onartuko du alde handia dagoela gogoaren pertzepzioen artean, gizakume batek bero larraren mina eta bero tamainakoaren atsegina sentitzen duenean, eta gero sentipen hori gogora ekartzen edo irudimenez aurreratzten duenean. Ahalmen hauek zentzuen pertzepzioak imitatu edo kopiatu ahal dituzte, baina ez dute inoiz jatorrizko sentipen haren indarririk edo bizitasunik atzemango. Ahalmen hauek diogun gehiena da ezen, indartsuen ari direla emanik ere, objektua hain bizi irudikatzen dutela, non *ia-ia* sentitu edo ikusi egiten ditugula esan baikenezake. Baina gogo eritasunak edo zorotasunak guztiz aldrebesturik ez badago, inoiz ere ez dute halako bizitasun-mailarik izango, pertzepzio hauek sentipenetatik arras berezkaitz egiteraino. Poesiaren kolore guztiek batera, direnik bikainenak badira ere, ezin dute objektu naturalik pintatu, deskribapena egiazko paisaiatzat harrazteko moduan. Pentsamenik trinkoena ere sentsaziorik ahulena baino gutxiago da.

Honen antzeko bereizketak gogoaren pertzepzio guztiak jotzen dituela ikus dezakegu. Gizon haserrea oso ezberdin aritzen da emozio horretaz pentsatu besterik egiten ez duenaren aldean. Norbait maitemindurik dagoela badiote, aise uler dezaket adierazten zaidana eta haren egoeraz egoki jabetu, baina inoiz ez dezaket ezagutza hori erratu grinaren nahasmahas eta astinduekin. Gure iragan sentipen eta inpresioez gogoeta egitean, gure pentsamena ispilu zintzoa da, eta bere objektuak

egiazki kopiatzen ditu, baina erabiltzen dituen koloreak ahulak eta hilak dira, gure jatorrizko pertzepzio hark zekartzanen aldean. Ez da bereizmen zorrotzeko ahalmenik ez metafisikaribururik behar horiek bereizteko.

12. Hona, bada, gogoaren pertzepzio guztiak bi mota edo espezetan bana ditzakegula, euren indar edo bizitasun-maila ezberdinez bereizten direlarik. Indar edo trinkotasun gutxiagokoei ohiki *pentsamenduak* edo *ideiak* deritze. Beste motakoek gure hizkuntzan ez daukate izenik, eta beste gehienetan ere ezetz uste dut, helburu filosofikoz bakarrik baitzen beharrezko hitz edo deitura orokor baten barruan sartzea. Demaiogun, beraz, askatasun pixka bat geure buruari eta *inpresioak* deitu, hitz hau ohizkoaz beste adiera batean erabiliz. *Inpresio* hitzez, beraz, gure pertzepziorik trinkoenak adierazi nahi ditut: entzun, edo ikusi, edo sentitu, edo maite, edo gorroto, edo desiratu, edo nahi izaten dugunean. Eta inpresioak bereiziak dira ideietatik, hauek bizitasun gutxiagoko pertzepzioak direlarik, zeintzuek ohartzen garen gorago aipatu sentsazio eta mugimenduei buruz gogoeta egitean.

13. Ez daiteke, lehen begiratuan, gizakumearen pentsamena baino mugagabeagorik ezer izan, zeren giza botere eta aginte orori ihes egin ezezik, naturaren eta errealtatearen mugetara ere ez baita lotzen. Munstroak taxutzeak eta eite eta itxura inkongruenteak batzeak ez dio irudimenari objekturik naturalenak eta etxekoenak bururatzeak baino arazo gehiago ekartzen. Eta gorputza bertan minez eta ozta-ozta arrastatu beharreko planetari atxekirik dagoen bitartean, pentsamenak, amen batean, unibertso ingururik urrunetara eramane gaitzake. Edo unibertsoaz harago, kaos mugagaberaino, non, uste denez, natura anabasa hutsean omen dagoen. Inoiz ikusi edo entzun gabea ere bururatua izan daiteke. Pentsamenaren ahalmenaz harago ez dago ezer, era bateko kontradikzioa izan ezik.

Baina gure pentsamenak askatasun mugagabe hori ukan behar duen arren, azterketa hurbilagoan aurkituko dugu, izatez, oso muga-barru estuan dagoela, eta gogoaren ahalmen sortzaile guzti hori ez dela zentzuek eta esperientziak eskuratutako materialak nahasteko, azpikoz goratzeko, gehitzeko edo gutxitzeko ahalmena besterik. Urre-mendi bat pentsatzen dugunean, elkargarri bihurtzen ditugu *urrea* eta *mendia*, aurrez ezagutzen genituenak biak. Zaldi bertutetsua ere burura dezakegu, zeren geure baitako sentipenetik burura dezakegu bertutea, eta hau zaldiaren eite eta irudiari bil diezaiokegu, abere etxekoa baitugu bera. Laburki, pentsaketaren material guztiak geure barne edo kanpo pertzepziorik harakoak dira. Pertzepzio horren nahasketa eta osakuntza geure gogoari eta nahimenari bakarrik dagokio. Edo, filosofi hizkeran adierazteko, gure ideiak, edo pertzepzio ahulagoak, gure inpresioen edo pertzepzio biziagoen kopiak dira.

14. Hau frogatzeko hurrengo bi argumentuak nahikoak izango direla uste dut. Lehenbizi, gure pentsamenduak eta ideiak aztertzen ditugunean, diren osatuenak eta gorenak badira ere, beti aurkitzen dugu aurreko sentipen- edo gogo-egoera batetik kopiatuak bezain ideia xotiletara biltze direla. Lehen begiratuan, jatorri horretatik urrunen diruditen ideiek ere, azterketa hurbilagoaren ondoren, bertatik harakoak direla aurkitzen da. Jainko ideia, izaki amaigabegi burutsu, jakintsu eta ona esan nahi duen neurrian, geure gogogaren beraren eragiketei buruz gogoeta egitean eta jakinduri eta ontasun-kualitate haiek mugagabeki gehitzean sortzen da. Ikerketa honi nahi dugun hedapena emanik ere, beti aurkituko dugu ideia guztiak antzeko inpresio baten kopiak direla. Jarrera hau ez dela unibertso baliotzkoa edo salbuespenik gabea baieztu nahi dutenek errefutatze metodo bakarra eta erraza daukate: euren ustez sorburu horretatik ez datorren ideia agertzea. Orduan gure lana genuke, geure doktrinari eutsi nahi izatekotan, ideia hari dagokion inpresio- edo pertzepzio-bizia agertzea.

15. Bigarren, gizakumerik baldin bada bere organoen akatsen bategatik sentsazio-mota horretarako gauza ez denik, orduan dagozkien ideietarako ere ez dela gauza aurkitzen dugu. Itsuak ezin du koloreen inolako noziorik osatu, ezta gorra ere hotsenik. Itzul hauetariko edonori falta duen zentzua. Bere sentsazioentzat erreten berri hau irekitzean, bere ideientzat ere erreten berria irekitzen da, eta ez du inolako trabarik aurkitzen objektu horiek bururatzeko. Kasu berbera da sentsazioa eragiteko gai den objektua organoari inoiz jarri ez bazaio ere. Beltzak edo Laponiarrak ez dauka ardoaren gozoaren inolako noziorik. Eta, nahiz eta adibide gutxi edo bat ere izan ez halako gogo akatsarenik, zeinean pertsona batek ez duen inoiz sentitu edo bere espezieari dagokion sentipen edo grinarik izateko erabat ezgai den, hala ere, hautemate bera gertatzen dela ikusten dugu neurri txikiagoan. Jokabide mantso samarreko gizakumeak ezin dio antzik ere eman mendeku edo ankerkeri gogo amorratuari, eta bihotz berekiok ere ez dauka adiskidantza eta eskuzabaltasunaren gailurak asmatzerik. Aise onar daiteke beste izaki batzuek ukan ditza-ketela guk antzeman ere ezineko zentzuak, zentzu horien ideiak inoiz ez zaizkigulako aurkeztu ideia bat gogora hel daitekeen bide bakarrez, hots, arartegabeko sentipenez edo sentsazioz.

16. Bada, ordea, fenomeno kontraesankor bat, froga dezakeena ez dela arras ezinezkoa ideiak eurei dagozkien inpresioetatik aparte sortzea. Aise onartuko da begitik sartzen diren kolore-idea ezberdinak, edo belarritik datozen hotsare-nak, elkarren artean egiaz ezberdinak direla, nahiz eta, aldi berean, berdintsuak izan. Hau kolore ezberdinez egia bada, ez da gutxiago egia izango kolore berdinen *ñabardura* ezberdinez, eta orduan *ñabardura* bakoitzak ideia ezberdina sortzen du, besteetatik berezia. Zeren, hau ukatuz gero, izan bailiteke, *ñabarduren* gradapen jarraitua bide, kolore batetik beste arras ezberdin batera oharkabez pasatzea. Eta norbaitek onartzen ez

badu bitarteko batzuk ezberdinak direla, ezin du ukatu, absurduan erori gabe, ertzekoak ezberdinak direnik. Demagun, beraz, norbait hogeita hamar urtetan zehar bizi izan dela eta kolore-mota guztiak bereganatu dituela, halabeharrez, sekula egokitu ez zaion halako urdinaren *ñabardura* bat izan ezik. Jar haren begi aurrean kolore honen *ñabardura* guztiak, huraxe izan ezik, ilunenetik argienera mailaka jaitsiz. Garbi dago hutsunea somatuko duela *ñabardura* hura falta den lekuan, eta gune horretan beste edozeinetan baino distantzia handiagoa igerriko du elkarren ondoko koloreen artean. Orain galdetzen dut ea ba ote lezakeen, bere irudimen hutsez, huts hori horni eta *ñabardura* haren ideia irudika, nahiz eta inoiz zentzuen bidez aurkeztu ez. Gutxi direla uste dut horretarako gauza ez dela uste dutenak. Eta honek frogatzat balio dezake ideia bakanak ez direla beti eurei dagozkien inpresioetatik harakoak, nahiz eta kasu hau hain izan bakana, ezen ia alferrekoa baita hautemate ere, eta horregatik ez du gure epaia aldatzerik merezi.

17. Hona, beraz, proposizio bat bere baitan bakuna eta ulergarria dirudiena ezezik, behar bezala erabiliz gero, era berean ulergarri egingo lukeena edozein eztabaida, hainbeste denboran arrazoiketa metafisikoak eskuratu eta lorrindu duen mordoilo guzti hori ezabatuz. Ideia guztiak, batez ere abstraktuak, ahulak eta ilunak dira berez. Gogoak aginte urria besterik ez dauka haiengan. Beste antzeko ideia batzuekin aise nahastekoak dira. Eta hitz bati, sarritan, baina esanahi zehatzik gabe erabili dugunean, halako ideia bat datxekiola pentsatzera jotzen dugu. Inpresio guztiak ordea, hots, sentsazio guztiak —bai kanpokoak, bai barrukoak— bortitzak eta biziak dira. Hauen arteko mugak zehaztasun handiagoz ebazten dira, eta ez da erraza eurei buruzko oker edo errakuntzan erortzea. Beraz, hitz filosofikoren bat esanahi edo ideiarik gabe erabiltzen den susmorik baldin badugu —askotan gertatzen denez—, galdetzea baino ez daukagu *delako ideia hori*

zein inpresiotatik datorren. Eta inolakorik ere ezartzerik ez badago, orduan gure susmoa baiezteko balioko du. Gure ideiak hain argitasun garbira ekarrita, arrazoiz espero dezakegu euren izaera eta errealitateari buruz sor daitekeen edozein eztabaida uxatzea.¹

III ATALA

IDEIEN ASOZIAZIOAZ

18. Garbi dago gogoaren pentsamendu edo ideia ezberdinen artean badela lotura printzipio bat, eta oroimenera edo irudimenera azaltzean, batak besteari tiratzen diola, halako metodo eta erregulartasunez. Gure pentsamendu edo diskurtso neurtuagoan, aise hautematekoa da ohizko ideia-zerrenda edo katean bapatean sartzen den edozein pentsakizun partikular berehalaxe somatu eta eragozten dela. Eta gure asmakeriarik eroen eta galduenetan ere, gure ametsetan ere, gogoeta egiten badugu, irudimena ez dela guztiz noranhian ibili aurkituko dugu, bata-bestearen atzetik joan diren ideien artean badela oraindik elkarlotura bat baizik. Den solasik askeen eta jareinena transkribatuko bagenu ere, berehalaxe agertuko litzateke haren une guztietan elkarlotzen zuen zerbait. Edo hori ez balitz, solasaldia hautsi zuen pertsonak, hala ere, esan ahal izango luke bere gogoan izan zela pentsakizun zerrenda bat, pixkanaka gaitik urundu zuena. Hizkuntza ezberdinetan, elkarlotura edo komunikapen txikienik ere susma ez daitekeen artean, aurkitu izan da ideiarik konplexuenak adierazteko hitzak ia bata-bestearekikoak direla. Froga garbia hori ideia konplexuetan sartuak diren ideia bakunak printzipio unibertsal batek, gizadi osoari eragiten dionak, elkartzen dituela.

19. Ideia ezberdinak elkarrekin loturik daudela behaketari ihes egiteko bistakoegia bada ere, ez dut ordea filosofo batarrik ere topatu, asoziazio printzipio guztiak zenbatzen edo sailkatzen saiatu denik, nahiz eta jakinmina sortzeko moduko

gaia izan. Niretzat, ideien artean hiru lotura printzipio bakarrik daudela dirudi, hots: *antza*, *aldamentasuna* denboran eta espazioan, eta *kausaa* edo *efektua*.

Printzipio hauek ideiak lotzeko balio dutela nekez zalantzan jarriko da, nik uste. Pintura batek gure pentsakizunak, berez-berez, originalera daramatza². Etxeko gela baten aipuak, berez-berez, besteei buruzko galdera edo hautua dakar³. Eta zauri bat pentsatzen badugu, nekez utziko diogu hari dagokion minaz pentsatzeari⁴. Baina zenbaketa hau osoa dela eta hauez beste asoziazio-printzipiorik ez dagoela frogatzea zaila izan liteke, irakurlea edo norbera ere konformatzeko moduan. Kasu horietan egin dezakegun guztia da adibide zenbait hartu eta pentsakizun ezberdinak elkarlotzen dituen printzipioa arretaz aztertu, printzipioa ahalik eta orkorrena izatea lortu arte⁵. Zenbat eta kasu gehiago aztertu eta arreta gehiago ezarri, segurantz gehiago izango dugu orotasunetik hara egindako zenbatzea osoa eta guztizkoa dela izan ere.

IV ATALA

ZALANTZA ESZEPTIKOAK ERAGIKETEI BURUZ

I PARTEA

20. Giza arrazoimen edo ikermenaren gai guztiak, berez bi sailetan zati daitezke, hots, *ideien erlazioak* eta *izatezko zerak*. Lehen sailean dira Geometria, Algebra eta Aritmetika eta, laburki, intuitiboki eta frogabidez ziurra den edozein baiezipen. *Hipotenusaaren karratua bi alboen karratuaren berdina dela* bi figura horien arteko erlazioa adierazten duen proposamena da. *Hiru bider bost hogeita hamarren erdia izateak* zenbaki horien arteko erlazio bat adierazten du. Honelako proposamenak pentsamenaren eragiketa soilez atera daitezke, naturako zein-nahi zokotan zernahi gertatzeaz aparte. Naturan zirkulurik edo triangulurik inoiz izan ez balitz ere, Euklidesek demostraturiko egiek beti eutsi zioketen euren ziurtasun eta ebidentziari.

21. Izatezko zerak, giza arrazoimenaren bigarren gaiak direnak, ez dira era berean ziurtatzen. Guk haien egiaz dugun ebidentzia ere, nahiz eta den handiena izan, ez da aurrekoaren tankera berekoa. Edozein izatezko zeren kontrakoa litekeena da nolana, inoiz ez baitezake kontradiziorik inplika, eta go-goak sortzen baitu, guztiz errealitateari balegokio moduko erraztasun eta berezkuntzaz. *Bihar ez da eguzkia irtengo* ez da proposamen ez-ulergarriagoa eta kontradikzio gutxiagokoa *irtengo da* baiezipena baino. Alferrik saiatuko gara bere faltsuta-

suna frogatzen. Frogabidez faltsua balitz, kontradikzio bat le-
ramake, eta gogoak ezingo luke inoiz bereiztuki sortu.

Jakinmina piztekoa izan liteke, beraz, ikertzea zer izaera
daukan zeinnahi existentzia erreal eta izatezko zer segurtatzen
duen ebidentziak, zentzuen eta gure oroimeneko artxiboen
oraingo lekukotzatik harago. Filosofia zati hau, hauteman dai-
tekeenez, bai aintzinakoez eta bai oraingoek gutxi landu dute
eta beraz, gure zalantzak eta hutsak, hain ikerkuntza garran-
tzizkoa egitean, barkagarriak izan litezke, hain zidor zailetatik
gida edo zuzenbide gabe goazenez gero. Ongarri ere gerta li-
tezke, jakinmina kinatzeagatik edo zeinnahi arrazoiketa edo
ikerkuntza askeren hondagarri diren fede eta segurtaun inplizi-
tuak desagiteagatik. Filosofia komunean akatsak, baldin ba-
daude, aurkitzeak ez luke, nik uste, atzeragarri izan behar, ki-
nagarri baizik, ohi denez, orain arte publikoari aurkitu zaiona
baino zerbait osoago eta bateragarriagoa intentatzeko.

22. Izatezko zerei buruzko gure arrazoiketa guztiak
kausa-efektuen erlazioan oinarritzen direla dirudi. Erlazio ho-
nuxen bitartez bakarrik jo dezakegu gure oroimenaren eta
zentzuen ebidentziatik harago. Norbait bertan ez den izatezko
zer bat zergatik sinesten duen galdetzen bazaio, adibidez, bere
laguna herrian edo Frantzian dagoela, arrazoi bat emango luke,
eta hau beste izate bat izango litzateke, hala nola harengandik
hartutako gutun bat, edo haren aurreko asmo edo promesen
ezagutza. Irla huts batean erloju bat edo beste makinaren bat
topatzen duen gizakumeak laster aterako luke irla hartan noiz-
bait beste gizakume bat izan den ondorioa. Izateei buruzko
gure arrazoiketa guztiak izaera berdinekoak dira. Eta eurentan
etengabe suposatzen da oraingo izatearen eta hartatik inferi-
tzen denaren artean badela lotura bat. Lotzen dituen ezer ez
balitz, arras inferentzia hutsala litzateke. Hots artikulatu bat
eta solas razional bat ilunetan entzuteak norbaiten presentzia
segurtatzen digu. Zergatik? Horiek giza egitura eta hariakoak

direlako, eta horrekin estuki loturik daudelako. Era honetako
beste arrazoiketa guztiak aztertzen baditugu, kausa-efektuen
erlazioan oinarritzen direla aurkituko dugu, eta erlazio hau hur-
bila edo urruna dela, zuzena edo kolaterala. Beroa eta argia
suaren efektu kolateralak dira eta efektuetariko bat bestetik zu-
zen atera daiteke.

23. Honela, bada, izatezko zerak segurtatzen dizkigun
ebidentzia haren izaerari buruzko ondorio betegarria geugana-
tu nahi badugu, kausa-efektuen ezagutzara nola heltzen garen
atera behar dugu.

Baieztera menturatuko naiz, salbuespenik onartzen ez
duen proposamen gisan, erlazio honen ezagutza ez dela inoiz
ere *a priori* arrazoiketaz atzematen, oso-osoan esperientziatik
datorrela baizik, zeintzunahi objektu partikular etengabe elkar-
loturik daudela erreparatzean. Eman objektu bat berezko arra-
zoimenez eta argitasunez osaturiko gizakume bati. Objektu
hau guztiz berria balitzaio, ez litzateke gauza izango, ezta ha-
ren kualitate sentigarrien ikerketarik zorrotzenez ere, haren
inolako kausarik edo efekturik aurkitzeko. Adanek, sortzetik
guztiz garaturiko ahalmen razionalak aitortuko bagenizkio ere,
uraren jariotasun eta gardenetik ezingo zuen atera hark ito ze-
zakeenik, edo argitik edo suaren berotik hark erre egin zeza-
keenik. Zentzuetara azaltzen dituen kualitateetatik ez du ezein
objektuk erakusten ez hura sortu zuen kausarik, ez hartatik
sortzen den efekturik, eta gure arrazoimenak ezin du, espe-
rientziaren laguntzarik gabe, existentzia errearen eta izatez-
ko zeren inolako inferentziarik atera.

24. Honako proposamen hau: *kausa-efektua ez dago*
arrazoimenez aurkitzerik, esperientziaz baizik, aise onartua
izango da noizbait guztiz ezezagun izan zaizkigula gogoratzen
ditugun objektuei buruz, nahitaez jabetzen baikara zein ezgai-
tasun nabarian ginen une hartan, haietatik zer etorriko zen as-

matzeko. Filosofia naturalari buruz tutik ez dakien gizakume bati eman bi haitzurdin-zati leun eta ezetz inoiz atera hala elkarri itsasten direla, non apartatzeko indar izugarria behar den zuzenetara, albo-presioari ordea aise amore ematen diotela. Naturaren abio normalaren antz gutxi duten gertaerek esperientziaz bakarrik ezagut daitezkeela onartzea ez da zaila. Polboraren leherketa edo imanaren erakarmena *a prioriko* argumentuz aurki daitekeen inork ez du pentsatzen. Era beretsuan, efektu bat mekanismo korapilotsu baten edo atal ezezagundun egitura baten gorabeheran dagoela suposatzen dugunean, ez daukagu eragozpenik gure harekiko ezagutza guztia esperientziari eransten. Nork segurta lezake azken arrazoia eman dezakeela, zergatik diren esnea eta ogia gizekumearentzat eliku egokiak, baina ez lehoi edo tigrearentzat?

Baina egia berak ez daukala ebidentzia bera eman lezake, lehen begiradan, gure munduratze beretik etxeko ditugun, naturaren abio osoaren antz handia daukaten eta ustez kalitate bakunen edo zatikako egitura ezkuturik ez duten objektuen mende dauden gertaerei buruz. Efektu hauek adimenaren eragiketa soilez, esperientziara makurtu gabe, aurki genitzakeela pentsatzera jotzen dugu. Uste dugu, bapatean mundu honetarako bagina, bilar-bola batek beste bat jotzean mozioa erants diezaiokeela, eta ez genukeela gertatzeko zain egon beharrik, hartaz iritzi ziurrik emateko. Halako eragina dauka ohiturak, ezen, sendoena den lekuan, gure berezko ezjakintza estali ezetik, bere burua ere gorde egiten baitu, eta badirudi egon ere ez dagoela, hain zuzen mailarik gorenean dagoelako.

25. Baina naturaren lege guztiak eta gorputz-eragiketa guztiak, bat ere utzi gabe, esperientziaz bakarrik ezagutzen direla konbentzitzeko, agian aski izango dira honako gogoetak. Zeinnahi objektu aurkezten zaigula, harengandik sortzeko efektuaz pronuntziatu behar bagenu, aurreko obserbaziorik gabe, nola behar luke, galdetzen dizut, gogoak eragiketa hone-

tan ihardun? Delako objektuaren efektutzat hartzeko moduko gertaeraren bat asmatu edo iruditu beharko luke. Eta asmatze hori garbi dago erabat arbitrarioa dela. Gogoak ezin du inoiz ere ustezko kausaren efekturik aurkitu, eskutatzerik eta aztertzerik zorrotzenez, efektua kausaren arras ezberdina baita, eta, ondorioz, ezin baitu honengan aurkitu. Mugimendua, bigarren bilar-bolan, lehen bolarenaz guztiz bestelako mugimendua da. Batak ere ez du ezer, bestearen zantzu txikienik izatekorik. Jaso eta bertan behera utzi den harria edo metal-zatia berehalaxe erortzen da. Baina auzia *a priori* kontsideraturik, ba al da egoera horretan aurki dezakegun ezer, goranzko baino areago beheranzko mugimenduaren edo beste zeinnahi mugimenduren ideiarik eman lezakeenik harrian edo metal-zatian?

Eta eragiketa natural guztietan halako efektu jakin baten lehen irudipena edo asmakuntza arbitrarioa denez esperientziarekin kontsultatu ezik, era berebean jo behar dugu baita kausa-efektuen arteko lokarri edo konexioa delakoa ere, biak baten eta kausa haren eraginetik harako beste edozein efektu ezinezko bihurtzen duen lokarria. Bilar-bola bat beste bate-rantz marra zuzenean doala ikustean, bigarren bolaren mugimendua ukitzen edo sakada baten ondorioztat akzidentez sujetitzen bazait ere, ez ote dut bururatu ahal beste halako ehun gertaera berdin sor litezkeela kausa hartatik? Ez ote zitezkeen bi bolak geldi gera? Ez ote zitezkeen lehen bola marra zuzenean bere abiagunera itzul, edo bigarren bolan edozein marra edo norabidetan errebotatu? Suposamen guzti hauek bidezkoak eta bururatzekoak dira. Orduan zergatik eman behar diogu bati lehentasuna, bestea baino bidezkoago eta bururagarriagoa ez izanik? Gure inolako *a prioriko* arrazoiketarik ez liguke inoiz lehentasun honetarako inolako oinarririk erakutsi ahal izango.

Hitz batez, beraz, oro efektu bere kausaren gertaera ezberdina da. Ezingo litzateke, beraz, bere kausan aurkitu eta bere lehen asmakuntza edo bururatzea, *a priori* guztiz arbitra-

ria izan behar. Eta kausarekiko lotura iradokita gero ere, era berean arbitrario emango du, beti baitago beste anitz efektu arrazoiari guztiz bidezko eta berezko irudituko zaiona. Alferrik saiatuko ginatke, beraz, zeinnahi gertaera bakan erabakitzen edo zeinnahi kausa edo efektu inferitzen, behaketaren eta esperientziaren laguntzarik gabe.

26. Hemendik atera dezakegu arazoia, zergatik ez den saiatu ezein filosofo, zentzuzkoa eta jatorra behintzat, edozein eragiketa naturalen azken kausa erakusten edo unibertsoan edozein efektu bakan sortzen duen indarraren ekintza argi azaltzen. Aitortzen da giza arrazoimenaren ahalegin nagusia fenomeno naturalen printzipio eragileak bakuntasun handiagora ekartzea dela, eta anitz efektu partikular kausa orokor gutxira, analogian, esperientzian eta behaketan oinarrituriko arazoiketa bidez. Baina kausa orokor hauen kausei dagokienez, alferrik saiatuko gara aurkitzen, eta euren inolako esplikazioak ere ez gaitu beteko. Azken iturri eta printzipio hauek guztiz debekaturik daude giza jakinmin eta ikerkuntzarentzat. Zaulitasuna, grabitatea, zatien konexioa eta mugimendua bultzadaz komunikatzea, horra ziur aski gizadian aurkitu ahal ditugun azken kausak eta printzipioak. Eta nahiko zorionekotzat jo dezakegu geure burua, baldin, ikerketa eta arazoiketa zorrotzez, fenomeno naturalak printzipio orokorretara jasotzeko, edo hauetara hurbiltzeko gauza bagara. Tankera naturaleko filosofiarik perfektuenak gure ezjakintza pixka bat uxatu besterik ez du egiten, tankera moral edo metafisikozko filosofiarik perfektuenak ere agian ezjakintza horren arlo handiagoak nabarmentzeko bakarrik balio duen moduan. Honela zeinnahi filosofiarren emaitza giza itsutasun eta ahultasunaren obserbazioa da, eta noiznahi topo egiten dugu eurokin, baztertzeko edo uxatzeko ahalegin eta guzti ere.

27. Geometriak berak ere, filosofia naturalaren laguntzailatzat hartzen dugunean, ez dauka akats hau ontzerik edo

azken kausen ezagutzara eramaterik, hargatik mereziki gorai-patua den arazoiketako zehaztasunaren bitartez. Matematika aplikatuaren adar guztiek suposizio honekin jokutzen dute, hots, halako lege batzuk naturak bere eragiketetan ezarriak direla, eta arazoiketa abstraktuak erabiltzen dira, bai lege hauen aurkikuntzan esperientziara jotzeko, bai hauen eragina erabakitzeko distantzi eta kantitate maila jakin baten mende dauden kasu partikularretan. Honela, esperientziaz aurkitutako mugimendu-legea da gorputz mugikari baten oldarra edo indarra bere masa-abiaduren arrazoi konposatu edo proportzioaren araberakoa dela. Eta, beraz, indar txiki batek oztoporik handiena mugiaraz edo pisurik astunena jaso lezakeela, nolabaiteko asmakuntzaz edo tresnaz, indar haren abiadura kontrakoa gaitzeko adina gehitu ahal izanez gero. Geometriak lege honen aplikazioan laguntzen digu, edozein makina-mota osa dezaketen zati eta figura guztien neurri zehatzak ematen dizkigula, baina nolana ere, legearen beraren aurkikuntza esperientziari bakarrik zor zaio, eta munduko pentsakizun abstraktu guztiek ere ezingo gaituzte inoiz urrats bat hurbildu bere ezagutzara. *A priori* arazoitzen dugunean eta objektu edo kausa bat soilean kontsideratzen dugunean, hots, gogoari agertzen zaion moduan, zeinnahi obserbaziotatik at, inoiz ezin digu iradoki bere efektuaren gisako objektu ezberdin baten noziorik, eta are gutxiago haien arteko lotura banagaitz eta hauskaintzik erakutsi. Gizakume batek oso argia behar du kristala beroaren eta izotza hotzaren efektua dela arazoibidez aurkitzeko, bi egoera horien arteko zerikusia aurrez jakin ezik.

II PARTEA

28. Baina oraindik ez gaude nahi bezain aserik jarritako lehen galderari buruz. Soluzio bakoitzak galdera berria dakar, aurrekoa bezain zaila eta ondorengo ikerkuntzetara garamatza-

na. *Zein da izatezko zeren gure arrazoiketen izaera?* —galdezen denean, badirudi kausa-efektuen erlazioan oinarriturik egotea dela erantzun zuzena. *Zein da erlazio horren gure arrazoiketa eta ondorio guztien oinarria?* —berriz galdetzean, hitz batez erantzun daiteke: Esperientzia. Baina geure azter-gogoari jarrai, galdetzen badugu: *Zein da esperientziaren ondorio guztien oinarria?* —orduan honek beste galdera berri bat dakar, ebazten eta azaltzen askoz zailagoa izan litekeena. Jakinduria eta askitasun handiko plantan dabilzan filosofoek lan zaila daukate azter-joeradun pertsonekin ostenduta dauden zoko guztietatik kanporatzen eta ziur asko azkenean dilema arriskutsura eramango dituztenekin. Larriune horri aurrea hartzeko erarik onena geure pretentsioetan apalak izatea da, eta areago geuk bistaratzea zailtasuna inork objeziotzat jaurti aurretik. Honela gure jakinduria bertute gisako zerbait egin dezaieke nolabait.

Zati honetan pozik nagoke lan erraz batez, hemen planteaturiko galderari ezezko erantzuna bakarrik emanaz. Horrela diot ezen, kausa-efektuen eragiketetan esperientzia izan eta gero ere, gure ondorioak esperientzia horretatik hara atereak, ez daudela arazoiketetan edo adimenaren ezein prozesutan oinarrituak. Erantzun hau azaldu eta defendatu egin behar dugu.

29. Bete-betean onartzekoa da naturak bere sekretuetatik urrun eduki gaituela eta objektuen kualitate azal batzuen ezagutza bakarrik eman digula, objektu horien eraginean agintzen duten indarrak eta printzipioak ezkututzen dizkigularik. Gure zentzuek ogiaren kolore, pisu eta sendotasunaren berri damaigute, baina ez zentzuek ez arrazoiketak eman diezaguke hura giza gorputzaren eliku eta euskarri egiten duten kualitateen berri. Ikusmenak eta ukimenak gorputzen oraingo mugimenduaren halako antz bat ematen dute. Baina gorputz mugikari bat mugagabeki leku-aldan erabil dezakeen indar edo ahalmen miragarri hari buruz, eta gorputzek beste batzuei

emanda baizik inoiz galtzen ez duten hari buruz, ez daukagu bururapen txikiarik ere sortzerik. Baina ahalmen⁶ eta printzipio naturalen ezjakintza hau eta guzti ere, beti suposatzen dugu kualitate sentigarri berdinak ikustean, ahalmen ezkutatu berberak dituztela, esperientiatu ditugun antzeko efektuek segituko dietela espero dugu. Aurretik jandako ogiaren antzeko kolore eta sendotasuneko gorputz bat azalduko baligute, ez genuke esperientzia berregiteko koskarik izango, eta segurki antzeko elikua eta euskarria somatuko genioke. Baina jakin nahi nuke nik gogoaren edo pentsamenaren prozesu honen oinarria zein den. Denek onartzen dute kualitate sentigarrien eta ahalmen ezkutuen artean ez dagoela lotura jakinik, eta beraz, gogogari ez zaiola lotura etengabe eta erregular horri buruzko ondorioa aterarazten, horren izaeraz jakin dezaketetik. Iragan *esperientziari* buruz, objektu doi-doi haiexen eta bere ezagutzaldi doi-doi hartakoen informazio *zuzena* eta *ziurra* bakarrik eman dezakeela onar daiteke. Baina esperientzia honek zergatik hedatu behar du geroko uneetara eta objektu batzuetara, hauek, dakigunetik, itxuraz bakarrik antzekoak izatea litekeelarik?: horra ekin nahi niokeen auzi nagusia. Arestian jan dudana, elikatu nauen ogia, hots, halako kualitatedun gorputz bat, une hartan halako ahalmen ezkutuz horniturik zegoen. Baina atera al daiteke hortik beste ogi-zati ezberdin batek ere elika nazakeela beste une batean, eta kualitate sentigarri berdinek beti behar dutela ahalmen ezkutatu berdinekin batuta egon? Ondorio horrek inondik ere ez dirudi nahitaezko. Gutxienez aitortu beharko da hemen gogogak lortutako ondorio bat dagoela, urrats bat eman dela, pentsamen-prozesu bat, eta azaldu beharreko inferentzia bat. Hurren bi proposamenok berdinak izate-tik urrun daude: *halako objektuari beti halako efektua egokituz zaiola aurkitu dut*, eta: *itxuraz antzekoak diren beste objektu batzuei antzeko objektuak egokituko zaizkiela aurrikusten dut*. Onartuko dut, nahi bada, proposamen bata zuzen inferi daitekeela bestetik. Badakit, egitez, beti inferitzen dela. Baina infe-

rentzia hori arrazoi-kate baten bidez egiten dela ihardesten baidazu, arrazoiketa hori azaltzea nahi nuke. Bi proposamen horien arteko lotura ez da intuitiboa. Bitarteko bat behar da gogoia inferentzia horretara helaraz dezan, egiatan arrazoi edo argumentu bidez heltzen bada. Bitarteko hau zer den, aitortuko dut, nire ulermenaz gain dago, eta egiatan badela eta izatezko zerei buruzko gure ondorio guztien sorburua dela diotenei dagozkie azaltzea.

30. Argumentu ezezko honek, noski, guztiz konbintzente bilakatu behar du denboraren buruan, hainbat filosofo trebe eta zorrotzek ikerkuntzak horrantz bideratu eta inor ez bada gai adimenari ondorio honetan lagunduko dion proposamen bilgarririk eta bitarte-urratsik aurkitzeko. Baina auzia oraingoz berria denez gero, irakurle guztiak ez dira euren argitasunaz fidatuko pentsatzeraino, arrazoiketa batek euren ikerkuntzari ihes egiten diola-ta, ez dagoela horregatik errealtatean oinarritua. Arazo honengatik, agian lan zailagoan sartu beharra dago, eta giza jakintzaren adar guztiak zenbatuz, hauetako batek ere ez duela arrazoiketa hori permititzen erakusten ahalegindu.

Arrazoiketa guztiak bi motatan zati daitezke, hots, arrazoiketa demostratiboa edo ideia-erlazioei dagokiena, eta arrazoiketa morala edo izatezko eta existentziatzko zerei dagokiena. Kasu honetan argumentu demostratiborik ez dagoela nabaria dirudi, ez baitago inolako kontraesanik naturaen abioa aldatu ahal izatean eta objektu batek, itxuraz esperimendatu ditugun beste batzuen antzeko batek, efektu kontrakoak edo ezberdinak sortu ahal izatean. Ez al dezaket argi eta ezberdinki bururatu hodeietatik erortzen den gorputz batek, beste alde guztietan elurraren antza izanik ere, gatzaren zaporea edo suaren sentsazioa edukitzea? Ba al da proposamen ulergarriagorik baiezipen hau baino, hots, zuhaitz guztiak abenduan eta urtarrilean loratzen direla, eta maiatzean eta ekainean hostoa galduko

dutela? Baina ulergarria eta ezberdinki bururatua izatekoa denak ez darama inolako kontradikziorik, eta inoiz ez daiteke bere gezurrik frogatu argumentu demostratiboz edo inolako *a priori*ko arrazoiketa abstraktuz.

Beraz, argumentuz konbentzitu bagintuzte geure iragan esperientziaz fidatzeko eta hura geure geroko judizioen gidari egiteko, argumentu hauek probableak bakarrik edo izatezko eta existentzia errealezko zerei dagozkienak izan beharko lukete, gorago aipatu zatiketaren arabera. Bistan baitago ez dagoela honelako argumenturik, arrazoiketa-mota honen gure azalpena sendotzat ete betegarritzat jotzen bada. Existentziari buruzko argumentu guztiak kausa-efektuen erlazioan oinarritzen direla esan dugu, eta gure ondorio esperimendal guztiak etorkizuna iragana izan den bezalakoa izango den suposametik hara sortuak direla. Azken suposamen hau argumentuz frogatu nahi izateak dudarik gabe bertan itzulka ibiltzea eta zalantzan dagoena jakintzat ematea dakar.

31. Izatez esperientziako argumentu guztiak objektu naturalen artean aurkitzen dugun antzean oinarritzen dira, eta horrek garamatza objektu haiei zerizkien efektuen antzekoak espero izatera. Eta esperientziaren autoritatea eztabaidatzerik, edo hura giza bizitzaren goren gidaritzat nardatzerik ergelak edo zoroak ez bestek ez badu pentsatuko ere, filosofo bati noski zilegi izan dakioke giza izaeraren printzipioa (esperientziari autoritate indartsu hori ematen eta naturak objektu ezberdinetan jarri duen antzetik alde ona aterarazten digun giza izaera horren printzipioa) aztertzeke adina jakinmin izatea. *Antzekoak* diruditen kausetatik antzeko efektuak itxaroten ditugu. Gure ondorio esperimendal honetara biltzen direla dirudi. Baina ondorio hau arrazoiak sortzekotan, bistakoa dirudi hasieran eta kasu bakarrean ere esperientzi zerrenda luzearen ondoren bezain biribila izan behar lukeela. Baina egia oso bestelakoa da. Ez dago ezer arraultzak bezain antzekorik, baina

inork ez du, itxurazko antz hori dela-ta, arraultza guztietan dasta eta zapore berdina itxarongo. Mota honetako esperimentu uniforme-zko kate luzearen ondoren bakarrik lortzen dugu gertaera partikular bati buruzko segurtasuna eta fidantza. Baina non da arrazoiketa prozesurik, kasu batetik zeharo ondorio ezberdina ateratzen duenean lehenengo kasu horren berdinerdinak diren beste ehun kasutatik ateratakoaren aldean? Galdera hau egiten dut, bai neure burua informatzeko, bai zailtasunak bistartzeko. Ezin dut topatu, ezin dut iruditu horrelako arrazoiketarik. Baina gogoia ikasgura dut, norbaitek irakátsi nahi badit.

32. Esperimentu uniforme-sorta batetik kualitate sentigarrien eta ahalmen ezkutuen arteko lotura *inferitzen* dugula esan behar al da? Honek, aitortuko dut, beste hitz batzuetan azaldutako zailtasuna bera dirudi. Hala ere berriz dator galdera: zein argumentatze prozesutan datza *inferentzia* hau? Non dago bitartekoa, elkarretik hain urruneko proposamenak bazten dituzten tarteko ideiak alegia? Ogiaren koloreak eta beste kualitate sentigarriek berez ez daukatela aitortzen da eliku- eta sostengu-ahalmen ezkutuekin inolako loturarik. Zeren bestela ahalmen ezkutu hauexetatik inferi genezake, kualitate sentigarri horiek agertuz bat-batera, esperientziaren laguntzarik gabe, filosofo guztien iritziaren eta gertaeren euren aurka. Hona, bada, objektuen ahalmen eta eraginei buruzko gure ezjakintasunaren egoera naturala. Nola konpontzen da esperientziaz? Honek zenbait efektutatik harako efektu berdintsu mordo bat erakusten digu, eta objektu partikular haiek, une jakin hartan, halako ahalmenez eta indarrez horniturik zeudela irakasten digu. Objektu berri bat antzeko kualitate sentigarriz horniturik gertatzen denean, antzeko ahalmen eta indarrak itxaroten ditugu, baita efektu bera ere. Ogiaren antzeko kolore eta sendotasuneko gorputz batetik ogiari dagozkion elikua eta euskarria itxaroten ditugu. Baina dudarik gabe azalpena behar duen gogogaren urrats edo aurrerakada bat da. Gizakume batek dioe-

nean: *Aurreko kasu guztietan halako kualitate sentigarriak halako ahalmen ezkutuei loturik topatu ditut*, eta beste hau dioenean: *Antzeko kualitate sentigarriak beti egongo dira antzeko ahalmen ezkutuei loturik*, orduan ez da tautologiaren errudun, eta bi proposamenok ez dira inola ere berdinak. Proposamen bata bestetiko inferentzia omen da, baina aitortu behar inferentzia hori ez dela intuitiboa ez demostratiboa. Zer nolako da orduan? Esperimentala dela esatea printzipio-eskea da, zeren esperientziatik harako inferentzia orok, oinarritzat, etorkizuna berdina izatea suposatzen du. Naturaren abioa alda litekeela eta iragana balitekeela etorkizunaren gidari ez izatea susmorik balitz, esperientzia oro alferrekoa litzateke eta ezingo luke inolako inferentziarik edo ondoriorik eman. Ezinezkoa da, beraz, esperientziatik harako ezein argumentuk iraganaren etorkizunarekiko antz hori demostratu ahal izatea, argumentu guztiak ustezko antz hartantxe oinarritzen baitira. Eman dezagun naturaren abioa oso erregularra izan dela orain arte. Honek, beronek bakarrik, beste argumentu edo inferentzia berririk gabe, ez du demostratzen etorkizunean ere berdina izango denik. Alferrik ahaleginguduko gara izakien izaera iragan esperientziatik ezagutzen. Haien izaera ezkutua, eta beraz haien efektu eta eragin guztiak, aldatu egin daitezke, euren kualitate sentigarrietan batera aldakuntzarik izan gabe. Hauxe da batzuetan eta objektu batzuekin gertatzen dena. Zergatik ez daiteke beti eta denekin gerta? Zein logikak, zein argumentatze prozesuk segurtatzen gaitu inferentzia honen aurka? Ezein irakurketak, ezein ikerketak ezin izan dit koska hau konpondu, ez satisfakziorik eman hain garrantzizko gorabeheran. Zer nezake hoberik publikoari koska azaltzea baino, nahiz eta agian konponbiderik lortzeko itxaropen urria dudana? Honela behintzat geure ezjakintasunaren ohartun izango gara, geure jakintzarik gehituko ez badugu ere.

33. Argumentu batek bere ikerkuntzari ihes egin diolako ez dela benetan existitzen ateratzen duen gizakumea harro-

keria barkagaitzaren errudun dela aitortu behar dut. Baita aitortu behar dut, nahiz eta jakintsu guztiak batera, zenbait gizalditan zehar gai baten alferreko ikasketarik egin izan, hala ere balitekeela arinkeria izatea gai hori, horregatik, giza ulermenaz gain dagoela ateratzea. Gure ezagutzaren iturri guztiak aztertu eta auzi horretarako denak desegokiak direla aterako bagenu ere, oraindik gelditeke susmoa, zenbaketa ez ote den osoa edo azterketa hain zehatza. Baina gagozkion gaiari buruz, badira kontsiderapen batzuk, harrokeri salapena edo hutsegite-susmoa deusezten dutenak.

Argi dago baserritar ezjakin eta tenetelenek ere, edo haurrek, edo baita basapiztiek ere, esperientziaz aurreratzen dutela eta objektu naturalen kualitateak ikasten dituztela, haie-tatik datozen efektu naturalak behatzean. Haur batek kandela garrari ukitzean min sentsaziorik izan badu, nekez hurreratuko dio eskurik beste ezein kandelari, antzeko efektua itxarongo baitu kualitate eta itxura sentigarrietan antzeko den kausatik. Norbaitek segurtatuko balu haurren adimena argumentatze edo arrazoitze-prozesuren baten bitartez heltzen dela ondorio horretara, arrazoiz eska diezaioket argumentu hori azaltzeko, eta ez luke hain eskari bidezkoari ukorik egiterik izango. Ez duzu esaterik argumentu korapilatsua denik, eta agian bere ikerkuntzari ihes egiten dionik, haur soil baten gaitasunerako bistakoa dela onartzen baita. Zalantzarik bazenu, edo, gogoeta ondoren argumentu nahasi eta sakonen bat emango bazenu, orduan nolabait auziari amore ematen diozu, eta aitortzen duzu ez dela arrazoiketa iragana etorkizunaren antzekoa dela suposarazten eta itxuraz antzekoak diren kausetatik antzeko efektuak itxaronarazten dizkiguna. Hauxe da atal honetan finkatu nahian nabilen proposamena. Zuzen banago, ez dut aurkikuntza handirik egin dudarik pretenditzen. Oker banago, oso eskolamutil atzeratua naizela atera behar, ezin baitut aurkitu, dirudienez, sehaskatik irten aurretik erabat etxeko nuen argumentu bat.

V ATALA

ZALANTZA HORIEN IRTENBIDE ESZEPTIKOA

I PARTEA

34. Filosofiarako grinak, erlijiorako grinak bezala, honako alde txarrerako isuria dauka: nahiz eta gure portaera zuzentzen eta gure bizioak erauzten saiatu, izatez bakarrik balio dezake, inprudenziaz erabiliz gero, joera nagusi bat indartzeko eta gogo hartarakotasun sendagoz eramateko lehendik ere berez (bere berezko jitearen predisposizioz eta isuriz) gehiegi *jotzen* duen posiziorantz. Filosofo jakintsuaren irmotasuna nahi dugun eta gure gozamina geure gogoetara bakarrik mugatzekotan garen bitartean, azkenerako Epiktetoren eta beste *estoikoen* antzeko filosofia egitera hel gintezke, norberekeri sistema zorrotzagoa alegia, eta, arrazoiaren bitartez, bertute eta atsegin sozial orotik harago jarri. Giza bizitzaren hutsalergia arretaz aztertzen eta gure pentsakizun guztiak ondasunen eta ohoreen izate huts eta joankorrera bideratzen ditugun bitartean, agian geure berezko nagikeria xaxatzen baino ez gara ari, zeinak, munduko zalaparta eta negozioen monotonia gorrotatuz, arrazoi itxurako bat bilatzen duen, nahikeria osoari eta kontrolgabeari ekiteko. Bada, ordea, alde txar honetarako isuririk ez daukan filosofia bat, giza gogoaren ezein grina okerrekin elkartzekoa ez delako, ezta ezein berezko emozioz edo joeraz nahastekoa ere. Eta hori Filosofia Akademikoa edo Esszeptikoa da. Akademikoak etengabe mintzo dira zalantzaz

eta iritzi-kolokaz, arrapatako erabakien arriskuaz, eta bizitza eta jokabide komunaren esparruan sartzen ez diren espekulazio guztiei uko egiteaz. Ez dago, beraz, filosofia hori baino ezer, gogoaren nagikeria nabarmenaren, harrokeria ausarkoiaren, pretentsio handien eta sineskortasun sorginkoien kontrakoagorik. Grina oro da kontuz ibili beharrekoa, egizaletasuna izan ezik. Harrigarria da, beraz, filosofia hau, ia kasu guztietan kaltegabea eta errugabea izan behar duelarik, hainbeste destaina eta gaitzespen funskaberen gai izatea. Baina agian errugabe izate horrexek dakarkio batez ere denen gorrotoa eta gaitzia. Inolako grina irregularik ez ferekatzean, aldeko gutxi lortzen du. Hainbeste bizio eta erokeriari kontra egitean, libertinotzat, profanotzat eta erlijogabetzat salatzen duen arerio piloa altxarazten du.

Ez dugu ez beldurrik izan behar filosofia honek, gure ikerkuntzak bizitza arruntera mugatzen saiatzean, bizitza arrunteko arrazoiketarik inoiz azpijango ote dituen, eta bere zalantzak ekintza oro, eta espekulazio oro ere, deusezteraino eramango ote dituen. Naturak beti eutsiko die bere eskubideei, eta azkenean edozein arrazoiketa abstrakturi nagusituko zaio. Nahiz eta, aurreko atalean bezala, aterako bagenu esperientziatik harako arrazoiketa guztietan gogoak ezein argumentuz ez ulermen prozesuz ezin eusteko urratsa eman duela, ez dago arriskurik ia jakintza guztia euren gorabeheran dagoen arrazoiketa haiek halako aurkikundeak jota gelditzeko. Gogo urrats hori ematera arrazoiketaz eramana ez bada ere, pisu eta autoritate berdineko beste printzipioren batek hartaratua izan behar du. Eta printzipio honek bere eraginari eutsiko dio, giza izae-rak bera diraueno. Printzipio hori zer den jakiteak merezi luke ikerketa lantsu bat.

35. Demagun pertsona bat, arrazoi eta gogoeta ahalmenik indartsuenez osatua gainera, bapatean mundu honetan sartzen dutela. Berehalaxe hautemango luke objektuen segida

etengabea, eta gertaerak bata-bestearen atzean, baina hortik aurrera ezingo luke ezer aurkitu. Lehenengotan, ezein mugimenduk ez lioke kausa-efektuen ideiarik emango, zeren ahalmen partikularrak, eragiketa natural guztien eragile diren horiek, inoiz ez zaikie zentzuei agertzen, eta ez da arrazoizko, gertaera bat kasu batean beste baten aurretik doalako soilki, bata horregatik kausa eta bestea efektua denik. Bien lotura arbitrarioa eta kasuala izan daiteke. Baliteke inolako motiborik ez izatea bataren izatea bestearen agertzetik ateratzeko. Eta hitz batez, halako pertsonak, esperientzia gehiago gabe, ezingo luke ezein izatezko zeren aierurik edo arrazoiketarik egin ez ezertaz segur egon, bere oroimenari eta zentzuei berbertan azaltzen zaionaz izan ezik.

Demagun orain esperientzia gehiago daukala eta munduan bizi izan dela zeintzu objektu edo gertaera antzeko beti elkarloturik dauden ohartzeko adina. Zein da esperientzia honen ondorioa? Berehalaxe ateratzen du objektu baten izatea beste baten agertzetik. Baina bere esperientzia guztiaz ere, ez du inolako ideiarik edo ezagutzarik lortu objektu batak bestea sorrarazten duen ahalmen ezkutuz, eta ez dago inolako arrazoiketa-prozesuz beharturik inferentzia hori bereganatzera. Baina hala ere, inferentzia hori egitera derrigorturik aurkitzen da. Eta bere adimenak eragiketa horretan inolako parterik ez daukala sinetsiko balu ere, pentsakera berdinean segituko luke. Beste printzipioren bat egon behar du halako ondorioa aterarazten diona.

36. Printzipio hori Ohitura edo Ekandua da. Zeren egintza edo eragiketa partikular baten errepikak egintza edo eragiketa bera berritzeko joera sortzen duen guztian, arrazoiketa- edo adimen-prozesu ezeinen sakada gabe, beti esaten dugu joera hori *Ohituraren* efektua dela. Hitz hau erabiltzean ez dugu pretenditzen joera horren azken arrazoia ematerik. Beharbada ezin diegu gure ikerkuntzei harago eragin, ez kausa

honen kausarik ematerik pretenditu ere, bai ordea berarekin konformatu behar, esperientziatik datozen gure ondorio guztiei ezartzeko azken printzipiotzat. Bada nahiko estimagarria hain urrun heldu ahal izatea, harago ez garamatzatelako gure ahalmenen murriztasunaz kexatu gabe. Ez dago dudarik egiazkoa ez bada, behintzat oso egiantzeko proposamena aurreratzen dugula, segurtatzen dugunean ezen, bi objekturen —adibidez, beroaren eta garraren, pisuaren eta sendotasunaren— etengabeko lotura ikusirik, ohiturak bakarrik behartzen gaituela bata itxarotera bestearen agerpenetik. Gainera hipotesi honexek bakarrik azaltzen bide du koska hau, hots, zergatik mila kasutan inferentzia bat egiten dugun, haien batere ezberdina ez den kasu bakarrean egiteko gauza ez garelarik. Arrazoimena ezgai da halako barietateak. Zirkulu bakarra aztertzean ateratzen dituen ondorioak unibertsoko zirkulu guztiak aztertzean aterako lituzkeen berberak dira. Baina ezein gizakumek ez lezake, gorputz bakara beste batek bultzaturik mugitzen ikusita, beste gorputz guztiak ere antzeko bultzadaz mugituko direnik inferitu. Esperientziatik hara egindako inferentzia guztiak, beraz, ohituraren efektuak dira eta ez arrazoiketarenak.

Ohitura da, beraz, giza bizitzaren gidari nagusia. Printzipio honexek bakarrik egiten du gure esperientzia baliagarri izan dakigun, eta berak behartzen gaitu iraganean agertutako gertaeren antzekoak etorkizunean itxarotera. Esperientziaren eraginik gabe izatezko zerei buruz ezjakintasun osoan geundek, oroimenak eta zentzuek berbertan ematen digutenetik harago. Inoiz ez genuke jakingo helbideak helburuetara egokitzen edo gure ahalmen naturalak zeinnahi efektuaren sorraraztean erabiltzen. Berehalaxe amaituko litzateke ekintza oro, baita espekulaziorik gehiena ere⁷.

37. Baina agian komeni da hemen nabarmentzea ezen, nahiz eta esperientziatik harako gure ondorioek oroimenaz eta zentzuez harago gu eraman eta nahiz eta lekurik eta aldirik

urrunetan gertaturiko izatezko zeren segurtasuna guri eman, hala ere beti beharko duela zentzuen eta oroimenaren aurrez gertaeraren bat izan, hartatik ondorio haiek ateratzeko modukoa. Basamortuan eraikuntza ponposen hondarrak topatu dituen gizakumeak laster aterako luke lur hura, behinola, biztanle zibilizatuek landua dela. Baina horrelako ezer aurkezten ez bazaio, inoiz ezingo luke halako inferentziarik osatu. Aurreko histori aroetako gertaerak ikasten ditugu, baina orduan irakasten hori dakarten liburu aleak arretaz irakurri behar ditugu eta gero gure inferentziei segi lekukotzaz lekukotza, gertaera haien begi-lekuko eta ikusleenganaino heldu arte. Hitz batez, gure oroimenaren eta zentzuen aurrean dagoen gertaera batetik abiatu ezik, gure arrazoiketak hipotetiko hutsak lirateke, eta nahiz eta katenmaila denik eta elkarlotuen egon, inferentziakateak, oro har, ez luke inolako euskarririk eta bere bitartez ezingo genuke inoiz egiazko existentzia baten ezagutzara heldu. Kontatzen didaten zeinnahi izatezko zer zergatik sinesten duten galdetzen badut, arrazoi bat eman behar didate, eta arrazoi hori harekin loturiko beste gertaera bat izango da. Baina era honetan *in infinitum* jotzerik ez dagoenez gero, oroimenaren edo zentzuen aurrez den gertaeraren batean amaitu behar da, edo bestela sineste hori guztiz funskabea dela aitortu behar.

38. Zein da, beraz, auzi guzti honen ondorioa? Bakarria eta xumea, nahiz eta, aitor dezagun, ohizko teoria filosofiko guztietatik nahiko urrun. Izatezko zer edo egiazko existentzia ororen sinestea soil-soilik dator oroimenaren eta zentzuen aurrez den objekturen batetik eta objektu honen eta besteren baten ohizko loturatik. Edo beste hitz batzuetan: nolana hiko bi objektu-mota -garra eta beroa, elurra eta hotza- beti elkarloturik egon direla kasu askotan ikusi ondoren, garra edo elurra berriz zentzuei aurkezten bazaie, ohiturak beroa eta hotza itxarotera, eta kualitate hori benetan existitzen dela eta gehiago hurbilduz gero agertu egingo dela *sinestera* daramake gogoia. Sineste hau gogoia halako zirkunstantzietan jartzearen ondorio

nahitaezkoa da. Arimaren eragiketa hain baztergaitza da hau, hala situaturik gaudenean, nola den maitasun-grina sentitzea, ongarri zaigunean, edo gorroto-grina, kaltegarri zaigunean. Eragiketa guztiok berezko sen gisakoak dira, ezein arrazoiketarik edo pentsamen- eta ulermen-prozesuk ez sortu ez kendu ezinekoak.

Une honetara heldutakoan, oso zilegi litzateke gure ikerketa filosofikoetan gelditzea. Auzirik gehienetan ezin dugu urrats bat harago eman eta denetan, azkenean, ikerketa setatien eta arretatsuenen ondoren, hementxe amaitu behar. Baina, nolana ere, gure jakinmina barkagarria eta agian txalagarria izango da, ikerketa aurreratuagoetara bagaramatza eta *sineste* honen eta beronen sorrarazle den *ohizko loturaren* izaera zorrotasun gehiagoz azterrarazten badigu. Honela atsegin emateko moduko azalpenak eta analogiak aurki ditzakegu, gutxienez zientzia abstraktuak maite eta, diren zehatzenean ere, zalantza eta ez-ziurtasun maila bat gorde dezaketen espekulazioekin entretenez direnentzat. Gusto ezberdinak dituzten irakurleei buruz, atal honetatik gelditzen dena ez da haientzat pentsatua izan, eta hurrengo ikerkuntzak berdin uler daitezke, hau albora utzi arren.

II PARTEA

39. Giza irudimena baino askeagorik ez dago ezer. Eta kanpo eta barne zentzuek emandako lehen multzoa gainditzerik ez badu ere, ahalmen mugagabea dauka ideia horiek nahasteko, konbinatzeko, banatzeko eta bereizteko, fikzioaren eta irudipenaren barietate guztietan. Gertaera mordo bat asma dezake errealtatearen antz guztiekin, denbora eta leku konkretuetan ezarri, existenteak bailiran bururatu eta berak ziurtasun osoz sinesten duen edozein gertaera historikoren zirkunstan-

tzia guztiekin pintatu. Zertan da orduan halako fikzioaren eta sinestearen aldea? Ez da halako ideia jakin bat, gure onspena lortu eta zeinnahi fikzio ezagunek falta duen bururapenari lotua. Zeren gogoak, bere ideia guztiengan agintea duenez gero, ideia partikular hau nahiki erants baitieziaioke edozein fikziori eta beraz, nahi duena sinesteko gai litzateke, gure eguneroko esperientzian topatzen dugunaz batera. Gure bururapenean giza burua eta zaldi burua bil ditzakegu. Baina ez dago gure esku abere hori egiatan izan dela sinesterik.

Hortik, beraz, *fikzioaren* eta *sinestearen* arteko aldea bigarrenari, ez lehenengoari, eransten zaion sentipen edo sentsazioaren batean egotea eta nahimenaren mende ez egotea, ez norbere gogara moldatu ahal izatea. Naturak eragina izan behar du, beste sentipen guztiek bezala, eta egoera berezi batetik sortua, zein gogoa ere adiuntza berezian aurkitzen den. Objektu bat oroimenari edo zentzuei azaltzen zaien bakoitzean, berehalaxe, ohituraren indarrez, bultzatzen du irudimena normalean hari loturik dagoen objektua bururatzera. Eta bururatze honi fantasiaz hara-honez beste sentsazio edo sentipen batek laguntzen dio. Honetantxe bakarrik datza sinestea, zeren izatezko zeri ez dagoenez gero, bere kontrakorik ezin bururatzeko bezain irmoki sinestekorik, bururapen onartuaren eta baztertuaren artean ez bailegoke alderik, bata eta bestea bereizteko sentipenik ez baltz. Bilar-bola bat gain leun batean beste baterantz mugitzen ikusten badut, aise burura dezaket hura jotzean gelditu egingo dela. Bururapen honek ez darama kontradikziorik. Baina nolana nahi bola baten besteaganako bultzada eta mugimendu ezartzea errepresentatzen dudana bururapena oso bestela sentitzen dut.

40. Sentipen honen *definiziorik* intentatuko bagenu, agian oso lan zaila genuke, ezinezko ez bada, hotzaren sentipena edo suminaren grina sentimendu hauen esperientziarik inoiz izan ez duen izaki bati golkoratu nahi bagenio bezalaxe. Sinestea da sentipen honen izen zuzena eta egiazkoa, eta inork

ez dauka hitz horren esanahiaz jabetzeko eragozpenik gizakumea ohartzen ari baita unero errepresentatzen duen sentimenduaz. Agian ez litzateke desegokia sentimendu honen *deskripzioa* intentatzea, era honetan bere azalpen osoagoa eskura lezakeen analogiaren batera iristeko itxaropenez. Diodana, beraz, sinestea ez dela objektu baten bururapen biziago, zorrotzago, indartsuago, irmoago eta seguruagoa besterik, irudimenak, berez, atzeman lezakeena baino. Hain ez-filosofikoa eman lezakeen hitz aniztasun honek adierazi nahi duen bakarra da gogoaren egintzak, errealitateak eta hartakotzat hartzen ditugunak fikzioak baino presenteago ez egotea egiten duen egintza horrek ebazten duela pentsamenean pisu gehiago izan dezaten eta eragin handiagoa ematen diela grinan eta irudimenaren gainean. Zerari berari buruz ados egonez gero, ez du merezi hitzei buruz eztabaidatzea. Irudimenak bere ideia guztien gain agintzen du eta litezkeen era guztietan bil, nahas edo alda ditzake. Objektu fikziozkoak noiznahi eta nonnahi burura ditzake. Gure begi aurrean jar ditzake, nolabait, euren egi egiazko kolorez, existituak bailiran. Baina irudimenaren ahalmen honek ez baitu sekula, bere kabuz, sinestea erdiesterik, argi dago sinestea ez datzala ideien izaera edo ordena berezian, euren bururatze-ko *eran* edo gogoak haietaz duen *sentikera* baizik. Aitortuko dut ezinezkoa dela sentikera edo bururapen hau zehazki azaltzea. Inguruko zerbait adieraz dezaketenez hitzak erabil ditzakegu. Baina euren izen egiazkoa eta berezia, arestian esan bezala, *sinestea* da, eta hau bizitza arruntean nornahik aski ulertzen duen hitza da. Eta filosofian ezin dugu harago joan *sinestea* judizioaren ideiak irudimenaren fikzioetatik bereizten dituen gogoak sentitutako zerbait dela esatetik. Pisu eta eragin gehiago ematen die, garrantzi handiagokotzat agerrarazten ditu, goiari ezarri egiten dizkio eta gure egintzen printzipio arautzaile bihurtzen ditu. Esaterako, ezagutzen dudana norbaiten abotsa dantzut orain, eta hotsa aldameneko gelatik datorrela dirudi. Nire zentzen inpresio honek pentsamena berehala daramait

pertsona horrengana inguruan dituen objektu guztiekin batera. Oraintxe bertan existitzen bezala pintatzen dut dena, aurretik ezagutzen ditudan kualitatez eta erlazioz osatua. Ideia hauek indartsuago eurenenganatzen naute gaztelu xarmatuaren ideiek baino. Sentitzeko ahalmenaz oso bestelakoak dira, eta alde guztietara eragin gehiago daukate atsegina edo mina, poza edo tristura sorrarazteko.

Har dezagun, bada, doktrina hau bere zabalera guztian eta aitor dezagun sinestearen sentipena irudimenaren fikzio soilei dagokiena baino bururapen biziagoa eta irmoagoa dela eta bururatzeko *era* hau objektua oroimenaren eta zentzuen aurrez den zerbaitekin lotzeko ohituratik datorrela. Suposizio hauetatik hara, uste dut ez dela zaila izango beste gogo-eragiketa analogo batzuk topatzea eta fenomeno hauen lortatzei segitzea orokortasun handiagoko printzipioetaraino.

41. Hauteman dugu naturak ideia partikularren arteko loturak jarrita dauzkala eta, ideia bat gure pentsakizunetara aurkeztuz batera, bere korrelatiboa ekartzen duela, eta gure arreta hartarantz eramaten, mugimendu xume eta somagaitzez. Lotura eta asoziazio printzipio hauek hirutara bildu ditugu: *Antza*, *Aldamentasuna* eta *Kausalitatea*, eta eurok dira gure pentsakizunak loturik dauzkaten lokarriak eta gutxi asko giza-di osoan aurkitzen den gogoeta eta diskurtsu-jite erregularra sorrarazten dutenak. Baina bada auzi bat, oraingo arazoaren irtenbidea bere mende daukana. Gertatzen al da erlazio guztietan ezen, objektuetariko bat oroimenari eta zentzuei aurkeztzen zaienean, gogoak, haren korrelatiboaren bururapenera eramana izanez gainera, beste era batera lortu ahal izango zuen baino haren bururapen irmoago eta indartsuagoa hautematen duela? Badirudi hauxe dela kausa-efektuen erlaziotik datorren sinestearen kasua. Eta beste erlazio- edo asoziazio-printzipio batzuetan ere kasu bera bada, lege orokortzat ezar daiteke gogoaren eragiketa guztietarako.

Beraz, gure asmorako lehen esperimintuztat hauteman dezakegu ezen, lagun ausente baten erretratuaren aurrez, hartaz dugun ideia nabarmenki biziarazten duela *antzak*, eta ideia horrek dakarren edozein grinak, bai pozak, bai tristorak, indar eta sendotasun berria hartzen duela. Efektu honen eragiketan biak biltzen dira, erlazioa eta oraingo inpresioa. Erretratuak haren inolako antzik ez badu, edo edukitzeko asmorik izan ez badu behintzat, gure pentsamenik ez du eraman ere egingo harengana. Eta erretratu bera ere ausente izanez gero, laguna bezala, nahiz eta gogoia baten pentsakizunetik bestearenera pasa ahal izan, pasatze horrek haren ideia bizitu baino areago ahuldu egin duela aurkitzen du. Atsegin zaigu lagun baten erretratuari begiratzea aurrean daukagunean, baina erretratu kendutakoan laguna bera zuzen jotzea nahiago dugu hain irudi urrun bezain ilunaren isladan baino.

Erromatar Erlijio Katolikoaren zeremoniak gisa bereko adibidetzat har daitezke. Superstizio horren debotoek, leporatzen zaizkien amarrukerien zurigarritzat, mugimendu, jarrera eta ekintza haien efektu ona somatzen dutela alegatzen dute, euren debozioa bizituz eta euren berotasuna berretuz, zeina motelduko omen litzatekeen, objektu urrun eta ezmateriala bakarrik zuzenduz gero. Gure fede-objektuak, diote, ikur edo irudi sentigarritzat taxutzen ditugu, eta ikur hauen berbertako presentziaz adimenezko ikuspen eta kontenplazio hutsez ahal izango genukeen baino presentziaz egiten ditugu. Objektu sentigarriek beste edozein motatakoek baino eragin gehiago daukate irudimenean eta eragin hau erraz eranstean die eurekin zerikusia edo antza daukaten ideiei. Praktika hauetatik eta arrazoiketa honetatik aterako dudana gauza bakarra da oso ohizkoa dela antzak ideien indartzea ekartzea, eta kasu guztietan antza eta oraingo inpresioa batera behar direnez gero, aurreko printzipioaren errealitatea frogartzeko sobera esperientziaz horniturik gaude.

42. Esperimintu hauek beste era batekoekin indar ditza-kegu, *aldamentasunaren* efektuak *antzenak* bezala kontsideratuz. Ziur da distantziak ideia ororen indarra gutxitzen duela eta edozein objektutara hurbiltzeak, gure zentzuei agertzen ez bazaie ere, berbertako inpresioaren antzeko eragina daukala gogoarengan. Edozein objektutan pentsatzeak gogoia erraz eramatzen du haren aldamera denera. Baina objektu baten presentzia aktuala bakarrik eramatzen du bizitasun gehiagorik. Etxetik mila gutxitara naizenean baino gehiago eragiten dit, nahiz eta distantzia horretantxe ere etxekoen eta lagunaren hurreko zer-nahik sortzen duen, noski, haien ideia bat. Baina aurreko kasuan bezala, gogoaren bi objektuak ideiak dira. Hala ere, bate-tik bestera aise iragaten da. Iragate hori bakarrik ez da gauza edozein ideiarik bizitasun gehiago emateko, berbertako inpresioa falta bada⁸.

43. Inork ez dezake zalantzarik izan kausalitateak beste aldamentasun- eta antz-erlazio bien eragin berdina daukanik. Pertsona superstiziosoak santuen eta gizon gurenen zaleak dira, debozioa bizteko eta imitatu nahi dituzten bizitza exemplugarrien bururapen intimitate eta biziagoa emateko sinbo-loak eta irudiak bilatzen dituzten arrazoi beragatik. Baina bistan da debotu batek lor lezakeen erlikiarik onenetarikoak santuaren eskulan bat dela, eta haren soinekoak eta altzariak alde honetatik begira badaitezke, haren esku egonak eta hark erabiliak direlako da. Alde honetatik efektu imperfektuztat jo behar dira, haren existentziaren egia ikasgarritan digun edozein baino ondorio-kate laburragoz hari lotuak.

Demagun lagun aspaldi zendu edo ausentearen semea aurkezten digutela. Argi dago objektu honek berehalaxe piztuko lukeela bere ideia korrelatiboa eta gure pentsakizunetara behin-lako intimitate eta etxekotasun guztia ekarriko lukeela, beste kasu batean aurkez zitezkeen baino kolore biziagoz. Gorago aipatu printzipioa frogatzen duen beste fenomeno bat da hau.

44. Fenomeno hauetan beti presuposatzen dela ikus dezakegu objektu korrelatiboa sinestea. Bera gabe, erlazioak ez luke inolako indarrik. Pinturaren eraginak suposatzen du gure laguna noizbait existitu dela *sinesten* dugula. Gure etxetiko hurbiltasunak inoiz ez dezake gure etxe-ideiarik kina, hura egiatan badela *sinesten* ez badugu. Orain, ordea, sineste hau, oroimena eta zentzuak gainpasatzen dituen kasu guztietan izaera berdintsukoa dela baieztatu dut, eta hemen azaldutako pentsamen-iragate eta bururapen bizitasunaren antzeko kausek sortua dela. Egur-zati lehor bat sutara jaurtitzen dudanean nire gogoak berehalaxe bururatuko du garra gehitu egingo dela eta ez gutxitu. Kausatik efekturako pentsamenaren iragate hau ez dator arrazoimenetik. Bere jatorri bakarra ohituran eta esperientzian dauka. Eta lehenengotik zentzuen aurrez den objektutik abiatzen denez gero, garraren ideia edo bururapena indartsuago eta biziago egiten du horrek irudimenaren edozein amets jare eta flotakorrek baino. Ideia hori berehalaxe sortzen da. Une berean pentsamenak hartarantz jotzen du eta zentzuen aurrez den inpresiotik harako bururapenaren indar guztia ezartzen dio. Ezpatak bihotzera apuntazen didanean, ez al nau biziago larritzen zauriaren eta minaren ideiak, edalontzi bat ardo aurkezten didatenean baino, nahiz eta halabeharrez objektu honen ondoren ideia hori bururatu? Baina prozesu guzti honetan zer dago hain bururapen bortitza sorrarazteko gai denik, objektu presente bat eta honekin lotu ohi dugun beste objektu baten ideiarda ohiturazko iragatea besterik? Hauxe da gogoaren eragiketeta izatezko eta existentziazko zerei buruzko gure ondorio guztietan eta poztekoa da euren argiz hura azaltzeko moduko analogiak topatzea. Objektu presentetik harako iragateak erlaziodun ideiarik indarra eta sendotasuna ematen dio kasu guztietan.

Hemen dagoena, beraz, naturaren abioaren eta gure ideien segidaren arteko harmonia aurrez jarria da, eta, nahiz eta lehenengoa arautzen duten indar eta ahalmenak guztiz eze-

zagunak zaizkigun, hala ere, gure pentsakizunek eta bururapenek naturako beste obren norabide berari jarraitu diotela aurkitzen dugu. Gure espeziearen iraupenerako eta giza bizitzako zernahi zirkunstantzia eta gertaeratan gure jokabidea gidatzeko hain beharrezkoa den egokitasuna eragin duen printzipioa ohitura da. Objektu baten presentziak ohiki berari lotutako objektuen ideia berehalaxe piztuko ez balu, gure ezgutza guztiak gure oroimenaren eta zentzuen barruti estura mugatu beharko luke, eta inoiz ez ginatkeen helbideak helburuei egokitzeke edo gure ahalmenei on egiten edo gaitza baztertzen ariarazteko gauza izango. *Kausa finalak* aurkitzen eta kontenplazten gozatzen duten horiek badute hemen gai zabalik, euren harridura eta miresmena enplegatzeke.

45. Erants dezadan, aurreko teoriaren indargarriagotzat, ezen, gogoaren eragiketeta hau, zeinaren bitartez kausa berdinetatik efektu berdinak eta *alderantziz* ateratzen ditugun, gizaki guztien iraupenerako hain funtzezkoa denez gero, ez dela probable eragiketetan hain geldoa dugun arrazoimenaren dedukzio engainosoen esku uztea; arrazoimen hau, izan ere, ez baita agertzen inondik ere haurtzaroko lehen urteetan, eta kasurik onenean, adin eta giza bizitzako aldi orotan errore eta huts egitera oso emana baita. Naturaren ohizko jakinduriarekin adosago dator gogoaren egintza hain beharrezkoa, sen edo joera mekanikoren batez segurtatzea, bere eragiketetan hutsezina dena, biziaren eta pentsamenaren lehen agerpenetik abiatzen dena, eta adimenaren dedukzio lantsuetatik independentea izateko modukoa. Naturak gure organoak erabiltzen irakatsi digun bezala, hauek mugiarazten dituzten muskulu eta nerbioen ezagutzarik eman gabe, halaxe ezarri du guregan sen bat, gure pentsamena kanpo-objektuen artean jarrita daukanari dagokion abiotik daramana, nahiz eta objektuen abio eta segida erregular hau bere orotasunean gidatzen duten ahalmen eta indarren berririk ez jakin.

VI ATALA

PROBABILITATEAZ⁹

46. Mundu honetan *adurrik* ez balitz ere, gertaeraren egiazko kausaren gure ezjakintasunak adimenean eragin bera izango luke eta sineste edo iritzi mota berdintsua sortuko luke.

Nolanahi ere, bada probabilitate bat, alde batean posibilitate gehiago izatetik datorrena; eta gehiagotasun hori goratu eta aurkako posibilitateak gainditu ahala, probabilitatea hein horretan gehitzen da eta bere gehiagotasunak aurkitu dugun aukeraren aldeko sineste edo baiezen handiagoa sortzen du. Dato batean halako zenbaki bat edo puntu-kopuru jakin bat markatuko balitz bere sei aldeetariko lautan, eta beste zenbaki edo puntu-kopuru bat beste bietan, bigarrena baino probableago litzateke lehenengoa agertzea, nahiz eta askoz probabilitate handiagoa eta gure sinestea edo gertaeraren espero askoz sendoagoa litzatekeen, mila alde berdinean eta bakarra bestela markaturik balitu. Pentsamen- edo arrazoiketaren prozesu honek jakina eta bidezkoa eman dezake, baina geldiago kontsideratzen dutenentzat espekulazio-gaia ekar dezake.

Bistakoa dirudi, gogoak dato jaurtitzetik etor daitekeen gertaera deskribatzeko aurrerantz begiratzen duenean, alde bakoitzak irteteko probabilitate berdina duela jotzen duela. Eta hauxe da adurraren benetako izaera, hartan diren gertaera partikular guztiak berdinean berdinean izatea alegia. Baina gertaera batean bestean baino alde kopuru handiagoa dela topatzean, gogoak maizago jotzen du gertaera horretarantz, eta azken

emaitza erabakiko duten probabilitate eta aukera ezberdinak aztertzean, hura maizago azaltzen zaio. Gertaera partikular beraren ikuskera batzuk biltzeak berbertan dakar, naturaren joko azalgaitz batez, sinestearen sentipena, eta gertaera hura nagusiarazten dio kontrakoari, zeina ikuskera-kopuru txikiagoak eutsia den, eta gogoaren maiztasun gutxiagoz agertzen den. Sinestea irudimenaren fikzio soilei dagokiena baino objektuaren bururapen irmoagoa eta sendoagoa dela onartzen bada, eragiketa hau, agian, ulergarria izan daiteke. Ikuskera edo blistada batzu horien biltzeak ideia gogorkiago irartzen du irudimenean, indar eta sendotasun gehiago damaio, grinena eta afekzioen gaineko eragina sentigarriago egiten du, eta hitz batez, sinestearen eta iritziaren izaera osatzen duten fidantza eta segurantzaz sortzen du.

47. Kausen probabilitatea eta adurrarena kasu bera da. Badira kausak erabat uniformeak eta konstanteak direnak efektu jakin baten sorreran, eta hauen eragiketari inoiz ez da aurkitu inolako hutsik edo irregulartasunik. Suak beti erre du eta urak beti ito du zeinnahi gizaki. Mugimenduaren sorrera bultzadaz eta grabitatez, lege unibertuala da, oraingoz behintzat inolako salbuespenik ikusi ez baitzaio. Baina badira beste kausa batzuk irregularrago eta ez-ziurrago agertu direnak. Rubarboa ez da beti purga gertatu, ezta opioa logarri ere, sendagai hauek hartzen dituzten guztientzat. Kausa batek bere ohizko efekturik sortzen ez duenean egia da filosofoek ez diotela hori naturaren irregulartasunari leporatzen, baizik suposatzen dutela eragiketa hori kausa ezkuturen batzuek, osatzaileen egitura bakanean daudenean, eragotzi dutela. Baina gertaerari buruzko gure arrazoiketak eta ondorioak printzipio hau ez balitz bezalakoak dira. Ohiturak gure inferentzietan iragana etorkizunera pasaratzen digularik, iragana erabat erregularra eta uniforme izan denean, geroko gertaera segurantzarik handienez itxaroten dugu, eta kontrako suposamenari ez diogu inolako tokirik uzten. Baina, *ituraz*, kausa berdina-berdina diren etatik

efektu ezberdinak sortu direla aurkitzean, efektu guzti horiek gogoaren baitan egon behar dute iragana etorkizuneratzean, eta gure kontsiderapenean sortu behar dute gertaeren probabilitatea jotzen dugunean. Maizen gertatzen ikusi dugun eta huraxe gertatuko dela sinetsirik gauden efektua hautatzen badugu ere, beste efektuak ezin ditugu bertan behera utzi, baizik baikoitzari pisu eta balio jakin bat ezarri, maizago ala ez-maizago izan den kontu. Europako laterrik gehienetan, urtarrileko zenbait aldiz izotza egitea probableago da hilabete osoan eguraldi jaso izatea baino, nahiz eta probabilitate hau klimen arabera aldatu, eta ipar laterrietan ziurtasunera iritsi. Beraz, edozein kausatetik harako efektua erabakitzeko iragana etorkizuneratzen dugunean, argi dago iraganean agertu diren hein berean etorkizuneratzen ditugula gertaerak eta bururatzen dugu bat, esaterako, ehun aldiz, beste bat hamar aldiz eta beste bat behin gertatu dela. Ikuskera-mordo handi bat gertaera berean biltzean une batez, gertaera hau indartu eta finkatu egiten dute gure irudimenean, *sinestea* deitzen diogun sentipena sortzen dute eta haren objektuari lehentasuna ematen diote kontrako objektuaren gainetik, zeina ez dagoen esperimendu-kopuru berdina eutsia eta ez den ere pentsamenera hain maiz azaltzen iragana etorkizuneratzean. Saia bedi nornahi gogoaren eragiketa hau hartutako edozein filosofi sistematik esplikatzen eta ikusiko du nolako zailtasuna dakarren. Nire aldetik, aski izango dela uste dut aipu hauek filosofoen jakinmina kinatzen badute eta jabeazten badiete ohizko teoriak zein erkinak diren hain gai bitxi eta gurenak jorratzean.

VII ATALA

BEHARREZKO KONEXIO-IDEIAZ

I PARTEA

48. Zientzia matematikoen alde on handia zientzia moralen ondoan honetan da, lehenengoen ideiak sentigarriak izatean, argiak eta zehatzak direla beti alegia, eta haien arteko alderik txikiena ere berehalaxe hautematen dela, eta termino berek beti ideia berak adierazten dituztela, anbiguitasun edo bariatorik gabe. Inoiz ez da obalurik zirkuluaz erratzen, ez hiperbolarik elipseaz. Isoszelea eta eskalenoa, bizio-bertuteen eta on-tzarren aldean, askoz muga zehatzagokoak dira. Geometrian termino bat definitzen bada, gogoak bere kabuz aise ordeztuko luke, definizioa definituagatik, eta definiziorik eribili gabe ere, objektua bera aurkez dakieke zentzuei eta honela hura garbi eta irmo atzeman. Baina gogoaren goragoko sentimenduek, adimenaren eragiketek, grinen iharrospen ezberdinek, euren baitan bereziak izanik ere, erraz ihes egiten digute gogoetak aztertzen dituenean. Ez dago gure esku objektu originala birsortzea, hartaz gogoeta egiteko aukera dugun guztian. Honela, pixkanaka, anbiguitasuna gure arrazoiketetan sartuz doa. Objektu berdintsuak aise hartzen dira berdintzat eta azkenean ondorioa premisetatik oso urrun dago.

Hala ere, segurtasunez baietz daiteke ezen, zientzia hauek ikuspegi egokiz aztertzen baditugu, alde onak eta alde

txarrak ia partu egiten direla eta berdintasun-mailan jartzen dituztela. Gogoak Geometriako ideia argiak eta zehatzak aise gordetzen baditu ere, arrazoi-kate askoz luzeago eta nahasia-goari ekin behar dio eta elkarretatik ideia askoz urrunagoak konparatu, zientzia honetako egia korapilotsuagoak atzemateko. Eta ideia moralek, kontu handiz ibili ezik, iluntasunean eta nahasmenean erortzeko joera badute ere, diskisizio hauetan inferentziak askoz laburragoak dira eta ondoriora daramaten bitarteko urratsak askoz gutxiago, kantitateaz eta zenbakiaz diharduten zientzietan baino. Izatez, nekez dago Euklidesen proposamen hain errazik, edozein arrazoiketa moraletan aurki daitezkeen baino zati gehiago ez izatekorik, kimerara edo harrokeriara jo ezik. Giza gogoaren printzipioen lorratzari urrats gutxiren bitartez segitzen badiogu, pozik egon gintezke geure aurrerapenaz, kontuan izanik naturak zein bizkor oztopatzen dituen kausei buruzko gure ikerkuntzak eta nola geure ezjakintasunaren kontzientziara ekartzen gaituen. Beraz, zientzia moraletan edo metafisikoetan gure aurrerapenaren oztopo nagusia, ideien iluntasuna eta terminoen anbiguotasuna da. Matematiketako oztopo nagusia da edozein ondoriotara heltzeko behar den inferentzi-luzetasuna eta pentsamen-hedadura. Eta agian gure aurrerapena filosofia naturalean zerak batez ere atzeratzen du, behar den esperimendu eta fenomenorik ezak, sarritan adurrez aurkitzen diren eta behar denean ikerkuntzarik zorrotzenez eta zuhurrenez ere topatu ezin diren fenomenoak hain zuzen. Oraingoz bederen, filosofia moralak geometriak edo fisikak baino gutxiago aurreratu bide duenez gero, atera dezakegu ezen, zentzu honetan zientzia horien arteko alderik izatekotan, lehenengoaren aurrerapena oztopatzen duten zailtasunak gaitasun eta ernetasun gehiago behar dutela, gaindituak izateko.

49. Metafisikan ez dago ideia ilunago edo ez-ziurragorik, gure diskisizioetan noizbait tratatu beharreko *ahala*, *indarra*, *energia* edo *beharrezko konexioa* baino. Atal honetan, be-

raz, hitz horien esnannahi zehatza finkatzen saiatuko gara, ahal bada, eta horrela filosofi mota horri hainbeste gaitzesten zaion iluntasun zati bat kendu.

Eztabaida askorik behar ez duen proposizioa dirudi gure ideia guztiak ez direla gure inpresioen kopia besterik, edo beste hitz batzuetan, ezinezko zaigula *pentsatzea*, aurrez geure kanpo- eta barne-zentzuz *sentitu* ez dugunik. Proposizio hau azaltzen eta frogatzen saiatu naiz eta neure itxaropena agertu dut, behar den arreta jarriz gero, gizakumeak orain arte ahal izan duen baino zehaztasun eta argitasun gehiago lortu ahal izango duela. Ideia anizkunak, agian, egoki ezagutuak izan daitezke euren osagarri diren zati edo ideia bakunen zenbaketa den definizioz. Baina definizioak ideiarik bakunenetara eramandakoan, eta halako anbiguotasun edo iluntasunez topo egindakoan, zer irtenbide gelditzen zaigu? Zer asmakizunez behar ditugu ideia hauek argitu eta erabat zehatz eta xedatu bihurtu gure adimenaren begirako? Erakuts gure ideiak haietatik kopiatuak izan diren inpresio edo sentipen jatorrizkoak. Inpresio guztiak bortitzak eta sentigarriak dira. Ez dute anbiguotasunik jasaten. Erabat gardenak izan ezezik, ilunean dautzan euren ideia lagunen gainera ere argi egiten dute. Eta horrela agian mikroskopio edo optika-mota berria eskura dezakegu, zeinaren bitartez zientzia moraletan ideiarik bakunenak eta ni-miñoenak ere handi daitezkeen, hala nola gure ulermenpean aise eror ahal daitezkeen eta gure ikerkuntzaren gai izateko ideiarik gizenen eta sentigarrientzat ezagutuak izan daitezkeen.

50. Indar edo beharrezko konexio-ideia guztiz geuganaturik izateko, azter dezagun bere inpresioa, eta inpresioa ziurtasun handiagoz topatzeko, bila dezagun erator litekeen iturri guztietan.

Gure inguruan diren kanpo objektuei behatzean eta kausen eragiketa aztertzean, inoiz ez gara gauza, une bakar berean,

indar edo beharrezko konexiorik, efektua kausarekin batu eta haren ondorioa hutsezin egingo duen inolako kualitaterik aurkitzeko. Egitez, batak besteari darraiola bakarrik aurkitzen dugu. Bilar-bola baten sakadari beste baten mugimendua dator-kio. Hauxe da *kanpo-zentzuei* ageri zaien guztia. Gogoak ez dauka objektuen segidaren sentipen edo *barne*-inpresiorik bate-re. Ez dago, beraz, ezein kausa-efektuen adiuntza jakinetan ezer, indar edo beharrezko konexio ideiarik iradoki dezakeenik.

Objektu baten lehen agerpenetik, inoiz ezin dugu atera hartatik zer efektu datorkeen. Baina gogoak kausaren baten in-darrrik edo energiari aurkitu ahal izango balu, ahalko genuke efektua aurrikusi, baita esperientziaren laguntzarik gabe ere, eta hasiera-hasieratik hartaz ziurtasunez pronuntziatu, pentsa-menaren eta arrazoimenaren indar hutsez.

Izatez, ez dago ezein materi zati, bere kualitate sentigarr-rien bitartez, inolako indar edo energiari adieraztera hel daite-keenik, edo zerbait eragin dezakeela edo efektua dei genezakeen objektu ezberdinen batek segituko diola pentsatzeko biderik emango digunik. Solidotasuna, hedaera, mugimena: kualitate hauek osoak dira euren baitan eta inoiz ez dute euretatik sor li-tekeen beste gertaera batera jotzen. Unibertsoko eszenatokia tai-gabe aldatzen ari da eta objektu batek beste bati darraio etenga-beko segidan, baina erabat ezkutuan dagokigu makina osoari eragiten dion indar edo ahala eta inoiz ez da agertzen gorputza-ren ezein kualitate sentigarritan. Sua izatez badakigu garraren ohizko laguna dela, baina zer konexio izango duten ez daukagu aieru egiterik ez pentsatzerik ere. Ezinezkoa da, bada, ahalaren ideia eratortzea, gorputzak euren eragiketaren une bakunetan hautematetik, ezein gorputzek ez bailuke inoiz agertuko ideia honen originala izan litekeen inolako ahalik¹⁰.

51. Beraz, kanpo-objektuek, zentzuei agertzen zaizkien bezala, indar edo beharrezko konexioaren inolako ideiarik

ematen ez digutenez gero kasu partikularretako iharduna dela bide, dakusagun ea ideia hau gure gogoaren eragiketei buruz-ko gogoetatik datorren eta barne-inpresioaren batetik kopiatze-koa izan litekeen. Esan liteke barne-indar baten jakile garela etengabe, geure nahimenaren agindu hutsez gure gorputz atalak mugi edo gure gogoaren ahalmenak gida ditzakegula sentitzen dugunean. Nahimen egintza batek gure menbruetan mugidak eragin ditzake edo ideia berri bat irudimeneratu. Nahimenaren eragin hau kontzientziari esker ezagutzen dugu. Bere eraginez lortzen dugu ahalaren edo energiaren ideia eta ziur gaude gu eta beste izaki adimendun guztiak ahal horren jabe garela. Ideia hau, beraz, gogoetazko ideia da, gure gogoaren eragike-tei buruzko gogoetatik eta nahimenak bai gorputz organoetan bai arimaren ahalmenetan darabilen aginteari buruzko gogoe-tatik sortzen baita.

52. Pretentsio hau aztertzerako joko dugu, eta lehenbizi nahimenak zer eragin daukan gorputz organoetan. Eragin hau, hauteman dezakegunez, beste guztiak bezala, esperientziaz ba-karrrik ezagun daitekeen gertaera da eta inoiz aurrikusi ez daite-keena, efektuari lotu eta bata bestearen ondorio nahitaezko egingo duen kausan ageri den ezein energia eta indarren bitar-tez. Gure gorputzaren mugimenak gure nahimenaren aginduari darraio. Etengabe jabetzen gara horretaz. Baina hori nola gerta daitekeen berbertan jakile izatetik, nahimenak haren bidez hain eragiketa harrigarria burutzen duen energiari hain urrun gaude, ezen ikerketarik erneenari ihes egingo baitio.

Zeren, *lehenik*, ba al da natura guztian ezer ezkutuago-rik, gorputz-arimen batasuna baino, zeinaren bidez delako substantzia izpiritual batek materialaren gainean halako eragi-na daukan, ezen pentsakizunik birfinena ere materiari baldar-rena mugiarazteko gai den. Nahikari ezkutu batez mendiak mugiarazteko edo planeten orbitak kontrolatzeko gai bagina, aginte zabal hori ez litzateke harrigarriagoa ez gure ulermene-

tik haragokoa. Baina kontzientziari esker, nahimenean indar edo energia zerbait atzemango bagenu, indar hori ezagutu egin beharko genuke. Beste efektuarekiko lotura ezagutu beharko genuke, gorputz-arimen batasun ezkutua ezagutu beharko genuke, baita bi substantzien natura ere, zeinaren bitartez bata hain maiz gai den bestearengan operatzeko.

Bigarrenik, ez gara gorputzeko organo guztiak ahalmen beraz mugiarazteko gai, nahiz eta esperientziaz beste arrazoirik ezin eman, kasu batetik besterako hain alde nabarmenerako. Zergatik dauka nahimenak eragina mihian eta hatzetan, eta ez bihotzean eta giblean? Galdera honek ez liguke inolako esturarik ekarriko, lehen kasuan indar baten jakile bagina, eta bestean ez. Orduan hautemango genuke, esperientziatik aparte, zergaitik nahimenaren aginpidea hain muga estuetan hesitzen den. Kasu hartan bere bidez operatzen duen indar edo ahalaren berri erabat jakinik, bere eraginak zergatik hain zuzen halako mugak dituen eta zergatik harago ez doan jakingo genuke.

Hankan edo besoan perlesiak bapatean jo, edo menbruhoriek gal berri dituen gizakumea, hasieran, haiek mugitzen edo euren ohizko eginkizunetan erabiltzen saiatzen da. Une honetan gorputzadar horiek bere ahalez menperatzeko kontzientzia dauka, osasun ederreko edozein gizakumek egoera eta baldintza normaletan edozein menbru mugiarazteko gaitasunaren kontzientzia daukan bezalaxe. Baina kontzientziak ez du inoiz engainatzen. Beraz, ez kasu batean ez bestean, ez gara ezein ahalen kontzientzidun. Esperientziaz bakarrik ezagutzen dugu gure nahimenaren eragina. Eta esperientziak erakusten digun gauza bakarra da gertaera batek besteari darraiola etengabe, haiek batzen eta banagaitz egiten dituen lotura ezkuturik argitu gabe.

Hirugarrenik, Anomiak irakasten digu ahalaren objektu zuzena, mugimen nahietsian, ez dela izatez mugiarazten den

menbrua, halako muskulu-, nerbio- eta animalia izpiritu batzuk baizik, eta agian zerbait niminoago eta ezezagunagoa, haien bidez hedatzen delarik segidan mugimendua, bere mugimena nahiaren objektu arartegabea den menbrua atzeman aurretik. Eman al daiteke frogaz ziurragorik eragiketa guzti hau burutzen duen ahala, barne-sentipenak edo kontzientziak zuzen eta osoki ezagutua izan beharrean, erabat misteriozkoa eta ulergaitza dela? Halako unean gogoak zerbait egin nahi du. Berehalaxe gertatzen da ezagutzen ez dugun eta intentatzen dugunaren guztiz ezberdina den beste gertaera bat. Gertaera honek beste are ezezagunago bat sorrarazten du, azkenean, segida luzearen ondoren, nahi den gertaera sortu arte. Baina jatorrizko ahala sentitua balitz, ezagutua izan beharko luke. Ezagutua balitz, bere efektuak ere ezagutua beharko luke, ahal oro bere efektuari dagokiona baita. Eta, *alderantziz*, efekturik ezagutuko ez balitz, ezingo litzateke ahalik sentitu ez ezagutu. Zeren nola izango dugu, ba, geure menbrua mugitzeko ahalaren kontzientziarik, ahal hori eduki ere ez badaukagu, animalia izpiritu zenbait mugitzeko ahala baizik, eta izpiritu horiek, azkenean gure gorputzadarren mugimena sortzen badute ere, gure ulermenaz guztiz at operatzen badute?

Guzti honetatik atera dezakegu, inolako ausartziarik gabe, baina segurtasunez nik uste, gure ahalaren ideia ez dela kopiatzen ezein sentipen edo guregan den ezein ahal-kontzientziatik, animalia mugimendua sorrarazten dugunean, edo gure menbrua euren erabilera eta egiteko propiora aplikatzen ditugunean. Haien mugimenduak nahimenaren aginduari darraiola esperientzia komuneko kontua da, beste berezko mugimendu batzuk bezala. Baina bere bidez burutzen den ahala edo indarra, beste berezko gertaera batzuetan gertatu ohi denez, ezezaguna eta bururagaitza da.

53. Gure gogoetan ahal edo indar baten kontziente garelako baiezta al dugu, gure nahimenaren egintzaz edo agintzez,

ideia berri bat kontzientziratzen dugunean, gogoaren kontenplazioan ezartzen, hura alde guztietatik ateratzen eta, azkenik, beste ideia bategatik lagatzen dugunean, nahiko zehazki kontsideratu dugula pentsatutakoan? Uste dut argumentu berek frogatzen dutela nahimenaren agindu honexek ere ez digula indar edo energiaren inolako ideia egiazkorik ematen.

Lehenik, onartu beharrekoa da, ahal bat ezagutzen dugunean, bere efektua lortzeko gaitasuna duen kausaren alderdi huraxe ezagutzen dugula. Hauek sinonimoak direla jotzen baita. Beraz, bai kausa eta bai efektua eta hauen arteko erlazioa ezagutu behar ditugu. Baina arimaren izaera eta ideia baten izaera geganatzekotan al gabiltza, ala batak bestea sorrarazteko gaitasuna? Hona hemen benetako kreazioa: zerbait hutsetik sortzea. Horrek hain ahal handia darama, ezen agian lehen begiratuan izaki mugagabeaz beheragoko edozein izakiren ahalaz goitik dagoela emango bailuke. Gutxienez aitortu beharko ahal hori ez dela sentitua, ez ezagutua, ezta gogoak bururatzekoa ere. Gertaera bakarrik sentitzen dugu, hots, nahimenaren aginduari darrion ideia baten existentzia. Baina eragiketa hau nola gertatzen den eta berau sortzen duen ahala gure ulermenetik at dago.

Bigarrenik, gogoak bere gain duen agintea mugatua da, gorputzak bere gain duena bezala. Eta muga horiek ez dira arrazoimenak ezagutuak edo kausa-efektuen ezagutzaz ezagutuak, esperientziaz eta behaketaz bakarrik baizik, beste gertaera natural guztien eta kanpo objektuen ihardunaren kasuan bezala. Gure sentipen eta grinekiko aginpidea ideiei buruz daukaguna baino ahulagoa da askoz, eta azken aginpide hauxe ere oso zedarriz estuetan dabil. Nork pentsa lezake muga hauen azken arrazoia ematerik edo zergatik ahala kasu batzuetan eskasa den eta beste batzuetan ez den erakusterik?

Hirugarrenik, auto-aginte hau oso ezberdina da une ezberdinen arabera. Gizakume osasuntsuak eritasunak jota dagoe-

nak baino gehiago dauka. Goizean gure pentsakizunen jabeago gara gauean baino, edo baraurik bapo janda baino. Eman al genezake aldaera hauen arrazoirik, esperientziaz besterik? Ez ote da hemen izango, bai substantzia materialen batean, bai substantzia izpiritualen batean, mekanismo edo zati-egituraren bat, efektua bere mende daukana eta, bera guztiz ezezagun zaigularik, nahimenaren ahala edo energia-era berdinean ezezagun eta ulergaitz egiten duena?

Nahizate ziar aski hartaz nahiko jabeturik gauden gogoaren egintza da. Egin hartaz gogoeta. Begira alde guztietatik. Ba al da hartan ahalmen kreatzailearen antzeko ezer, zeinaren bidez ideia berri bat hutsetik ateratzen duen, eta halako *Fiat* gisako batez, honela mintzatzea zilegi bazait, izadiko eszena ezberdinak izateratu zituen Egilearen oroahala imitatzen duen? Honela, nahimenaren indar honen kontziente izan beharrean, daukagun bezalako esperientzia seguratu behar da, hain efektu harrigarriak nahizate soil baten ondorio direla sinesteko.

54. Gizadirik gehienak inoiz ez du zailtasunik aurkitzen izadiko eragiketarik komunak eta ikusienak azaltzeko, hala nola pisudunen erorrera, landareen hazkuntza, animalien sorrera, gorputzen janari bidezko elikua. Aitzitik, suposatzen dute kasu guztietan kausaren indar edo energia bera hautematen dutela, zeinaren eraginez hura efektuarekin lotua den eta bere eragiketetan beti hutsezina den. Ohitura luzez, gogoaren halako isuria erdiesten dute ezen, kausaren agerpenaz batera, haren ohizko laguna segurki espero baitute, eta nekez bururatzen zaie hartatik beste zeinnahi gertaera sor litekeenik ere. Fenomeno ezarruntak, hala nola lurrikarak, izurriak, eta nolana hiko mirariak aurkitzean bakarrik ez dute jakiten kausa egokirik izendatzen eta nola efektua honek sortua izan litekeen azaltzen. Normala da gizakumeak, halako zailtasunetan, adimendun printzipio ikuskaitzen batera jotzea¹¹, harrigarri zaien eta euren ustez naturaren ahal arruntez azaldu ezin den gertaera-

ren arartegabeko kausatzat. Baina euren ikerketak aurrerago daramatzaten filosofoek berehalaxe hautematen dute ezen, gertaerarik jakinenetan ere, kausaren energia gertaerarik ohigabeenetan bezain nekez ulertzekoa dela, eta esperientziatik bakarrik ikasten dugula objektuen *elkarlotura* maizkorra, haien arteko *konexiorik* ulertzeko sekula gauza izan gabe.

55. Honetan, bada, filosofo asko arrazoimenak beharturik aurkitzen dira, herriak miragarriak eta naturazgainak diruditen kasuetan bakarrik jotzen duen printzipiora jotzera. Gogo eta adimena gauza guztien azken eta jatorrizko kausa ezezik, naturan den gertaera ooren kausa arartegabea eta bakarra direla aitortzen dute. Normalean *kausak* deitzen diren objektuak, izatez, *okasioak* besterik ez direla jotzen dute, eta efektu ooren benetako eta arartegabeko printzipioa ez dela naturako ezein ahal edo indar, halako objektuak betirako elkarloturik egotea nahi duen izaki goren baten nahizatea baizik. Bilar-bola batak naturaren Egilearengandik hartutako indarrez besteari eragiten diola esan beharrean, Jainkoa bera dela diote, nahizate partikular batez, bigarren bolari eragiten diona, ekin-tza honetara lehen bolaren bultzadaz behartuta egonik, unibertsoa gidatzeko Berak autoezarritako lege orokerretatik hara. Baina euren ikerketan aurrera diharduten filosofoek erreparatzen dute ezen, gorputzen elkar-ekintzan agintzen duen ahala erabat ezezagun zaigun bezala, ez zaigula gutxiago ezezagun gogoaren gorputzarekiko, edo gorputzaren gogoarekiko ekintzan agintzen duen ahala, eta ez dugula kasu batean baino bestean azken printzipioa hautemateko gaitasun gehiago, zentzuen edo kontzientziaren bitartez. Ezjakite berak ondorio berera daramatza beraz. Jainkoa dela diote gorputz-oroiimen batasunaren kausa arartegabea, eta ez direla zentzu organoak, kanpo objektuek joak izanik, gogoan sentsazioak sortzen dituztenak, baizik gure Kreatzaile oroahaltzuaren nahizate partikular bat dela, organoan halako mugimenduaren ondorioz halako sentsazioa eragiten duena. Era beretsuan, ez da nahimenaren

inolako indarra gure menbruen mugimendu lokala eragiten duena. Jainkoa bera da atsegin zaiona berez ahalgabe den gure nahimenari jarraitzea, eta gure ahalari eta efikaziari okerki ezartzen diogun mugimendua menderatzea. Baina filosofoak ez dira ondorio honetan gelditzen. Zenbait aldiz indiferentzia bera hedatzen diote gogoari berari ere, bere barne-iharduneire ere. Gure ikuskera mentala edo ideien bururatzea gure Egileak egiten digun agerkundea besterik ez da. Gure pentsamena zeinnahi objektutara nahikara zuzentzen dugunean, eta guregan haren irudia sortzen denean, ez da nahimena ideia hura sortzen duena: Kreatzaile unibertsala da gogogari agertzen diona eta presente egiten diguna.

56. Filosofo hauen ustez, beraz, Jainkoz betea dago dena. Berak nahita ez bada ezer ez den, berak emanda ez bada ezerk ahalik ez duen printzipioa gutxi dutela, naturari eta izaki kreatu guztiei ahal osoa kentzen diete, haien Egilearekiko menpetasuna nabarmenago eta zuzenago egiteko. Ez dira ohartzten, teoria honekin, gehitu beharrean, gutxitu egiten dutela hainbeste goraiatzten dituzten atributuen handitasuna. Ziur aski beheragoko izakietan halako ahal-maila bat delegatzeak Jainkoarengan ahal gehiago darama, dena bere nahizate zuzen-zuzenez eragiteak baino. Munduaren egitura hasiera-hasieratik bere Probidentzia beraren helburu guztiak eta bere eragiketa beraz betetzeko adinako zehaztasun perfektuz taxutzeak jakinduria gehiago eskatzen du, une bakoitzean Kreatzailea mundu-zatiak egokitzen eta bere hatzez makina harrigarri horren gupil guztiak animatzen beharturik balego baino.

57. *Lehenik*, Izaki Gorenaren energia eta eragiketa unibertsalen teoria honi ausartegia deritzot, giza arrazoimenaren ahultasunaz eta bere eragiketa guztietan konfinaturik dagoen muga estuez behar bezala jabetua den inor konbentzitzeko. Horraino daraman argumentu katea erabat baliokoa balitz ere, susmoa sortu behar, segurantzaz osoa ez bada, gure gaitasunen


eskueratik harago eraman gaituela, hain ondorio harrigarri eta bizitza eta esperientzia arruntetik urrunetara jotzen duenean. Sorginen munduan aurkitzen gara gure teoriaren azken urratsetara heldu aurretik, eta *han* ez daukagu inolako arazorik geure ohizko argumentu metodoz fidatzeko, edo geure ohizko analogiak eta probabilitateak inolako autoritaterik badutela pentsatzeko. Gure bizitza motzegia da hain leze sakonak arakatzeko. Eta nahiz eta harro esan ematen dugun urrats bakoi-tzean egiantz-senak eta esperientziak gidatzen gaituela, ziur egon gaitzke delako esperientzia horrek ez daukala autoritate-rik esperientzi esparrutik guztiz at dauden gaietara aplikatzen dugunean. Baina geroago izango dugu honetaz berriz tratatze-ko aukera¹².

Bigarrenik, teoria hau oinarritzen den argumentuetan ezin dut inolako indarririk hauteman. Egia da ez dakigula gorputz hauek nola jokatzen duten elkarrekin. Euren indarrak eta energiak guztiz ulergaitzak dira. Baina ez al gara era berean ezjakinak gogo batek, gogo gorena bada ere, bere buruarengan nahiz gorputz batengan nola edo zein indarrez iharduten duen? Nondik ateratzen dugu, galdetzen dizut, horren ideia? Geure baitan ez daukagu ahal horren inolako sentipen edo kontzientziarik. Izaki gorenaren beste ideiarik ez daukagu geure gaitasunei buruzko gogoetatik ikasten duguna baino. Gure ezjakintasuna zerbait baztertzeke arrazoi ona balitz, energia oro ukatzera beharturik geundeke bai izaki Gorenarengan, bai materiari zakarrenean. Egia esan, bataren eragiketak bestearenak bezain gutxi ulertzen ditugu. Mugimendua bultzadatik harakoa dela ulertzea errazagoa al da nahizatetik sor litekeena baino? Kasu bietan geure ezjakintasun sakona bakarrik ezagutzen dugu.

II PARTEA

58. Baina bizkortu beharra daukagu gai honetan konklusio batera heltzeko, gehiegi luzatu baikara. Alferrik ihardun dugu ahalaren edo beharrezko konexioaren ideia baten bila beronen iturri izan zitezkeela suposatu dugun guztietan. Badirudi gorputzen eragiketaren kasu bakanetan inoiz ezin izan dugula, ezta azterketarik zorrotzenaz ere, gertaera batek besteari darraiola besterik aurkitu; eta ez garela kapaz kausari eragimena damaion indar edo ahalik, edo bera eta bere efektua delakoaren arteko konexiorik, ulertzeko. Zailtasun bera azaltzen da gogoaren gorputzari buruzko eragiketei behatzean: gorputzaren mugimenak bestearen aginduari darraiola dakusagu, baina ez gara gauza mugitzea eta nahizatea batzen dituen lokarria, edo gogoak haren eraginez efektu hau sortzeko behar duen energia hautemateko edo bururatzeke. Nahimenak bere gaitasun eta ideien gainean duen aginpidea ere ez da batere ulergarriago. Horrela, oro har, natura osoan ez dago burura dezakegun konexio-kasu bakarrik ere. Gertaera guztiek erabat jareak eta banakoak dirudite. Gertaera bat besteari darraio, baina inoiz ez dugu euren arteko lokarriarik somatu. *Elkartuak* dirudite, baina ez *elkarrekikoak*. Eta zerbait noizbait ez zaiela kanpo-zentzuei edo barne-sentimenari agertu asmatzerik ez dugunez gero, nahitaezko ondorioa dela *dirudi* inolako ahal- edo konexio-ideiarik ez daukagula, eta hitz hauek guztiz zentzuga-beak direla arrazoiketa filosofikoetan edo bizimodu arruntean erabiltzean.

59. Baina bada oraindik ondorio hau ebitatzeko modu bat eta oraindik aztertu ez dugun iturri bat. Zeinnahi objektu edo gertaera azaltzen zaigunean, argitasun eta zorrotzasunik handiena badugu ere, esperientziaren laguntzarik gabe, ezinezko zaigu hartatik sor litekeen gertaera aurkitzea, ezta asmatzea ere, edo gure iragarmena gure oroimenetik edo zentzuetatik



ber-bertan dagoen objektutik harago eramatea. Halako gertaera bat beste bati darraiola hauteman dugun kasu edo esperimendu baten ondoren ere, ez gara nor arau orokorrik adierazteko edo antzeko kasuetan zer gertatuko den aurreratzeko, zeren zuzenki ausarkeria barkagaiztat jotzen baita naturaren abio osoa kasu bakarretik epaitzea, den zehatzena eta ziurrena bada ere. Baina halako gertaera-mota bat beti, kasu guzti-guztietan, beste bati loturik izan denean, ez daukagu beldurrik bata bestearen agerpenaz iragartzeko eta izatezko edo existentziatzeko zer bati buruz ziurtasuna eman ahal digun arrazonamendu bakarra erabiltzeko. Orduan objektuetariko bati *Kausa* deritzogu eta besteari *Efektua*. Euren artean badela jotzen dugu konexioren bat, ahalen bat batarengan, zeinaren eraginez bestea hutsik gabe sorrarazten duen eta nahitaez indartsuenez, ziurtasunik haudienez jokatzeko duen.

Badirudi, beraz, gertaeren arteko lotura beharrezkoaren ideia hau gertaera horien etengabeko elkartzaren zenbait kasutatik aterea dela. Ideia hau ez dezake inoiz iradoki horietariko kasu bakar batek, litezkeen posizio eta ikuspegi guztietatik aztertuta ere. Baina kasu-erreskada batean ez dago ezer ezberdina denik berdintzat jotzen diren kasu banakoen aldean; hauxe izan ezik: ohiturak, antzeko kasuen errepikaren ondoren, gogoia, gertaera bat agertzean, honen ohizko kidea itxarotera eta existituko dela sinestera daramala. Beraz, gogoa *sentitzen* dugun konexio hau, objektu baten irudimenetik bere ohizko kidera pasatze hau, ahalaren edo beharrezko konexioaren ideia oso errazten digun sentipena edo inpresioa da. Auzi honetan ez dago besterik ezer. Azter aferra alde guztietatik. Ideia honi ez diogu inoiz beste jatorririk aurkituko. Hauxe da hartatik konexio-ideiarik inoiz hartu ezingo dugun kasu baten eta hura iradokitzen diguten antzeko zenbait kasuren arteko alde bakarra. Gizakume batek bultzadazko mugimen-komunikatzea lehenengoz ikusi zuenean, bilar-bolen elkar-jotzean esaterako, ezin izan zuen gertaera bata bestearekin *konektatuta*

dagoela aldarrikatu, *elkartuta* bakarrik baizik. Eite bereko zenbait kasuri behatu ondoren, *konektatuta* daudela aldarrikatzen du. Zer aldakuntza gertatu da *konexio*-ideia berri hau emateko? Bakar-bakarrik orain gertaera hauek bere irudimenean konektaturik daudela *sentitzen* duela eta bataren existentzia aise iragar dezakeela bestearen agerpenetik. Beraz, objektu bat beste batekin *konektaturik* dagoela diogunean, gure pentsamenean konexio bat lortu dutela eta bata bestearen frogari bihurtzen den inferentzia hauxe ematen dutela bakarrik esan nahi dugu, ondorio harrigarri samarra noski, baina nahiko ebidentziak oinarriturik dirudiena. Ebidentzia hau berriz ez da motelduko adimenean, zeinnahi desfidentzia orokor edo berriak eta ohigabeak izan litezkeen ondorioei buruzko susmo eszeptikoren bat dela-ta. Eszeptizismoarentzat ez dago konklusio pozgarriagorik giza arzoimen eta gaitasunaren ahultasun eta muga estuei buruzko aurkikuntzak baino.

60. Eta zer berau baino adibide indartsuagorik aurkez daiteke adimenaren makaltasun eta ezjakintasun harrigarriei buruz? Zeren objektuen arteko erlaziorik osoki ezagutzerik axola bazaigu, kausa-efektuena da segurkien. Izatezko edo existentziatzeko zerei buruzko gure arrazonamendu guztiak hortxe oinarritzen dira. Horixe esker bakarrik lor dezakegu segurantz zerbait oroimenaren eta zentzuen oraingo lekukotzatik urrun diren objektuez. Zientzia guztien onura berehalako bakarra da jazoko diren gertaerak euren kausen bitartez nola kontrolatu eta arautu irakastea. Gure pentsamenduak eta ikerketek, beraz, erlazio horri buruz dihardute beti. Baina horretaz osatzen ditugun ideiak hain imperfektuak dira, ezen ezin baitugu kausaren definizio egokirik eman, kausari arrotz eta kanpoko zaion zerbaitetik ateratakoa izan ezik. Antzeko objektuak antzeko objektuekin elkaturik daude beti. Honen esperientzia badaukagu. Esperientzia honen arabera kausa bat zera dela defini dezakegu, hots, *beste objektu bat darrion objektua, lehenengoaren antzeko objektu guztiei biga-*

rrenaren antzeko objektuak darraizkiotenean. Edo beste hitz batzuetan, lehen objekturik izan ez balitz, bigarrenik ez zen inoiz izango.

Kausa baten agerpenak, ohiturazko transizioz, gogoari efektuaren ideia ezartzen dio beti. Honen esperientzia ere badaukagu. Esperientzia honen arabera, beraz, kausaren beste definizio bat eman dezakegu eta deitu *objektu bat beste bat darraiona eta bere agerpenak pentsamena beti bestearengana daramana*. Bi definizioak kausari arrotz zaizkion zirkunstantzietan kokatzen badira ere, ez daukagu eragozpen hau gaindizterik edo kausaren alderdia adieraz lezakeen beste definizio perfektuagorik ematerik, efektuarekiko konexioa baino. Konexio honen inolako ideiarik ez daukagu, ezta ezagutu nahi dugunaren nozio ezberdinik ere, hura bururatzeko saiatzen garenean. Hari baten bibrazioa, adibidez, halako hotsaren kausa dela diogu. Baina zer esan nahi dugu baiezpen honekin? Esan nahi dugu *bibrazio honi hots hori darraiola eta antzeko bibrazio guztiei antzeko hotsek jarraitu dizkietela*: Edo *bibrazio honi hots horrek darraiola eta, bataren agerpenaz, gogoak zentzuei aurea hartzen diela eta bestearen ideia berehalaxe sortzen duela*. Kausa-efektuen erlazio honi bi ikuspegiotatik edozeinen arabera beha diezaiokegu, baina hauetaz harago ezin dugu haren ideiarik izan.¹³

61. Bil ditzagun atal honetako arrazonamenduak: ideia oro aurreko inpresio edo sentipenen baten kopia da, eta inolako inpresiorik topatu ezin dugun lekuan, egon ziur ez dagoela ideiarik. Gorputzen edo gogoen eragiketa-kasu banako guztietan ez dago ezer inpresiorik sor lezakeenik ezta, beraz, ahal edo beharrezko konexioaren ideiarik iradoki dezakeenik ere. Baina kasu berdinean asko agertzean eta objektu berari beti gertaera bera darraiola agertzean, kausaren eta konexioaren nozioa geuganatzen hasten gara. Orduan sentipen edo inpresio berri bat *sentitzen* dugu, alegia, ohizko konexio bat pentsamen edo

irudimenean objektu baten eta beraren betiko kidearen artean. Eta sentipen hauxe da bila gabiltzan ideien originala. Zeren ideia hau kasu banakotik barik zenbait antzeko kasutatik sortzen denez, kasu-multzoa kasu banakoaren ezberdina izatearen aldetik sortu behar. Baina irudimenaren ohizko konexio edo jauzi hauxe da bata bestetik bereizten dituen zertzelada bakarra. Beste xehetasun guztietan berdintsuak dira. Ikusi dugun lehen kasua, bi bilar-bolen elkar jotzeak ezarritako mugimena alegia, —adibide argi honetara itzuliz— orain gogora dakigutkeen beste edozein kasuren berdinean da, lehenengotan gertaera bat beste batetik ezingo genukeela *inferitu* izan ezik, orain hori egin dezakegularik esperientzia uniformeko segida hain luzearen ondoren. Irakurleak arrazonamedu hau aise ulertuko duen ez dakit. Hitzak gehituz, edo ikuspegi-barrietate handiagoz azalduko banu, ilunago eta nahasiago bihurtuko ez ote litzatekeen beldur naiz. Arrazonamendu abstraktu orotan bada ikusgune bat, hura zorionez atzeman ahal izanez gero, gaiaren azalpena munduko etorririk eta hizkerarik mardulenak baino gehiago hurbiltzen gaituena. Ikusgune horixe atzematen saiatu behar dugu eta erretorikako loreak hauei gehiago dagozkien gaietarako utzi.

VIII ATALA

ASKATASUNAZ ETA BEHARRAZ

I PARTEA

62. Arrazoiz itxaron liteke, zientziaren eta filosofiaren hasieratik hain biziki eztabaidatu eta tematuriko gaietan, hitz guztien esanahia bederen erabakia izango zela tematzaile guztien adostasunez, eta bi mila urtetan zeharreko gure ikerkuntzek hitzetatik eztabaidako gai egiazko eta benetakora pasatzea lortu ahal izango zutela. Zeren ez al da, bada, oso erraza arrazoiketan erabilitako hitzak zehazki definitzea eta definizio hauek, ez hitzen hots hutsak, ondorengo analisi eta azterketaren gai bihurtzea?

Baina auziari hurragotik begiraturik, alderantzizko ondorioa ateratzera joko genuke. Eztabaida batek hainaldi luzean tente iraun duela eta oraindik ere ebazteko dagoela ikusita bakarrik ere, hizkeran anbiguotasunen bat badela pentsa dezakegu eta solaskideek eztabaidan erabilitako hitzei ideia ezberdinak eranstean dizkietela. Zeren gogoaren ahalmenak berez gizabanako ororengan berdintsuak direnez, bestela arrazoiketan eta eztabaidan aritzea alfer-alferrik bailitzateke, ezinezkoa litzateke gizakumeek euren hitzei ideia berak erantsiz gero, hainaldi luzean gai berari buruz hain iritzi ezberdinak osatzea, batez ere euren ikuspegiak komunikatzen eta alderdi bakoitza bere antagonisten gaineko garaipena emango dioten argumen-

tuak alde guztietatik bilatzen ari denean. Egia da gizakumeek giza ahalmenaren eskueratik guztiz at dauden auziak eztabaidatzen baditu, hala nola munduen sorrerari edo sistema intelektual baten antolamenari edo izpirituen lurralde bati dagozkionak, luzaz dezakeela haizea bere alferreko liskarrez astin eta sekula ondorio garbira heldu ez. Baina auzia bizitza eta esperientzia arrunteko edozein gairi dagokiona bada, ez luke bategen pentsatuko ezerk ere eduki dezakeenik eztabaida hain luzaro ebazteke, antagonistak urrunarazten eta elkarri oratzea galarazten dien zenbait esamolde anbiguoak besterik.

63. Hauxe izan da askatasunari eta beharrari buruzko gai hain eztabaidatuaren kasua, eta hain desadostasun nabarmenez gainera, ezen, oso oker ez banago, aurkituko dugu giza-guztia, jakintsua nahiz ezjakina, auzi honetan iritzi berekoa izan dela beti, eta definizio ulergarri gutxi batzuek berehalaxe bukaraziko zutela eztabaida guztia. Aitortuko dut tema hau denek tratatua izan dela eta filosofoak hain sofisteria iluneko labirintora eramanez dituzte, ezen ez litzateke harritzeko irakurle zentzudunak bere lasaitasun premia asetzea, auzi hau tratatzeko proposamenari entzungor egiteraino, ezin baitu bertatik ez irakatsirik ez entretenigarririk itxaron. Baina hemen proposatzen den argumentuaren jiteak baliteke bere arreta berritzeko balio izatea. Berritasun gehiago duenez gero, gutxienez eztabaidaren irtenbideren bat agintzen du, eta ez du haren patxadarik hautsiko arrazoiketa korapilotsu eta ilunez.

Argi uztekotan naiz, beraz, gizakume guztiak bat etorri direla askatasunaren eta beharraren doktrinan, hitzoi eransten zaien zeinnahi adiera arrazoizkoren arabera; eta orain arteko eztabaida guztia hitzei buruzkoa baino ez dela izan. Beharren doktrina aztertzeak hasiko gara.

64. Unibertsalki onartua da materia, bere eragiketa guztietan, indar beharrezko batek ariarazten duela eta berezko

efektu oro bere kausaren indarrak hain zehazki determinaturik dagoela, ezen zirkunstantzia konkret hauetan ez baitaiteke beste inolako efekturik hartatik sor. Mugimen ororen gradua eta norabidea natur legeek hain zehazki finkaturik dituzte, ezen era berean erraza baita bai izaki biziduna sortzea bi gorputzen elkarjotzetik, bai beste gradu edo norabide bateko mugimena gertatzea. Beraz, *beharraren* ideia zuzen eta zehatzik izan nahi badugu, ideia hau nondik sortua den aztertu behar dugu, gorputzen eragiketari ezartzen diogunean.

Bistakoa dirudi ezen, naturako eszena guztiak etengabe aldatuak balira, ezein gertaera-bikotek antzik ez izateko moduan, aitzitik ordea, objektu oro guztiz berria izateko moduan, aurretik ikusitako ezereen itxurarik gabe, inoiz ez genukeela atzemango objektu arteko behar edo loturaren ideia kaxkarrenik ere. Kasu horretan objektu edo gertaera batek beste bati jarraitu diola bakarrik esan genezake, ez bata besteak eragina izan dela. Gizadiari nahitaez ezezagun litzaioke kausa-efektuen erlazioa. Une honetatik amaitua litzateke naturaren eragiketei buruzko inferentzia edo arrazoiketa, eta oroimena eta zentzuak geldituko liriteke erreten bakarrik, zeinen bitartez edozein existentzia errealean ezagutzak gure gogora helpidea izango lukeen. Beraz, beharraren eta kausatasunaren ideia gurea, antzeko objektuak beti loturik dauden naturako eragiketetan hauteman daitekeen uniformetasunetik bakarrik dator, eta gogoia ohiturak darama bata bestearen agerpenetik inferitzera. Bi zirkunstantzia hauexek bakarrik egiten dute materiari erantsen diogun beharra. Antzeko objektuen *elkartasun* etengabetik eta bata bestetik *inferentzia* ondoriozkotik harago, ez daukagu beharraren edo konexioaren inolako noziorik.

Gizadi osoak, inolako ezbai edo zalantzarik gabe, bi zirkunstantzia hauek gizakumeen ekintza nahietsietan edo gogoaren eragiketetan gertatzen direla beti onartu duela gertatuz gero, gizadia beharraren doktrinari buruz beti bat etorri dela

atera behar, eta orain arte gizakumeek elkar ez ulertzeagatik tematu direla.

65. Lehen zirkunstantziari dagokionez, hots, antzeko gertaeren elkartasun etengabe eta erregularraz, honako kontsiderapen hauekin konforma gaitzke. Unibertsalki onartua da uniformetasun handia dagoela herri eta adin guztietako gizakumeen ekintzetan, eta giza izaerak berbera dirauela bere printzipioei eta eragiketei dagokienez. Motibo berek ekintza berak sorrarazi dituzte beti. Gertaera berak kausa berei darraizkie beti. Anbizioa, zikoizkeria, norberekeria, banitatea, adiskidegoa, eskuzabaltasuna, herri-izpiritua: grina hauek, gradu ezberdinetan nahasiak eta gizartean zabalduak, munduaren hasieratik izan dira, eta izaten dihardute, gizadian hauteman ahal izandako ekintza eta enpresa ororen iturri. Grekoen eta Erromatarren sentikerak, joerak eta bizimodua ezagutu nahi direla? Azter ondo frantsesen eta ingelezen izaera eta ekintzak. Ez dago oso oker ibiltzerik, azkenoi buruz egindako oharpenik *gehienak* lehenei bizkarreratzeaz. Gizadia hain da berdina noiznahi eta nonnahi, ezen, arlo honetan, historiak ez digu ezer berririk edo bitxirik jakinarazten. Honek daukan onura bakarra da giza izaeraren printzipio unibertsalak eta etengabeak aurkitzea, gizakumea denetariko egoera eta zirkunstantzietan erakusten digularik, eta gure behaketak egin ahal izateko eta giza ekintzaren eta jokabidearen ohizko iturburuak geuganatzeko materialeak eskuratzen dizkigularik. Guda, liskar, alderdikeria eta iraultzen kondaira hauek beste hainbeste esperimenduen bilduma dira, zeinekin politikoak eta filosofo moralak bere zientziaren printzipioak finkatzen dituen, fisikaria edo filosofo naturala landare, minerale eta beste kanpo-objektu batzuen izaeraz haiekin eginiko esperimenduen bitartez jabetzen den bezala. Aristotelek eta Hipokratesek ikerturiko lurra, itsasoa eta beste elementuak ez dira gaur egun gure behaketaren mende daudenen antzekoagoak, Polibiok eta Tazitok deskribaturiko gizakumeak eta orain mundua gobernatzeko dutenak elkarren artean diren baino.

Bidaiari batek urruneko laterritik itzultzean, guk trataturiko zeinnahi gizakumeren arras bestelakoen berri balekarkigu, zikoizkeri, anbizio eta mendekuzko gogo-izpirik ere ez duten gizakumeak direla hain zuzen, adiskidegoa, eskuzabaltasuna eta herri-izpiritua beste gozamenik ezagutzen ez dutenak, berehalaxe ohartuko ginatke haren esanen gezurraz egite hauek bide direla, eta gezurtia dela frogatuko genuke, bere kondaira zentauroz, herensugez, mirariz eta harrigarritz josi balu bezain segurki. Edozein gezur historiko bistaratu nahi badugu, ez dago argumentu konbentzigarriagorik pertsona baten egintzak naturaren abioaz guztiz kontrakoak direla frogatzea baino, eta zirkunstantzia konkretu hauetan ez dagoela giza motiborik hura halako jokabidera eramanezakeenik. Kinto Kurtzioren egitasuna susmopean jarri behar da, bai Alexanderren adorea goinaturala deskribatzen duenean, zeinaren bidez bera bakarrik jendetzei oldartzen omen zitzairen, bai haiei eutsi ahal izateko indarra eta erremangua deskribatzen dituen. Giza motibo eta ekintzetan gorputzaren eragiketetan bezain erraz eta unibertsalki antzematen dugu uniformetasuna.

Hemendik dator era berean bizitza luzean zehar lortutako esperientziaren eta eginkizun ezberdinen eta pertsonetikiko tratua onura, giza izaeraren printzipioak irakasteko eta gure geroko jokabidea, baita gure espekulazioa ere, arautzeko. Gida honekin igoten gara gizakumeen joera eta motiboen ezagutzara, euren egintza, hizkera eta baita zeinuak ere bide direla. Edo alderantziz, euren egintzen interpretaziora jaisten gara, euren joerak eta motiboak bide direla. Esperientziaren joanean altxorturiko obserbazio orokorrek giza ezagutzarako giltza daimagute eta bere nahaste guztiak ilazten irakasten digute. Jada ez gaituzte atxakiek eta itxurek engainatzen. Agerian egindako deklarapenak kausa baten defentsa aspikoitzat jotzen dira. Eta bertutearen eta ohorearen benetako pisua eta itzala aitortzen bada ere, hain maiz erakutsi nahi den ezaxola bikain hori ez da jendearengan eta alderdiengan topatzerik inoiz itxaroten. Gi-

dariengan topatzerik nekez itxaroten da, eta oso bakan zein-nahi maila eta bizikerako gizabanakoengan ere. Giza egintzetan uniformetasunik ez balitz, eta haietaz izan genezakeen esperientzia guztia irregularra eta anormala balitz, ez legoke gizadiari buruzko obserbazio orokorrik biltzerik. Eta ezein esperientziak ez luke ezertarako balioko, gogamenak denik zehazkien hausnartu badu ere. Zergatik da nekazari adintsua bere lanbidean gazte hasberria baino antzatsuago, ez bada barazkintza baldintzatzen duen eguzki, euri eta lurraren ihardunean halako uniformetasuna dagoelako, eta esperientziak lugin zaharrari ihardun hori gobernatzen eta gidatzen duten arauak irakasten dizkiolako?

66. Ez dugu, hala ere, uste izan behar giza egintzen uniformetasun hau gertatuko dela, gizakume orok, zirkunstantzia berdinetan, berdin-berdin jokatu duela pentsatzeraino, izaera, aurriritzi eta usteen ezberdintasunari batere lekurik utzi gabe. Halako uniformetasunik xehetasun guztietan ez da inongo izadi-zokotan aurkitzen. Aitzitik ordea, gizakume ezberdinean jokabide ezberdinak hautemanenez, printzipio-ezberdintasun handiagoa osa dezakegu, nahiz eta beti ere uniformetasun- eta erre-gulartasun-maila bat duen.

Gizakumeen ohiturak ezberdinak direla aldi eta alde ezberdinetan? Honek giza gogoia umetatik taituzten eta izaera finkoa eta ezarria moldatzen dioten ohituraren eta hezkuntzaren indar handia erakusten digu. Sexu bataren eta bestearen jokabidea oso ezberdina dela? Honetan jabe gaitzek naturak sexuei eman dien eta berak erregulartasunez eta konstantziaz gordetzen dituen izaera ezberdinez. Pertsona baten egintzek alde handia dutela umetatik zahartzarora? Honek obserbazio orokor askotarako bidea ematen du gure sentipen eta joeren aldakuntza gradualei buruz, eta gizaki ezberdinen adin ezberdinetan nagusi diren eredu ezberdinei buruz. Gizabanako baten ezaugarri bereziek eurek ere eragin uniformeak dagite. Bestela

pertsonekin dugun tratuak eta euren jokabidea oharremateak inoiz ez liguke euren joerarik agertuko, ezta haiekiko jokabidea zuzentzeko balioko ere.

67. Aitortuko dut izan daitekeela egintzarik, ezein motibo ezagunekin lotura erregularrik ez bide daukanik, eta giza-kumeen gobernurako ezarriak diren jokamolde guztiei buruz salbuespen denik. Baina hain egintza irregular eta harrigarriei buruz zer iritzi egin jakin nahi badugu, naturaren eta kanpo-objektuen abioan ageri diren gertaera irregularrei buruz komunzki izaten diren sentipenak kontsideratzea daukagu. Kausa batzuk ez daude euren efektuei uniformetasun berdinez loturik. Materia hila bakarrik darabilen artisauak agente sentikor eta adimendunen jokabidea zuzentzen duen politikoak bezalaxe huts egin dezake bere asmoetan.

Gauzak euren lehen itxuraren arabera ulertzen dituen herri xeheak gertaeren ziurtasun eza kausen ziurtasun ezari ezartzen dio, zeinak eragiten duen kausok maiz huts egitea euren ohizko eraginean, nahiz eta euren eragiketari oztoporik topatu ez. Baina filosofoek, naturaren alderdirik gehienetan printzipio- eta iturri-mordo izugarria nimifotasun eta urruntasunagatik ezkutuan dagoela obserbatzean, gutxienez posibletzat jotzen dute gertaeren kontrakotasun hau ez izatea kausaren hutsen bategatik, baizik kontrako kausen eragiketa ezkutua-eragatik. Posibilitate hau ziurtasun bilakatzen da ondoko obserbazioa bide, efektuen kontrakotasunak kausen kontrakotasuna salatzen duela beti eta bata-bestearen oposiziotik harakoa dela hautematean. Baserritar batek ez lezake erloju baten gelditzearen arrazoi hoberik eman aspaldian ez dabilela ondo esatea baino. Artisauari ordea ez zaio batere zaila oharre eragingailuan edo penduluan indar berak eragin bera izaten duela beti gurpiletan, baina bere ohizko efektuan huts egiten duela hauts ale baten erruz agian, zeinak mugimen osoa geldiarazten duen. Zenbait kasu paraleloren behaketatik, filosofoek printzipioa

ezartzen dute ezen kausa guztien eta efektu guztien arteko konexioa berdin dela beharrezko, eta beronen itxurazko ziurtasun eza, kasu batzuetan, kontrako kausen oposizio ezkututik datorrela.

Honela, esaterako, giza soinean ohizko osasun edo eritasun sintomek huts egin digutenean, sendagaiak euren ohizko ahalmenez jokatu ez dutenean, halako kausaren bati efektu irregularrak darraizkionean, filosofoa eta medikua ez dira horregatik harritzen, ez animalia izaera gidatzen duten printzipioen beharra eta uniformetasuna ukatzera jotzen ere, gehienean behintzat. Badakite giza soina oso makina konplikatua dela, eta bertan gure ulermenetik haragoko ahalmen sekretu asko dagoela ezkutuan, sarritan bere eragiketetan oso zalantza-ko gertatuko zaigula, eta, beraz, kanporantz agertzen diren gertaera irregularrek ezin dutela izan naturaren legeak euron barne-eragiketa eta esparruan erregulartasunik handienaz betetzen ez diren frogak.

68. Filosofoak, koherentea baldin bada, arrazonamendu bera aplikatu behar die adimendun agentearen ekintzei eta nahizateei. Haien izaera eta egoera xeheki ezagutzen dutenek, sarritan, gizakumeen erabakirik irregularren eta ustegabeenak azal ditzakete. Izaera adeitsuko pertsona batek erantzun gordina damaizu. Baina hagineko mina du edo jan gabe dago. Pertsona geldo batek bapatean bere jokabideari ez dagokion bizitasuna erakusten dizu. Baina gero bapatean agertzen da zorte ona izan duela. Baina baita, noizbehinka gertatzen denez, ekintza bat esplikagaitz gertatzen zaionean konkretuki egin duen pertsonari berari edo beste batzuei, badakigu, gehienean, gizakumeen izaerak neurri bateraino aldakorrak eta irregularrak direla. Giza izaeraren izate konstantea halakoxea da nolabait, nahiz eta hau bereziki aplikagarri zaien joko-arau finkorik gordetzen ez duten, eta etengabeki nahikeriaz eta inkonstantziaz diharduten pertsonei. Itxurazko irregulartasun

hau eta guzti ere, baliteke barne-printzipio printzipio eta motiboek uniformeki jokatzera, haizea, euria, hodeiak eta beste eguraldi aldakuntzak printzipio konstanteek gidaturik daudela jotzen denez, nahiz eta giza zolitasun eta ikermenak hain erraz ez daukan eurok aurkitzen.

69. Honela gertatzen da motiboen eta ekintza nahietsien arteko lotura kausa-efektuen zeinnahi izadi-aldean bezain erregularra eta uniforme izatea ezezik, gizadiak aho batez aitortu duela lotura erregular hau, eta inoiz ez dela ez filosofian ez bizitza arruntean eztabaidagai izan. Hala ere, etorkizunari buruzko inferentzia guztiak iragan esperientzietatik ateratzen ditugunez, eta iraganean loturik egondako objektuak beti loturik egongo direla erabakitzen dugunez, alferrekoa eman lezake giza ekintzetan esperimenterikoko uniformitate hau bertatik *inferentziak* atera ditzakegun iturri bat dela frogatzeak. Baina argumentua ikuspegi-barietate handiagok azaltzeko, azken auzi honi ere ekingo diogu, labur bada ere.

Gizakumeen elkar-dependentsia hain handia da gizarte guztietan, ezen ez baita giza ekintzarik bere baitan guztiz osoa denik, eta ez da burutzen besteen ekintzekiko erreferentziaren bat gabe, hauek nahitaezkoak direlarik egilearen asmoa argitzeko. Artisaurik apalenak ere badu gutxienez magistratuaren babesa bere lanaren fruituak segurtatzeko. Halaber, bere gaiak merkaturatzen eta prezio egokian eskaintzen dituenean, erosleak topatzekotan da, eta hartutako diruarekin bizitzeko behar dituen ondasunak beste batzuek berari hornitzea egin ahal izango du. Gizakumeek euren harremanak ugalduz eta beste gizakumeekiko tratua konplikatuz joan ahala, euren bizi-asmotan besteen ekintza nahietsi gehiago sartzen dituzte, eurenekin kooperatuko dutela espero dituztenak. Konklusio guzti horietarako, iragan esperientzietatik hartzen dituzte argibideak, kanpo-objektuei buruzko arrazoiketetan gertatzen zaien bezala, eta bete-bete sinesten dute gizakumeek, elementuek bezala,

beti ezagutu duten bezalaxe jokatzeko dutela. Lan bat burutzeko, fabrikari batek bere langileen lana darabiltzan lana-besak bezainbeste kalkulatu du, eta berdin harrituko litzateke bere kalkulua bata edo besteak huts egingo balio. Hitz batez, besteen ekintzei buruzko inferentzia eta arrazoiketa esperientzialak giza bizitzan halako neurrian sartzen dira, ezen ezen gizakumek ez baitio, itzarrik dela behintzat, haietaz baliatzeri inoiz uzten. Ez al gaude, beraz, zuzen gizadi osoa beharrezko doktrinan, arestian emandako azalpen eta definizioaren arabera, beti bat etorri dela baieztatu?

70. Gai honetaz ere filosofoek ez dute herriarenaz beste iritzirik izan. Zeren, euren bizitzetako ekintza ia guztiek iritzi hau inplikatu dutela aipatu gabe, ihardun espekulatibo gutxi dago hori funtsezko ez zaienik. Zer litzateke *historia*, historiariaren egitasunaz fidatzerik ez bagenu, gizadiak izan dugun esperientziak uzten dugun neurrian? Nola izan *politika* zientzia bat, legeek eta gobernariak gizartearengan eragin uniformerik ez balute? Non legoke *moralaren* oinarria, gizakera bakoitzak halako sentimendu batzuk sortzeko ahalmen ziur eta ebazkerrik ez balu, eta sentimenduok gure ekintzetan eragin konstanterik ez balute? Eta zernolatan aplikatu gure *kritika* poeta edo literaturgile bati, bere pertsonaien jokabide eta sentimenduak, halako gizakera eta halako zirkunstantzietan, naturalak ala ez-naturalak diren esaterik ez bada? Ezinezkoa dirudi, beraz, zientzigitzan edo beste zernahigitzan hasteak beharrezko doktrina onartu gabe, eta motiboetatik ekintza nahietsietara doan, gizakeratik jokabidera doan *inferentzia* onartu gabe.

Eta, izan ere, ebidentzia *naturala* eta *moral*a zein egoki elkarlotzen diren eta inferentzi kate bakarra osatzen dutela kontsideratzean, ez dugu eragozpenik izango izaera berekoak edo printzipio beretatik harakoak direla onartzeko. Ez dirurik ez ukalondorik gabeko prisionariak ihesaren ezina berdin airtortzen du presoaren gogortasuna kontsideratzean, nola in-

guruan dituen murrak eta barroteak kontsideratzean. Bere ihes saio guztietan nahiago du harriari eta burdinei ekin, presoaren gizakera gogorrari baino. Urkabera daramatenean, prisionariak berak berdin dakusa bere heriotza jagoleen konstantzia eta leialtasuna bide, nola gurgilaren eta aizkoraren lana bide. Haren gogoak ideien halako segida bat korritzen du: soldaduen ukoa bere ihesa kontsentitzeko, borroaren ekintza, burua gorputzetik berezte, mugida konbultsibo eta odoltsuak, eta heriotza. Hona hemen kausa berezko eta nahietsi elkar-lotuen kate bat, baina gogoak ez du haien artean inolako alderik topatzen maila batetik bestera pasatzean. Eta gertakizun honetaz duen ziurtasuna ez da txikiagoa izaten, gainera, gertatzeko dagoen hori oroimenari edo zentzuei dagozkien objektuekin loturik (behar *fisikoa* deitzea gustatzen zaigun kausa-sail baten bidez konektaturik) balego baino. Loturaren esperientzia errepikatuak gogoarengan efektu bera sortzen du, lotutako objektuok motiboak, nahizateak eta ekintzak, nahiz figura eta mugimena izan. Gauzen izena alda dezakegu, baina euren izana eta ekintza gogoarengan inoiz ez dira aldatzen.

Jatorra eta aberatsa dela badakidan eta adiskide min dudan gizon bat etxean sartzen bazait, neure morroiz inguratutako nagoela, ziur nago ez didala joan aurretik labanik sartuko nire zilarrezko tintontzia osteko, eta gertaera hau jazo daitekeenik ez dut errazago susmatzen berria eta gogor egina eta zimendatua den etxea behera erortzea baino.—*Baina baliteke hura bapateko eromen ezezagunak jotzea.*— Berdin gerta liteke gure etxea dardartzen eta gainera botatzen didan bapateko lurrikara ere. Horregatik adibideak aldatuko ditut. Ziur dakidala esango dut hark ez duela bere eskua sutan jarri eta bertan erre arte edukiko. Eta gertaera hau halako ziurtasunez aurrikus dezakedala uste dut, nola egingo nukeen hura leihotik jauzi eta, oztoporik topatu ezik, amen batean ere ez litzatekeela airean zintzilik geldituko. Eromen ezezagunaren ezin susmok ezingo lioke, inola ere, gorago aipatu gertaerari biderik eman, giza

izaeraren printzipio guztien hain aurkakoa baita. Eguerdian Charing-Crosseko espaloian urrez beteriko txanpon-zorroa utzi duen gizonak hein berean espero dezake luma bezala hega dadin, nola espero dezakeen ordubete geroago utzi zuen bezala topatzea. Giza arrazonomendu erdiek baino gehiagok era honetako inferentziak dauzkate, ziurtasun-maila handiagoz edo txikiagoz, halako egoeretan gizadiaren jokabideari buruz dugun ezagutzaren arabera.

71. Maiz pentsatu dut zein izan litekeen arrazoia, gizadi osoa, nahiz eta bere jokabide praktiko guztian eta bere arrazoi-ketetan beharraren doktrina beti zalantza gabe onartu, hain mu-zinti agertzeko hura aitortzerakoan, eta bai ordea aurkako iri-tziari eusteko joera erakusteko, aro guztietan. Auzia, nik uste, honela azal liteke. Soinaren eragiketak eta efektuak euren kau-setatik sortzea aztertzen badugu, aurkituko dugu gure ahalmen guztiek sekula ez gaituztela, erlazio honen ezagutzan, zeintzu objektu dauden *etengabe loturik* ohartzeko soilatik harago eramango, eta gogoak *ohiturazko transizioak* daramala bataren agerpenetik bestea sinestera. Baina giza ezjakintasunari buruzko ondorio hau gai honen azterketarik zorrotzenaren emaitza bada ere, gizakumeek nolana ere joera nabaria dute naturaren ahalmenetan barrurago sartzen direla eta kausa-efektuen arteko lotura beharrezkoa bezalako zerbait atzematen dutela sinesteko. Berriz pentsamena euren gogoen eragiketarantz zuzentzean eta motibo-ekintzen arteko inolako loturaren *sentipenik* ez daukaten indar materialetiko efektuen eta pentsamen eta adimene-koen artean aldea dagoela suposatzen jotzen dute.

Baina zeinnahi kausatze-motaz objektuen *elkarlotura etengabea* eta gogoak batetik bestera dagien *inferentzia* ondo-riozkoa besterik ez dakigula etsita egonik, eta bi zirkunstan-tziok ekintza nahietsietan ere badirela unibertsean onartzen dela ikusirik, errazago jotzen dugu behar bera kausa orori ko-muna zaiola aitortzera. Arrazonomendu hau, nahimenaren era-

bakiei beharra ezartzean, anitz filosofoen sistemen aurkakoa izan badaiteke ere, gogoeta egitean, hartaz hitzez bakarrik eta ez benetako iritziz disentitzen dutela argituko dugu. Beharra, hemen eman zaion esanahian, inoiz ez da ukatua izan eta ez daiteke izan ere inoiz, nik uste, ezein filosofoen aldetik. Bakar bakarrik pretenditu ahal da, agian, gogoak, materiaren era-giketetan, kausa-efektuen artean lotura sakonagoa eta adimen-dun izakien ekintza nahietsietan gertatzen ez den lotura hauteman ahal izatea. Baina hau honela den ala ez, azterketa bidez bakarrik argi daiteke, eta filosofo hauei dagokie euren baiezpena frogatzea behar hura definituz eta deskribatuz, eta kausa materialen eragiketetan erakutsiz.

72. Badirudi, izan ere, gizakumeak askatasunaren eta beharraren auzi hau okerreko lekutik tratatzen hasten ote di-ren, horretara abiatzen direnean arimaren ahalmenen, adime-naren eraginaren eta nahimenaren eragiketen azterketa bidez. Astin bezate lehenbizi auzi errazago bat, hots, gorputzaren eta materia gordin irrazionalaren eragiketak, eta saia bitez ea kau-satasunaren eta beharraren beste ideiarik lortzen duten, objek-tuen etengabeko loturarena eta gogoaren batetik besterako in-ferentzia ez dena.

Zirkunstantzia hauek, benetan ere, materiaren bururatzen dugun beharraren orotasuna osatzen badute, eta zirkunstan-tziok gogoaren eragiketetan gertatzen direla unibertsean onar-tzen bada, eztabaidak jo du azkena, edo gutxienez, aurreran-tzean, berbal soiltzat jo behar da. Baina kanpo-objektuen eragiketetan kausatasunaren eta beharraren ideia sakonagoa daukagula buruarinki uste dugun bitartean, eta aldi berean go-goaren ekintza nahietsietan beste ezer ez dugula topatzen su-posatzen dugun bitartean, ez da izango auzi hau inolako irten-bidera zuzentzerik, hain suposizio okerrean bermatzen gareino. Iruzurretik jaregiteko bide bakarra gorago igotea da, zientziaren eskuera urria aztertzea kausa materialei aplikatzen

zaienean, eta geure buruak komentzitzea sineste haietaz daki-
gun guztia arestian aipatutako lotura etengabea eta inferentzia
dela. Lehenengotan beharbada zail egingo zaigu giza adimenari
hain muga estuak jartzea, baina gero ez dugu eragozpenik
aurkitzen doktrina hau nahimenaren ekintzei aplikatzen diegu-
nean. Zeren, hauek motibo-zirkunstantzia eta gizakerekin lotu-
ra erregularra daukatela nabaria denez, eta beti batzuetatik
besteetarako inferentziak ateratzen ditugunez, baharturik gau-
de gure bizitzetako delibero guztietan eta gure portaeraren eta
jokabidearen urrats guztietan jada onartua dugun beharra hit-
tzez bederen aitortzera.¹⁴

73. Baina askatasunaren eta beharraren auzi hau, metafisi-
kan den gai eztabaidatuena, zientzia eztabaidatuena, kon-
tziliatzeko proiektuari segida emanez, ez da behar izango berba
askorik zera frogatzeko, bai askatasunari dagokion doktrinan
baita beharrari dagokionean ere bat etorri dela beti gizadi osoa,
eta eztabaida guztia, horri dagokionez ere, hitz-mailakoa baino
ez dela izan orain arte. Zeren eta zer ulertzen da askatasunaz,
ekintza nahietsiei aplikatzen zaienean? Ez dugu esan nahi, se-
guru, ekintzok hain lotura gutxi daukatela motibo, joera eta zir-
kuntantziekin, non batak ez diola besteari jarraitzen uniforme-
tasun-graduren batekin, eta batak ez digula inferentzi biderik
ematen bestearen existentzia ondoriozta dezagun. Ageriko eta
ongi ezagututako izatezko zerak baitira hauek. Askatasunaz,
orduan, hauxe bakarrik esan nahi dugu, *egiteko edo ez egiteko
ahalmena, nahimenak erabakitakoaren arabera*; hots, geldi ge-
ratzea erabakiz gero, egin dezakegula; mugitzea erabakiz gero,
egin dezakegula baita. Izan ere, unibertsalki onartua da askata-
sun hipotetiko hau denei dagokiena dela, gartzelan edo katean
egon ezik. Hemen ez dago beraz zertaz eztabaidatu.

74. Edozein definizio ematen dugula askatasunari bu-
ruz, bi zertzelada ditugu oso kontutan hartzekoak: *lehenengo*,
egitate nabariekin kontsekuente izatea, eta *bigarren*, bere har-

tan koherente izan dadila. Bi puntuok zaintzen baditugu eta
geure definizioa ulergarriro ematen, konbentziturik nago giza
multzo osoa bat etorriko dela berorri buruz.

Unibertsalki onartua dugu ez dela ezer existitzen exis-
tentzia horren kausarik gabe, eta azarea, zehazki aztertzen ba-
dugu, hitz negatibo bat baino ez dela eta ez duela adierazten
naturan nonbait existentzia dukeen ahal benetakorik. Baina
kausa zenbait beharrezko dela pretenditu ohi da eta beste zen-
bait ezbeharrezko. Hona orduan definizioen abantaila. *Defini*
beza norbaitek kausa bat, beronen efektuarekiko *beharrezko*
konexio bat barne eman gabe definizioaren zatitzat, eta azal
beza argiro definizioak adierazitako ideien sorrera: prest
naukazue orduan eztabaida guztia amaitutzat uzteko. Baina
arazoari buruz lehenagoko adierazpena onartzen bada, guztiz
ezinezko bihurtu behar zaigu. Objektuek euren artean lotura
erregularrik ez balute, ez genukeen inoiz atera kausa eta efek-
tuaren noziorik. Eta lotura erregular horrexek eragiten du go-
goaren inferentzia, nolabait uler genezakeen *konexio* bakarra
dugularik berau. Zertzelada hauek kontutan hartzen ez dituen
kausaren definizioen bat ematen saiatzen den edonor aurkitu-
ko da termino ulertezinak edo definitu nahi duen terminoaren
sinonimo direnak erabiltzera beharturik.¹⁵

Eta goian aipatutako definizioa ontzat ematen bada, as-
katasuna, beharraren aurkako denean, ez bortxaren aurkako,
bat bera izango da azarearekin, zeinak existentziarik ez duela
onartzen den unibertsalki.

II PARTEA

75. Ez dago arrazoiketa-metodo arruntagorik, eta hala
ere gaitzesgarriago denik, filosofi alorreko eztabaidetan hipo-
tesiren bat, beronek erlijioan edo moralean izan ditzakeen on-

dorio arriskutsuen izenean, errefusatu nahi izatea baino. Iritzi batek absurduetara bagaramatza, faltsua da ziur, baina ez da ziurra iritzi bat faltsua izatea ondorio arriskutsuak dituelako. Guztiz baztergarriak dira, beraz, honelako topikoak, egia bilatzen inola ere lagundu ez eta antagonista dugun pertsona gorrotogarri egiteko baino ez direnak. Printzipio orokor gisa daukat hau, eta ez hortik inolako abantailik atera nahi dudalako. Erabat zabal nago mota horretako azterketapean jartzeko eta zera esatera ausartzen naiz, bai beharraren baita askatasunaren doktrinak, goian azaldu diren erara biak direla moralarekin elkargarri ezezik, haren sostengurako guztiz funtsezko.

Beharra bi erataria defini daiteke *kausaren* bi definizioen arabera, horien zati funtsezko baita hura. Antzeko objektuen lotura iraunkorra dela esanez edo, baita, gogoak objektu batetik bestera egiten duen inferentzia. Horiek horrela, unibertsalki onartu izan da, nahiz eta tazituki, eskoletan, pulpituan nahiz eguneroko bizitzan, beharra bi zentzuotan (azken batean gauza bera egiatan) gizakumearen nahimenari dagokiona dela. Eta inor ez da inoiz ausartu ukatzera giza ekintzei buruzko inferentziak atera ditzakegunik, eta inferentziok antzeko ekintzek antzeko motibo, joera eta zirkunstantziekin duten lotura ezagunean oinarritzen direnik. Puntu bakar batean gerta daiteke baten bat ados ez etortzea, dela ez duelako nahi agian giza ekintzen tasun honi beharra deitzea, baina esanahia ulertzen delarik ez dut uste hitzak kalte egin dezakeenik; dela materiaren eragiketetan zerbait gehiago aurki daitekeela aldeztu duelako. Baina aitortu behar da honek moralean eta erlijioan ezin lezakeela eraginik ukan, natur filosofian eta metafisikan dena delakoa balu ere.

Ibil gaitzeko oker hemen, gorputzaren ekintzetan ez dela beste ezein behar edo konexioren ideiarik baieztean, baina gogoaren eragiketei ez diegu behintzat eransten beste guztiek eransten diena baino ezer gehiago, eta erraz onartua izan behar du.

Jaso dugun sistema ortodoxotik ez dugu aldatzen detailerik nahimenari buruz, baizik objektu eta kausa materialei buruz bakarrik. Beraz, ezin aurkitu doktrina hau baino kaltegabeago denik behintzat.

76. Lege guztiak sarian eta zigorrean oinarritzen direlarik, zera suposatzen da funtsezko printzipio gisa, motibo hauek eragin erregular eta uniformeak dagitela gogoarengan eta ekintza onak sorrarazten dituztela eta txarrei ekidin era berean. Nahi dugun izena eman diezaiokegu eragin honi, baina ekintzari lotua dagoenez gehienetan, *kausatzat* hartu behar da eta hemen finkatu nahi dugun *behar* horren adibide kontsidera daiteke.

Pentsamenaz edo kontzientziaz horniturik dagoen pertsona edo kreatura da gorrotogarri edo mendekagarri den bakarra, eta ekintza kriminal edo laidagarriren batek grina hori kitzikatzean, pertsonarekiko erlazioagatik edo harekin duen konexioagatik dateke bakarrik. Ekintzak, beren berezko izaez, aldi batekoak eta galkorrak dira eta euron egile den pertsonaren gizakeran edo jauginean datzan *kausaren* bat ez badute sorburu, ez dute haren ohorea aldeztuko, onak izanez, ezta ere kaltetuko, txarrak izanez. Ekintzak eurak zentsuragarriak izan daitezke, moraltasunaren eta erlijioaren arau guztien aurkako, baina pertsona ez bide da haien erantzule, eta honengan iraunkor eta konstante den ezertan ez duketenez sorrera, ezta mota horretako arrastorik utziko ere atzetik, ezinezko litzateke pertsona hori zigorgarri edo mendekagarri izatea egingakoengatik. Beraz, beharra, eta ondorioz kausak, ukatzen dituen printzipioari jarraituz, gizakume bat jaioberritan bezain narriogabe eta garbi legoke krimen izugarriena burutu ondoren, eta bere izaera ere ez litzateke inolaz ukitua gertatuko buruturiko ekintzongatik, etorri ez letozkeelako berarengandik, eta bataren gaiztakeria ezin erabil daitekeelako inoiz bestearen dongakeriaren frogabide.

Ez ditugu errudun egiten gizakumeak ezjakintasunez edo kasualitatez burutzen dituzten ekintzengatik, direnak direla ondorioak. Zergatik ote? Ekintzon printzipioak aldiunekoak baino ez direlako eta beren hartan bukatzen direnak.

Erru gutxiagokotzat jotzen dira gizakumeak presaka eta ustegabeki egiten dituzten ekintzengatik alde zurretiko asmoz buruturikoengatik baino. Zein ote arrazoia? Bada, itsumustuko tenperamentuak, kausa edo printzipio jarraia izanarren gogoan, aldizka baino ez du iharduten, eta ez du izaera osoa kutsatzen.

Bestalde, damuak edozein gaiztakeria ezabatzen du, bizimodu eta ohituren aldakuntzarekin batera badao. Nola uler daiteke hori? Zera baieztuz, ekintzak gogoan printzipio gaiztoen froga direnez bakarrik bihurtzen dutela pertsona bat gaizkile, eta, printzipio hauen mudantzaren bategatik, froga fidagarri izateari uzten diotenean, gaizto izateari ere uzten diotela era berean. Baina beharraren doktrinaren arabera ez bada, ekintzok ez dira izan inoiz froga fidagarri, eta ondorioz, ez dira izan inoiz gaizto.

77. Erraztasun berdinez eta argumentu berdinen bidez demostra daiteke *askatasuna* ere, gorago aipatutako eta denek onartutako definizioaren arabera, funtsezkoa dela moraltasunerako, eta hura falta den ezein giza ekintzak ez dezakeela ukan kalitate moralik edo onesgarri edota gaitzesgarri izan. Zeren eta, barne-izaera, grina eta hunkipenen adierazpen diren neurrian bakarrik direnez ekintzak gure sentimendu moralaren objektu, ezinezko dute laudorioa nahiz gaitzespena jasotzerik printzipio hauetatik barik kanpo-bortxaren batean badute erabateko jatorria.

78. Ez nago beharra eta askatasunari buruzko teoria honen objekzio guztiak saihestu edo iraitzi ditudalakoan. Aurrikus ditzaket bai beste objekzio batzuk, hemen ukitu ez diren topikoetan jatorria dutenak. Esan ahal da, adibidez, ezen,

ekintza nahietsiak materiaren eragiketetan ematen den beharrraren lege berdinen mende badaude, beharrezko kausen kate etengabe bat gertatuko dela, aurre-antolatua eta aurre-erabakia, sorburutiko kausatik hasi eta gizakume ororen nahizate bakoitz guztietara heltzen dena. Kontingentziarik ez, beraz, unibertso osoan, ezta indiferentziarik, ezta askatasunik. Egintzan dihardugularik, eragina jasotzen dugu aldi berean guk geuk ere. Izadiaren Kreatzailea da izan ere gure nahizate guztien azkenbateko Egilea, makina handi hau lehenbizi martxan jarri duena, eta izaki bakoitza halako puntu aiposean jarri, non hurrengo egintza guztiak bertatik segida hartuko duten, gaindiezineko behar baten eraginez. Giza ekintzak, beraz, edo batere doilorkeria moralik ez dute, hain kausa zindotik datozenez, edota, doilorkeriaren bat izatekotan, gure Kreatzailea kateatu beharko lukete erru berean, bera dela aitortzen baita ekintzon azkenbateko kausa eta egile.

Lehegailuaren metxa piztu duena ere ondorio guztien erantzule den moduan, dela laburra zein motza erabili duen harria, halaxe, beharrezko kausen kate jarrai bat finkatzean, lehen kausa sortzen duen Izaki hura, dela finitua edo infinitua, izango da beste kausa guztien eragile, eta hauei dagokien gaitzespena jasan nahiz laudorioa jaso beharko duena era berean. Moralitasunari buruz dauzkagun ideia argi eta aldaezinok dira arau hau ezartzen dutenak eztabaidaezinezko arrazoioren gainean edozein giza ekintzaren ondorioak aztertzerakoan, eta indar gehiago dukete oraindik arrazoiok infinituki jakintsua eta ahaltsua den Izaki baten nahizate eta asmoei aplikatzean. Ezjakintasuna edo ezintasuna izan daitezke deskargu gizakumea den bezalako izaki hain mugatu baten kasuan, baina akats bat ez besteak du lekurik gure Kreatzailearengan. Berak aurrikusi, erabaki eta bideratu ditu guk hain arinki kriminaltzat jotzen ditugun giza ekintzok. Konkluditu behar, beraz, edo ez direla hain kriminalak edo Jainkoa dela, eta ez gizakumea, haien erantzule. Baina ikuspuntu bata zein bestea absurduak

eta adeigabeak izanik, zera ondorioztatzen da, dedukzioburu duten doktrina ez bide dela egiazkoa, horrelako objektioei loturik egonik. Ondorio absurdu batek, ekidinezina bada, bere jatorrizko doktrina ere absurdua dela frogatzen du, ekintza gaiztoek beren jatorrizko kausa gaizto bihurtzen duten bezala, elkarren arteko konexioa beharrezkoa eta ekidinezina bada.

Objekzio honek bi zati ditu eta banaka aztertuko ditugu: *lehenik*, giza ekintzak derrigorrezko katean Jainkoarenganaino luza badaitezke, ezin daitezkeela inoiz kriminalak izan, sorburu duten Izaki horren perfektasun mugagabea kontutan harturik, on eta laudagarri dena baino ezin asma baitezake. Edo, *bigarrenik*, kriminalak baldin badira, Jainkoari atxekitzen diogun perfekzio atributua erretiratu beharrean aurkitzen garelako eta aitortzera beharturik bera dela bere kreatura guztien erru eta gaiztakeria moralaren azkenbateko egile.

79. Lehen objektioari emandako erantzuna bidezkoa dirudi eta konbentzigarria. Filosofo asko dira, naturako fenomeno guztiak zehazki aztertu ondoren, *orotasuna*, sistema bezala harturik, bere izatearen aldi bakoitzean onginahi osoz ordenatua dagoela konkluditzen dutenak. Eta, azkenean, zoriontasun gorena gertatuko dela sortutako izaki guztientzat, gaitz eta miseria positibo edo erabatekoen nahasmenik gabe. Edozein gaitz fisikok, diote, bere zeregin esentziala du sistema on horren barruan, eta ezingo luke hura baztertu, ezta, egile jakintsua denez, Jainkoak berak ere, beste gaitz handiagoren bati sarrera eman gabe edo handik etortzeko den on handiago bati aukera kendu gabe. Zenbait filosofok, eta aintzinako *Estoikoek* euren artean, atsekabe guztietarako kontsolamendurako argumentu bat atera zuten teoria horretatik, jasaten zituzten gaitzak unibertsoarentzat egiazki on zirela irakatsiz euren jarraitzaileei, eta, naturaren sistema osoa ulertzen duen ikuspegi zabal batez begiraturik, poz eta alaigarri zela edozein gertaera. Baina arteriotsu eta goitiar izanik ere argumentu hau, laster gerta-

tuko zen ahul eta arrakastarik gabekoa praktikan. Hezueriaren oinaze bizien pean dagoena baretu baino sumindu gehiago egingo duzu, segurki, bere gorputzean handitu gaiztoak eragin eta, kanale aproposetan zehar, orain hain min zorrotza pizten dioten giharretara eramane dituen lege orokor horietaz mintzatzeko bazatzaizkio.

Ikuspegi orokor hauek bai ase dezaketela, une batez, eroso eta seguru aurkitzen den pentsalari espekulatibo baten irudimena, baina ezin izango dute iraun bere gogoan, minaren edo grinaren zirrarekiko bakean badago ere, eta are gutxiago oinpeko lurra defendatu, halako antagonista indartsuek eraso egiterakoan. Hunkipenek era hertsia eta naturalagoan begiratzen diete euren objektuei, eta, giza enteleguen kaskartasunari gehiago dagokion ekonomia baten arabera, gure inguruko diren izakiei doazkie soilik, norbere sistemarentzat on edo kaltegarri diruditen neurrian jasotzen dutelarik gertaeren eragina.

80. Gaitz *fisikoarekin* gertatzen den gauza bera gertatzen da gaitz *moralarekin* ere. Ezin da arrazoiz suposatu batarren kasuan hain arrakasta gutxiko diren urruneko gogoeta haiek eragin handiagoa izango dutela besteari buruz. Naturak hala egin du giza gogoan, non izaera, jaugin eta egintza jakin batzuk agertzean, berehala somatzen duen onespene edo gaitzespen-sentimendua, eta ez da emozio esentzialagorik bere egitura eta eraketan. Gure onespene lortzen duten izaerak gizaratearen bakera eta segurtasunera laguntzen dutenak izan ohi dira, herri-kalte eta nahastera jotzen dutenek eragiten duten bezala batipat gaitzespena. Arrazoiz uste dezakegularik, hortaz, interes kontrajarri horiei buruzko hausnarketatik sortzen direla, bitarte gabe edo bitartekoz, sentimendu moralak.

Eta zer orduan filosofiazko hausnarketek beste iritzi edo aieru ezberdin bat ezartzen badute, dena jotzen duena zuzen-

tzat *orotasunarekiko* eta gizartea nahasten duten kualitateak, nagusiki, mesedegarriak eta naturaren lehen asmoari dagokionez egokiak direla dioena, gizartearen zoriontasuna eta ongi-zatea zuzenkiago bultzatzen duten beste haiek diren neurri berean?

Izango ote dira gai hain urruneko eta ziurtasun gabeko diren espekulaziook objektuei buruzko hausnarketa arartegabeko eta naturaletik sortzen diren sentimenduei indarra kentzeko?

Samurtuko al dute nolabait hausnarketa goitiarrok dirutza lapurtu dioten gizon batek duen desgustua izan berri duen galeragatik?

Zergatik hartu behar da orduan haiekin elkargaiztatzat gure gizonak krimenaren kontra duen herragune morala? Edota zergatik ez du izan behar elkargarri bizioaren eta bertutearen arteko benetako bereizketaren aitortpenak filosofiazko espekulazio-sistema ororekin, pertsonen edertasunaren eta itsustasunaren arteko benetako bereizketak bezalaxe? Bereizketa bata zein bestea giza gogoaren sentimendu berezkoetan dago oinarriturik, eta sentimenduok ezin azpira edo alda ditza ke dena delako ezein teoria edo espekulazio filosofikok.

81. *Bigarren* objekzioak ez du hain erantzun erraz eta erabatekorik onartzen. Ezin esplikatu liteke argiro nolatan daitekeen Jainkoa giza ekintza guztien bitartezko kausa, hauen bekatu eta baxukeria moralaren eragile izan gabe. Misterioak ditugu hauek, adimen natural soilak ezin dituenak gaizki baino aztertu beste laguntzarik gabe, eta, edozein sistemaren magalera jota ere, oztopo gaindiezinetan galdurik aurkituko da, eta kontraesanetan ere, arazo horiei buruz ematen duen urrats bakoitzean. Giza ekintzen indiferentzia eta kontingentzia aurrezagutzarekin elkarlotzea, edota Jainkoagandiko dekretuen izaera absolutua defendatu baina bekatuaren egile izatetik aske

ateratzea hala ere Jainkoa bera: arazoak ditugu hauek filosofia-aren ahalaz handikoak orain arteino. Zoriontsua filosofia hori, berorren ausartiaz jabetzen badaki horrelako misterio gorenetan murgiltzerakoan, eta iluntasun harrigarri hain betirik dagoen eremutik behar bezalako apaltasunez itzultzen bada benetan aproposa zaion barrutira, eguneroko bizitzaren ikerketara. Eragozpen nahikoa aurkituko baitu bertan ere ikerketan iharduteko, duda, ziurgabetasun eta kontraesanen hondogabeko itsasoetan must egiten ibili barik.

IX ATALA

ANIMALIEN

ARRAZOIMENAZ

82. Izatezko zerei buruzko gure arrazonamendu guztiak halako Analogia batean daude oinarriturik, non beste antzeko kausetatik oharteman ditugun efektu beraiek itxarotera garamatzen edozein kausetatik. Kausak euren artean guztiz direnean berdinak, analogia ere perfektua da, eta ziur eta erabakiortzat jotzen da hortik ateratako inferentzia. Batek, burdin-totxo bat ikustean, ez du inoiz dudatan jartzen pisua eta zatien kohesioa izango dituenik, beti oharteman dituen kasu guztietan bezalaxe.

Baina objektuen arteko antzekotasuna hain zehatza ez denean, analogia ez da hain perfektua, eta inferentzia ere ez hain erabakiorra, nahiz eta oraindik indarren bat izango duen, antz eta berdintasun-mailaren arabera. Arrazoikera hau medio, animaliadenei zabaltzen diegu animalia bati buruz ditugun anatomi oharpenak, eta ziur, odolaren zirkulazioa adibidez argi frogatua izan bada igela edo arraina bezalako izakiren batean, printzipio berori denetan ematen delako uste sendoa sortzen dela.

Analogiazko behaketa hauek urrunago eraman daitezke, baita orain darabilgun zientzia honetaraino ere. Eta giza adimenaren eragiketak edo gizakiaren grinaren jatorria eta konexioa azaltzeko darabilgun edozein teoriak hartuko du autorita-

te-indar gehigarria, teoria hori beste animalia guztietan ere fenomeno berdinak azaltzeko beharrezko aurkitzen badugu. Froga hauxe egingo dugu arestiko gogoetan gure arrazonamendu experimental oro azaldu nahian erabili dugun hipotesiarekin, eta espero dugu ikuspuntu berri honek balioko digula lehengo behaketa guztiak bermatzeko.

83. *Lehenik*, bistakoa dirudi animaliek ere, gizakumeek bezala, esperientziatik ikasten dutela gauza asko, eta kausa berdinei beti gertaera berdinek jarraituko dietela inferitzen dutela.

Printzipio honen bidez, kanpo-objektuen propietate nabarienetara egiten dira, eta jaiotzatik hasita doaz gradualki pilatuz suaren, uraren, lurraren, harrien, goi-beheen, sakoneren, eta abarren izaerari buruzko, eta euren eragiketarik gertatzen diren efektuei buruzko ezagutza. Oso erraz bereiz daitezke hemen gaztearen ezjakintasuna eta esperientziarik eza, zahararren tentu eta zuhurtasunaren ondoan, behaketa luzearen bidez ikasi baitu honek kaltegarri zaionari itzurtzen eta eroso nahiz atsegin zaiona bilatzen. Landara ohitutako zaldiak ondo ezagutua du jauzi egin dezakeen altuera egokia eta ez da inoiz saiatuko bere indarraren edo trebetasunaren gainetik dagoenarekin. Galgo zaharrak gazteagoen bizkar utziko du jazarraldiaren parterik nekagarriena, erbia jirabiraka hastean harrapatzeko gero, eta bere behaketan eta esperientzian baizik ez dira oinarritzen une horretan egiten dituen aieruak.

Are nabariago suertatzen da hau animaliangan zentzabi-deak eta hezkuntzak duen eraginengatik, sari eta zigorrak egoki aplikatuz erakus baitiezaieke edozein ekintza-mota, euren instintu eta joeren aurkakoena dena ere. Ez al da esperientzia minaren beldurretan jartzen duena txakurra, mehatxu egiten zaionean edo makila jasotzen zarta emateko? Eta ez al da esperientzia baita ere bere izenaren deira erantzutera behartzen

duena, eta inferituarazten, hots arbitrario hori medio, besteei barik berari deitu nahi diozula, eta berari deitzeko ahoskatzen duzula izen hori era jakin batez eta doinu eta azentu jakin batez? Kasu guzti hauetan hauteman dezakegu bere zentzuak zuenki kolpatzen dituen halako zerbait inferitzen duela animaliak, eta inferentzia hau aurretiko esperientzian oinarritua duela erabat, izaki honek bere behaketan beste antzeko objektuetatik beti gertatzen ikusi dituen ondorio berdinak direlarik oraingo objektu honetatik ere espero dituenak.

84. *Bigarrenik*, ezinezko da animalia-eren inferentzia hau argumentu- edo arrazoiketa-prozesuren batean oinarritzea eta hortik konkluditzea antzeko objektuei antzeko gertaerek jarraitu behar dietela, eta naturaren abioa bere eragiketetan erregularra izango dela beti. Ezen, honelako argumenturik izatez baldin baledi ere, ilunegia litzateke seguraski hain adimen imperfektuen oharmenerako, filosofo-jeinu baten aditasuna eta arreta guztia beharko luketelarik hura kausitu eta hautemateko. Beraz, animaliak ez dira gidatzen arrazoiketaz inferentzia hauetarako; ezta haurrak ere, ez eta gizadirik gehiena bere ekintza eta konklusio normaletan. Ez dira hartaz gidatzen filosofoak eurak ere, bizitzaren alderdi praktikoko guztietan herri xehearen pareko baitira gehienetan, eta eredu berdinen arabera portatzen. Naturak beste printzipioren bat eskaini behar izan du, erabilpen eta aplikazio orokor eta errazagokoa. Bestalde, ezin zaio utzi hain zalantzako den arrazoiketa- eta argumentazio-prozesuari bizitzan halako ondorio itzela duen eragiketa, kausetatik efektuak inferitzea alegia. Zalantzazko gerta badaiteke hau gizakumearen kasuan, ez dirudi inolako zalantzarik ametitzen duenik animalia kreaturei dagokienez, eta, konklusio hau batarako irmoki ebatziz gero, unibertsalki ere inolako salbuespen edo erreserbarik gabe onartua izan behar duen presuntzio sendoa dugu, analogiaren arau guztien arabera. Ohitura baino ez da animaliei zentzuen aurrean aurkeztutako edozein objektutik beronen ohizko kidea inferiarazten diena

eta haien irudimena bataren agerpenetik bestea irudikatzen daramana, guk *sinespidea* (belief) deitzen diogun modu berezi batez. Eta ez daiteke eragiketa honen beste zergatirik eman, guk hauteman eta beha ditzakegun izaki sentsitibo orotan, di-rela goiko espezietaoak nahiz behekoetaoak.¹⁶

85. Baina animaliek beren ezagutzaren zati handi bat behaketatik ikasi arren, bada naturaren jatorrizko eskutik daturkien beste zati handi bat ere, ohiz daukaten gaitasun-maila zeharo gaitzen duten ezagutzak alegia, eta neurri txikian edo ezertan ere hobetzen ez dituztenak luzaroko praktika edo esperientziaren bidez. Hauei *instintuak* deitzen diegu, eta hain ditugu miresgarri non oso apartekotzat eta ulergaitzat dauzka-gun, giza adimenaren gogoeta guztiak gorabehera. Baina gure harridura gutxitu edo desagertu egingo da agian hurrengo hau kontsideratzean, animaliekin batera daukagun eta gure bizitzako jokabide osoa bere menpe duen arrazonamendu esperimental horixe bera instintu edo ahal mekaniko moduko zerbait baino ez dela, guran eragina duena geuk ere jakin gabe, eta bere eragiketa nagusietan ezein ideia-erlazio edo erkaketak gidatzen ez duena, gure adimenaren objektu propioak gidatzen dituen bezala. Instintu ezberdina bada ere, instintua da nonbait gizakiari suari ekiditen irakasten diona, instintua den bezalaxe txoriari halako zehaztasunez irakasten diona inkubazio-arte, txitaldiaren antolaketa eta ordena guztiarekin.

X ATALA

MIRAKULUEZ

I PARTEA

86. Bada Tillotson doktorearen idazlanetan *benetako presentziaren* kontrako argumentu bat, zehatza dotorea eta sendoa, seriooki errefusatzea hain gutxi merezi duen halako doktrina baten aurkako beste edozein argumentu izan daitekeen neurrian behintzat.

Orok dazagute, dio prelatu jakitun honek, bai Eskritura Santuaren baita Tradizioaren autoritatea, gure Salbatzaileak bere jainkozko misioa frogatzeko egin zituen mirakuluen lekuko zuzenak izan ziren apostoluen testigantzan soil-soilik oinarritua dagoela.

Hortaz, *kristau-erlijioaren* egiaz dugun ebidentzia gure zentzuen egiaz duguna baino txikiagoa da oraindik, ezen gure erlijioaren lehen autoreengan ere ez baitzen handiagoa izan eta, garbi dagoenez, gutxitu baino ezin egin haiengandik dizipuluegana igarotzean; eta inork ezin jar lezake hauen testigantza bere zentzuen aurreko objektuan baino konfidantza handiagoa. Baina ebidentzia ahulagoak ezingo du inoiz beste sendoago bat ezabatu, eta, beraz, benetako presentziaren doktrina argi eta garbi errebelaturik balego ere Eskritura Santuan, arrazoiketa bidezkoaren arauen aurka gindoazke, zuzenki, hari atxekitzean.

Zentzuaren kontra doake hau, zimendutzat bide dituen ez Eskriturak ezta Tradizioak dutelarik euren alde zentzuen pareko ebidentziarik, kanpo-ebidentziatzat jotzen ditugun bi-

tartean soil-soilik, eta ez Espiritu Santuaren eragin zuzenez guretariko bakoitzaren barrenera ekarriztat.

Ezertxo ere ez egokiagorik mota honetako argumentu erabakior bat baino, fanatismo eta superstizio gangarrenak *isilarazi* beharko lituzkeena gutxienez, horien zelatada putzetatik gaitezen salbo. Zorioneko sentitzen naiz horrelako argumentu bat aurkitu dudalako, ikasien eta jakintsuen artean oztopo iraunkor izango dena, zuzena baldin bada, edozein eratako amarru superstiziosoen aurrean, eta beraz, erabilgarri izango dena munduak dirauceino. Horren luze joango baitira, uste dudanez, mirakuluen eta mirarien kontakizunak edozein historiatan, sakratuan nahiz profanoan.

87. Esperientzia izan arren gure gidari bakarra izatezko zerei buruzko arrazoiketan, aitortu behar da ez dela guztiz hutsezina, aitzitik zenbaitetan erroreetara ere gida gaitzakeela. Zuzen dabil bere arrazoiketan, eta esperientziarekin bat, gure klima honetan eguraldi hobea espero duena ekaineko aste batean beste abenduko batean baino, baina egia da huts egitea suerta dakiokela gertaerari dagokionez. Hala ere, esan behar dugu, kasu horretan ez lukeela esperientziaz kexatzeko motiborik, ezen honek aurretiaz ohartarazten gaitu eskuarki ziurtasun ezaz, behaketa ernaiz ikas dezakegun jazoeren aurkatasuna medio. Efektu guztiek ez diete ziurtasun berdinez jarraitzen haien ustezko kausei. Gertaera batzuk lurralde eta aldi orotan agertu izan dira iraunkorki elkartuak; beste batzuk, ostera, aldakorrago agertu izan ohi dira eta, noizbehinka, gure itxaropenak zapuztu ere egiten dituzte. Horrela, beraz, izatezko zerei buruzko gure arrazoiketetan, irudi daitezkeen segurantzak maila guzti-guztiak gertatzen dira: hasi goi-goiko ziurtasunetik eta beherengo motako ebidentzia moraleraino.

Jakintsuak, beraz, ebidentziari ematen dio sinespidea. Esperientzia hutsezin batean oinarritzen diren konklusioen ka-

suan, goren mailako segurantzaz aurrirakusten du gertaera eta iraganetik duen esperientzia hartzen du gertakizun dagoen horren *froga* erabakiortzat. Gainerako kasuetan tentu handiagoz ibiliko da: aurkako diren esperimenduak neurtzen ditu, hauetariko gehienak zein aldetara makurtzen diren hausnartzen du, eta alde honetara jotzen du, ezbaiz eta zalantzaz. Eta bere judizioa finkatzerakoan, azkenean, ebidentziak ez du gainditzen guk propioki *probabilitatea* deitzen duguna. Edozein probabilitatek, hortaz, aurkako esperimendu eta behaketak suposatzen ditu, non alderdi batak abantaila ateratzen dien besteei eta bere nagusitasunaren neurriko ebidentzia sortzen. Ehun kasu edo esperimenduk batetik eta hamabostek bestetik gertaera baten zalantzazko iguripena baino ez digute ematen, baina bat bakarra kontra duten ehun esperimendu uniformek segurantzak maila polita eragiten dute arrazoiz. Betiere, aurkako esperimenduak neurtu beharra dugu, aurkakorik denean, eta kopuru txikiena ken handienari, ebidentzia nagusi honen indar zehatza ezagutzeko.

88. Printzipio hauek kasu partikular bati aplikatuz, ez dela ikusiko dugu arrazoiketa-mota arruntagorik, baliagarriagorik eta era berean giza bizitzarako beharrezkoagorik gizakumeen testigantzatik eta lekuko nahiz zuzeneko ikusle direnengandik eratorria baino. Arrazoiketa-mota hau kausa-efektuaren erlazioan oinarrituta dagoenik uka dezake norbaitek agian. Ez naiz eztabaidan sartuko berba dela eta. Aski izango da ohartzeaz, horrelako edozein argumenturen aurrean, giza testigantza egitasunaz dugun behaketatik eta gertakariet lekukoaren informarekin duten ohizko adostasunetik beste ezein printzipiotatik ez datorrela gure segurantzak. Arau orokor delarik objektuek ez dutela euren artean konexio aurkigarririk eta haien arteko lotura erregular eta iraunkorraz dugun esperientzian oinarriturik daudela soil-soilik batetik bestera atera ditza-kegun inferentzi guztiak, argi dago ez genukeela arau honen salbuespenik egin behar giza testigantzaaren alde, ezen beronek

gertaerarekin duen loturak beste edozein loturak adinako beharrezkotasun txikia ageri baitu bere baitan. Gizakiak ez balu oroimena neurri bateraino euskor, eta ez balu normalki egiazko joera eta jatortasun printzipio bat, ez balu lotsarik sentituko gezurretan harrapatu, ez balira hauek, diot nik, *esperientziak* giza izaerari atxekirik eriden ohi dituen kualitateak, ez genioke inoiz konfidantza txikienik ere emango giza testigantzari. Eldarnioaren menpe dagoenak edo bere faltsukeria eta zapokeriagatik ezagun denak ez du inolako autoritaterik gudan.

Eta lekukotasunetik eta giza testigantzatik datorkigun ebidentzia hau iragan esperientzian dagoelarik oinarrituta, esperientziaren arabera da aldakor, *frogatzat* hartua izango delarik edota *probabilitatetzat*, kontutan harturik iraunkor ala aldakor agertzen zaigun informe jakin baten eta objektu jakinaren arteko lotura. Bada zenbait zirkunstantzia kontutan hartzekoa mota honetako judizio guztietan, esperientziatik eta behaketatik datorrelarik betiere haiei buruz sor daitezkeen eztabaida guztiak garbitzeko azken irizpidea. Esperientzia hau erabat uniforme ez badator posibilitateren batekiko, ekidinezinezko aurkakotasun batez lagundurik agertuko da gure judizioetan, beste edozein motatako ebidentzian izaten den argumentuen arteko aurkakotasun eta suntsiketarekin. Zalantzan jartzen gara sarritan besteen informeei buruz. Ezbaia eta ziurgabetasuna eragiten duten aurkako zirkunstantziak neurtzeari ekiten diogu, eta posibilitateren baten nagusitasuna idorotzean, hartara makurtzen gara; baina, oraindik ere, bere antagonistaren indarraren heinean motz bilakatu zaigun segurantzaz.

89. Ebidentziaren aurkakotasuna, kasu honetan, kausa ezberdinetatik erator daiteke: aurkako testigantzen arteko oposiziotik, lekukoen izaera eta kopurutik, testigantza emateko modutik, edo zirkunstantzia guzti hauen bateratzetik. Susmoak jotzen gaitu izatezko zerari buruz, lekukoak euren arteko kon-

traesanean dabiltzanean, gutxi baino ez direnean, edo badaezpadako izaerakoak, interesen bat dutenean euren biezpenean, zalantzas agertzen direnean testigantza ematean, edo, aitzitik, baiezen gogorregiz. Antzeko beste hainbat zertzelada dira giza testigantzatik datorren argumentua indarge edo suntsi dezaketenak.

Demagun, adibidez, testigantzak baieztu nahi duen gertakariak ezohizko edo miragarri den zerbait duela. Orduan, testigantza horretatik ateratzen den ebidentzia ere makala izango da, gehiago edo gutxiago, gertakaria bera ezohizko den neurrian. Lekukoei eta historialariei sinestearen arrazoia ez datza guk testigantzaren eta errealitatearen artean *aurretiaz* atzeman dezakegun *konexioren* batean, baizik hauen artean adostasun bat aurkitu ohi dugulako. Baina testifikatzen zaigun gertakaria inoiz gutxitan baizik ez dugunean izan behagarri, aurkako esperientzia biren arteko burruka gertatzen da, eurentariko batak suntsitu egiten duelarik bestearen indar guztia, eta garaileak bakarrik ahal duelarik orduan geratzen den indarraz gogoan eragin. Lekukoen testigantzarekiko segurantza-graduaren bat damaigun esperientzi printzipio huraxe da oraingo kasu honetan ere beste segurantza-gradu bat damaiguna baieztu nahian dabilzan gertakariaren kontra. Aurkakotasun honetatik kontrapisu bat sortuko da nahitaez, eta elkarren arteko suntsiketaren sinespidearen eta autoritatearen artean.

*Kontu hori ez nuke sinestuko Katon-ek berak esanda ere, esaera zaharra zen Erroman, filosofo abertzale hura bizi-rik zen bitartean ere.*¹⁷ Gertakari baten sinesgaiztasunak, onartzen zen, hain autoritate handi bat ere balio gabe utz zezakeen.

Izotzaren efektuei buruzko lehen kontaketak sinetsi nahi ez zituen printze indiarrek zuzen arrazonatu zuen, eta testigantza sendo bat behar izan zuen, noski, berarentzat hain ezezagun zen natur egoera batetik sortuak eta bere esperientzia

iraunkor eta uniforme barneko gertaerekin hain analogia gutxi zuten gertakariei baietza eman aurretik. Bere esperientziaren kontrakoak ez izan arren, ez baitziren, hala ere, haren arabera-koak.¹⁸

90. Baina lekukoaren testigantza aurkako probabilitatea gehitzeko, eman dezagun, miragarria bakarrik izan beharrean, mirakulutsua dela, alafede, baieztatu duten gertakaria, baita eman dezagun, testigantzak, bereiz eta bere buruz, frogantza erabateko bat osatzen duela: kasu honetan, frogatutako frogak beste frogak baino aurrez aurre, hauetarik sendoena aterako delarik garaile, baina, hala ere, antagonistak duen indarraren hein berean urritu ere bere indarrean.

Mirakulu bat lege naturalen bortxatzea da, eta esperientzia tinko eta aldakaitzez jarririk ditugunez legeok, mirakulu baten aurkako frogak, gertakariaren izaera beragatik, esperientziatik erator daitezkeen ezein argumentu imajinagarri bezain erabatekoa da. Zergatik da bestela probable baino gehiago gizaki guztiek dutela hil beharra, beruna ezin dela berez airean mantendu, suak egurra duela erregai eta ura iraungitzaile, ez bada gertaera hauek naturako legeen arabera dakuskitzela eta legeen bortxaketa bat dela beharrezko, edo mirakulu bat, beste hitz batez esateko, horiek galarazteko? Ez da mirakulutzat hartzen, naturaren abio arruntaren barne gertatzen den ezer. Ez da mirakulua, itxura baten osasuntsu dirudien pertsona bat bapatean hiltzea, ezen horrelako heriotza, nahiz eta bestelakoak baino ezohizkoagoa izan, ikusi dugu, halaz ere, gertatu izan dela maiz. Bada mirakulua, ordea, hildako bat berpiztea, halakorik ez baitugu sekula ikusi ezein garai ez lurraldetan. Esperientzia uniforme bat da beharrezko, beraz, edozein gertaera mirakulutsuren aurrean, gertaera horrek ez luke bestela mirakulu izenik mereziko. Eta esperientzia uniformeak frogak osatzen duenez, hona hemen *froga* zuzen eta oso bat, gertakariaren izaeratik eratorria, edozein mirakuluren existentziaren

aurka dagoena; ezingo delarik frogak hori suntsitu eta mirakulua sinesgarri bihurtu, nagusiago den kontrako frogak batez baizik.¹⁹

91. Ondorio xumea (eta gure arreta merezi duen arau orokorra) honexetan datza, «ezein testigantza ere ez dela mirakulu bat ebazteko behar bestekoa, testigantza horren faltsutasuna ez bada behintzat, ebatzi nahi duen gertakaria bera baino mirakulutsuagoa; kasu honetan ere, argumentuen arteko elkar-suntsiketa gertatuko delarik, eta nagusi den argumentuak damaigun segurantzaz-gradua, apalagoaren indarra deskontatu ondoren dagokiona baino ez delarik izango». Norbaitek esaten baldin badit hildako bat berpizten ikusi duela, berehala jarriko naiz pentsatzen zer ote den gertakorrako: pertsona hau iruzurti izatea, edo iruzurtua, ala kontatzen duen gertakaria benetan gertatu ahal izatea. Mirakulu baten pisatuko dut bestearen kontra, eta batean aurkitzen dudana nagusitasunaren arabera hartuko dut erabakia, betiere mirakulu handiena ezetsiz. Testigantza horren faltsutasuna kontatzen duen gertakaria bere baino mirakulutsuagoa balitz oraindino, eta ez lehenago, lor lezake bere alde ene sinespidea edo iritzia.

II PARTEA

92. Aurreko arrazonamenduan zera suposatu dugu, mirakulu baten oinarri den testigantza erabateko frogaren naurrikoa datekeela, eta testigantza honen faltsutasuna benetako mirari bat litzatekeela. Erraz erakus daitezke, hala ere, eskuzabal baino eskuzabalago izan garela amore emate horretan, eta gertaera mirakulutsurik ez dela inoiz euskarritu halako ebidentzia osoan.

Zeren eta, *batetik*, ezin baita aurkitu historia osoan zehar mirakulu bakarraren testigantzarik, halako bainarik gabeko zentzu, hezketa eta ikasketadun gizakume-kopuru nahikoak

emana, non berauen edozein tronpaketatik seguru gaitezen; inori iruzurrik egiteko inolako asmoren susmo txikienetik at jarriko lituzkeen dudagabeko zintzotasunaz hornituak; gizar-tearen aurrean halako sinesgarritasun eta izen onekoak, non zer galdu asko leukaketen faltsukeriaren batean harrapatuak izanez gero; eta, aldi berean, halatan jendaurrean eta mundua-ren alderdi ezagunean burutuak izan diren gertakariak baieztatu-tuz, non ekidinezinezko litzatekeen egiaztatzea: inguruabar guzti hauexek dira beharrezko, gizakumeen testigantzarekiko segurantza osoa ukan dezagun.

93. *Bigarrenik*, printzipio bat beha dezakegu giza izaeran, zehazki aztertuz, asko bai asko gutxiarazten duena edozein mirariri buruzko giza testigantzan jar genezakeen segurantza.

Gure arrazoiketetan normalki gidatu ohi gaituen araua honexetan datza, esperientzi eremuan ez dauzkagun objektuak esperientzipean dauzkagunen antza dutela; ohizkoentzat hartu dugun hura dela beti gertakorrena, eta argumentuen arteko aurkakotasunen bat ematen denean, izandako behaketa kopuru handiengan oinarriturik dagoenari eman behar diogula lehentasuna. Baina, arau honen arabera ihardutean, lehenbizi uko egiten badiogu ere ezohizko eta normalean sinesgaitz den edozein gertaerari, ondoren berriz ez dio gogoak arau berari jarraitzen, baizik, erabat zentzugabeko eta mirakulutsu den zerbait baieztatu zaionean, are errazago onartzera jotzen du gertakari hori, beronen autoritatea guztiz suntsitu beharko lukeen zirkunstantzia huraxe dela eta, hain zuzen. Mirakuluek sortu ohi duten *ezustearen* eta *txundiduraren* grina hori zirrara hain atsegina izanez, beronen jatorri diren gertakariak sinestera bultzatzen du nabarmenki.

Hain urruti heltzen delarik hau, non, atsegin horretaz zuzenki gozatu ezin dutenei ere, eta azaltzen zaizkien gertaera

mirakulutsuetan ezin sinetsi duten arren, laket zaiela hala ere bigarren eskuko edo erreboteko atseginarean partaide izatea, harro eta zoriontsu sentituz gainera beste batzuen txundidura kitzikatzen.

A zer nolako antsiar jaso ohi diren bidaiarien kontu mirakulutsuak, lur zein itsas-munstroen deskribaketak, eta abentura miragarriez, gizaki harrigarriez eta ohitura latzez kontatzen dutena. Gehitu gainera erlijiozko aiurria harridura-gustu horri eta akabo orduan zentzua; galduak ditu giza testigantzak, kinka horretan, bere autoritate-asmu guztiak.

Erlijioduna sutsua izan daiteke eta errealitaterik ez duena ere ikusi egiten duela sinetsi. Kontatzen duen hori faltsua dela jakin arren, jarrai egin dezake oraindik berearekin (munduko asmorik onenarekin) halako xede sakratua bultzatu nahirik; edo eldarnio honetan erori gabe ere, gizakien artean beste inori ezein zirkunstantzitan eragin diezaiokeen baino indar handiagoz eragin diezaioke hain tentazio sendoz zirikatutako harrokeriak; eta bere komenentziak ere indar berdinez. Haren entzuleek ez dute agian, eta ez dute izan ere normalean irizpiderik euren ebidentzia eztabaidatzeko. Daukaten irizpidea ere bazterrera utziko dute, printzipioz, goitiar eta misterioitsu diren gai hauetan. Edo erabiltzeko prest baleude ere, grinak eta irudimen beroak oztopo baino ez die egingo euren eragiketa erregularran. Sineskortasunak gehitu egingo du haien ausartkeria, ausartkeriak, berriz, sineskortasuna gainindartu.

Mintzo-ederrak, azken muturrera eramana, leku gutxi baino ez dio uzten arrazoiari eta hausnarketari; ostera, fantasia edo irritsetara zuzentzen delarik bete-betean, atxilotu egiten du entzuleen borondatea eta euron adimena azpiratu. Zorionez, inoiz gutxitan iristen da puntu honetara. Hala ere, Tulio edo Demostenes batek nekez lortuko zutena Erroma edo Atenaseko entzulegoarekin, edozein *Kaputxinok*, edozein mai-

su ibiltarik nahiz finkok lor dezake gizadirik gehienarekin, eta are errazago halako irritis bastoak eta arruntak ukituz.

Gizadiak ezohizkora eta miragarrira duen joera bortitza frogatzeko aski dira asmatutako mirakulu, profezia eta gertaera supernatural guzti horiek, garaian garaiz salatuak izan direnak, dela aurkako ebidentziaz, dela euren absurduak berak salatu dituelako, eta mota honetako kondairen kontrako susmoa sortu beharko luketenak arrazoiz. Hauxe da gure pentsaera naturala, gertaera arrunt eta sinesgarrienei buruz ere. Esate baterako, ez da izango notiziarik hain erraz sortu eta hain arin zabaltzen denik, batez ere baserri-auzo eta probintzi herrietan, ezkontzei buruzkoa baino. Nahikoa eta lar egoera bereko gazte bik elkar birritan ikustea, auzateria guztiak berehala lot ditzan. Hain berri kilikagarri bat ematearen atseginak, zabaltzearenak, eta aurreneko informatzaile izatearenak hedatzen du komunikazioa. Eta hain ezagun dugu hau, ezen zentzudun den inork ere ez dien arretarik emango informe hauei, beste ebidentzia handiago batez bermaturik ikusi arte. Ez al dira grina hauek, eta handiagoak ere, gizadirik gehienari bultz dagiotenak era guztietako erlijio-mirakuluak sinestera eta kontatzera bizitasun eta ziurtasun handienaz?

94. *Hirugarrenik*, naturaz gaindikoen edo mirakuluen kontaketa ororen kontrako presuntzio sendo bat da kontu horiek batipat herri barbaro eta ezjakinetan ohi direla ugari; eta noizbait herri zibilizaturen batek onartu badu ere baten bat, aurkitzen dugu, herri horrek arbaso ezjakin eta barbaroengandik jaso duela, hartutako iritziei beti laguntzen dien berrespen eta autoritate ukiezinez haiek transmitituak. Edozein herriren aintzin-historia sakonki irakurtzean, mundu berri batera lekualdatuak sentitzen gara, non izadi-bornuak erabat loka diruditen eta elementu bakoitzak bere eragiketak gaur bezala barik beste era batera burutzen. Eta guda, iraultza, izurrite, gabezia eta heriotza ez bide dira inoiz guk esperientziaz dazagutzagun

kausa natural horien efektu. Mirariek, iragarpenek, orakuluek eta usteek guztiz estaltzen dituztelarik ilunean haiekin nahasi dauden gertaera natural urriak. Baina lehenengo horiek direnean urrituz doazenak orrialdeak pasatu ahala eta aro ilustratuetara hurbildu ahala, laster ohar gaitezke ez dagoela ezertxo ere misteriotsu edo supernaturalik kasuan, baizik dena datorrela gizadiak miragarrirantz duen ohizko joera horretatik, giza izaerari guztiz erauzi ezin zaion jaugina berau, noizbehinka zentzuak eta jakintzak galga jartzen dioten arren.

Arraroa, esan dezake irakurle zentzudun batek, historia-lari harrigarri hauei astiro irakurri ondoren, *halako gertaera miragarririk inoiz ez gertatzea egun*. Baina ez da batere arraroa, nire ustez, gizakumeez edozein arotan gezurra esatea. Ahultasun honen adibide nahikoa ikusi ahal izan dituzu, hurrean. Zuk zeuk ere entzunak izango dituzu horrelako kontu miragarririk asko, kontatzen hasiak, baina, jakintsu eta zentzudun guztien aldetik mesprezuz hartuak izatean bertanbehera laga dituenak, azkenean, herri xeheak ere. Egon ziur hain izugarri hedatu eta loratu diren iruzur famatuek ere horien antzeko hasierak ukan zituztela, baina, soro aproposago batean ereinak, haiek bezainbateko mirari bilakatu direla ia azkenean.

Politika zuhurra Alexandrorena, orain ahaztua izan arren behinola hain ospe handiko profeta faltsu harena, Paphlagonia aukeratu zuenean bere iruzurren lehen plazatzat, hango jendea hain ezjakina eta kokorroa omen zelako, Lucanok dioenez, non gezur lodiena ere irensteko prest zegoen. Urruti samar aurkitzen den jendeak, arazoak ikerketarik merezi duen pentsatzeko ere ahalge, ez dauka informazio hoberik jasotzeko aukerarik. Istorioak mila zertzeladaz handipuzturik iritsiko zaizkio. Tentelak finak izaten dira iruzurra zabaltzen, jakintsuak eta ikasiak, ordea, absurduari burla egitearekin konformatu ohi diren bitartean, gezurra errazki errefutatzeke balio dezaketen inguruko gertakariez informazioa lortu beharrean. Horrela iri-

tsi zen goian aipatutako iruzurti hura jarraitzaile lerroak erakartzera Paphlagoniar ezjakinen artetik, baita filosofo grekoen artetik ere, eta Erroman maila goreneko jende printzipalaren artetik. Marco Aurelio enperadore jakintsuaren beraren arreta erakartzea ere lortuz gainera, haren iragarpen iruzurtien gorabeheran uzteraino guda-espeditio baten arrakasta.

Iruzurra jende ezjakinaren artean hastearen abantailak hain dira handiak, ezen, amarrua zabarregia balitz ere gehien-go bati sartzeko (*gertatu gertatzen da hau ere, inoiz gutxitan baina*), arrakasta posibilitate askoz gehiago luke urrutiko lurraldeetan euren ezagutza eta arteengatik ospetsua den hiri batean hasiera emanda baino. Barbaro hauetarik ezjakinenak eta baldarrenak izango dira berria lau haizetara zabalduko dutenak. Herkideen arteko inork ez du izango iruzurrari aurre egin eta irabazteko beste harreman zabalik, edo prestigio eta autoritaterik. Badu garaitzarako aukera franko, honez gero, gizakiak miragarritarantz duen joerak. Hara non, bada, bere sorlekuan batera sinesgarritasunik ez duen istorio bat egia bilakatuko den handik mila milatara. Baina Alexandrok atenastarren artean jarri balu bere egoitza, jakintza-erresuma ospetsu hartako filosofoek berehala hedatuko zuten, Erromatar inperioan zehar, arazoari buruzko beren iritzia, eta gizateriari erabat begiak zabalaziko, halako autoritate handian oinarriturik eta arrazoiaren eta mintzo-ederraren bitartez azalduz. Ez da, ordea, beti gertatzen, oso desiragarri izan arren, Alexandro guztiak bere Lucano-rekin topo egitea, haren iruzurrak agerian uzteko eta azaltzeko prest.

95. Mirarien autoritatea murrizten duen *laugarren* arrazoitzat gehi dezaket, mirari bat beraren testigantzarik ez dagoela, esplizituki salatuak izan ez direnen artean ere, testigu kopuru kontaezin baten kontrakarririk ez duenik; horrela beraz, mirariak jaten du testigantza sinesgarritasuna jan ezezik, testigantzak bere burua suntsitzen du. Hau hobeto ulertzeko

har dezagun kontutan, erlijioei dagokienez, ezberdina dena aurkakoa dela, eta ezinezkoa dela aintzinako Erroma, Turkia, Siam eta Txinako erlijioak, guztiak, oinarri sendo batean zimentaturik egotea; beraz, erlijio hauetariko batean burututzat aldarrikatzen den edozein mirakulua (eta ugari dira mirakulua guztiotan), berari dagokion sistema baiezte duelarik zuzeneko ondorio, indar bera izango du, zeharka bada ere, gaine-rako sistema guztiak ezeztatzeko. Lehiakide duen sistema deuseztatzea, berriz, sistema horren oinarrizko mirarien sinesgarritasuna deseuztatzea da; hortaz, erlijio ezberdinetan ematen diren mirari guztiak, kontrako gertakaritzat hartu behar dira, eta mirarion ebidentziak, ahul nahiz sendo, bata bestearen aurkakotzat.

Arrazoiketa-metodo honen arabera, Mahomaren edo bere jarraitzaileen mirakuluren batean sinesten dugunean, barbaro afrikar gutxi batzuen testigantza dugu bermagarri. Gainera bestalde, Tito Livio, Plutarko, Tazito eta abarren autoritatea hartu behar dugu kontutan, hots, euren erlijio jakinetan mirakuluren bat kontatu duten autore eta lekuko greziar, txinatar edo erromatar katoliko guztiena. Esan nahi dudana, hauek mirakulu mahomatarra aipatzean eta, beroiek kontatutako mirakuluekiko duten segurantza berdinez, kontra egitean leukaketen ikuspuntu horixe dela guk izan behar duguna euren testigantzari behatzeko orduan. Argumentu honek xotil eta sofistikatuegia irudi dezake, baina egiatan ez du alderik epaile baten arrazoiketarekin, suposatutzat ematen duenean deseuztatuturik geratzen dela norbaiten krimena baieztatzen duen bi lekukoren sinesgarritasuna, beste bi lekukoren testigantza datorkienean kontra, berrehun lekoatara zegoela esanez hura, krimena egin omen zuela dioten une berean.

96. Historia profano osoan lekukotza hoberenetarikoa egin zaion mirakulua, Vespasianori buruz Tazitok kontatzen duena da, bere txuazitsu bat sendatu bide zueneko Alexandro

drian eta baita zangomotz bat ere, bere oinaren ukitu soilez. Serapis jainkoagandiko ikuskari baten agindura zetozen, Enperadorearengana jotzeko agindu baitzien sendakuntza mirakulutsu hauetarako. Historialari fin harengan aurki genezake istorioa²⁰, zertzelada bakoitzak gehitu baino ez duelarik egiten, itxura batean, testigantzaren pisua, edonora aurkezteko moduko argumentuaren eta mintzo-ederraren indar guztiarekin, baten bati axola balitzaio oraindik gaur superstizio gezurtatu eta idolatra haren ebidentzia indartzea. Enperadore handi haren seriotasuna, sendartasuna, adina eta prestutasuna, bere bizitza osoan zehar etxeko moduan solas egin ohi zuena lagunekin eta gortekoekin, eta inoiz ez zituena erakutsi Alexandro eta Demetrio batek hartzen zituzten jainko-planta nabarmenak; historialaria bestetik, bere xalotasun eta egitasunagatik ezaguna den idazle garaikidea, gainera Aintzinateko jeinurik handiena eta sakonena agian, eta sineskortasunera makurtzetik hain aske, ezen kontrakoaz izan baita salatua, ateismo eta profanotasunaz; mirakulua kontatzeko autoritatea eskaini zioten pertsonak gero, izaera eginekoak ziren iritzirako eta egitasunerako, suposa dezakegunez; gertakariaren lekuko zuzenak, Flaviotarren familiari inperioa kendu ondoren testigantza berretsi zutenak, saririk eman ezin zitekeenean gezurra esateagatik. *Bata eta bestea gogoratzen dute bertan egon zirenek orain ere, ezein iruzur-saririk jaso gabe.*

Guzti honi gehituz gero gertakarien izaera publikoa kontatuak izatean, argi eta garbi geratuko da beste ezein ebidentziak ere ez dezakeela benetan hain sendotasun handirik eduki halako iruzur gordin eta nabari baterako.

Bada, baita ere, Retz-eko Kardinaleak kontatutako istorio gogoangarri bat, gure arreta merezi dezakeena hurrean. Politiko azpikari hark Espainiara hanka egin zuenean bere arrioen jazarpenetik ihes, Zaragoza, Aragoiko hiriburutik igaro zen, eta hantxe eraman zuten katedralera gizon baten aurrera,

zazpi urtez atezain izandakoa bertan eta hirian ongi ezaguna zena eliza hartako elizkizunetara joan ohi ziren guztien aldetik. Zangoetariko bat gabe ikusi izan zuten denbora luzez, baina gorputzadar hori berreskuratu egin bide zuen hankondoa olio santuz igurtzi ondoren, eta kardinaleak diosku bi hankekin ikusi zuela. Mirakulu hau eliza hartako kalonje guztiek abalatu zuten, eta hiriko biztanlego osoari ere deitzu zitzaion gertakaria berresteko, honek beronen debozio gartsuz mirakuluan erabat sinesten zuela aurkitu zuelarik gure kardinaleak. Kontatzailea ere, kasu honetan, delako mirariaren garaikide zen, izaeraz sinesgabe eta libertinoa izateaz gain, jeinu handikoa; mirakulua bera, hain *bakana* izatez, faltsifikaziorik nekez onarrezakeena, eta lekukoak asko kopuruz eta testifikatzen zuten gertakariaren ikusle, nolabait, guztiak. Gainera, ebidentziari are indar gehiago damaiona, eta gure sorpresa oraingo honetan bikoitz dezakeena, historia kontatzen duen kardinaleak berak ere ez diola itxuraz inolako sinespiderik ematen, ezin dugularik, beraz, iruzur sakratuan eskuhartzeaz susmagarritzat jo. Zuzen uste izan zuen, horrelako izaerako gertakari bat ezeste-ko, ez zuela testigantza zehatz-mehatz errefusatu beharrik, eta horri sorrera eman zioten sineskortasun eta bilaukeria bakoitzean arakatzen ibili beharrik faltsutasunaren bila. Bazekien jakin, erabat ezinezko izanik hau normalki edozein espazio eta denbora-tarte laburrean, guztiz zaila izango zela orduan, nahiz eta norbera hantxe bertan suertatu, kontu eginik gizateriaren zati handi baten fanatismoa, ezjakintasuna, maltzurkeria eta zapokeria. Horregatik konkluditu zuen, arrazonatzaile peto baten gisara, ebidentzia hark gezurra zeramala bere kopetan, eta edozein giza testigantzan oinarruturiko mirakulua barrengarri zela gehiago eztabaidagarri baino.

Ez da izan seguraski inoiz pertsona bati egotziriko hain mirakulu-kopuru mardulik oraintsu Frantzian egin omen direnen parekorik, bere saindutasuna dela eta herria horren luzaro engainaturik eduki duen Jansenista entzutetsua dugun Pariseko

Abadearen hilobi gainean hain zuzen ere. Gaisoen sendaketa, gorrei entzumena eta itsuei ikusmena bihurtzea omen ziren hilobi sakratu haren ohizko efektuak, inguru osoan zabal egin zenez. Baina, harrigarriago dena oraindik, mirakuluetarik asko unean bertan demostratuak izan ziren, zalantzagabe zintzo ziren epaileen aurrean, testigu sinesgarri eta printzipalek egin zuten lekukotza, aro ilustratu batean gainera, eta gaur egun munduan daitekeen lekurik bikainenean. Eta hau ez da dena. Mirakuluon zerrenda luze bat argitara eman zen eta denetatik zabaldu. Eta *Jesuitak* eurak ere ez ziren izan kapaz haiek argudiatu eta argitzeko, nahiz eta ordena ikasia izan, magistratu zibil baten laguntza eta guzti ihardun, eta egin omen ziren mirakuluek aldeztu zuten iritziaren guztiz kontrakoak izan. Non aurkitu horrelako zirkunstantzia-bildumarik, gertakari bat berresten bat eginik? Eta zer jarri halako lekuko-multzo handi baten aurrez aurre, zera ez bada, kontatzen dituzten gertaeren euren erabateko ezintasuna edo izaera mirakulutsua? Eta seguraski, bestalde, aski errefusapentzat joko du horixe bakarrik ere edozein pertsona zentzudunek.

97. Ondorio zuzentzat hartu behar ote dugu, bada, giza testigantza zenbaitek indar eta autoritate handiena duelako kasu batzuetan, Filipos edo Farsaliako bataila kontatzerakoan adibidez, indar eta autoritate bera izan behar duela, hori dela eta, kasu guztietan? Demagun Zesar eta Ponpeioren gudarosteek, biek erreklamatzeko dutela bakoitzak berarentzat bataila horien garaitza, eta alderdi bakoitzeko historialariek beren taldearen abantaila baieztatu dutela uniformeki: nola liteke gai orduan gizadia, hain urrutiko garaitik, batzuen edo besteen alde erabakitzeke? Era berean da gogorra Herodoto edo Plutarkok kontaturiko mirakuluon eta Mariana, Beda edo beste edozein fraide historialarik kontatukoaren arteko aurkakotasuna.

Fede oso akademikoa dute jakintsuek narratzailearen grinaren alde makurtzen den edozein informerekiko, dela bere

herria, familia edota bere burua goraltzen duenean, dela, edozein modutan ere, bere joera eta jauginekin batera datorrenean. Baina ba al da tentazio handiagorik zeruaren misiolari, iragarle edo enbaxadore aurkeztearena baino? Hain izaera goitiarra erdiestearren nork ez lioke aurre egingo hainbat arrisku eta oztopori? Edo baten bat, harrokeria edo irudimen sukartsua medio, konbertituko balitz lehenbizi eta iruzurrean seriozki erori, izango al luke berorrek gero eskrupulurik gezur bedeinkatuz baliatzeko hain xede sakratu eta meritagarri baten alde?

Txinparta txikiena ere sugar bilaka daiteke hemen, erregaiak beti baitaude horretarako prest. *Avidus genus auricularum*²¹ delakoak, jendaila liluratuak, antsiaz onartuko dizu, baxterre ikerketarik gabe, superstizioa finkatzen eta txundidura eragiten duen edozer. Eite honetako zenbat istorio agertu eta hustiratu ote dira, garaiz garai, haien haurtzaroan! Eta beste zenbat, sonatuak izan ondoren aldi batean, ez ote dira hondoratu gero, ahantzirik eta zokoraturik! Istorio hauek zabaltzen direneko, beraz, jakina dugu fenomenoaren gakoa, eta esperientzia eta ohizko behaketen arabera ebazten dugu, sineskortasuna eta liluraren printzipio natural eta ezagunen arabera esplikatzeko ditugunean. Eta halako irtenbide naturala eskueran izanik, onartuko ote dugu, bada, naturaren lege finkoenen bortxatze mirakulutsurik?

Ez dago hemen aipatu beharrik nolako zailtasunak dauden edozein istorio pribatu nahiz publiko ere agerian uzteko, gertatu izan dela dioten unean bertan; are gehiago oraindik gertakari-tokia, gutxi bada ere, urrundu egiten denean. Epaimahaia bera ere, erabili ahal duen autoritate, zehaztasun eta iritzi guztiarekin, ezgai sentituko da sarritan egiazkoa eta faltsuaren artean bereizteko ekintza gertatu berrietan. Baina arazoak ez du izango sekula ere irtenbiderik, zezioak, eztabaidak eta zurrumurru iheskorak osatzen duten metodo arruntera joaz, batez ere gizakumearen grinak bi aldeetan lerrotu direlarik.

Erljio berrien haurtzaroan, jakintsuek eta ikasiek normalean uste izaten dute arazoak ez duela beren arreta edo begirunean emateko adina garrantzi. Eta gero, amarrua azaldu nahiko luketenean jende iruzurtua desengainatzeko, unea iragan dela gertatzen da eta arazoa argi zezaketen dokumentuak eta lekukoak desagertu egin direla erremediorik gabe. Ez da geratzen detekzio mediorik, narraitzaileen testigantzatik bertatik lor daitezkeenak baino. Eta hauek, aski izan arren betiere zentzudun eta adituentzat, xehegiak dira normalki herri xumeak uler ditzan.

98. Orokorki, beraz, badirudi ez duela jadetsi inoiz probabilitatezko kualitaterik mirakuluen ezein testigantzak ere, askoz gutxiago frogatzen izaterik, eta frogatzen izatea lortzen duela suposatuz ere, beste frogatzen baten aurkakotasuna lukeela, ebatzi nahi dugun gertakariaren izaeratik bertatik eratorria. Esperientzia dateke, soil-soilik, giza testigantza bati autoritatea damaiona, eta esperientzia bera da naturaren legeez segurtatzen diguna ere. Hortaz, bi esperientzi mota hauek bata bestearen kontrakoak direnean, ez daukagu beste erremediorik bien arteko kenketa egitea baino eta, alde batera zein bestera jo, geratzen den hondarraren segurantzaren izango duen iritzi bat hartzea. Baina hemen azaldu dugun printzipioaren arabera, herri-erlijio guztiekiko kenketa hau erabateko deuseztatzearen parekoa da, arau gisa jar dezakegularik, ondorioz, ez dela giza testigantzarik mirakulu bat frogatzeko adinakorik eta mirakulu hori halako erlijio-sistema baten oinarri zuzentzat ipintzeko adina indarrik duenik.

99. Hemen egindako mugapenak kontutan hartzea nahi dut, mirakulu bat ezin dela inoiz frogatu diodanean erlijio-sistema baten oinarri izateko neurrian. Ezen onartzen dut, bestela izan daitezkeela mirakuluak, edo naturaren ohizko abioaren bortxatzeak, giza testigantzen frogatze adimititzeko modukoak, nahiz eta agian ezinezko izango den halakoren bat aurkitzea

histori bilduma osoan. Horrela, eman dezagun autore guztiak bat datozela, hizkuntza guztietan, mundu osoan erabateko iluntasuna gertatu zela esanez, 1600eko urtarrilaren batetik hasi eta zortzi egunetan zehar; eman dezagun gertakari ezohizko honen tradizioak sendo eta bizi dirauela oraindik herrian; atzerrietatik bueltan datozen bidaiari guztiek ere tradizio berberaren berri dakarkigutela, aldaketa edo kontraesan txikienik gabe: argi dago gaur egungo filosofoek, gertakaria zalantzan jarri baino ziurtzat jo beharko dutela eta zeintzu kausetatik etor daitekeen ikertzen hasi. Naturaren gainbehera, usteldura eta suntsiera hain analogia askok gertakor egiten duen gertaera izanik, katastrofe horretarantz joateko antza duen edozein fenomeno sar daiteke giza testigantzen eremuan, oso zabala eta bateratua baldin bada testigantza hori.

Baina eman dezagun Ingalaterraz ari diren historialari guztiak datozela bat esanez 1600eko urtarrilaren batean hil zela Isabel I; bai heriotzaren aurretik eta ondoren ere ikusi zutela bere medikuek eta gorte osoak; bere oinordekoa ere ezagutu eta aldarrikatu zuela Legebiltzarrak; eta hilabete lurperatuta egon ondoren, berriro agertu zela erregina, tronoa berrartu eta hiru urtez gobernatu zuela Ingalaterra: aitortzen dut harritu egingo nindukeela zirkunstantzia bitxi multzo horren bateraketak, baina ez nuke jokera txikienik ere gertaera hain mirakulutsuan sinesteko. Ez nuke zalantzan jarriko haren heriotza delakoa ezta gainerako beste zirkunstantzia publiko guztiak ere; esango nukeena soil-soilik, itxurazkoa izan zela, ez zela izan eta ezin zitekeela izan ere, seguraski, benetakoa. Alferrik objektatuko zenidakete zaila dela esanez edo ia ezinezkoa mundu osoa engainatzea halako garrantzi handiko arazoan, erregina ospetsu haren jakinduria eta sena gogoraraziz, eta amarru hutsal hartatik atera zezakeen abantail eskasa edo ezereza: txundi nintzakeen bai guzti horrek, baina erantzuten jarraituko nuke, dena dela, gizakumeen baxukeria eta erokeria hain direla gertakari arruntak esanez, non nahiago nukeen horien bilkuratik

datozkeen gertaera harrigarrienak ere sinetsi, naturako legeen halako bortxatze nabarmena ametitu baino.

Erants biezaio orain mirakulu hau erlijio-sistema berriren bati: gizakia horren menperatua izan delarik garaiz garai horrelako kontu ganorabakoen kariaz, zirkunstantzia horixe litzateke amarruaren bete-beteko froga, aski edozein zentzuduentzat gertakari hura ezezteko, eta azterketa gehiagorik gabe ezezteko gainera. Mirakulu horri datzekion Izakia, kasu honetan, Oroahaltsua balitz ere, ez litzateke hargatik probableago bilakatuko, halako Izaki horren atributuak edo egintzak eza-gutzerik ez dugunez gero, naturaren ohizko abioan eragiten dituen obren esperientziaz izan ezean. Honek oraindik iraganeko behaketara mugatzera garamatza eta giza testigantzan izandako egi bortxatze kasuak konparatzera naturaren lege-bortxatze kasuekin mirakuluak direla eta, horietariko zein den egiantzeko eta probableago juzkatzeko. Egi bortxaketak naharoagoak direnez mirakulu erlijiosoen aldeko testigantzan beste ezelako izatezko zerei buruzkoan baino, asko gutxitu behar hargatik lehenengo motako testigantzen autoritatea, erabaki orokor bat harrarazten digularik hari inoiz arretarik ez ematekoa, dena delako engainuzko iruzurrez jantzirik agertu arren.

Lord Bacon-ek ere arrazoiketa printzipio berdinak hartu dituela dirudi: «Bilduma bat egin beharko genuke edo historia berezi bat —dio berak— munstro eta mirarien jaiotza edo ekoizpen guztiena, eta naturan berri, bitxi eta aparteko den guztiarena, hitz batez. Baina arakapen zorrotz baten arabera egitekoa da hau, egiatik aldendu nahi ez badugu. Batez ere, erlijioarekin nolabaiteko zerikusirik duen edozein harreman hartu behar da susmagarritzat, Livio-ren mirariak kasu, eta ez gutxiago magia natural eta alkimiako idazleengan aurki daitekeen guztia, edota faltsutasun eta fabula egarri asegaitza daukatela diruditen autore guzti horiek».²²

100. Gogokoago dut hemen azaldutako arrazoiketa-metodoa, uste baitut *Kristau-Erlijioaren* lagun arriskutsuak nahiz etsai mozorrotuak endredatzeko balio dezakeela, giza arrazoi-menaren printzipioen bidez hura defendatzeko asmotan dabiltzanean. Sakratuena dugun erlijioa *fedean* oinarritzen da, ez arrazoian, eta hura arriskatzeko modu segurua duzu, inola ere jasatea ez dagokion aprobapean jartzea. Azter ditzagun, diogun hau nabariago egin asmoz, eskrituran jaulkitako mirakuluak, eta, arlo zabalegian ez galtzeko, muga gaitezen *Pentateukon* aurkitzen dugunera, delako kristau horien printzipioen arabera aztertuko dugularik hangoa, ez Jainkoaren beraren bera edo testigantza den aldetik baizik giza idazle eta historialari soil baten ekoizpen denez.

Hemen, orduan, herri barbaro eta ezjakin batek aurkezten digun liburu bat dugu aurrean, oraindik barbaroagoak ziren garai batean idatzia, eta, seguru asko, kontatzen dituen gertakariak baino askoz geroago, ezein testigantza bateratsuk berretsi gabea, eta bere sorreraz edozein naziok eman ohi dituen elazarrezko kondairen antz-antzekoa. Liburu hau irakurtzen dugularik, mirari eta mirakuluz beterik aurkituko dugu. Gaurkoarekin inolako zerikusirik ez duen munduaren egoeraz eta giza naturaz mintzatzen zaigu, egoera hori nola galdu genuen, ia mila urtetara iristen den gizakumearen adinaz, uholde batek suntsitu zuen munduaz, herri bat nahierara hautatua izateaz zeruaren kuttuntzat, autorearen herrikideek osatzen zuten herria hain zuzen, morrontzatik askatu izanaz inork irudi ditzakeen mirari txundigarrienak medio. Eskua bihotzean jartzea nahi nuke bakoitzak eta esatea, sakonki pentsatu ondoren, ea halako testigantzan oinarrituriko liburuaren faltsutasunari ezohizkoago eta mirakulutsuago deritzon bertan kontatzen diren mirakulu orori baino; beharrezko litzatekeena, berriz, goian jarritako probabilitate-arauek arabera onartua izateko.

101. Mirakuluez esan duguna bera legokie, batere aldatarik gabe, profeziei ere. Iragarpen guztiak dira, izan ere,

benetako mirakulu, eta halakoak direnez bakarrik izan daitezke edozein errebelazioren froga gisa onartuak. Giza izaeraren ahalmenaz gaindi ez balego etorkizuneko gertaerak iragartzea, ez luke zentzurik profezia bat jainkozko misio baten edo zeruaren autoritatearen aldeko argumentu gisa erabiltzeak. Guzti hauek honela, beraz, ondoriozta dezakeguna da, *kristau-erlijioa*, hasiera batean mirakuluez lagundurik agertzeaz gain, gaur egun ere ez daitekeela sinetsia izan, pertsona arrazoizale baten aldetik, mirakuluren bat gabe. Arrazoi soila ez da aski haren egiatasunaz gu konbentzi gaitzan, eta atxekimendura *fedez* mugitzen dena kontziente da beragan gertatzen den etengabeko mirakuluaz, adimenduaren printzipio guztiak iraultzen dizkionaz, ohituraren eta esperientziaren kontrakoena sinesteko erabakia harraraziz.

XI ATALA

PROBIDENTZIAZ ETA GEROKO BIZITZAZ

102. Solasaldi bat izan nuen, duela gutxi, paradoxa eszeptikoen zale den lagun batekin. Inola ere onartu ezin ditudan printzipio anitz mantentzen zituen arren, bitxiak diruditenez hala ere eta ikerketa honetan zehar burututako arrazoi-katearekin zerikusirik dutenez, ene oroimenetik honaxe ekartzen ahalginduko naiz ahalik eta zehatzen, irakurlearen irizpenaren menera jar ditzadan.

Gure solasaldia filosofiaren zorte on bereziak niri eragiten didan harridura azalduz hasi genuen, zeren askatasun osoa behar duenez beste edozein pribilegioren aurretik eta sentimenduen eta argudioen arteko kontrakar aske bati esker loratzen denez batipat, askatasunaren eta tolerantziaren garaian eta lurraldean jaiotzea suertatu baitzitzaion lehenbizi; eta ez zitzaion inoiz ezelako kredo, sinesbide edo araudi penalen menpe egoterik tokatu, bere printzipio pitxienetan ere. Ezen, Protagorasen desterrua eta Sokratesen heriotza salbu, eta azken hau beste motibu batzuegatik gertatu zelarik neurri batean, ia-ia ezin da aurkitu adibiderik aintzinako historian gure garaia hainbeste pozoitzen duen bekaizkeria fanatiko horrenik. Epikuro Atenasen bizi izan zen bere zahartzarora arte, bakez eta lasai; Epikurearrak²³ gainera apaizgora ere onartuak izan ziren eta aldarean elizkizunak egitera indarrean zegoen erlijioaren errito sakratuenetan; eta erromatar enperadore guztietan ja-

kintsuenak²⁴ edozein filosofia sektatako maisuentzat luzatu zuen, bereizketarik gabe, pentsio eta soldaten sostengu publikoa.²⁵

Erraz uler daiteke horrelako trataeraren beharrean aurkitzea filosofia bere nerabezaroan, pentsatzea besterik ez nolako nekeaz jasan behar izaten dituen gaur egun ere, sendoago eta gogorragotzat dugun honetan, kalumnia eta jazarpenaren negu gorriak eta haize bolada zakarrak.

— Filsofiaren zorte harrigarritzat daukazu —diost lagunak— izatez gauzen berezko abioaren ondorio baizik ez dirudiena, eta edozein garai zein naziotan nahitaezko. Filsofiarentzat hain fatala dela-ta kexuz hartzen duzun grina fanatiko hori, beraren fruitua baizik ez duzu izatez, gurasoaren asmotik guztiz aldendu dena superstizioarekin bat egin ondoren, eta bere etsai eta jazarle amorratuen bilakatu. Egun hain haserre biziz eztabaidatzen diren erlijio-dogma espekulatibo horiek ezin zitezkeen ziurraski horrela pentsatu edo ametitu munduaren hasierako garaietan, gizateriak, txit alfabetagabea izaki, bere adimendu ahulari hobeto zihoakion ideia bat egin zue-nean erlijioaz, argudiaketan eta eztabaidan baino sineskera tradizionalako kondairetan oinarriturik osatzen zituelarik batipat bere printzipio-sorta sakratuak. Hortaz, lehenbiziko alarma, filsofoen paradoxa eta printzipio berrietatik sorturikoa, igaro zenez geroztik, badirudi maisu hauek, aintzinako garaietan zehar, harmonia handian bizi izan zirela finkatutako superstizioarekin, eta gizateriaren banaketa egokia zutela egina euren artean: jakintsuak eta ikasiak galdatuz batera, herri xehea eta ezikasiasa bestera.

103. —Badirudi bada —diot nik— arazotik guztiz kanpo uzten duzula politika, eta ez duzula inoiz suposatzen magistratu jakintsu bat zelati gerta daitekeela, arazoiz, Epikurorenak bezalako doktrina filsofiko batzuen aurrean, Jainkoaren

izatea ukatuz, baita Probidentzia eta geroko bizi-tza ere ondorioz, moral-tasunaren lokarriak neurri handi batean laxatu egi-ten dituztela diruditenak, kaltegarritzat har daitezkeelarik, hortaz, gizarte zibilaren bakerako.

—Badakit nik —ihardetsi zuen— jazarraldi hauek ez da-tozela inoiz etorri, ezein garaitan ere, patxadazko arazoitik edo filsofiaren ondorio kaltegarri-er buruzko esperientziatik, baizik grina eta aurriritzietatik sortzen direla erabat. Baina zer deritzozu aurrerago joan eta zera esango banu, *sykophante* de-lako orduko informatzaile haiek salatu izan balute Epikuro he-rria-aren aurrean, errazago baino ez zuela bere kausa defendatu-ko, eta jendearen gorroto eta errezelupean jartzen halako ahaleginez sai-atzten zitzaizkion arerioenak bezain zindoak zi-rela bere filsofi printzipioak demostratuko?

—Nahi izango nuke —esan nion— duzun hitzetorri ho-rrer-ekin sai-atzuko bazina honelako gai apartekoan eta Epikuroren aldeko hitzaldia egingo bazenu, pozik uzteko modukoa, ez Atenasko populua, populurik izan zitekeenik onartzen baduzu halako hiri zahar eta landuan, baizik bertako entzulegotik jen-de filsofoena, haren argumentuak ulertzeko gai izan ziteke-ena hain zuzen.

—Arazoa ez liteke zaila horrelako baldintzetan —eran-tzun zidan berak—; eta nahi baduzu, Epikuro naizela egingo dut une batez eta atenastarren ordezkari jarriko zaitut zu zeu, atabaka babazuriz bete-bete eragingo duen arenga zuzenduko dizudalarik, bababeltz garaunik ere utzi gabe nire etsai maltzu-rrer pozerako.

—Oso ongi, jarrai ezazu suposamendu horien arabera.

104. —Hemen natorkizue, atenastarrok, ene eskolan de-fendatu nuena zuen asanbladaren aurrean justifikatzeko asmoz, eta antagonista amorratuek erasoturik aurkitzen naiz, galdetzaile

lasai eta patxadatsuekin arrazoitu beharrean. Hor, bada, zuen deliberamenduak, guztion onari eta errepublikaren interesari dagozkien arazoei buruzkoak izan behar dutenak eskubide osoz, filosofia espekulatibozko araketetara desbideratuak; eta egundokoak baina agian antzuak diren ikerketok hartze dute zuen ihardun normalago baina baliagarriagoaren tokia. Baina nire esku dagoen neurrian behintzat, itzuriko natzaio abusu honi. Ez dugu hemen eztabaidan jarriko munduen sorrera eta gobernuak. Ikerketa hauek interes publikoari zein neurritan dagozkion aztertuko dugu soil-soilik, eta gizartearen bakerako nahiz gobernuaren segurtasunerako berdin-berdin direla konbentzitu ahal bazaituztet, laster bidaliko gaituzuelakoan nago berriz gure eskoletara, hantxe azter dezagun lasai asko arazorik goitiarrena den hau, baina era berean espekulatiboena filosofia osoan.

«Filosofo erlijiosoek, zuen arbasoen tradizioarekin eta zuen apaizen doktrinarekin (nire aldetik gogoz onartuak) konformatzen ez direlarik, jakingura ausarti bat asetu nahian dabilta erlijioa arrazoiaren printzipioen pean zein neurritaraino jar daitekeen eta dihardutenean, eta zirikatu baino ez dituzte egiten horrela, emendatu beharrean, ikerketa artatsu eta zehatz batetik berez sortu ohi diren ezbaiak. Kolore bizienekin pintatzen dute unibertsoaren ordena, edertasuna eta jakituriaz beteriko ordena, galdetuz, ondoren, ea litekeen horrelako entelegu gorenaren erakuspenik atomoen bateraketa ustegabekotik, edota azareak sor ote lezakeen jeinu handienak ere ezin mirets dezakeena sekula ere nahikoa. Ez dut aztertuko nik argumentu honen zuzentasuna. Nire antagonista eta salatzaileek nahi duten bezainbesteko sendoa dela onartuko dut. Nahikoa dut arrazonamendu horrexetatik abiatuz frogatu ahal badezat arazoa guztiz dela espekulatiboa, eta nire filosofiazko araketetan probidentzia eta geroko bizitza ezezten ditudanean, ez ditudala, ez, gizartearen oinarriak jaten, baizik printzipio zenbait aurkezten, haiek beraiek ere sendo eta asebetegarrizat onar ditza ketenak euren gaietarako, funtsez argudiatuz gero.

105. «Zuek, bada, ene akusatzaile zaretenok onartu duzue Jainkoa izatea (nik inoiz zalantzan jarri ez dudana) demostratzeko argumentu nagusia edo bakarra naturaren ordenatik eratorria dela, halako entelegu eta xedetzaren arrastoak erakutsiz, non nabarmenkeria uste baituzue haren kausatzat azarea edo materiaren indar itsu eta gidagabekoa hartzea. Hau efektuetatik abiatu eta kausetan burutzen den argumentu bat dela ametitzen duzue. Lanaren ordenetik inferitzen duzue proiektu edo alde zurretiko asmo bat izan duela langileak. Puntu hau demostratu ezean, onartzen duzue, huts egiten dizuela konklusioak; eta naturaren fenomenoek justifika dezaketenaz haragoko konklusiorik ez duzuela ezarriko. Hauexek dira zuen kontzesioak. Ondorioez ondo kontura zaitezten nahi dut.

«Efektu batetik kausa jakin bat inferitzean, bata bestea- rekiko proportzioa zaindu behar dugu, eta ez zaigu zilegi inoiz ere, juxtu efektua eragiteko nahikoa dituen kualitateak baino gehiago eransterik kausa horri. Hamar ontzako gauza batek, edozein pisuren gainean jarriak, kontrapisua hamar ontzatik gorakoa dela frogatuko dizu, baina ehunetik gorakoa den arrazoirik ez dizu sekula emango. Efektu bati egotziriko kausa hura eragiteko behar bestekoa ez bada, kausa hori ezetzi beharrean aurkitzen gara, edota efektuarekiko proportzio justua damaioten kualitateak erantsi beharrean. Baina tasun gehiago egozten badiogu edo beste efektu batzuk eragiteko kapaz dela badiogu, aieruaren lizentzia hartu besterik ez dugu egiten, nahierara suposatuz, ez arrazoirik ez autoritaterik gabe, kualitate eta energien existentzia.

«Arau berak balio du, zein materia gordina, zein izaki arrazoimendun eta adimenduna dela esleituriko kausa hori. Efektuagatik bakarrik badazagugu kausa, ezin diogu inoiz iratxeiki kualitaterik efektu hori eragiteko doi-doi behar direnak baino gehiagorik, ezta ere kausara itzuli eta ezelako arrazoiketa zuzenaren arauen izenean beste efektu batzuk inferitu harta-

tik, bera ezagun dagiguten bakar horiez gain. Ezingo lukeenez inork jakin, Zeuxis-en pintura bat bakarrik ikustetik, eskultorea eta arkitektoa ere izan zela, eta ez artista gutxiago trebe harrian eta marmolean kolorean baino. Aurrean daukagun lan jakin batean azaltzen zaizkigun talentua eta gustua: horiexek bakarrik konkludi dezakegu direla ziur langile horrek dituenak. Efektuarekiko proportziozkoa behar du izan kausak, eta haren proportziozko egiten badugu, justu eta zehazki, ez diogu inoiz bilatuko puntu honetatik harago doazen kualitatetik, edo beste plan edo iharduketaren bati buruzko inferentzia eskuesten digutenik. Halako kualitateak, egon ere, aztergai dugun efektua eragiteko behar diren bakar horiek baino haratxoago leudeke.

106. «Onartuz, beraz, jainkoak direla unibertsoaren izate eta ordenaren autore, badutela ondorioztatzen da euren obretan ageri den ahalmen, adimen eta onginahi-neurri justua, baina ez dagoela inoiz hori baino ezer gehiago demostratzerik, gehiegekerira edo lausengura ez bagara makurtzen behintzat argumentu eta arrazoiketaren hutsuneak kitatzeko. Atributuren baten ezaugarriak bertan aurrean ageri zaizkigun neurrian bakarrik konkludi dezakegu existitzen direla atributuok. Atributu gehiagoren suposizioa hipotesi hutsa da, are gehiago, urrutiko diren espaziotan edo denboraldietan izan den edo daitekeen atributuon erakusketa bikainago baten suposizioa, eta delako bertute hauei hobeto legokien administrazio-eskemaren bate-na. Inoiz ezin dakiguke zilegi izan efektua datekeen unibertso-tik, kausa datekeen Jupiterrenganaino igotea, eta gero handik berriro jaiste beste efektu berri bat inferitzeko kausa hartatik, dagoeneko ditugun efektuak eurak bakarrik ere ez bailiran jainko horri iratxekitzen dizkiogun atributu bikainen duin erabat. Kausaz dugun ezagutza efektutik eratorria dugularik soil-soilik, ondo behar dute bata bestearrekiko doituak izan, bata ezin zaiolarik inoiz ere haragoko ezeri gehiago erreferitu, edo ezin inferentzia eta konklusio berriren oinarri izan.

«Fenomeno batzuk aurkitzen dituzu naturan. Kausaren edo egilearen bila zoaz. Aurkitu duzula iruditzen zaizu. Gero hala maitemintzen zara zeure burmuinaren ume horretaz, non ezinezko iruditzen zaizun honek ez sortaraztea zer-bait haundiago eta bikainagoa gaur eta hemen duguna baino, hainbat gaitz eta desordenuz betea. Ahaztu egiten zaizu entelegu superlatibo eta onginahitsu hori irudipen hutsa duzula, edo behintzat arrazoian inolako oinarririk gabekoa, eta ez duzula batere motiborik kualitaterean bat iratxeki diezaiozun, bere ekoizpenetan benetan eginik eta azaldurik dakusazunetik at. Bitez beraz zuen jainkoak, oi filosofook, naturan ageri zaizkigun antzirudien arabera, eta ez zaitezte ausart antzirudiok aldatzera, suposizio arbitrarioak bide, jainkooi hain gustora egozten dizkiezuen atributuen moldera egokitzearren!

107. «Apaizak eta poetak, zuen itzalean oinarrituz, oi atenastarrok, urrezko edo zilarrezko garai batez mintzatzen zaizkigunean, gaurko bizio eta miseriazko egoeraren aurretikoaz, arretaz eta begiruneaz entzuten diet. Baina filosofoak direnean, autoritatea bazterrera egin eta arrazoiak lantzeko asmoa duten horiek, mintzo horrekin datozkidanak, ez dut haiengana-ko menekotasun gizabidetsu eta deboziozko adeitasun bera. Galdetzen dut: nork eraman ote ditu zerualdeetara, nork onartu jainkoen bileretara, nork ireki ote die sinuaren liburua, hain ausartki baietz dezaten beren jainkoek asmoren bat burutu dutela edo burutzeko direla, egitez ageri zaigunetik aparte? Arrazoiaren eskaileran gora igon dutela esaten badidate, edo mailaz-maila iritsi direla, efektuetatik kausetara inferentziak eginez, ihardungo dut oraindik esanez irudimenaren hegoez erraztu dutela arrazoirako bidea. Bestela ez zezaketen horrela alda beren inferentzi modua eta kausetatik efektuetara argudiatu, aurrean dugun mundu hau baino ekoizpen bikainagoa legokiela hobeki jainkoak bezalako hain izaki perfektuei, ahaztu egiten zaielarik ez dutela batere arrazoirik izaki zerutar horiei

beste bikaintasun edo atributurik egozteko aurrean dugun mundu honetan aurkitu ahal denetik kanpo.

«Hortik, antzirudi txarrak justifikatzeko eta jainkoen ohorea salbatzeko ahalegin antzu guztiak, gaizkiaren eta desordenuaren errealitatea, hain ugaria mundu honetan, aitortzea baino ez daukagunez. Materiaren zailtasuna eta moldagaiztasuna omen, edota lege orokorren betebidea edo antzeko arrazoiren bat, esaten zaigunez, Jupiterren ahala eta onginahia mugarritu zuen zergati bakarra, gizakia eta izaki sentigai guztiak hain inperfektu eta zorigabeko sortzera behartuz. Atributu hauek, bada, aurretiaz berretsiak dira, dirudienez, euren zentzu zabalenean. Eta suposizio honetatik abiatuz gero, aitortzen dut, bai, antzirudi txarren esplikazio txalogarritzat har daitezkeela agian aieru horiek. Baina jarraitzen dut galdetzen: Zergatik berretsiztat hartu atributu hauek, edo zer dela eta iratxeki kausari bere efektuan ageri zaizkigun kalitateez gain besterik?

Asko jakitea lortuta ere, zergatik apurtu zeuon buruak naturaren abioa irudipen huts daitezkeen suposizioen gainean justifikatzen, naturaren abioan horien arrastorik ere aurkitzerik ez dagoenean?

«Erliziozko hipotesia, beraz, beste metodo bat gehiago bezala bakarrik hartu behar da naturako fenomeno ikusgaien arrazoia emateko, baina ez da arrazonatzaile jatorrik hartatik gertakari bat bera ere inferitzera ausartuko denik inoiz, ezta fenomeno aldatzera edo berorri ezertxo gehitzera ere. Gauzen antzirudiek halako kausak frogatu ditzaketela uste baduzue, zilegi zaizue inferentzia bat egitea kausa horien existentziari buruz. Horren korapilotsu eta sublime diren gaitan aierupen- eta argumentu-askatasuna utzi behar zaie denei. Baina hortxe gelditu behar duzue. Atzera jotzen baduzue eta inferitutako zeuen kausa horietatik konkluditu gertakariren bat izan dela edo

izango dela naturaren abioan, atributu jakin batzuen erakusketara osoagorako erabil daitekeena, gai honi dagokion arrazoi-keta-metodotik urrundu egin zaretela gaztigatu behar dizuet, eta efektuan agertzen denaz gain zerbait erantsi diezuela, dudarik gabe, kausaren atributuei; bestela inoiz ezingo zenioke efektuari ezer erantsi, zentzu edo egokitasun jasangarritz, hura kausaren duinago bilakatzeko asmoz.

108. «Non datza, bada, ene eskolan irakasten dudana, edo hobe, ene baratzeetan aztertzen dudana doktrinaren gorrotagarritasuna? Zer aurkitzen duzue guzti honetan moralitasun egokiaren segurtasunari edo gizartearen bake eta ordenuari ukitzen dionik?

«Probidentzia ukatzen dut, diozuenez, eta munduaren gobernari goren bat, gertaeren abioa gidatzen duena, gaiztoak deskredituz eta dezepzioz zigortzen dituena eta bertutetsuak ohorez eta arrakastaz euren egiteko guztietan. Baina ziur ez dudala ukatzen gertaeren abioa bera, denen ikerketara eta azterketara irekirik dagoena. Aitortzen dut bertutea, dugun gauzen egoeran, bizioa baino adimen-osegu gehiagoz lagundurik datorrela eta onarpen hobea duela bere alde munduan. Konturatzeko naiz adiskidetasuna, gizadiaren iragan esperientziaren arabera, giza bizitzako poz nagusia dugula, eta lasaitasunaren eta zoriontasunaren iturri bakarra moderazioa. Ez ditut inoiz parekatzen bizitzaren bide bertutetsua eta biziotsua, aitzitik hautematen dut, jarrera oneko buru batentzat, lehenengoaren alde direla abantail guztiak. Eta zuek ere zer gehiago esan dezakezue, zeuon suposizio eta arrazonamendu guztiekin? Esango didazue, zinez, gauzen antolamendu honek enteleguan eta xedean duela jatorria. Baina datorrela datorren lekutik, berbera da edozein kasutan gure zoriontasuna eta zorigaitza eta ondorioz bizitzan dugun portaera eta jokabidea menean dituen antolamendua bera. Zuek duzuen bezala dut nik ere zabalik bidea, ene portaera iragan gertaerez dudana esperientziaren arabera

arautzeko. Eta ihardesten badidazue jainko-probidentzia onartuz gero, eta justizia banatzailea goren bat unibertsoan, orduan sariren bat onagatik eta zigorra gaiztakeriagatik itxaron dezakedala gertaeren ohizko abioaz harago, hemen ere lehenago argitzen saiatu naizen falazia bera aurkitzen dut. Jarraitzen duzue iruditzen ezen, hain sutsu burrukatuz aldeztu duzuen jainko-existentzia berresten badugu, bidea zabal duzuela hartatik ondorioak inferitzeko eta gehitu ere zerbait gehitzeko esperientziaz dugun naturaren ordenari, zuen jainkoei egozten dizkiozuen atributuen gainean argudiatuz. Ahaztu egin zaizuela dirudi efektutik kausara bakarrik atera daitezkeela gai honi buruzko zuen arrazonamenduak oro, eta sofisma haundi bat baino ezin dela izan kausetatik efektuetara deduzituriko edozein argumentu: ezinezko baituzue kausaren zer edo zer ezagutzea, alde aurretik efektuan ez inferitu, baizik bete-betean aurkitu duzuenetik aparte.

109. «Baina zer pentsa ote dezake filosofo batek arrazonatzaile puztu hauetaz, gauzen presenteko agertokia hartu beharrean euren kontenplazio-alor bakartzat, naturaren abio osoa hain neurri handian eraldatzen baitute, ezen bizitza hau beste haragoko zerbaiten iraganbide huts bihurtzen duten, eraikin haundiago eta zeharo ezberdin baten atalase, antzela bat aurkezteko eta propiotasun gehitxoago emateko bakarrik balio duen aintzinsolas. Nondik uste duzue atera dezaketela filosofo hauek euren jainkoen ideia? Beren harrokeria eta irudimenetik seguraski, zeren eta aurrean dituzten fenomenoetatik aterako baldin balute, ez luke inoiz ideia horrek beste haragoko zerbaitera destatuko, baizik fenomeno horiexetara mugatuko zehazki. Dibinitatea egon daitekeela *posibleki* horniturik guk inoiz gauzaturik ikusi ez ditugun atributuez, egon daitekeela gidatuta guk konpliturik ezin aurki ditzakegun egintza-printzipioez: aise onartzekoa da guzti hori. Baina ez da oraindik *posibilitate* eta hipotesi bat baino. Ezin dugu inoiz arrazoirik ukan haren atributurik edo egintza-printzipio-

rik *inferitzeko*, gauzatuak eta konplituak izan direla ezagutzen dugun neurrian baizik.

«*Ba al da mundu honetan banakuntza-justiziaren ezau-garririk?* Baietz erantzuten badidazue, justizia hementxe gauzatzen denez, konplitu dela konkludituko dut. Ezetz erantzuten badidazue, ez duzuela batere arrazoirik konkluditzen dut justizia, honetaz dugun zentzuan, jainkoei iratxekitzeko. Baietzaren eta ezetzaren arteko erdibide bat hartzen baduzue esanez jainkoen justizia, presentean, partzialki gauzatzen dela eta ez bere hedadura osoan, ez daukazuela arrazoirik erantzun-go dizuet hedaduraren bat ezartzeko, *presentean* gauzaturik dakusazuen neurrian bakarrik izan ezean.

110. «Honela, atenastarrok, ezberdintasun txiki batera dakart ene antagonistekin dudan eztabaida. Naturaren abioa berdin dago zabalik nire kontenplaziora nahiz haienera. Esperimentatzen ditugun gertaeren segida dugu gure jokabide osoa egokitzen diogun ikur haundia. Beste ezeri ezin zaio apelatu zelaian, edo senatuan. Ez litzateke inoiz beste ezer entzun behar harko eskolan, edo gelan. Alferrik nahi izango du gure adimen mugatuak bidea ireki gure irudimen-lainoarentzat estuegiak diren hesietan zehar.

«Naturaren abioan oinarrituz argudiatzean adimendun kausa jakin bat inferitzen dugunean, hasieran unibertsoari ordena ezarri ziona eta oraindik dirauena, era berean zalantzakoa eta alferrekoa den printzipio bati gatzexkio. Zalantzakoa da, gaia guztiz datzalako giza esperientziaren alkantzutik at. Alferrekoa da, zeren, guk kausa hartaz dugun ezagutza naturaren abiotik eratorria denez osoro, ezin baikara inola ere, arrazoiketa zuzenaren arauen arabera, berriz kausa hartatik itzuli beste inferentzia berri batekin, edota, ohizko eta somagarri dugun naturaren abioari eranskinak ezarriz, jokabide eta portaera printzipio berriak jarri.»

111. Ohartzen naiz —esan nuen nik, bere mitina amaitutzat eman zuela ikustean— ez dituzula bazterrera lagatzen aintzinako demagogoen mainak, eta jendearen lekuan jarri ninduzularik gogoz, nire aldera irristatzen zarela, betidanik neronen aparteko atxekimendua izan dutela dakizun printzipioak zeure eginez. Baina ontzat ematen dizudalarik esperientzia bilakatzea (egin behar duzula uste dudan bezala) egitatezko arazo honi zein beste edozeini buruzko gure judizioen molde bakar, ziur nago hala ere inbokatzen duzun esperientzia berorren izenean errefusa daitekeela Epikuroren ahoan jarri duzun arrazonamendu hori ere.

Etxe-eraikuntza bat ikusiko bazenu, adibidez, erdizka eraikia eta adreilu, harri eta mortairu pila eta hargin-tresneria guztiak dituelarik inguruan, ez al zenuke efektutik *inferitzerik* diseinu eta asmodun lan bat zegoela han? Eta inferitutako kausa honetatik ez al zenuke berriz itzuli eta efektuari eranskin berriak inferitzerik, eraikuntza laster amaituko zela konkludituz, teknikak eskaini ziezaizkiokeen gainerako hobekuntza guztiak jaso ondoren? Hondartzan giza oin baten oinatzak ikusiko bazenu, handik gizaki bat ibili dela konkludituko zenuke, eta beste oineko oinatzak ere utziko zituela, harearen mugimenduak edo olatuak ezabatuko zituen arren. Zergatik, bada, ez duzu nahi onartu arrazoiketa-metodo bera naturaren ordenari dagokionean? Kontsidera ezazu mundua eta hemengo bizitza eraikin osagabea bailitzen soil-soilik, zeinetatik goragoko adimen bat inferi dezakezun; eta erdizka ezer utzi ezin duen goitiko adimen horretatik argudiatuz, zergatik ezin duzu beste eskema edo egitamu osoago bat inferitu, espazioaren edo denboraren urrutiko punturen batean burutuko dena? Ez al dira, bada, berdin-berdinak arrazoiketa-metodo hauek? Eta zer dela eta erabili ahal duzu bata, bestea ezezten duzularik?

112. —Gai bataren eta bestearen arteko alde neurtezina da —ihardetsi zidan— nire konklusioen ezberdintasun honeta-

rako nahikoa motibo. *Gizakiaren* obra eta diseinuko lanetan zilegi duzu efektutik kausara igarotzea, eta kausatik berriz itzuliz, inferentzia berriak egitea efektuari buruz eta seguruenik jasan dituen edo jasan ditzakeen aldaketak aztertzea. Baina zein da arrazoiketa-metodo honen oinarria? Argi eta garbi hauxe: gizakumea esperientziaz dazagugun izaki bat dela, ezagun ditugularik bere motibo eta asmoak, eta konexio eta koherentzia jakin bat dutelarik bere proiektu eta jauginek, honelako kreatura baten gobernurako naturak finkatu dituen legeen arabera. Beraz, lan bat gizakumearen trebetasunetik eta antzetik sortua dela aurkitzen dugunean, ezagun dugularik bestalde animalia-aren izaera, ehundaka inferentzia atera ditzakegu haren-gandik espero daitekeenaz, esperientzian eta behaketan oinarrituak izango direlarik inferentzia guztiok. Baina obra edo ekoizpen bakar batengatik soil-soilik ezagutuko bagenu gizakumea, ezinezko litzaiguke era horretara argudiatzea, zeren hari iratxekitzen dizkiogun kualitate guztien ezagutza, kasu honetan, obra edo ekoizpen bakar batetik letorkigunez, ezinezko bailizateke haiek beste haragoko zerbaitera apuntatzea edo inferentzia berri baten oinarri izatea. Oin baten oinatzak hondartzan, isolatuki kontsideraturik, froga dezakeen gauza bakarra zera da: hari zegokion figura bat izan zela hura sortu zuena. Baina giza oinaren oinatzak baita ere frogatzen digu era berean, gure beste esperientzia harengatik, izan zela seguraski beste oin bat bere aztarna utzi zuena, nahiz eta ezabatua gertatu denbora edo beste akzidente batzuk bitarteko. Hemen, bada, efektutik kausara igoten dugu, eta kausa horretatik berriro jaitsez, aldaketak inferitzen ditugu efektuan: baina hau ez da arrazonamendukate xumearen beraren jarraiera. Kasu honetan animalia espezie hartako *ohizko* figura eta kideei buruzko beste ehundaka esperientzia eta behaketa sartzen ditugu, gezurrezkoa eta sofistikoa kontsideratu behar delarik, haiek gabe, arrazoiketa metodo hau.

113. «Auzia ez da berdina naturaren obretatik abiatuz arrazonatzen dugunean. Jainkoa bere obretatik bakarrik zaigu

ezagun, eta izaki bakana dugu unibertsoan, ezein espezie edo jeneroren barne sartzen ez delarik, hortik analogiaz hautemano atributu edo kualitatetik inferitu ahal izan dezagun berarengan. Unibertsoak ontasuna eta jakinduria erakusten duenez, ontasuna eta jakinduria inferitzen ditugu. Tasun hauen maila jakin bat erakusten duenez, horien maila jakin hori inferitzen dugu, aztertzen ari garen efektuari dagokiona hain zuzen. Baina atributu gehiago edota atributu horien maila goragokoak inferitzea edo suposatzea da ezin zilegiztatu diezagukeena inoiz arrazoiketa egokiaren ezein arauk. Orduan bada, honelako suposizio-zilegitasunik gabe, ezinezko dugu kausatik argudiatzea, edo efektuan aldaketarik inferitzea gure behaketaren eremuan zuzenki dugunaz harago. Izaki hark eragindakoa on handiago batek, ontasun maila handiago bat erakutsiko du oraindik; justizia eta ekitatearekiko begiespen handiago batek datorke sarien eta zigorren banaketa inpartzialagoa. Naturaren obrei suposaturiko edozein gehigarrik natura horren Egile denaren atributuen gehiketa dakar, eta ondorioz, inolako euskarririk ez duenez ezein arrazoi edo argumentutan, ezingo da sekula ere onartu aieru edo hipotesi huts gisa baino.²⁶

«Hara zertan datzan gai honetan gure errakuntzaren eta geure buruari baimentzen diogun mugagabeko aieru-lizentzia horren iturburu nagusia: Izaki Gorenaren lekuan jartzen dugula geure burua tazituki eta guk geuk haren egoeran arrazoizkotzat eta hautagarritzat geure egin genezakeen jokabidea hartuko duela Hark uneoro konkluditzen dugula. Baina naturaren ohizko abioak berak konbentzi gaitzakeenaz gainera guretatik txit ezberdin diren printzipio eta arauen arabera erregulatzen dela ia dena, horrez gainera, diot, argi eta garbi dirudi analogi erregela guztien kontrako, gizakumeen asmo eta proiektuetatik abiatuz hain ezberdin eta goitiko den Izakiarenganaino arrazonatzeak.

Halako koherentzia jakin bat nabari zaigu giza izaeran, non gertakari batetik ageri zaigunean gizakumeren baten asmo

bat, arrazoizkoa izan dakigukeela sarritan esperientziaz beste gertakari bat inferitzea, eta konklusio-kate luze bat ateratzea haren iraganeko edo etorkizuneko jokabideari buruz. Baina arrazoiketa-metodo honek ez dezake egundo lekurik izan hain urrutiko eta ulertezin zaigun izaki baten kasuan, eguzkiak argizarizko kandela batekin duen baino askoz antz gutxiago izanik hark unibertsoa beste edozein izakirekin, aztarna xume edo lehen lerroz baino agertzen ez baitzaigu, horietaz landa ez dugularik autoritatetik hari atributu edo perfekziorik iratxekitzea. Perfekzio bikainagoa iruditzen zaiguna akats bat izan daiteke egiatan. Edo perfekzioa izanik ere nonbait, Izaki Gorenari hura egozte, ez dirudienean egiazki guztiz erabilia izan denik bere obretan, panegiriko edo lausengu gerta daiteke areago arrazonamendu egoki eta filosofia jator baino. Munduko filosofia guztia, beraz, eta filosofia-mota bat baino ez den erlijio guztia ere ez da sekula gai izango esperientziaren ohizko abioaz gaindi eraman gaitzan, edota bizitza arruntari buruzko hausnarketak damaigunetik ezberdin datekeen jokabide edo portara eredurik eman diezagun.

Ez dago inoiz gertakari berri bat inferitzerik erlijio-hipotesiatetik, ezein gertaera aurrikusi edo auresaterik, ezelako sari edo zigorren itxaropen edo beldur izaterik, dagoeneko praktikaz eta behaketaz ezagun dugunetik landa. Hala da ezen Epikuroren aldeko ene apologiak sendo eta asebetegarri dirudiela oraindino, eta gizartearen interes politikoek ez dutela inolako loturarik metafisikaz eta erlijioaz zerikusit duten eztabaida filosofikoekin».

114. —Dena dela —ihardetsi nuen— bada oraindik ahaztu duzun zerbait, dirudienez. Zure premisak onartuta ere, konklusioa ukatu behar dizut. Zera konkluditzen baituzu, erlijiozko doktrina eta arrazonamenduek ezin dutela eraginik ukan bizitzan, ez dutelako *ukan behar* eraginik, kontutan hartu gabe gizakumeek ez dutela zuk bezala arrazonatzen, baizik jainkoa-

ren Existenzian duten sinesmenetik ateratzen dutela konklusio anitz, Jainko horrek zigorrak ezarriko dituela suposatzen dutelarik gaiztakeriagatik eta sariak emango bertuteagatik, naturaren ohizko abioan ageri denaz harago. Auzia ez da haien arrazonamendua zuzena den ala ez. Dena dela, beraien bizitzan eta jokabidean duen eraginak berdina izaten jarraituko du horregaitio. Eta honelako aurriritziez haiek desengainatzen saiatzen direnei buruz, izan daitezke arrazonatzaile onak, nik dakidanez, baina ezin dut onartu herritar eta politiko onak direnik, euren grinena gaineko galgatik askatzen dituztenez gero gizakumeak eta errazago eta ziurrago bihurtzen, zentzuren batean, gizarteko legeen haustura.

«Azken batean, egon naiteke agian zurekin ados askatasunaren aldeko zure konklusio orokorrez, nahiz eta hura oinarritu nahian darabiltzazun premisetan barik beste ezberdin batzuetan oinarriturik. Uste dut estatuak filosofiazko printzipio oro behar duela toleratu, eta ez dela gertatu indulgentzia horregatik bere interes politikoetan kalterik jaso duen ezein gobernuren kasu bat ere. Ez da entusiasmorik filosofoen artean; beren doktrinak ez dira oso erakargarriak jendearentzat, eta ezin zaie haien arrazonamenduei oztoporik jarri, zientzientzat eta estatuarentzat berarentzat ere ondorio arriskutsukoa izan daitekeena baino, jazarpenari eta zapalketari bide emanez gizateria gehienari sakonkien interesatzen zaizkion eta dagozkion arazoetan.

115. «Eragozpen bat datorkit burura, hala ere —jarraitu nuen nik—, zure puntu nagusiari buruz, aurkeztu baino ez dizudana egingo gehiegi ekin gabe, izatez delikatu eta xotilegiak diren arrazoiketetara eramanez ez gaitzan. Hitz batez, zalantza handian daukat kausa bat bere efektuaren bidez bakarrik (uneoro suposatu duzunez) ezagutua izan daitekeen, edota halako izaera bakan eta berezikoa datekeen, gure behaketaren mendean inoiz gertatu den beste ezein kausa edo objektuarekin antzik eta

paralelotasunik batere ukan ez dezan. Bi objektu-*espezie* eten-gabeki elkartuak aurkitzen direnean bakarrik inferi dezakegu bata bestearengandik, eta efektu zeharo bakan bat suertatuko balitz, ezein *espezie* ezagunen barnean sailkagaitz dena, ez dakusat inolako aieru edo inferentziarik egin dezakegunik bere kausari buruz. Esperientzia, behaketa eta analogia badira, egiazki, honelako inferentzietan arrazoiz jarrai ditzakegun gida bakarrak, biek, bai efektuak bai kausak, ukan behar dute antzekotasuna ezagutzen ditugun eta sarri askotan elkarturik aurkitu izan ditugun beste efektu eta kausa batzuekin. Zeure hausnarketarako uzten dizut printzipio hauen ondorioei jarraitzea. Zera ohartarazi bakarrik, Epikuroren antagonistek beti suposatu izan duten bezala unibertsoa efektu bakan-bakana eta parerik gabekoa dela, hura bezain bakan eta paregabeko kausa den Jainkoaren frogaz izateko; suposizio honi buruzko zure arrazoiketek gure arreta gutxienez merezi dutela dirudi. Baderla onartzen dut eragozpenen bat nola itzul gaitezkeen noizbait kausatik efektura, eta nola, lehenaz ditugun ideietan oinarrituz gure arrazoiketara, inferi dezakegun aldaketa bat edo gehiketa bat azkenari buruz.

XII ATALA

FILOSOFIA AKADEMIKO EDO ESZEPTIKOAZ

I PARTEA

116. Ez da hainbeste arrazonamendu filosofikorik ezein gairi buruz Jainko baten existentzia frogatzera doazenak baino eta *Ateoen* argumentu faltsuak errefutatzera, eta hala ere eztabaidan dute oraindino filosofo erlijiosoenak, nola egon daitezkeen inor hainitsu ateo espekulatibo izateko. Nola konpondu kontraesan hauek? Mundua herensuge eta erraldoietatik askartzeko hara eta hona zebiltzan zaldun ibiltariak ez zuten izan inoiz zalantza txikienik ere munstro hauen existentziari buruz.

Eszeptikoa erlijioaren beste etsai bat dugu, filosofo jainkotiar eta itzelen haserrea erraz-erraz pizten duena, nahiz eta egia esan inortxok ere ez zuen toporik egingo sekula hain kreatura absurdu batekin, edota solasaldirik izango ezeri buruz ere, ez egintzari ez espekulazioari buruz, iritzirik edo printzipiorik ez daukan gizakume batekin. Oso arrazoizko galdera batera garamatza honek: Zer esan nahi du eszeptiko izateak? Eta noraino eraman daitezke zalantza eta ziurgabetasunezko printzipio filosofiko horiek?

Bada edozein ikasketaren eta filosofiaren *aldez aurreko* eszeptizismo-mota bat, Descartesek eta beste batzuek oso gomendatua errearen eta judizio presatiaren aurkako babesgarri

ezin bikainago moduan. Zalantza unibertsal bat gomendatzen du, ez bakarrik aurretik ditugun gure iritzi eta printzipioez, baizik gure ahalmenez eurretaz ere, zeintzuon egitasunaz, diote, geure kabuz ziurtatu beharko genukeen, gezurrezko edo maulazko izan ez daitezkeen jatorrizko printzipio zenbaitetik deduzituriko arrazoiketa-kate baten bidez. Baina ez da, izan ere, besteen gainetiko eskubiderik izan dezakeen halako printzipio jatorrik berez ebidente eta konbentzigarri gertatzen denik, edo baldin balitz ere, eman ahal izango ote genuke hartatik pausurik aurrera, jadanik gure aldetik mesfidantza merezi duten ahalmen horien berorien bitartez izan ezean? Zalantza kartesiarra, beraz, gizakiren batek lortzea baleuka ere (argi eta garbi ez daukana), sendaezina litzateke erabat eta ezein arrazoiketak ere ezingo gintuzke eraman sekula arazo bati berari buruzko segurantza eta uste osoko egoera batera.

Aitortu beharra dago, hala ere, eszeptizismo-mota hau, moderatuxeagoa denean, oso zentzu arrazoizkoan uler daitezkeela eta filosofiaren ikasketarako gertakuntza egokia dela, beharrezko inpartzialtasuna zainduz gure judizioetan eta hezkuntza edo iritzi gaiztoa dela medio barneratu ahal izan ditugun aurriritzi guzti haietatik askatuz gure burua. Argiak eta berez ebidenteak diren printzipioetatik hastea, pauso arretatsu eta seguruz aurrera egitea, gure konklusioak maiz berrikustea eta hauen ondorioak zehazki aztertzea: aurrerapen mantsoak eta motzak egingo ditugu gure sistemetan era honetara, baina metodo horiexen bidez bakarrik espero dezakegu noiz edo noiz egiara iristea eta benetako egonkortasun eta ziurtasun bat lortzea gure determinazioetan.

117. Bada beste eszeptizismo mota bat, zientziaren eta ikerketaren *ondorengo*, gizakumeek beren adimenen erabateko engainagarritasuna idoro omen duteneko, edota determinazio finkoren bat lortzeko ezintasuna, saiatu ohi diren espekulazio-alorreko gai bitxi guzti haietan. Bada filosofo-klase bat

geure zentzuak eurak ere ezbaian jarri dituen, eta bizi arrunteko printzipioak ere zalantza horren mende dautza, metafisika eta teologiazko printzipio edo konklusio sakonenak dauden bezalaxe. Doktrina paradoxiko hauek -doktrinak deitu ahal bazaie-filosofo batzuegan aurki daitezkeelarik eta beste zenbaitengan errefusapena, gure jakingura pizten dute, normala denez, eta oinarritzat dituzten argumentuak ikertzera bultzatzen.

Ez dut ihardun beharrik eszeptikoek garaiz-garai *zentzu* ebidentziaren aurka erabilitako ohizko topikoez, gure organoen sarriaskotako inperfekzioan eta engainagarritasunean oinarritutakoak adibidez, arraun baten irudi hautsia uretan, objektuen itxura anitza distantzia ezberdinen arabera, begi bat hertsiz ateratzen diren irudi bikoitzak, eta mota honetako beste antzirudi asko. Eszeptikoen topiko hauek egiatan frogatzen duten gauza bakarra zera da, zentzu soilak bere hartan ez ditugula nahikoa haien esanera jar gaitzen, baizik zuzendu egin behar dugula beraien ebidentzia arrazoiaren bidez eta inguruaren izaeratik, objektuarekiko distantziatik eta organoaren ezarreratik datozkeen gogoeten bidez, egiaren eta faltsutasunaren benetako *kriterioak* itzultzeko haiei, euren esfera-barnean. Badira zentzuen kontrako beste argumentu sakonagorik ere, hain soluzio errazik ametitzen ez dutenak.

118. Bistakoa dirudi berezko instintu edo aurretiko jarreraren batek eramaten dituela gizakumeak beren zentzuez fido izatera, eta batere arrazoirik gabe, eta ia ezaguerara heldu aurretik ere, ematen dugula suposatutzat beti kanpoko unibertso bat, gure hautematearen mende ez dagoena, baizik hortxe existituko litzatekeena gu geu eta beste ezein kreatura sentigarri ez egon arren edo suntsituak izan arren. Uste honen arabera gidatzen dira animaliak ere, beren burutapen, asmo eta egintza guztietan mantentzen dutelarik kanpoko objektuekiko sinespide hau.

Bistakoa dirudi baita ere, berezko instintu hain itsu eta indartsu horri jarraitzean, gizakiek beti ematen dutela suposatuzat beren zentzuen bidez azaltzen zaizkien irudi horiexek direla kanpoko objektuak, batzuoak besteen irudikapen besterik ez diren susmorik ere izan gabe sekula. Guk zuri ikusten dugun eta gogor sentitzen dugun mahai hauxe sinesten dugu existitzen dela gure hautematetik at, eta hura hautematen duen gure gogoarekiko kanpoko zerbait dela. Gure presentziak ez dio ematen izaterik; gure ausentziak ez du ezerezatzen. Bere existentzia uniforme eta osoz irauten du, hauteman edo bahatzen duten izaki adimendunen egoeratik landa.

Baina gizaki ororen iritzi unibertsal eta primario hori laster du suntsitua filosofia ahulenak ere, zeinak irakasten digunez, gogoan inoiz ez dagokeen ezer egon, irudi edo pertzepzio bat baino, eta zentzuak ez ditugun besterik irudi horiek helarazteko bitarteko baizik, adimenaren eta objektuaren artean inolako harreman zuzenik sortzeko gai ez direlarik. Guk dakusagun mahai txikiago egiten dela dirudi hartatik urruntzen garen heinean, baina gugandik at existitzen den benetako mahaiak, ordea, ez du aldaketarik izan. Honen irudia besterik ez zen, orduan, gogo-barnean zegoen hura. Hauexek dira arrazoi-menaren diktatu nabariak, eta erreflexionatzen duen inork ere ez zuen egundo dudatan jarriko *etxe hau* eta *zuhaitz hori* esatean kontutan ditugun existentziak ez direla besterik gogo-barneko pertzepzioak baizik, euren hartan uniforme eta independente iraun dirauten beste existentzia batzuen kopia edo irudikapen iheskorak baizik.

119. Oraingoan, bada, instintu primarioei kontraesatera edo beraietatik aldentzera behartzen gaitu arrazoiketak, eta beste sistema berri bat hartzera gure zentzuen ebidentziari dagokionez. Baina hemen filosofia zeharo trabaturik aurkitzen da sistema berri hau justifikatu nahi duenean eta eszeptikoen eragotzpenei eta objektuoei ekidin. Ezin du jo, honez gero, natura-

ren instintu hutsezin eta jarkiezinera, zeharo ezberdina den sistema batera garamatzalako honek, okerterraza eta erroreduna ere badela aitortzen dena. Eta giza gaitasun guztien ahalmenaz gaindi dago filosofi sistema delako hau justifikatzea argumentu-kate argi eta konbentzigarri baten bidez, edo argumentu-itxuraren baten bidez ere.

Nolako argumentuaren bidez dago demostratzerik gogoko pertzepzioek, berauetatik zeharo ezberdin, nahiz eta antzeko (hau daitekeena baldin bada), diren kanpoko objektuetatik sortuak izan behar dutela, eta ezin sor daitezkeela gogoaren beraren energiatic, edo izpiritu ikustezin eta ezezagunen baten eraginez, edota guretzat oraindik ezezagunago litekeen beste kausaren batetik? Izatez, hauetariko pertzepzio asko, ametsen, erotasunaren eta beste gaixotasun batzuen kasuan bezala, ez dela sortzen kanpotiko ezertatik aitortzen da. Eta ez daiteke gauza ulergaitzagarrik gorputzak gogoarengan dezakeen eragintza-modu hori baino, beraren irudi bat helaraz diezaion hain ezberdina eta naturaz aurkakoa ere omen den substantzia bati.

Egitatezko arazoa baita zentzuen pertzepzioak, euron antzeko diratekeen kanpotiko objektuen eraginez sortuak diren. Nola garbitu arazo hori? Esperientziak, noski, horren antzeko arazo guztiak bezalaxe. Baina kasu honetan esperientzia erabat ixilik dago, eta hala behar du. Gogoak ez du inoiz beste ezer beregan pertzepzioak izan ezean, hauek objektuekiko duketen konexioaren esperientziarik ezin erdiets dezakeelarik. Konexio hau suposatzeak ez du oinarriarik arean ere, beraz, arrazonamenduan.

120. Izaki Gorenaren egitasunera jotzea gure zentzuen egitasuna frogatzeko ustegabeko itzulinguru bat egitea da, noski. Haren egitasuna tartean balego nolabait arazo honetan, gure zentzuak erabat hutsezinak lirateke, ezinezko baita Hark

engainatzea gu inoiz. Zertan esanik ez gainera, behin kanpomundua zalantzan jarriz gero, argumenturik aurkitu ezinik gertatuko ginatkeela Izaki haren existentzia, eta bere atributurik ere, frogatzeko.

121. Puntu honetan, beraz, eszeptiko sakonen eta filosofikoenak beti aterako zaizkigu garaile, giza ezagutza eta ikerketaren gai guztiekiko zalantza unibertsala sartzen saiatzen direnean. Berezko instintuei eta jauginei jarraitzen diezula zentzuen egitasuna baieztatzen? Horiek ordea, esango dizute, pertzepzio edo irudi sentigarri huraxe dela sinestaraziko dizute kanpo-objektua. Printzipio hori baztertu egiten duzula iritzi razionalago bat erdiesteko, hots, pertzepziook kanpotiko zerbaiten irudikapenak besterik ez direla? Aldendu zara orduan zeure berezko joeretatik eta sentipen nabarienetatik, eta ez zara gauza hala ere zure arrazoi hori asebetetzeko, ezin baitu behin ere argumentu konbentzigarririk aurkitu, esperientzian oinarrituz, pertzepziook kanpo-objekturen batekin loturik daudela frogatzeko.

122. Bada mota horretako topiko eszeptiko bat, filosofia sakonetik datorrena, gure arreta mereziko lukeena, baltz ere beharrezko halako sakontasunetan murgiltzea, helburu serio baterako ezer gutxi balio dezaketen argumentuen eta arrazoiaren bila. Ikertzaile moderno guztiek onartzen dutenez, objektuen kualitate sentigarri guztiak, hala nola gogortasuna, biguntasuna, berotasuna, hoztasuna, zurtasuna, beztasuna eta abar, sekundarioak dira soil-soilik eta ez dira objektuetan eurretan existitzen, baizik gogoaren pertzepzioak ditugu, eurok irudika ditzakeen ezelako kanpo-arketipo edo eredurik gabekoak. Hau honela onartzen bada kualitate sekundarioei buruz, berdin balio beharko du kualitate primariotzat hartzen diren hedadurari eta sendartasunari dagokienez ere, lehenengoek baino titulu gehiagorik ez dutelarik azken hauek deitura

horren jabe izateko. Hedaduraren ideia ikusmen- eta sentipen-zentzuen bidez lortu ohi da bere osotasunean, eta zentzuez somaturiko kualitateak oro gogoan badaude eta ez objektuan, konklusio berberak balio beharko du hedaduraren ideiarako ere, ideia sentigarrien edo kualitate sekundarioen ideien menpe baitago erabat. Ez dago ezer konklusio honetatik salba gaitzakeenik, kualitate primario hauen ideiak *abstrakzioz* erdiesten direla baiezteza ez bada, eta iritzi hau, zehatz-mehatz aztertzen badugu, ulertezina dela aurkituko dugu eta absurdua ere gainera. Ez ukigarri ez ikusgarri den hedadura bat ezin da inolaz bururatu. Eta halaxe berdin dago giza adimenaren irispideaz gaindi, ez gogorra ezta biguna, ez zuria ezta beltza den hedadura ukigarri edo ikusgarri bat. Saia bedi edonor triangelu bat orokorrean bururutzen, ez *isoszele* ez *eskaleno* dena, eta bere aldeen artean luzera edo proportzio jakinik ez duena; laster ohartuko da abstrakzioari eta ideia orokorrei buruzko nozio eskolastiko guztien zentzugarritasunaz.²⁷

123. Hortaz, hurrengo honetan datza zentzuen ebidentziarekiko edo kanpo-existentziaren aldeko iritziarekiko lehen objekzio filosofikoa: delako iritzi hori arrazoiaren aurkako dela, baldin eta berezko instintuan badu oinarria, eta arrazoiaren baldin badu, berezko instintuaren aurkako dela orduan, berarekin ez dakarrelarik bitartean ikertzaile inpartzial bat konbentzi dezakeen ebidentzia razionalik. Urrunago doa bigarren objekzioa oraindik, iritzi hura arrazoiaren aurkakotzat hartzen duenean, arrazoiaren printzipioa baldin bada behintzat kualitate sentigarriak oro gogoaren baitako direla eta ez objektuan daudenak. Kendu materiari bere kualitate ulergarri guztiak, primarioak eta sekundarioak, biak, eta suntsitua duzu nolabait, ezezagun eta esplikagaitz den halako *zerbait* baizik geratzen ez delarik gure pertzepzioen kausatzat: hain nozio inperfektua ezen ez dela izango eszeptiko bat ere horren aurka egitea mezezi duela uste izango duenik.

II PARTEA

124. Nabarmenkeria dirudike eszeptikoen saioak, argumentu eta arrazoiketa bidez *arrazoia* suntsitzekoak, baina horixe da euren ikerketa eta eztabaida guztien helburu nagusia. Hortxe dabilta objekzio bila, bietarako, bai gure arrazonamendu abstraktueterako baita izatezko edo existentziazko zerei buruzkoetarako.

Edozein arrazonamendu *abstrakturen* kontrako objekzio nagusia espazio eta denboraren ideietatik dator: ideiak, hauek, oso argiak eta ulerkorrak gertatzen direnak bizitza arruntean eta arduragabeko ikuspegi baten kasuan, baina absurdutasunez eta kontraesanez beterik diruditen printzipioak agertzen dituztenak, zientzia sakonen bahetik pasatzean (eta zientzia hauen objektu nagusi izatean). Gizateriaren arrazoi hezikaitza mentzeko eta hezteko asmatuak izan diren *dogma* klerikalen artean, zentzuarentzat ez zen harrigarriagorik gertatuko hedaduraren infiniturainoko zatigarritasunaren doktrina baino, bere ondorio guztiekin, horren ponposki bestalde erakusten dizkigutenak geometria eta metafisikari denek, garaile-bozkario moduko batez. Kantitate erreal bat, edozein kantitate finitu baino infinituki txikiagoa, infinituki txikiago diren kantitateak edukiz, eta horrela elkarren segidan *infinituraino*: hain eraikuntza ausarta eta harrigarria berau, ezen astunegia baita ezein demostrazio-saiok euts diezaion, zeren eta giza arrazoimenaren printzipio argien eta naturalenekin baitago muturka.²⁸ Baina gauza hau harrigarriago egiten duena, itxura baten iritzi absurdu direnok arrazoiketa-kate ezin argiago eta naturalago batean zimendatzen direla, eta ezin ditugula premisak onartu konklusioak ametitu gabe. Ezer ere ez zirkuluen eta triangeluen propietateei dagozkien konklusio mordoa baino konbentzigarriago eta konplituagorik, eta hala ere, nola ukatu, behin haiek onartu ondoren, zirkuluaren eta bere tangentearen arteko ukipen-an-

gelua edozein angelu zuzen baino infinituki txikiagoa denik; zirkuluaren diametroa *infinituraino* gehitzen duzun heinean, txikiago bilakatzen dela ukipen-angelu hura, *infinituraino* hau ere; eta beste kurba batzuen eta euren tangenteen arteko ukipen-angelua infinituki txikiago izan daitekeela beste edozein zirkulu eta bere tangentearen artekoa baino, eta horrela segidan *infinituraino*?

Triangelu baten hiru angeluak angelu zuzen biren balio-kide direla demostratzen duen printzipioa bezain estakuruga-bea dirudi printzipio hauen demostrazioak, nahiz eta lehen iritzi hori erraza eta naturala izan eta kontraesanez eta absurduz bete, ostera, bigarrena. Arrazoimenak, oraingoan, harridura eta duda-muda bezalako batean behera hondoratzean dirudi, bere buruaz eta zapaltzen duen zoruaz ere seguru ez egoteraino, eszeptikoa ez baletor bere iradokizunekin. Ikusi badakusa argi txit bizi bat, zenbait zoko argitzen duena, baina ilunbe ilunenaren ertzak ukituz. Eta argi-ilunon artean hain aurkitzen da lausoturik eta nahasturik, non ia ezinezko zaion ezeren alde makurtzea ziurtasunez.

125. Nabariago bilakatzen dela dirudi oraindik, daitekeen neurrian behintzat, zientzia abstraktuen zehaztapen ausart hauen absurdutasuna, hedaduratik denborara pasatzean. Denboragune errealean kopuru infinituak, jarraian igaroz eta bata bestearen ondoren agortuz doanak, hain kontraesan nabaria dirudi, non ez baita inortxo ere —nik uste— ametitzeko kapaz izango denik sekula, bere ezaguera hobetu beharrean usteldu ez badiote egin bederen zientziok.

Baina urduri eta kezkatu egotea dauka hala ere arrazoimenak, oraindik, itxurazko absurdu eta kontraesanek zirikatutik ezagutu beharra izan duen eszeptizismo horrekiko ere. Ideia argi eta bereizi batek nola ukan ditzakeen berberari edo beste edozein ideia argi eta bereiziri kontraesan diezaioketen

zertzeladak, zeharo da ulertezina eta, agian, formula daitekeen beste edozein proposizio bezain absurdua. Hala da ezen ez dago eszeptikoago izan daitekeenik, edo dudaz eta zalantzaz beteago, geometriari edo kantitatearen zientziari buruzko paradoxako konklusio zenbaitetik sorturiko eszeptizismo hauxe baino.²⁹

126. Ebidentzia *moralari* edo izatezko zerei buruzko objektio eszeptikoak, *herrikoiak* izan daitezke edota *filosofikoak*. Objektio herrikoiak giza adimenaren berezko ahultasunetik eratorriak dira: garai eta lurralde ezberdinetan izan diren iritzi kontraesankorrak; gure judizioen aldaketak, gaixotasun ala osasun garaian izan, gazte ala zahartzaroan, oparotasun ala gabezialdian; norbanako bakoitzaren beraren iritzien eta sentimenduen arteko etengabeko kontraesana; eta horrelako beste topiko asko. Alferrekoa da puntu honi gehiago ekitea. Objektiook ahul jarraituko dute. Zeren eta eguneroko bizitzan izateari eta existentziari buruz arrazonatzen dugunez beti, eta ezin genezakeenez segurki iraun halako argumentuak etengabe erabili gabe, ebidentzia hau suntsiarazteko gutxiegi gertatuko da hortik datorren edozein objektio herrikoi. *Pirronismoaren* edo eszeptizismoaren gehiegizko printzipioen suntsitzailea ekintza da, eguneroko bizitzako beharrak eta eginkizunak. Printzipio haiek bai izan daitezkeela arrakastatsu eta garaile eskoletan, zaila delarik egiaz, ezinezko ez esateagatik, han errefusatuak izatea. Baina itzaletik atera eta, gure grina eta sentipenen eragile diren objektu errealean presentziari esker, naturaren printzipio ahaltsuagoen aurrez aurre jarriak izatean, kea bezala desagertzen dira, eszeptiko ausartena ere beste gizakumeon maila berdinean utziz.

127. Eszeptikoak, beraz, bestela egingo du bere eremu horretara mugatzen bada, ikerketa sakonagoetatik sortuak diren objektio *filosofiko* haiek azalduz. Hemen bai duela, itxuraz, garaile ateratzeko aukera zabala, hurrengo hau ondo azpi-

marratzen badaki: zentzuen edo memoriaren lekukotasunez gaindi datzakeen izatezko zerei buruzko gure ebidentzia guztia, kausa eta efektuaren arteko erlaziotik eratorria dugula; ez daukagula beste ideiarik erlazio honi buruz, bi objektu sarritan bata bestearekin *elkarturik* izatearena baino; ez daukagula konbentzi gaitzakeen ezelako argumenturik ere, gure esperientzia horretan sarritan elkaturik gertatu diren objektuok halaxe gertatuko direla dioskunik beste kasu batzuetan ere modu berean elkartuak; eta ezerk ere ez garamatzala inferentzia honetara, ohiturak edo gure izaeraren berezko instintu jakin batak ez bada, zaila daitekeena, egia esan, aurka diezaigun, baina, beste instintu batzuen antzera, engainagarria eta iruzurtia izan daitekeena bera ere. Eszeptikoak argumentu hauei daragien bitartean, bere indarra erakusten dihardu, edo hobeki, egiatan, bere eta gure ahultasuna; segurantz eta usteak oro suntsitu dituela ematen duelarik une batez bederen. Argumentu horiek zabalagora ere heda daitezke, berorietatik gizartearen onura edo probetxu iraunkorren bat atera ahal dela uste izanez gero noizbait.

128. Zeren eta honexetan baitatza eszeptizismo *gehiegizkoaren* kontrako objektio nagusia eta trabagarriena, bere indar eta gogortasun osoarekin dirauen bitartean ez daitekeela inoiz hartatik ezelako onura iraunkorrik atera. Aski dugu galdetzea honelako eszeptiko bati *zein den bere asmoa eta zer den nahi duena bere ikerketa bitxi guzti horiekin*. Nahasturik agertuko zaizu bapatean, zer erantzun jakin gabe. Kopernikar edo Ptolomeotar batek, bakoitzak bere astronomi sistema ezberdina defendatuz, bai espero dezakeela bere entzulegoarengan konstante eta iraunkor mantentzeko daitekeen uste sendo bat eragitea. Iraunkorrak izateaz gain, gizakiaren jokabidean eta portaeran eragin dezaketan printzipioak azaltzen ditu Estoiko edo Epikurear batek. Baina Pirroniar batek ezin du espero bere filosofiak eragipen iraunkorrik edukitzea adimenduan, edota balu ere, gizartearentzat mesedegarri izatea bere eragin hori.

Aitzitik, onartu beharra du, zer edo zer onartzeko prest baldin badago, bere printzipioak unibertsalki eta iraunkorki nagusituz gero, suntsitzea baino ez daukala giza bizitza osoak. Etenda geldituko litzateke bapatean diskurtso oro eta egintza oro, eta halako letargia oso batean murgildurik gizakumea, beronen existentzia miserable honi bukaera eman arte naturaren beharrian betegabeek. Egia da zoritxarreko gertaera hori jazoko den beldur handirik ez dugula izan behar. Aski sendoa baita betiere natura printzipioen aurka. Eta pirroniar batek bere burua edo besteena lilura eta nahas baditzake ere bere arrazona-mendu sakonekin, nahikoa da bizitzako lehenengo gertaera arruntena haren ezbai eta eskrupulu guztiak uxatzeko eta beste edozein sektatako filosofoen parean jartzeko ekintza- edo espekulazio-puntu guztietan, edo ikerketa filosofikoez sekula arduratu ez direnen parean. Amets horretatik ateratzean, bera izango da lehena bere buruari zuzendutako irrian partehartzen eta bere objektio guztiak jolasa baino ez direla aitortzen, gizakumearen izaera gurati hori adierazteko xedea besterik ukan ez dezaketenak: ekin, arrazoitu eta sinestu beharra daukan gizakumearen izaera, nahiz eta ikerketa artatsuenek ere kapaz izan ez eragiketon funtsari buruzko erantzun asebetegarririk lortzeko, edota eragiketon kontra sor daitezkeen objektioak baztertzeko.

III PARTEA

129. Bada, egia esan, eszeptizismo *mantsoago* edo filosofia *akademiko* bat, era berean iraunkorra eta probetxagarria izan daitekeena, eta Pirronismo edo eszeptizismo *gehiegizko* honen ondotik hein batean ondoriozta daitekeena, zentzuak eta hausnarketak zuzentzen dituztenean, neurri batean, berorren zalantza zehazgabeak. Gizaterian gehienek jotzen dute berez baiezpenera eta dogmatiko izatera beren iritzietan, eta objek-

tuak alde batetik baino ez dakuskitelarik, kontrajarritako argumentuen ideiarik ere gabe, arineketan abiatzen dira euren joerako printzipioak besarkatzera, erruki pitinik ere ez daukatelarik aurkako sentimenduak agertzen dituztenentzat. Zalantzan edo aztertzen jartzeak durditu egiten die adimena, grina galgatu eta beren ekimena etenda utzi. Artega dira, beraz, hain ezeroso zaien egoera hortatik irten arte, eta ez dira sentitzen gero nahikoa urrundak direnik bertatik euren baizpenaren bortxaz eta sinespidearen temaz. Baina giza adimena, bere egoera perfektuan ere eta erabakietan neurri handienak hartu arren, zein eritasun bitxiek josita dagoen ohartzerik balute honako arrazonatzaile dogmatiko hauek, apaltasun eta erreserba gehiago le-torkie, zer esanik ez, gogoeta horretatik, eta beren buruekiko iritzi ona nahiz antagonisten kontrako aurriritziak gutxitzea. Kotsidera beza eskolagabeak ikasiaren jarrera, beronen ikasketak eta gogoetaren abantaila guztiekin ere normalki segur aurkitzen ez delarik oraindik erabakitzerakoan; eta ikasiren bat, berezko izaerarengatik edo, harrokeriara edo temara markurtzen bada, Pirronismo tantatxo bat nahikoa du harrotasunok baretzeko, ikustaraztea baino ez zeinbeste huskeria gertatzen diren berak gainerako kideei atera ahal izan dizkien abantaila guztiak, giza naturari atxekirik dagoen nahaste eta anabasa unibertsalarekin alderatuz. Bada nagusiki zalantza, kontu- eta apaltasun-neurri bat arrazonatzaile jatorrari lagundu beharko liokeena bere ikerkuntza eta erabaki guztietan.

130. Giza adimenaren gaitasun meharrari hobeki dagozkion gaietara gure ikerketak mugatzea da beste eszeptizismo *mantso* mota bat, Pirroniarren zalantza eta eskrupuluen ondorio naturala izan daitekeena eta gizateriarentzat probetxuzkoa. Goinahia da berez, izan ere, gizakumearen *irudimena*, urrutiko eta ezohizko den oro atsegin duena eta kontrolik gabe kurritzea laket zaiona espazioaren eta denboraren gune urrunenetara, ohiturak etxekegi bihurtu dizkion objektuetatik aldendu nahian. *Judizio* egokiak alderantzizko metodoari jarraitzen dio

eta, ikerketa goitiar eta urrunekoak saihestuz, bizitza arruntari lotzen zaio, eguneroko praktika eta esperientziaren pean dauden objektuetara mugatuz eta poeta eta hizlarien edertasunetarako utziz goiengo gaiak, edota apaizen eta politikarien arteetarako. Eta ezer ere ez baliagarriagorik halako jarrera osasungarrira gida gaitzan, zalantza pirroniarraren indarraz behingoz erabat konbentzitzea baino, eta ezer ere ez dagoela hortik libra gaitzakeenik berezko senaren ahalmen gotorra izan ezean. Filosofiarako zaletasuna dutenek jarraitu egingo dute oraindik ere euren azterketekin, gogoan baitute burubide filosofikoak ez direla besterik, zeregin horretan iharduteak lemaken berehalako atseginez aparte, bizitza arruntari buruzko gogoetak baino, sistematizatuak eta zuzenduak. Baina bizitza arruntaz harago joateko tentaziorik ez dute izango, ondo gogoan baitute erabiltzen dituzten ahalbideen inpefektzioa, irispide murrizta eta eragiketa zehazgabeak. Ezin diogunean arrazoi nahikorik aurkitu harri bat erori edo suak erre egingo duela sinesteari, milaka esperimenturen ondoren, nola bada ahal izango gara pozik geratu munduaren sorrerari buruz eta betierekotasunetik betierekotasunera naturak duen egoerari buruz guk molda ditzakegun zehaztapenekin?

Hain da izan ere arrazoizko, edozein alderditik begirata, gure ikerketon mugatasun hertsia, non aski baita giza adimenduaren berezko ahalmenei buruzko azterketa azalekoe-na egitea eta ahalmenok bere objektuekin alderatzea, mugatasun hori gomendagarri bihur dakigun. Orduan aurkitu ahal izango dugu zeintzu diren zientziaren eta ikerketaren subjektu propioak.

131. Iruditzen zait zientzia abstraktuen eta demostrazioaren objektu bakarrak kantitatea eta kopurua direla, eta ezagutza-mota perfektuago hau beste alor batzuetara hedatzen saiatzea sofistria eta zakur-ametsa baino ez dela. Kantitatearen eta kopuruaren osagaiak guztiz antzekoak direlarik, korapilo-

tsu eta konplexu bihurtzen dira euren arteko erlazioak, eta ez dago gauza bitxiagorik, eta era berean baliagarriagorik, euren agerkeria ezberdinetan erakusten duten berdintasuna edo ezberdintasuna hautematea baino, bitarteko anitz erabiliz. Baina beste ideia guztiak, ostera, bata bestetik argiro bereizi eta ezberdinak direlarik, euren ezberdintasunaz ohartzetik harago ezin gara joan inoiz, gure arakapen guztiak gorabehera, eta, gogoeta xume batez, gauza bata ez dela bestea esatea baino ez dugu. Edota zailtasunen bat balego burubide hauetarako, hitzen esangura zehazgabetik letorkeena baino ez da, definizio egokiagoz zuzentzen dena.

Nahiz eta terminoak oso zehazki definituak izan, ezin da jakin *hipotenusaren berbidura beste alde bien berbiduraren baliokide denik*, arrazoiketa- eta ikerketa-saiorik gabe; baina *jabegorik ez dagoenetan ezin da bidegabekeriarik egon* proposizioak konbentzi gaitzan, terminoak definitzea baino ez dago eta bidegabekeria jabegoaren bortxaketa dela esatea. Definizio inperfektuago bat besterik ez baita, izan ere, proposizio hori. Gauza bera gertatzen da jakintzaren beste edozein eremutan aurki daitezkeen arrazonamendu silogistiko delako guztiekin, kantitatearen eta kopuruaren zientzietan ezik: eta hauexek dira, nik uste, ezagutzaren eta demostrazioaren objektu propio bakartzat har daitezkeenak kezkarik gabe.

132. Gizakumeen beste ikerketa guztiak izatezko edo existentziatzko zerei baino ez dagozkie, eta hauek, argi eta garbi, demostraezinak dira. *Izatez dena*, baliteke *ez izatea*. Izatezko ezein ukapenek ere ez dezake inplika kontraesanik. Edozein izakiren existentzia-eza, salbuespenik gabe, haren existentziaren ideia bezain ideia argi eta bereizia da. Zerbait ez dela dioen proposizioa, faltsua izan arren, ez da gutxiago bururagarri eta adigarri badela dioena baino. Gauza ezberdina da propioki Zientzia delakoen kasua. Nahasia eta ulergaitza da hemen egiazkoa ez den edozein proposizio. Proposizio faltsua

da, eta nehoiz ezin burura daitekeena argi, 64ren erro kubikoa berdin 10en erdia dela. Baina Zesar, edo Gabriel aingerua, edo beste gizakiren bat ez dela inoiz existitu esatea izan daiteke proposizio faltsua, baina zeharo bururagarria da hala ere, eta ez du inplikatzeko kontraesanik.

Beraz, edozein izakiren existentzia, bere kausa edo bere efektutiko argumentuen bitartez baino ezin froga daiteke, eta esperientzian oinarriturikoak ditugu soil-soilik argumentuok.

A priori arrazonatuz gero, edozer gauzak dirudi gai beste edozer sortarazteko. Harriko kor baten erorketak berak itzal dezake, guk dakigunetik, eguzkia; edota gizaki baten nahiak mantendu planetak beren orbiten barruan. Esperientzia da soil-soilik, kausaren eta efektuaren izatea eta mugak erakusten dizkiguna, eta objektu baten existentzia beste batenetik inferitzeko gai egiten gaituena.³⁰ Hauxe da arrazonamendu moralaren funtsa, giza ezagutzaren zati handiena osatzen duena eta giza egintza eta portaera guztiaren sorburu dena.

Arrazonamendu moralak, edo gertakari orokorreari edo gertakari partikularrei dagozkienak dira. Hauei dagozkie bizi-tzako delibero guztiak, baita historiari, kronologiari, geografiari eta astronomiari buruzko zehazkizunak ere.

Gertakari orokorreari buruz diharduten zientziak dira politika, filosofia naturala, fisika, kimika, etab., objektu-mota oso baten kualitate, kausa eta efektuei buruzko ikerketari ekiten diotelarik.

Jainkozkoa edo Teologiari dagokionez, Jainko baten existentzia eta arimen hilezkortasuna frogatzen duenez, zati bat gertakari partikularrei buruzko arrazonaketez osatzen da eta beste zati bat orokorreari buruzkoen. Badu oinarri bat *arrazoian*, esperientzia euskarri duen heinean, baina *fedea* eta jainko-errebeldia du oinarri onena eta tinkoena.

Morala eta Kritika ez dira propioki enteleguaren objektu, gustuarenak eta sentimenduarenak diren hainbatean. Eder-tasuna, dela morala dela naturala, propioki hauteman baino sentitu egiten da gehiago. Edota hari buruz arrazonatzerakoan eta haren eredu standarra finkatzen saiatzean, beste gertakari berri bat kontsideratzera pasatzen gara, hots: gizateriaren gustu orokorra edo arrazonaketaren eta ikerketaren objektu izan daitekeen halako egitatearen bat.

Liburutegiak berrikuskatzera bagindoaz honako printzipio hauetaz konbentziturik, a zer nolako triskantzak egingo genituzkeen! Hartu eskuan edozein ale, teologia edo metafisika eskolastikoari buruzkoa adibidez, eta galdetu baino ez: *Ba al dauka kantitateari eta kopuruari buruzko arrazonaketa abstrakturen bat?* Ez. *Ba al dauka izatezko eta existentziazko zereari buruzko arrazonaketa esperimentalen bat?* Ez. Sutara orduan: ez baitigu sofisteria eta irudikeria besterik ekarriko.

Oharrak

¹ Baliteke hauxe bakarrik esan nahi izatea sortzetiko ideiak ukatu zituzten haiek: ideiak oro gure inpresioen kopiak baizik ez direla; nahiz eta, aitortu behar, erabili zituzten terminoak ez zituztela beraien doktrinari buruzko errakuntza guztiei ekidin ahal izateko adina arretaz aukeratu eta behar beste zehaztasunez definitu. Zeren eta zer esan nahi baita *sortzetikoa* hitzaz? Sortzetikoa esateak naturala esan nahi badu, gogoaren hautemate eta ideia guztiak direla onartu behar sortzetikoak edo naturalak, hartzen dugun zentzuan hartu azken hitz hau, ezohizko denaren edota artifizial edo mirakulutsu denaren aurkako gisa. Jaiotzaz batera datorkiguna esan nahi bada sortzetikoa esatean, ergelkeria dirudi eztabaidatzeak, ezen ez baitu merezi ikertzea zein unetan hasten den pentsamena, gure jaiotza aurretik edo ostean. Badirudi, berriz ere, oso zentzu zabalean hartu ohi dutela *ideia* hitza LOCKEek eta beste batzuek, gure hautemate, sentsazio eta grina guztiei eta baita gure pentsamenduei ere dagokiena adierazteko. Eta hain zuzen ere zentzu honetan zer esan ahal den jakin nahi nuke, ez di-

rela sortzetikoak baieztzen denean norbere buruaren maitasuna, jasandako kalteengatiko herra edo sexuen arteko grina.

Baina *inpresio* eta *ideia* hitzok goian azaldutako zentzuan ontzat hartuz, eta *sotzetikotzat* jatorrizkoa edo ezein aurretiko hautematek kopiatu gabekoa ulertuz gero, zera baieztatzeko, gure inpresioak oro sortzetikoak direla eta gure ideiak ez-sortzetikoak.

Zintzo berba eginez, zera uste dudala aitortu behar dut, LOCKE puntu honetan eskolastikoeke eraman zutela herrestan, definitugabeko terminoak erabiliz luzatzen baitituzte hauek euron eztabaida aspergarriak, gakora sekula ere heldu gabe. Honen antzeko anbiguitasun eta ingurumariz jositak daude itxura betetan filosofo haren arrazonamenduak gai honi buruz eta baita beste gai askori buruz ere.

² Antza

³ Aldamentasuna

⁴ Kausa eta Efektua

⁵ Adibidez, Kontrastasuna edo Kontrakotasuna ere bada ideien arteko konexio bat, baina *Kausapenaren* eta

Antzekotasunaren nahasizat har daiteke. Bi objektu kontrako gertatzen direnean, batak suntsitu egiten du bestea; hots, honen eta beste edozein objekturen deuseztatzearen kausak, objektuon aurretiko existentziaren ideia darama berarekin.

⁶ «Ahalmen» hitza zentzu zabalean eta herrikoian darabilgu hemen. Hitz horren azalpen zehatzagoak ebidentzia gehigarria emango lioke argumentu honi. Ikus VII Atalean.

⁷ Ez da gauza ohizkoagorik idazleen artean, moralezko, politikazko edo fisikazko gaitan ere, *arrazoien* eta *esperientziaren* arteko bereizketa egitea baino, eta argumentazio-mota bi horiek bata bestetik txit ezberdinak direla suposatzea baino. Gure entelegu-ahalmenen ondorio soilizat hartu ohi dira lehenengoak, gauzen izaera *a priori* kontsideratuz eta berorien eragiketari jarraitu beharko dioten efektuak aztertuz, zientziaren eta filoso-fiaren printzipio bereziak finkatzen dituztenak. Azkenak, aldiz, zentzutik eta behaketatik datozela sopsatu ohi da oso-osorik, zentzuz eta behaketaz ikas baitezakegu objektu partikularren eragiketarik egiatan ondorioztatu dena, eta hortik etorkizunean ere zer ondoriozta daitekeen inferitzeko gai izan. Horrela, adibidez, gobernu zibilar eta lege-konstituzio bati ezartzen zaizkion muga eta murrizketak biatar defenda daitezke, *arrazoiz*, gizakerearen ahultasun eta usteltasun handiaz erreflexionatzearan erakusten baitigu arrazoiak ezin dela libreki ezain giza-kiren esku jarri mugagabeko autorita-

terik, edota *esperientziaz* eta histori-az, hauek esaten baitigute ongi aski nolako abusu ikaragarriak ekarri dituen handinahiak lurralde eta garai orotan, halako konfidantza ematearren zuhurgabeki.

Arrazoien eta esperientziaren arteko bereizketa berau egiten jarraitu ohi da bizitzako jokabideari buruzko gure delibero guztietan. Esperientzia duten politikari, jeneral, mediku edo merkatariei entzun eta jarraitu egiten zaien bitartean, praktikarik ez daukan apendiz, oster, berezko talentu guztiak eduki arren, ez da aintzako-tzat hartua, eta bai gutxietsia. Nahiz eta onartu onartzen den arrazoimenak oso hipotesi txalagarriak hezurmami ditzakeela jokabide jakin baten ondorioei buruz zirkunstantzia jakin batzuetan, ezosotzat jo ohi da arrazoimena, hala ere, esperientziaren laguntzarik ez badu; esperientzia bakarrik baita gai ikasketatik eta hausnarketatik ateratako printzipioei egonkortasuna eta ziurtasuna eranste-ko.

Baina bereizkuntza hau unibertsalki onartua izan arren, bai ekintzaren baita espekulazioaren alorrean, ez dut izango batere damurik, hala eta guztiz ere, sakonean okerra dela esateko, edo azalezkoa gutxienez.

Has gaitezen aztertzen goian aipatu-tako edozein zientzian arrazoiketa eta hausnarketaren efektu soilizat dauzkagun argumentu horiek, eta aurkituko dugu ezen, ez arrazoa bai-zik behaketa eta esperientzia baino ezin iratxeki diezaiokeen konklusio

edo printzipio orokorren batean dute-la bukaera azken batean. Argumentu hauen eta esperientzia hutsaren emaritzat arrunki hartu ohi diren printzipio edo arauen artean dagoen ezberdintasun bakarra honexetan datza, lehenengoak ezin era daitezkeela behatutakoari buruzko pentsamendu eta hausnarketa prozesuren bat ez bada tartean, behatutako horren tasunak kontutan hartzeko eta ondorioak eza-gutzeko, eta bigarren kasuan, aldiz, esperientziaz jasotako gertaera hori erabat eta doi-doi dela egoera partikular baten emari gisa inferitzen dugunaren antzekoa. Tiberio edo Neron baten historiari gure monarkengan, lege eta senatuengandik aske egonik, sor daitezkeen tiranien beldurra dakargu; hala ere, aski dugu bizitza pribatuko edozein iruzur edo ankerkeria behatzea, gogoeta pixka baten laguntzaz, beldur berbera sorrarazteko; gizakerari dagokion ustelkeria orokorraren adibide zaigulako, nolako arriskuan sartuko ginatkeen erakusten diguna gizateriarengan halako konfidantza osoa jarriz gero. Bi kasutan, esperientzia da gure inferentziaren eta konklusioaren oinarria azken batean.

Ez da inor ere horren gazte eta esperientziagabekoa, arau orokor eta zuzenak ez ateratzeko, behaketaren bidez giza arazoei eta bizitzako jokabideari buruz. Aitortu behar, hala ere, praktikara eramateko orduan, bete-bete huts egiteko zorian aurkituko dela bat, bai denbora eta bai esperientzia gehixeagok arauok argitzen ez dizkioten bitartean eta euron erabilera

eta aplikazio egokia irakasten ez dioten bitartean. Zertzelada berezi asko eta itxuraz nimifio direnak izan ohi dira edozein egoera edo jazoeratan, talentu handieneko gizonak ere erreparatzen ez dienak, nahiz eta haien menpe egon guztiz bere konklusioen zuzentasuna eta bere jokabidearen zuhurtasuna ondorioz. Ez dago gainera esan beharrik, gazte hasberri bati ez zaizkiola behar den unean bururatzen beti ohar orokorrak eta arau nagusiak, eta ezin dituela behar adina patxadaz eta bereizpenez aplikatu ere berehala. Hauxe da egia, esperientziagabeko arrazonatzaile batek ez lukeela arean ere arrazoituko, zeharo balitz esperientziagabea; eta izaera hau edozein gizakiri iratxekitzen dugunean zentzu konparatiboan baino ez dugula egiten, gradu txikiago edo osagabe batean daukagularik hura esperientziaduntzat.

⁸ «Naturane nobis, inquit, datum dicam, a errore quodam, ut, cum ea loca videamus, in quibus memoria dignos viros acceperimus multum esse versatos, magis moveamur, quam siquando eorum ipsorum aut facta audiamus aut scriptum aliquid legamus? Velut ego nunc moveor. Venit enim mihi Plato in mentem, quem accepimus primum hic disputare solitum: cuius etiam illi hortuli propinqui non memoriam solum mihi afferunt, sed ipsum videntur in conspectu meo hic ponere. Hic Speusippus, hic Xenocrates, hic eius auditor Polemo; cuius ipsa illa sessio fuit, quam videmus. Equidem etiam curiam nostram, Hostilium dico, non

hanc novam, quae mihi minor esse videtur postquam est maior, solebam intuens, Scipionem, Catonem, Laelium, nostrum vero im primis avum cogitare. Tanta vis admonitionis est in locis; ut non sine causa ex his memoriae deducta sit disciplina.»

Cicero de Finibus. Lib. v.

⁹ Locke jaunak demostratzaile eta probabletan banatzen ditu arrazonamendu guztiak. Ikuspegi honen arabera, probable baino ez litzateke gizakiok oro hil beharra duguna edota bihar goizean eguzkia aterako dena. Baina, gure hizkera hobeki egokitzearren erabili ohi denera, *demostrazio*, *froga* eta *argumentu probabletan* banatu behar ditugu arrazonamenduak, ezbairako ez eztabaidarako lekurik uzten ez duten esperientziatikako argumentuak ulertuz frogatzen.

¹⁰ Zera dio Locke jaunak ahalari buruz duen kapituluan, materialen produktio berriak gertatzen direna dakigularik esperientziaz, eta horiek sorrarazteko ahalmena duen ahalekin bat izan behar duela nonbait konkluditzen dugularik, horrela iristen garelaz azkenean arrazonamendu honen bidez ahalaren ideiarra. Baina ez dago arrazonamendurik inoiz ideia berri, jatorrizko eta sinplerik eman diezagukenik, filosofo honek beronek aitortzen duenez. Hura ezin izan, beraz, ideia honen jatorria.

¹¹ Zera argudia daiteke, gorputzetan aurkitu ohi dugun erresistentzia dela, gure ahalmen guztia martxan jarraraziz maiz indarra erabiltzera behartzen gaituen huraxe, indarraren eta ahala-

ren ideia damaiguna. Kontzienteki erreparatzen diogun *nisus* edo ahalegin gogor horixe dela ahalaren ideia kopiatu ohi dugun jatorrizko inpresioa. Baina, *lehenik eta behin*, erresistentzia edo indarrezko ezarketa hori inoiz ezin suposa diezaiok egun objektu-mordo bati iratxekitzen diogu «ahala»; Izaki Gorenari adibidez, ezin erresistentziarekin zerikusik ez duenari; edo adimenari, bere ideietan eta ataletan duen aginpidea dela-eta pentsatze eta mugitze arruntean, baina kasu honetan ere efektuak batera ahaleginik edo indarrezko eraginik gabe jarraitzen dionean orpoz-orpo nahimenari; eta materia bizigabeari, sentipen honetarako gai ez delarik. *Bigarrenik*, erresistentzia hori gaintzeko ahalegin-sentipen honi ez zaio loturarik aurkitzen inolako gertaerarekin ere: jarraian datorrena bai ezagutzen dugula esperientziaz, baina ezingo genuke *a priori* ezagutu. Onartu beharra dago, hala ere, esperientziaz dugun animal *nisus* horrek, ezin digun arren ahalaren ideia zehatz eta doirik eman, bai erantzuten diola, neurri handi batean, hartatik ateratzen dugun ideia arrunt zehazgabeari.

¹² Ez daukat zehatz-mehatz aztertu beharrik filosofia berrian hain aipatua den eta materialari adskribatzen zaion *vis inertiae* hori. Esperientziak irakasten digunez, mugimenduan edo geldiunean dagoen gorputz batek bere egoera horretan jarraitzen du mugagabeki, kausa berri batek egoera horretatik ateratzen ez duen bitartean; eta gorputz bultzatu batek, be-

rak lortzen duen adina mugimen jasotzen duela gorputz bultzarazletik. Egitateak dira hauek. Horri *vis inertiae* deitzen diogunean, egitateok nabarmendu baino ez ditugu egiten, ahal inertearen ideia lortzeko asmorik gabe; grabitateaz ari garenean egiten dugun antzera, efektu jakin batzuk nabarmendu, ahal aktibo hori ulertzeko asmorik gabe. Inoiz ez zen izan ISAAC NEWTONen asmoa bigarren kausei euren indar edo energia guztia kentzea, nahiz eta haren jarraitzaile batzuk saiatu izan diren teoria hori ezartzen haren autoritatearen itzalera. Guztiz alderantziz, filosofo handi hark eterezko isurkin aktibo batera jo zuen erakarpen unibertsala esplikatzeko, nahiz eta aski zuhur eta apala izan zen, hura hipotesi bat besterik ez zela aitortzeko, larregi eragiterik merezi ez zuena, esperimendu gehiagorik gabe. Badela zerbait bitxia aitortu behar dut iritzien sinuan. DESCARTEsek dibinitatearen eraginkortasun unibertsal eta bakarraren doktrina eman zuen aditzera, lar erautsi gabe. MALEBRANCHE eta beste zenbait kartesiarrek horretan oinarritu zuten beren filosofia osoa. Ingalaterran, hala ere, ez zuen izan batera arrakastarik. LOCKEK, CLARKEK eta CUDWORTHek aintzakotzat ere ez dute hartu, baizik beti suposatu izan dute materialak benetako ahala duela, nahiz eta menpekoea eta eratorrizkoea izan. Zergatik bihurtu da, bada, hain arrakastatsu gure metafisiko modernoan artean?

¹³ Azalpen eta definizio hauen arabera, *ahalaren* ideia *kausarena* bezain

erlatiboa da, eta biek dute efektuaren batekiko erreferentzia edo aurrekoarekin etengabeki elkarturik dagoen gertaeraren batekiko erreferentzia. Bere efektuaren gradu edo kantitatea zehazten eta finkatzen duen objektu jakin baten alderdi *ezezaguna* kontsideratzean objektuon ahala deitzen diogu honi. Eta horren arabera, filosofo guztiek onartzen dute efektua dela ahalaren neurriera. Baina ahala berez nolakoa den ideiarekin bat baldin badute, zergatik ez dute neurtzen hura zuzenean? Mugimenduan dagoen gorputz baten indarra bere abiaduraren adinakoa edo bere abiadura berbidura ote den eztabaida hori ez litzateke erabaki behar, diot nik, gorputzaren efektuak denbora berdinetan edo ezberdinetan neurtuz, baizik zuzeneko neurketa eta konparaketaren bidez.

Indarra, Ahala, Energia eta horrelako hitzak hain maiz erabiltzeari dagokionez, barra-barra entzun ohi baitira berbeta arruntean zein filosofian, horrek ez du esan nahi kausaren eta efektuaren arteko printzipio elkartzailea ezagun zaigunik inolaz ere, edota gauza bata bestetik azken batean nola sortzen den arrazoi dezakegunik. Oso adiera zehazgabeak erantsi zaizkie hitz hauei beren erabilera arrunt horretan, eta oso ez-ziur eta nahasiak dira adierazten dituzten ideiak. Ezein animaliak ere ez dezake kanpo-gorputzik mugimenduan jarri, *nexus* edo saialdi baten sentipenik gabe, eta animalia guztiak daukate mugimenduan dagoen kanpo-objektu baten kolpe edo kontrajotzearen sen-

tipen edo inpresioa. Animali sentsazioak baino ez diren hauek, eurotatik inferentziarik *a priori* atera ez dezakegunak, objektu bizigabeei transferitzeko eta horrelako sentsazioak dituztela suposatzeke joera daukagu, mugimendua besterenganatzen edo jasotzen dutenetan.

Mugimen-komunikatzearen ideiarik guk esleitu gabe burutzen diren energi dagokienez, esperimenduz dugun etengabeko gertaeren elkartasuna hartzen dugu kontutan bakarrik, eta ideien artean ohiturazko konexio bat *sentitzen* dugunez gero, objektuei transferitzen diegu sentipen hori; ez baitago gauza arruntagorik kanpo-objektuei berauek eragindako barne-sentsazioak eratzekitzea baino.

¹⁴ Beste kausa bati egotz dakioke askatasunaren doktrina nagusitzea, hots, askatasunaren edo indiferentziaren halako sentsazio faltsua edo itxurazko esperientzia, gure ekintza askotan ohi duguna edo izan dezakeguna. Ekintza baten beharrezkotasuna, dela materiaren dela gogoaren ekintzan, ez da, propioki hitzeginez, egilearen dagoen dagoen kualitate bat, baizik ekintzaz hausnar dezakeen edozein izaki pentsatzaile edo adimendunengan; eta hurrengo honetan datza nagusiki, beren gogoetek ekintza jakin baten existentzia beste aurretiko objektu batzuetatik inferitzeko duten propietatean; eta askatasuna, behararren aurkako bezala, ez da besterik determinazio honen eza baino, objektu jakin baten ideiatik ondoko beste batenera igarotzean, edo ez igarotzean,

sentitzen dugun halako zehazgabetsun edo indiferentzia modukoa. Zera hauteman dezakegu orduan, nahiz eta giza ekintzei buruz *hausnartzerakoan* gutxitan sentitzen dugun zehazgabetsun edo indiferentzia hori eta eskuarki gai izaten garen, ostera, ziurtasun dexentez inferitzeko ekintzok euren motiboetatik eta egilearen jauginetatik, hala ere, ekintzak eurak *burutzerakoan*, sarritan gertatzen zaigula halako zerbaiten sentsazioa izatea; eta elkarren antza duten objektuak erraz hartu ohi direlarik bata bestetzat, hauxe erabili izan da giza askatasunaren froga demostratzaile eta froga intuitibo gisa ere. Burutzen ditugun ekintzak gehienetan geure nahimenaren mende daudela sentitu ohi dugu, eta nahimena bera ez dagoela bere aldetik beste ezeren mende iruditzen zaigu, zeren eta nahi hori ukatzean zerbait egiten saiatzera zirikatzten zaigunean, batera zein bestera aise higi daitekeela sentitzen baitugu, berari buruzko halako irudi bat eman ez (edo *Nahikeria*, filosofi eskoletan deitzen dioten bezala) ebatziko ez dituen alderdiekiko ere. Konbentziturik gaude irudi hau, edo higimen aisit hau, zerbait konkretutan gauza zitekeela une hartan, zeren hori ukatuko baligute, bigarren saio bat egitea baino ez baitago gauzatu ahal dela egiaztatzeke. Ez dugu kontutan hartzen askatasunaren erakutsi-nahi nabarmen hauxe dugula orain gure ekintzen motibo. Eta gure baitan halako askatasun sentipena irudi dezakegun arren, gauza ziurra dirudi so egile batek bai inferi ditzakeela nor-

malean gure ekintzok geure motibo eta izaeratik abiatuz; eta ezin duenean ere, bai ahal izango lukeela konkluditzen du orokorki, gure egoera eta temperamentuaren zertzelada bakoitza eta gure izaera eta jauginen iturri sekretuenak ezagun balitu. Eta, gorago azaldutako doktrinaren arabera, hauxe da beharrendun funts-funtsa.

¹⁵ Beraz, *zer edo zer sortzen duen hura* bezala definitzen badugu kausa, erraz hauteman daiteke *sorturen* sinonimoa *kausatu* dela. Era berean, *zer edo zer existiarazten duena* bezala definitzen bada kausa, objektio berekin egiten da topo. Zeren eta zer esan nahi da *existiarazten duena* esatean? Kausa, beraren ondoren *zer edo zer konstanteki existitzen den hura* dela esan balitz, orduan bai ulertuko genituzkeela terminoak. Horixe baita, izan ere, gaiari buruz dakigun guztia. Konstantzia honetan datzalarik beharrendun funts-funtsa, eta beste ideiarik ez daukagularik hartaz.

¹⁶ Gertakariei eta kausei buruzko arrazonomendu denak ohituratik baino eratoritzen ez direnez, zergatik ote den galde daiteke gizakiek hain neurri handian gaintitzea animaliak arrazoiketa kontuan, eta hain alde handia ateratzea gizakume batak besteari. Ez al du, bada, ohitura berak eragin berbera guztiengan?

Giza adimenen arteko ezberdintasun handiak azaltzen saiatuko gara hemen laburki, hortik uler daitekeelarik errazago animalien eta gizakien artean dagoen ezberdintasunaren arrazoa.

1. Aldikada batez bizi eta naturaren uniformetasunera ohitu garenean, ekandu orokor batera egiten gara, ezagun duguna ezezagunera transferituz beti, eta azken honek lehenengoaren antza duela irudituz. Ohiturazko printzipio orokor honi esker, esperimendu bakar bati ere aski deritzogu arrazonomenduaren oinarriako, eta antzeko gertaera bat espero dugu halako ziurtasun-maila batez, esperimendu hori doitasunez eta edozein zirkunstantzia arrotzetik aske gertatu denean. Guztiz garrantzikoztat jotzen da, beraz, gauzen ondorioak hautematea, eta gizakume batek hain alde handia atera diezaiokelarik besteari aditasunean memorian eta oharpenean, ezberdintasun oso handia ekar dezake honek euren arrazoiketant.

2. Kausen konplexutasun bat ematen denean efektoren bat sorrarazterakoan, adimen bata askoz zabalagoa izan daiteke bestearen aldean, eta askoz trebeagoa objektuen sistema osoa hautematen nahiz euren ondorioak egokiro inferitzen.

3. Gizakume batek beste batek baino harago luza lezake ondorio-kate bat.

4. Gizakume gutxi batzuk baino ez dira aldiune luzez pentsatzeko gai direnak ideien nahaspilean erori gabe eta ideia batzuk besteekin nahasi gabe, ahultasun honetan maila bat baino gehiago ematen delarik.

5. Efektua bere menpean duen zirkunstantzia ere, arrotz eta kanpotiko diren beste zirkunstantzia batzuen barnean sarturik egoten da maiz. Adi-

tasun, zehaztasun eta xotiltasun handia behar da sarritan hura bereizteko.

6. Oso eragiketa delikatua da printzipio orokorrak eratzea behaketa partikularretatik abiatuz, eta maiz baino maizago gertatzen da, presagatik edo adimenduaren hertsikeriaz alderdi guztiak ez begiratzeagatik, puntu honetan aldrebeskeriak egitea.

7. Analogien bidez arrazonatzera koan, esperientzia handiena duena edo analogiak iradokitzeaz azkartasun gehien duen hura izango da arrazonatzaile onena.

8. Eragin gehiago dute adimen batean bestean baino aurriritzi, hezkuntza, grina, alderdi eta abarren menpe dauden alde zurretiko jarrerak.

9. Giza testigantzan konfidantza lortzera iritsi ondoren, liburuak eta solasaldiak askoz zabalago bilaka dezakete gizakume baten esperientzi eta gogamen barrutia beste batenaren aldean.

Erraza litzateke gizakumeen adimenen arteko ezberdintasuna eragiten duten beste zirkuntantzia asko aurkitzea.

¹⁷ Plutarko. *Vita Catoni*.

¹⁸ Ezein indiarrek ere ez zezakeen izan, noski, klima hotzetan ura izozten ez den esperientziarik. Jarri beraz natura guztiz ezezagun zaion egoera batean eta ezinezko izango zaio *a priori* hartatik zer ondorioztatuko den esatea. Betiere bada-ezpadako ondorioa duen esperimentu berri bat egitea litzateke. Batzuetan analogiaz antzeman dezakezu zer segituko den,

baina aierua besterik ez duzu oraindik. Eta izoztearen kasu honetan aitortu behar da gainera analogiaren arauen kontrara datorrela gertaera, indiar arrazoimendun batek espero ez lezakeenaren arabera. Hotzaren eragiketarik urarekiko ez dira mailazkoak hotzaren gradu-mailen arabera, baizik izozte puntura iristean bapatean pasatzen da ura isurtasun garbitik gogortasun osoenera. Halako gertaera bati, beraz, *ezohizkoa* dei diezaioke eta testigantza nahiko tinkoa beharko du klima beroko jendearentzat sinisgarri bilaka dadin; baina hala ere ez da *mirakulutsua* ezta naturaren abio uniformearen aurkakoa, zirkuntantzia guztiak berdinak diren kasuetan. Sumatrako biztanleek ura beti ikusi dute isurkor euren kliman, hortaz miraritzat hartu behar haien ibaien izoztea; baina sekula ere ez zuten ikusi ura Moskun neguan, eta beraz ezin jakin seguru zein ondorio gerta zitekeen han.

¹⁹ Batzuetan gertaera batek *berez* ez dela naturaren arauen aurkakoa *eman* lezake, eta hala ere, benetakoa balitz, mirakulua deitu beharko litzaioke, badelako *izatez* arauon aurkakoa zirkuntantzia zenbaiten kariaz. Norbaitek esaterako, jainkozko aginpidea erreklamatu, eri bati sendatzea aginduko balio, gizon osasuntsu bati hilda erortzea, hodeiei ura isur dezaten, haizeei jo dezatela, hitz batez, gertaera natural asko aginduko balitu, bere aginduari berehala jarraituko lioketena, hauek bai mirakulutzat jo litezkeela arrazoiz, ezen kasu honetan naturaren arauen aurkakoak baitira

benetan ere. Susmoren bat geratuko balitz, hala ere, gertaera eta agindua kasualki etorri ote diren batera, ez dago mirakulurik ezta naturaren arauen hausketarik ere. Susmo hori bazterreraz gero, mirakulu bat dago, argi eta garbi, eta arauon hausketa bat; ez baitaiteke ezer naturaren kontrakoago halako eragina izan dezakeen gizakumē baten ahotsa edo agindua baino. Honela defini daiteke zehazki mirakulua, *naturaren arau baten hausketa Jainkoaren nahizate partikular batek edo eragile ikustezin baten tartekatzeak eragina*. Gizakien aldetik mirakulua eridengarri izan daiteke ala ez. Honek ez du aldatzen haren izaera edo esentzia. Etxe bat edo itsasuntzi bat airera jasoa izatea mirakulu ikusgarria duzu. Luma bat aireratzea, haizeak horren indar gutxi behar izanik ere horretarako, benetako mirakulua duzu, nahiz eta guretzat hain sentigarria ez den.

²⁰ *Hist.*, IV.lib., 8.kap. Suetoniok ere ia bertsio bera ematen du *in vita Vesp*.

²¹ Lukret.

²² *Nov. Org.*, II.lib., 29 aph.

²³ Luciani


²⁴ Luciani eta Dio.

²⁵ Luciani

²⁶ Orokorki printzipio gisa jar daitekeena, nire ustez, zera da: kausa bat bere efektu partikularrengatik bakarrik zaigunean ezagun, ezinezko zai-gula beste efektu berri batzuk hartatik inferitza, zeren eta lehengoekin batera efektu berri hauek sorrarazte-

ko behar diren kualitateek ezberdinak beharko dute izan, edo eragiketa zabalagodunak, kausa ezagutzera omen damaigun efektu hau soilki sorrarazi besterik egiten ez dutenenak baino. Ezin dugu egundo ere, beraz, kalitate hauen existentzia suposatzeaz arrazoirik ukan. Efektu berriok dagoeneko lehen efektuetatik ezagun dugun energia beraren luzapenetik baino ez datozela esateak ez du konponduko zailtasuna. Ezen hauxe dela kasua onartuta ere (inoiz gutxitan suposa daitekeena), halako energia baten luzapen eta eragintza bera ere (ezinezko baita berdin-berdina izatea), halako energiaren eragintza, diot nik, espazio-denboren aldiune ezberdin batean, suposizio oso arbitrarioa baino ez da, eragintza horren aztarnarik ere ezin aurki dezakegularik kausaren gure jatorrizko ezagutza guztia damaiguten efektu haietan. Efektu ezagunaren proportziozkoa doi-doi izatekotan kausa *inferitua* (eta hala beharko luke izan), ezinezkoa du beste gainerako kualitaterik edukitzea, hortik efektu berriak edo ezberdinak *inferitu* ahal ditzagun.

²⁷ Argudio hau Berkeley Doktorearengandik jasoa da, eta autore txit zorrotz horren idazlan gehienak, egia esan, bai aintzinako filosofoetan eta modernoetan, Bayle barne, aurki genitzakeen eszeptizismo ikasgairik onenak ditugu. Hala ere, bere liburuaren azalean dio (eta arrazoi guztiz dudarik gabe) eszeptikoen aurka idatzia duela, atoean eta librepentsalarien aurka bezala. Baina bere argudio guztiak eszeptikoak eta hori bakarrik



direla egiatan, bestelako asmorik izan badu ere, adierazten duena honetan datza: *erantzunik ez dutela ametitzen ezta konbentzimendurik sortzen*. Euren efektu bakarra halako une bateko harridura, erabakiezina eta anabasa sortzea da, eszeptizismoaren ondorio direnak.

²⁸ Dena delakoak direla matematika-puntuei buruzko eztabaidak, puntu fisikoak direla onartu baharra dago. Hots, ez begiz ez irudimenez gutxi edo zatika daitezkeen hedadura zatiak. Irudipenari edo zentzuei aurkeztu zaizkien imajina hauek, bada, guztiz zatiezina dira, eta hedaduraren edozein benetako zati baino infinituki txikiagoak direla onartu beharrean aurkitzen dira matematikariak, ezer ziurragorik ez dirudienean, ostera, arrazoiarentzat, haien kopuru infinituak hedadura infinitua osatzea baino. Eta hainbat gehiago, oraindik infinituki zatigarri direla suposatzen diren hedadura-zati infinituki txikien kopuru infinitu bat!

²⁹ Ez dut uste ezinezko denik absurdu eta kontraesan hauei ekiditea, baldin eta onartuko balitz ez dela, propioki hitz eginez, horrelako ideia orokor edo abstrakturik, baizik ideia orokor guztiak partikularrak direla izatez, batzuetan gogoan daukagun ideiarene antza, zenbait xehetasunetan, duten beste ideia partikular batzuk gogorazten dizkigun termino orokor bati lotuak. Horrela, «zaldia»

hitza ahoskatzerakoan, berehala iruditzen zaigu animalia zuri edo beltz baten ideia, tamainu eta itxura jakin bat duena; baina hitz hau baita erabili ohi denez maiz beste kolore, itxura eta tamainudun animaliei aplikaturik, erraz-erraz dugu ideioi gogora ekartzea, nahiz eta irudimenean orain bertan presente egon ez; presente baleude bezala jokatzeko duelako gure arazoiketak eta ondorioztapenak. Hau onartzeko gero, arazoizkoa dirudien bezala, zera ondorioztatzen da, partikularrak baino ez direla matematikarien arrazonaketan diren kantitateari buruzko ideia guztiak, eta halako bezala direla aditzera emanak zentzuen eta irudimenearen aldetik, ezin daitezkeelarik, ondorioz, infinituraino zatigarri izan. Aski bedi momentuz oharra bere honetan uztea, gehiago garatzen ibili gabe. Zientziazale guztiei dagokiena da, dena dela, euren ondorioak direla eta, ezjakinaren irri eta destainatik gordetzea; eta hauxe dela dirudi gainera zailtasunon konponbiderik errazena.

³⁰ Filosofia zaharraren hurrengo printzipio erlijjiogabe hau, *ex nihilo, nihil fit*, materiaren kreaioa eskluditzen duena, ez litzateke jadanik printzipio izanen filosofia honen arabera. Ez bailitzateke Izaki Gorenaren nahimena bakarrik materia sor lezakeena, zeren, guk *a priori* dakigunetik, beste edozein izakiren nahimena, edota irudimen keriatuenak antzeman ahal duen beste edozein kausak ere sor bailezake.

Aurkibidea



HITZAURREA.....	7
BIBLIOGRAFIA	33
I. ATALA. FILOSOFI MOTA EZBERDINEZ	37
II. ATALA. IDEIEN JATORRIAZ.....	49
III. ATALA. IDEIEN ASOZIAZIOAZ.....	55
IV. ATALA. ZALANTZA ESZEPTIKOAK ADIMENAREN ERAGIKETEI BURUZ.....	57
V. ATALA. ZALANTZA HORIEN IRTENBIDE ESZEPTIKOA	71
VI. ATALA. PROBABILITATEAZ.....	85
VII. ATALA. BEHARREZKO KONEXIO-IDEIAZ	89
VIII. ATALA. ASKATASUNAZ ETA BEHARRAZ.....	107
IX. ATALA. ANIMALIEN ARRAZOIMENAZ.....	131
X. ATALA. MIRAKULUEZ	135
XI. ATALA. PROBIDENTZIAZ ETA GEROKO BIZITZAZ	157
XII. ATALA. FILOSOFIA AKADEMIKOAZ EDO ESZEPTIKOAZ.....	175
OHARRAK	193